

Katalogazio arauak

Katalogazio arauak



Katalogazio arauak

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2008

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>

ARGITARALDIA:	1.a, 2008ko apirila
ALE-KOPURUA:	500 ale
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
INTERNET:	www.euskadi.net
ARGITARATZAILEA:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
LAN-TALDEA:	Emiliano Bartolomé Domínguez (Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusia) Itziar Folla Hernando (Bilboko Udala) Pruden Gartzia Isasti (Azkue Biblioteka) Roberto Kerexeta Zulaika (Kultura Saila) Jaione Landaberea Taberna (Eresbil) Gerardo Luzuriaga Sánchez (Nekazaritza eta Arrantza Saila) Arantza Urkia Etxabe (Donostiako Udala)
ITZULPENA:	Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala (IVAP)
HONEN ITZULPENA:	<i>Reglas de catalogación</i> , Ministerio de Cultura, Dirección General del Libro, Archivos y Bibliotecas, Madrid, 1999
DISEINUA:	Canaldirecto • www.canal-directo.com
FOTOKONPOSAKETA ETA INPRIMATZEA:	RGM, S.A.
ISBN:	978-84-457-2703-4
LEGE-GORDAILUA:	BI-1320-08

Aurkezpena

Katalogatzeko arauen euskarazko itzulpen eta egokitzapen lan honekin euskal liburutegietako profesional eta erabiltzaileen aspaldiko eskabide bati erantzun nahi izan diogu; izan ere aspaldikoa da liburutegien alorrean euskarazko baliabideen gabezia eta, batez ere, dokumentuak euskaraz katalogatzeko nazioarteko arauena, eta ondorioz, hortik datoz, besteak beste, katalogo bibliografikoak euskaraz kotsultatzeko zailtasunak.

Liburutegi politika diseinatzea eta bideratzea erakunde publikoen eginbeharra dela kontuan izanik, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren egitekoen artean liburutegien alorrean euskararen erabilera normalizatzeko zer egin behar den ikertzea eta zehaztea ere badago. Ildo horretan, 2002ko udaberrian Kultura Sailak bilera bat egin zuen Euskal Autonomia Erkidegoko liburutegi arloko erakunde, elkarte eta liburutegi esanguratsuenetako eta IVAPeko arduradunekin. Bileraren gai nagusia euskarazko katalogazio arauak lantzeko lantalde bat sortzea izan zen; hortaz, esku artean duzun liburua proiektu horren emaitza duzu eta, azken urteotan, euskararen normalizazio prozesuan Liburutegi Zerbitzuak emandako urrats zabala goen segida: autoritate eta gai-sarreraren katalogo elebiduna, katalogazio elebiduna...

Esan beharrik ez dago, informazioaren eta komunikazioaren aro honetan, katalogazio arauak garrantzi handia dutela informazioa bilatu eta berreskuratzeko orduan. Funtsezko tresna bilakatu dira katalogo bibliografikoen normalizazioa lortzeko eta prozesu teknikoaren kudeaketarako. Halere, ezin dugu ahaztu, liburutegi esparruan eta, oro har, informazioaren eta komunikazioaren teknologietan, aldaketak ziztu bizian gertatzen ari direla eta ezinbestean nazioarteko arauak eguneratzen eta berriak itzultzen joan beharko dela. Espero dut argitalpen honek jarraipena izatea eta *Bibliotekonomia* bilduman laster lan berriak argitaratzea.

Azkenik, nire esker ona azaldu nahi diet lantaldeko kideei eta IVAPeko itzultzaile eta terminologoei egindako lanagatik; eta aldi berean euskal dokumentazio-zentro eta liburutegietako profesionalak bibliografia-funtsak euskaraz katalogatzera animatu nahi ditut. Ziur naiz eguneroko lanean lagungarri izango zaiola euskaraz lan egin nahi duten guztiontzat.

Miren Azkarate

KULTURA SAILBURUA

Sarrera

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak 2002ko maiatzaren 21ean bilera baterako deia luzatu zien Euskal Autonomia Erkidegoko liburutegi esanguratsuenei eta liburutegi arloko erakundeei, elkarteei eta baita IVAPeko arduradunei ere. Bileraren xedea euskarazko katalogazio arauak lantzeko lantalde bat sortzea zen. Bildutako kideek argi zuten euskaraz katalogatu ahal izateko, lehenik eta behin, euskarazko baliabideak (autoritate eta gai sarrera elebidunak, katalogo kolektiboak etab.) eta arauak edukitzea ezinbestekoa zela; hortaz, premiazkotzat jo zen lantresnok ahalik eta azkarren sortzea edota euskaratzea. Hala ere, zein arau euskaratu behar zen erabakitzeko unean desadostasunak sortu ziren, batzuk, ingelesezko AACR (Anglo-American Cataloguing Rules) arauak itzultzearen aldekoak ziren; beste batzuk, aldiz, Espainiako Kultura Ministerioaren *Reglas de Catalogación* liburua itzultzearen alde zeuden. Eztabaida luzearen ondoren, *Reglas de Catalogación* argitalpenaren 1999ko edizioaren euskarazko itzulpena egitea erabaki zen.

Horrela bada, Kultura Sailaren koordinaziopean honako hauek kide izan dituen lantalde bat sortu zen: Pruden Gartzia (Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka), Itziar Folla (Bilboko Udal Liburutegia), Arantza Urkia (Donostiako Udal Liburutegia), Emiliano Bartolomé (Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Nagusia), Roberto Kerexeta (Kultura Saileko Liburutegi Zerbitzua eta lantaldearen koordinatzailea), Cristina Ruiz (euskarazko adibideak bilatzeko Kultura Sailak kontratatutako liburuzaina), Jaione Aramendi eta Mertxe Olaizola (IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala). 2003. urtean Gerardo Luzuriaga (Arrantza eta Nekazaritza Sailaren Liburutegia) gehitu zen lantaldera, eta 2004an Eresbileko Jaione Landaberea, musikarekin zerikusia zuten kapituluak jorrazteko. Halaber, Cristina Ruizek 2003an bere lana utzi zuen eta Liburutegi Zerbitzuak hartu zuen bere gain adibideak topatzeko lana.

Lehendabizi, lan-metodologia, kronograma eta helburuak zehaztu ziren eta 2002ko azaroaren 5ean lantaldearen lehen bilera egin zen. Laburbilduz, lan-metodologia hauxe izan zen: IVAPeko itzultzaileak kapituluetakako testuak eta adibideetako oharrak itzultzeaz arduratu dira; Cristina euskarazko adibideak topatzeaz eta dagokion pasarteetan txertatzeaz arduratu da; eta ondoren Liburutegi Zerbitzua arduratu da dagokion kapitulu taldeko kideen artean posta elektronikoz banatzeaz. Taldeko kideek behin testua eta adibideak gainbegiratuta, egoki iritzitako oharrak egin dituzte eta Liburutegi Zerbitzura bueltatu. Azkenik, ohar guztiak dokumentu baten jaso eta lantaldeko kideei bidali zaizkie eta bilera egunean oharrak komentatu eta adostutako testua onartu da.

Gure asmoa euskaraz katalogatzeak sortzen dituen arazoak konpontzea izan da. Hori dela eta, hasieratik, argi ikusi genuen Espainiako arauen itzulpen soila eginez gero, gure helburua ez zela beteko, hots, itzulpen hutsa hanka-motz geratzen zela, eta zenbait kasutan (batez ere, euskal deituren grafiari buruzko sarreretan) euskararen beharretara egokitzea ezinbestekoa zela. Hortaz, hainbat eztabaida eta buruhausteren ondoren, euskaraz katalogatzeko egoki iruditu zaizkigun pasarteak (ikus oin-oharrak dagozkion kapituluetan) gehitu ditugu: lehendabiziko kapituluan —deskribapen bibliografiko orokorra—, 1.1.5E, 1.1.5F eta 1.2.5E atalak; 12. kapituluan —argitalpen seriatuen deskribapena—, 12.0 eta 12.3.3F atalak; 15. kapituluan —sarreraren forma—, 15.1.1A, 15.1.1Be) eta 15.1.1Bf) atalak; eta 16. kapituluan —izenburu hautatua—, 16.5.2 atala. Halaber, 1.0.5 pasarte (letra larrien erabilera) osatu dugu. Pasarte hauek aldatzea lehendabiziko urratsa baino ez da izan, eta etorkizunean euskararen beharretara egokitzen jarraitzea beharrezkotzat jotzen dugu. Halaber, Espainiako katalogazio arauetan, zentro katalogatzailearen hizkuntza (gaztelania) erabili behar zen tokietan, gure zentro katalogatzailearen hizkuntza (euskara) erabili da.

Bestalde, edozein unetan arauok zaharkituak gera daitezkeela jakitun izan arren, eta denboran zehar lana guk nahi baino askoz gehiago luzatu den arren, egindako lan eta ahaleginak merezi izan duela uste dugu, batez ere, terminologian, deskribapen fisiko eta oharren eremuetan euskaraz katalogatzeko zegoen hutsunea bete delako hein batean.

Ezin dugu aipatu barik utzi, bai adibideak eta oharrak bilatzeko eta baita terminologiako lanetarako ere, oso baliagarri eta probetxugarri izan zaizkigun ondoko lan hauek: batetik, Azkue Bibliotekaren katalogo bibliografikoa eta katalogazio erregelak; bestetik, Joana Albret Bibliotekonomia Mintegiak argitaratutako *Katalogatzeko oinarrizko terminologia* liburua eta aipatu mintegiko Terminologia Bartzordeak egindako lana; eta azkenik, Kultura Sailaren autoritate eta gai-sarreraren katalogo elebiduna. Izan ere, aipatu erakundeen lana, batez ere dokumentu monografikoak eta argitalpen seriatuak katalogatzera eta deskribatzera mugatzen den arren, terminologia eta deskribapen fisikoaren eta oharren eremuko hizkera kapitulu horietarako baliagarria izan zaigu. Halaber, gainerako dokumentuak deskribatzeak ahalegin handia eskatu digu terminologia, hiztegi eta sintaxiaren aldetik, euskarazko erreferentziak oso urriak direlako.

Kapituluetakoa adibideei dagokienez, ahal izan den neurrian, euskarazko adibide errealak jasotzen eta adibideok dokumentuekin egiaztatzen saiatu gara. Euskarazko adibideak jartzea ezinezkoa izan denean, katalogoetan ez daudelako edota ezin izan ditugulako topatu, gaztelaniazko arauetan zeudenak utzi ditugu. Bestalde, deskribapen fisikoaren eta oharren eremuetako adibideei dagokienez, oro har, gaztelaniazkoak itzuli ditugu. Kontuan izan behar da, hainbat dokumentu-moten (mikroformak, material grafikoa, material kartografikoa etab.) erregistro bibliografikorik ia ez dagoela euskal katalogoetan eta dauden bakanak erdaraz katalogatuta daudela; hortaz, sistematikoki, gaztelaniazko arauetakoak itzuli dira. Izenburuak eta erantzukizunaren aipua transkribatzerakoan sarritan zalantzak izan ditugu letra xeheak eta larriak erabiltzeko orduan. Oro har, laburtutako terminoak ez dira deklinatu.

Eranskinei dagokienez, II. eranskinean gaztelaniazko klasiko anonimoen izenburu hautatuak itzuli dira, oraindik egile klasiko anonimoen izenburu hautatuen euskarazko zerrendarik ez dagoelako argitaratuta. Espero izatekoa da Euskaltzaindiak euskarazko klasiko anonimoetarako erabili beharreko izenburu hautatuen zerrenda burutzen duenean, zerrenda hori erabiliko dela katalogatzeko orduan. VII. eranskina ez itzultzea erabaki da, euskaraz katalogatzeko ez delako baliagarria. VIII. eranskinean —erregistro bibliografikoetan sarrien erabiltzen diren laburduren zerrenda—, gaztelaniazko hainbat laburdura ez dira itzuli euskaraz ez direlako erabiltzen; eta aitzitik, euskarazko bertsioan hainbat ter-

mino jaso ditugu gaztelaniazkoan ez direnak agertzen. IX. eranskinean —glosarioa— Eresbileko teknikarien gomendioei jarraiki, musika arloko ondoko terminoak gehitu dira: harmonizazio, orkestrazio, transkripzio, transposizio, bakarkako parte, tablatura, koru-liburu, gidadun parte, particella, sasipartitura eta spartitino. Kutxa, karpeta eta atal terminoen definizioak ere gehitu dira.

Bukatzeko, IVAPeko itzultzaile eta terminologoei egindako ahalegina eta lan bikaina eskertu nahi genieke. Halaber, euskal liburuzainak bibliografia-funtsak euskaraz katalogatzera animatu nahi genituzke, gero eta aitzakia gutxiago baitago dokumentu-mota desberdinak euskaraz ez katalogatzeko. Baita ere, hasitako lanak etenik izan ez dezan, euskaraz lan egiteko liburuzainok beharrezkoak ditugun baliabideak sortzera eta nazioarteko arauak euskaratzera bultzatu nahi genituzke euskal erakundeetako arduradunak; hori eta askoz gehiago merezi baitute liburutegi eta katalogoen erabiltzaile euskaldunek.

Gasteiz, 2008ko apirila
Lantaldea

Aurkibidea

Aurkezpena	V
Sarrera	VI
1. kapitulua. Deskribapen bibliografiko orokorra	1
1.0 Arau orokorrak	3
1.0.0 Deskribapenaren antolaketa	3
1.0.1 Informazio-iturriak	3
1.0.2 Puntuazioa	4
1.0.3 Deskribapenaren hizkuntza eta idazkera-mota	5
1.0.4 Laburtzapena eta laburdurak	6
1.0.5 Letra larrien erabilera	6
1.0.6 Azentuak eta bestelako zeinu diakritikoak	6
1.0.7 Akatsak	6
1.0.8 Informazio-iturri nagusia zehaztea, iturri nagusi bat baino gehiago dituzten dokumentuetan	7
1.0.9 Deskribapenaren xehetasun-mailak	8
1.1 Izenburuaren eta erantzukizunaren aipuaren eremua	9
1.1.1 Iturriak	9
1.1.2 Agindutako puntuazioa	9
1.1.3 Izenburu nagusia	10
1.1.4 Dokumentu-motaren izendapen orokorra	14
1.1.5 Pareko izenburuak	15
1.1.6 Azpiizenburua edota izenburuari buruzko informazio osagarria ..	16
1.1.7 Erantzukizunaren aipua	20
1.2 Edizioaren eremua	28
1.2.1 Iturriak	28
1.2.2 Agindutako puntuazioa	28
1.2.3 Edizioaren aipua	29
1.2.4 Pareko edizioaren aipua	31
1.2.5 Edizioari dagozkion erantzukizunen aipuak	31
1.2.6 Edizioaren beste aipua	33

1.2.7	Edizioaren beste aipuari dagozkion erantzukizunen aipuak	33
1.2.8	Izenburu orokorrik gabeko lanen bildumak	33
1.2.9	Liburuki edo unitate fisiko bat baino gehiago duten lanak, zenbait ediziotan emanak	34
1.3	Dokumentu-motaren datu espezifikoaren eremua	34
1.4	Argitalpenaren, banaketaren eta abarren eremua	34
1.4.1	Iturriak	34
1.4.2	Agindutako puntuazioa	35
1.4.3	Argitaralekua	35
1.4.4	Argitaratzailearen izena	37
1.4.5	Banatzaile-funtzioaren aipua	40
1.4.6	Argitalpen-data	40
1.4.7	Fabrikazio-lekua, fabrikatzailearen izena eta fabrikazio-data	42
1.5	Deskribapen fisikoaren eremua	43
1.5.1	Iturriak	43
1.5.2	Agindutako puntuazioa	43
1.5.3	Materialaren tamaina eta izendapen espezifikoa	43
1.5.4	Bestelako ezaugarri fisikoen aipua	45
1.5.5	Neurriak	45
1.5.6	Material gehigarria	45
1.6	Seriearen eremua	46
1.6.1	Iturriak	47
1.6.2	Agindutako puntuazioa	47
1.6.3	Seriearen izenburua	48
1.6.4	Seriearen pareko izenburuak	49
1.6.5	Seriearen azpiizenburua edota izenburuari buruzko informazio osagarria	49
1.6.6	Serieari dagozkion erantzukizunen aipuak	49
1.6.7	ISSNa (Argitalpen seriatuen nazioarteko zenbaki normalizatua) ...	49
1.6.8	Seriearen zenbakia	50
1.6.9	Azpiserieen eta atalen izendapena edota izenburua	50
1.6.10	Azpiserieen eta atalen pareko izenburuak	50
1.6.11	Azpiserieen eta atalen azpiizenburua edota izenburuari buruzko informazio osagarria	50
1.6.12	Azpiserieei eta atalei dagozkien erantzukizunen aipuak	50
1.6.13	Azpiserieen eta atalen ISSNa	51
1.6.14	Azpiserieen eta atalen zenbakia	51
1.6.15	Serie bat baino gehiago	51
1.7	Oharren eremua	51
1.7.1	Iturriak	51
1.7.2	Agindutako puntuazioa	51
1.7.3	Oharren zer-nolakoak	52
1.7.4	Oharren hurrenkera	52
1.8	Zenbaki normalizatuaren eta eskuratze-baldintzen eremua	55
1.8.1	Iturriak	55
1.8.2	Agindutako puntuazioa	55
1.8.3	Zenbaki normalizatua	56
1.8.4	Gako-izenburua	57

1.8.5	Eskuratze-baldintzak eta/edo prezioa	57
1.8.6	ISBN bat baino gehiago	57
1.9	Unitate fisiko bat baino gehiago duten dokumentuak	58
1.9.1	Bi mailako deskribapena	58
1.9.2	Material gehigarria duten dokumentuak	60
1.9.3	Multimedia	60
1.9.4	Bi maila baino gehiagoko deskribapena	61
1.9.5	Erregistro osatugabea	62
2.	kapitulua. Argitalpen monografikoen deskribapena	63
2.0	Arau orokorrak	65
2.1	Izenburuaren eta erantzukizunaren aipuaren eremua	67
2.2	Edizioaren eremua	70
2.3	Dokumentu-motaren datu espezifikoen eremua	72
2.4	Argitalpenaren eta banaketaren eremua	72
2.5	Deskribapen fisikoaren eremua	75
2.6	Seriearen eremua	82
2.7	Oharren eremua	85
2.8	Zenbaki normalizatuaren eta eskuratze-baldintzen eremua	87
2.9	Liburuki bat baino gehiago duten argitalpenak	87
2.10	1801. urtea baino lehenago inprimatutako argitalpenak	88
3.	kapitulua. Eskuizkribuen deskribapena	101
3.0	Arau orokorrak	103
3.1	Izenburuaren eta erantzukizunaren aipuaren eremua	105
3.2	Edizioaren eremua	110
3.3	Dokumentu-motaren datu espezifikoen eremua	110
3.4	Dataren eremua	110
3.5	Deskribapen fisikoaren eremua	111
3.6	Seriearen eremua	113
3.7	Oharren eremua	113
4.	kapitulua. Material kartografikoaren deskribapena	121
4.0	Arau orokorrak	123
4.1	Izenburuaren eta erantzukizunaren aipuaren eremua	125
4.2	Edizioaren eremua	129
4.3	Datu matematikoen eremua	130
4.4	Argitalpenaren, banaketaren eta abarren eremua	134
4.5	Deskribapen fisikoaren eremua	137
4.6	Seriearen eremua	140
4.7	Oharren eremua	143
4.8	Zenbaki normalizatuaren eta eskuratze-baldintzen eremua	146

4.9	Unitate fisiko bat baino gehiago duten mapak	147
5.	kapitulua. Material grafikoaren deskribapena	149
5.0	Arau orokorrak	151
5.1	Izenburuaren eta erantzukizunaren aipuaren eremua	154
5.2	Edizioaren eremua	160
5.3	Dokumentu-motaren datu espezifikoen eremua	161
5.4	Argitalpenaren, banaketaren eta abarren eremua	161
5.5	Deskribapen fisikoaren eremua	165
5.6	Seriearen eremua	172
5.7	Oharren eremua	174
5.8	Zenbaki normalizatuaren eta eskuratze-baldintzen eremua	180
5.9	Unitate fisiko bat baino gehiago duen material grafikoa	181
5.10	Antzinako material grafikoa	181
6.	kapitulua. Proiektatzeko material grafikoaren deskribapena	185
6.0	Arau orokorrak	187
6.1	Izenburuaren eta erantzukizunaren aipuaren eremua	189
6.2	Edizioaren eremua	191
6.3	Dokumentu-motaren datu espezifikoen eremua	193
6.4	Argitalpenaren, banaketaren eta abarren eremua	193
6.5	Deskribapen fisikoaren eremua	194
6.6	Seriearen eremua	198
6.7	Oharren eremua	200
6.8	Zenbaki normalizatuaren eta eskuratze-baldintzen eremua	202
6.9	Unitate fisiko bat baino gehiago duen proiektatzeko material grafikoa	203
7.	kapitulua. Musika inprimatuaren deskribapena	205
7.0	Arau orokorrak	207
7.1	Izenburuaren eta erantzukizunaren aipuaren eremua	209
7.2	Edizioaren eremua	214
7.3	Musika inprimatuaren datu espezifikoen eremua	216
7.4	Argitalpenaren, banaketaren eta abarren eremua	217
7.5	Deskribapen fisikoaren eremua	219
7.6	Seriearen eremua	221
7.7	Oharren eremua	223
7.8	Zenbaki normalizatuaren edo baliokidearen eta eskuratze-baldintzen eremua	226
7.9	Unitate fisiko bat baino gehiago duen musika inprimatua	227

8. kapitulua. Soinu-grabazioen deskribapena	229
8.0 Arau orokorrak	231
8.1 Izenburuaren eta erantzukizunaren aipuaren eremua	233
8.2 Edizioaren eremua	238
8.3 Dokumentu-motaren datu espezifikoen eremua	240
8.4 Argitalpenaren, banaketaren eta abarren eremua	240
8.5 Deskribapen fisikoaren eremua	242
8.6 Seriearen eremua	246
8.7 Oharren eremua	248
8.8 Zenbaki normalizatuaren eta eskuratze-baldintzen eremua	252
8.9 Unitate fisiko bat baino gehiago duten soinu-grabazioak	253
9. kapitulua. Mikroformen deskribapena	255
9.0 Arau orokorrak	257
9.1 Izenburuaren eta erantzukizunaren aipuaren eremua	259
9.2 Edizioaren eremua	261
9.3 Dokumentu-motaren datu espezifikoen eremua	262
9.4 Argitalpenaren, banaketaren eta abarren eremua	262
9.5 Deskribapen fisikoaren eremua	264
9.6 Seriearen eremua	267
9.7 Oharren eremua	270
9.8 Zenbaki normalizatuaren eta eskuratze-baldintzen eremua	272
9.9 Unitate fisiko bat baino gehiago duten mikroformak	273
10. kapitulua. Filmen eta bideo-grabazioen deskribapena	275
10.0 Arau orokorrak	277
10.1 Izenburuaren eta erantzukizunaren aipuaren eremua	279
10.2 Edizioaren eremua	282
10.3 Dokumentu-motaren datu espezifikoen eremua	284
10.4 Argitalpenaren, banaketaren eta abarren eremua	284
10.5 Deskribapen fisikoaren eremua	286
10.6 Seriearen eremua	290
10.7 Oharren eremua	293
10.8 Zenbaki normalizatuaren eta eskuratze-baldintzen eremua	297
10.9 Unitate fisiko bat baino gehiago duten filmak eta bideo-grabazioak	298
11. kapitulua. Ordenagailuko fitxategien deskribapena	299
11.0 Arau orokorrak	301
11.1 Izenburuaren eta erantzukizunaren aipuaren eremua	303
11.2 Edizioaren eremua	306
11.3 Fitxategi-motaren eta fitxategiaren tamainaren eremua	307

11.4	Argitalpenaren, ekoizpenaren, banaketaren eta abarren eremua	309
11.5	Deskribapen fisikoaren eremua	311
11.6	Seriearen eremua	314
11.7	Oharren eremua	316
11.8	Zenbaki normalizatuaren eta eskuratze-baldintzen eremua	321
11.9	Unitate fisiko bat baino gehiago duten ordenagailuko fitxategiak	322
12.	kapitulua. Argitalpen seriatuen deskribapena	323
12.0	Arau orokorrak	325
12.1	Izenburuaren eta erantzukizunaren aipuaren eremua	327
12.2	Edizioaren eremua	332
12.3	Zenbakiaren eremua	334
12.4	Argitalpenaren, banaketaren eta abarren eremua	337
12.5	Deskribapen fisikoaren eremua	339
12.6	Seriearen eremua	341
12.7	Oharren eremua	344
12.8	Zenbaki normalizatuaren eta eskuratze-baldintzen eremua	351
12.9	Bi maila edo gehiagoko deskribapena	352
13.	kapitulua. Katalogazio analitikoa	355
13.1	Katalogazio analitikoa	357
13.2	Lan-zatiak oharretan jasotzea	357
13.3	Egile-izenburuen bigarren mailako sarrera	357
13.4	Erregistro analitikoa, adiera hertsian	358
14.	kapitulua. Sarrerak aukeratzea	361
14.0	Aurre-arauak	363
14.0.1	Aplikazio-eremua	363
14.0.2	Informazio-iturriak	363
14.0.3	Unitate bibliografikoa	363
14.0.4	Metodologia	364
14.1	Sarrera-motak	364
14.1.1	Norbanako egilearen sarrera	364
14.1.2	Egile korporatiboaren sarrera	364
14.1.3	Izenburuaren sarrera	365
14.2	Egilea ezaguna denerako arauak	366
14.2.1	Egile bakarra	366
14.2.2	Egile bat baino gehiago direnean	367
14.2.2A	Lankidetzan egindako lanak	367
14.2.2B	Lehendabiziko agerpenaz geroztik aldatu egin diren lanak	372
14.2.2C	Erlazionatutako lanak	375
14.2.2D	Bildumak	376
14.2.2E	Oroitzapenezko eta omenezko argitalpenak	378


14.3	Egilearen benetako izena azaltzen ez duten lanak	379
14.3.1	Okerreko edo gezurrezko pertsona edo korporazio bati egotzitako lanak	379
14.3.2	Egilea hitz edo esaldi batez edota beste lan baten izenburuaren bidez agertarazten duten lanak	379
14.4	Egile ezezagunen, zalantzarazko egileen edota izen generikoa duten taldeen lanak	380
14.5	Kasu bereziak	380
14.5.1	Hainbat motatako argitalpen juridikoak	380
14.5.2	Nazioarteko tratatuak, hitzarmenak eta abar	384
14.5.3	Auzitegien epaiak, prozesu judizialak eta abar	388
14.5.4	Lan-hitzarmenak	391
14.5.5	Liburu santuak	391
14.5.6	Liturgia-liburuak	392
14.5.7	Dohatsu aitortzeko eta kanonizatzeko prozesuak	393
14.5.8	Kontzilioak eta sinodoak	393
14.5.9	Biltzarrak, batzarrak eta abar	394
14.5.10	Erakusketak, azokak eta abar	395
14.6	Material bereziak katalogatzeko sarrerak aukeratzea	396
14.6.1	Eskuizkribuak	396
14.6.2	Material kartografikoa	397
14.6.3	Material grafikoa	398
14.6.4	Proiektatzeko material grafikoa	401
14.6.5	Musika inprimatua	401
14.6.6	Soinu-grabazioak	407
14.6.7	Mikroformak	411
14.6.8	Filmak eta bideo-grabazioak	411
14.6.9	Ordenagailuko fitxategiak	412
14.6.10	Argitalpen seriatuak	412
14.7	Bigarren sarrerak	413
15.	kapitulua. Sarreren forma	415
15.1	Pertsona-sarrerak	417
15.1.1	Izena aukeratzea	417
15.1.1A	Arau orokorra	417
15.1.1B	Zenbait izenen artean edota izen beraren zenbait aldaeraren artean aukeratzea	418
15.1.2	Hasierako elementua	424
15.1.2A	Arau orokorra	424
15.1.2B	Hasierako elementua zehaztea	424
15.2	Korporazio-sarrerak	440
15.2.1	Arau orokorrak	440
15.2.1A	Izenaren forma	440
15.2.1B	Leku-izenak gehitzea	441
15.2.1C	Jurisdikzio-eremuen izenen forma	443
15.2.1D	Hizkuntza	443
15.2.1E	Idazkera	444
15.2.1F	Izen-aldaerak	444

15.2.2	Administrazioko, legegintzako eta abarretako erakunde ofizialak	445
15.2.2A	Administrazio publikoko erakundeak	445
15.2.2B	Organo legegileak	446
15.2.2C	Batzar konstituziogileak	446
15.2.2D	Karguen izenen sarrerak	447
15.2.3	Menpeko korporazioak eta erlazionatutakoak	447
15.2.3A	Menpeko korporazioak	447
15.2.3B	Erlazionatutako korporazioak	449
15.2.3C	Batzorde mistoak, komisio mistoak, batzar mistoak eta abar	449
15.2.4	Arau bereziak	449
15.2.4A	Nazioarteko organismoak	449
15.2.4B	Biltzarrak, konferentziak, batzarrak eta abar	450
15.2.4C	Erljio-korporazioak	451
15.3	Izenburua sarrera denean	454
15.3.1	Izenburu nagusia	454
15.3.2	Izenburu hautatuaren sarrera	455
15.4	Material jakin batzuen sarreren formari buruzko arau bereziak	455
15.4.1	Eskuizkribuak	455
15.4.2	Material kartografikoa	455
15.4.3	Material grafikoa	456
16.	kapitulua. Izenburu hautatua	459
16.1	Izenburu hautatu nagusia	461
16.1.1	Banakako lanak	461
16.1.2	Erreferentziak	462
16.1.3	Latinarenaz bestelako alfabetoan idatzitako lan anonimoak	463
16.1.4	XVI. mendea baino lehenagoko grekozko lanak	463
16.1.5	Aldi berean hizkuntza batean baino gehiagotan argitaratutako lanak	463
16.1.6	Hizkuntza adieraztea	464
16.1.7	Lan-zatiak	465
16.1.8	Batera argitaratutako bi lan	466
16.2	Izenburu hautatu orokor izunak	466
16.2.1	Idazlan guztiak	466
16.2.2	Idazlan hautatuak	467
16.2.3	Literatura-generoa	467
16.2.4	Itzulpenak	467
16.2.5	Antologiak	467
16.3	Izenburu hautatu bat baino gehiago	468
16.4	Eskuizkribuak	468
16.5	Legeak	469
16.5.1	Lege modernoak	469
16.5.2	Antzinako legeak	470
16.6	Nazioarteko tratatuak eta abar	471
16.7	Liburu santuak	473

16.8	Liturgia-liburuak	474
16.8.1	Eliza Katolikoaren liturgia-liburuak	474
16.8.2	Liturgia-testuen izenburu hautatuak	475
16.8.3	Beste eliza edo sineste batzuen liturgia-liburuak	476
16.9	Musika	476
16.9.1	Izenburua aukeratzea	476
16.9.2	Izenburuaren idazkera	476
16.9.3	Lanen zatiak	486
16.9.4	Batera argitaratutako bi lan	488
16.9.5	Izenburu hautatu orokorrak	488
16.9.6	Izenburu hautatuan jaso daitezkeen beste elementu batzuk	490
17.	kapitulua. Erreferentziak	493
17.1	Bideratzeko erreferentziak	495
17.1.1	Pertsona-izenak	495
17.1.2	Korporazio-izenak eta leku-izenak	496
17.1.3	Izenburu hautatuaren erreferentziak	497
17.2	Erlaziozko erreferentziak	498
17.2.1	Pertsona-izenak	498
17.2.2	Korporazio-izenak	499
17.2.3	Izenburu hautatuak	499
17.3	Azalpenezko erreferentziak	499
I.	Eranskina. Bibliaren edizioetarako izenburu hautatuak	501
II.	Eranskina. Gaztelaniazko klasiko anonimoak	511
III.	Eranskina. Greziar egile klasiko ezagunenak	519
IV.	Eranskina. Latindar egile klasiko ezagunenak	525
V.	Eranskina. Erlijio-ordena eta -kongregazio ezagunen euskarazko izenak	535
VI.	Eranskina. Erlijio-ordena eta -kongregazio ezagunen siglak	543
VII.	Eranskina. Transliterazioen taula	549
VIII.	Eranskina.	
	Erregistro bibliografikoetan sarri erabiltzen diren laburduren zerrenda ..	553
1.	Euskaraz	555
2.	Beste hizkuntza batzuetan	561
3.	Hilabeteen izenen laburdurak	575
IX.	Eranskina. Glosarioa	577
	Aurkibide analitikoa	615

1. kapitulua

Deskribapen bibliografiko orokorra



1.0 ARAU OROKORRAK

Kapitulu honetan biltzen diren arauak honako dokumentu hauek deskribatzeko dira baliagarri: monografiak, eskuizkribuak, material kartografikoa, material grafikoa, musika inprimatua, soinu-grabazioak, mikroformak, filmak, bideo-grabazioak, ordenagailuko fitxategiak eta argitalpen seriatuak.

1.0.0 DESKRIBAPENAREN ANTOLAKETA

Deskribapenean honako eremu hauek bereiziko dira:

1. Izenburua eta erantzukizunaren aipua
2. Edizioa
3. Dokumentu-motaren datu espezifikoak
4. Argitalpena, banaketa eta abar
5. Deskribapen fisikoa
6. Seriea
7. Oharrak
8. Zenbaki normalizatua eta eskuratzeko baldintzak

Eremu bakoitzak elementu bakarra nahiz batzuk izan ditzake.

1.0.1 INFORMAZIO-ITURRIAK

1.0.1A Informazio-iturri nagusia eta iturriak kontsultatzeko agindutako hurrenkera

Deskribapen bibliografikoa egiteko beharrezkoak diren datuak dokumentu bakoitzaren informazio-iturri nagusitik hartuko dira. Informazioa iturri nagusitik hartzea ezinezkoa bada edo informazio-iturri nagusirik ez badago, beste iturri batzuetara joko da, horretarako material-mota bakoitzerako agindutako arauak eta hurrenkerari jarraiki. Oro har, dokumentuan bertan ageri den informazioa hobetsiko da dokumentuaz kanpoko iturrietako informazioaren aldean.

1.0.1B Eremuetarako agindutako informazio-iturriak

Deskribapeneko eremu bakoitzak bere informazio-iturria edo -iturriak ditu, alegia eremu bakoitzerako agindutakoak. Agindutako iturri horietatik kanpo lortutako datu guztiak taket artean ([])

edo oharren bidez emango dira. Dokumentu-mota bakoitzari dagokion kapituluan adieraziko da eremu bakoitzerako zein informazio-iturri erabili behar den.

1.0.2 PUNTUAZIOA

1.0.2A Agindutako puntuazio-zeinu guztien aurrean eta atzean tarte bat jarriko da. Puntuaren (.) eta komaren (,) kasuan, ordea, tarte ondoren baino ez da jarriko, eta marratxoaren kasuan (-) ez da tarterik utziko, ez aurrean ez atzean.

Agindutako puntuazioa lerro-amaieran eta/edo lerro-hasieran jarri beharra gertatzen denean, lerro-amaieran edo lerro-hasieran jarriko da, ortografia arauak zeinu horretarako agintzen dutenaren arabera.

Agindutako puntuazioak, oro har, informazio-iturrian dagoen puntuazioa ordezkatzeko du. Edozein arrazoi dela medio, elementu baten hasieran edo amaieran informazio-iturriko puntuazioa jasotzen bada edo puntuazio berri bat jartzen bada, agindutako puntuazioa agindu bezala jarri beharko da, nahiz eta horrek puntuazioa bikoiztea ekarri.

1.0.2B Parentesi-pare () eta taket-pare ([]) bakoitza zeinu bakartzat hartuko da, eta ondorioz, zeinuaren aurretik eta zeinuaren atzetik baino ez da tarterik utziko.

1.0.2C Eremu guztien aurretik, lehen eremuaren aurretik izan ezik, puntua, tarte, marra, tarte (. —) jarriko da. Eremu bat aparteko lerro batean jasotzen denean¹, ez da jarriko agindutako inolako puntuaziorik edo puntu bakar batez ordezkatzeko da hura.

1.0.2D Deskribapenean ez bada eremu bateko lehen elementurik azaltzen, lehen elementuaren lekua hartuko duenaren aurrean ez da agindutako puntuaziorik jarriko.

1.0.2E Eremu bat edo eremu bateko elementu bat errepikatzen denean, eremu edo elementu horri dagokion puntuazioa jarriko zaio aurrean.

1.0.2F Elementu baten amaieran eten-puntuak, laburdura, puntuz amaitutako hitza edo karakterea ageri direnean, eta ondoren jarri beharreko puntuazioa puntua denean edo puntuz hasten denean, puntu hori kendu egingo da.

3. argit. —

ez

3. argit. . —

1.0.2G Taktak erabiliko dira deskribapenean tartekatze bat jasotzeko (esaterako, akatsak zuzentzeko) edo datu bat agindutako informazio-iturrian ageri ez dela adierazteko. Nahitaezkoak dira dokumentuaren izendapen orokorrerako eta laburdura batzuetarako. Eremu bereko ondoz

¹ Fitxa-katalogoetan eta zenbait bibliografiatan, 5., 7. eta 8. eremuak aparteko lerroan jasotzen dira.

ondoko elementuak agindutakoez bestelako iturrietatik jaso direnean, horiek guztiak taket-pare bakar batean itxiko dira. Aitzitik, ondoz ondoko elementu horiek eremu desberdinetan banatzen baldin badira, taket-pare bana erabiliko da eremu bakoitzari dagozkion elementuak adierazteko.

. — [Donostia-San Sebastián : HABE, 2000]

. — [2. argit.]. — [Bilbo : AEK, 1988]

Elementu baten zati bat aipatzen ez dela adierazteko, hiru puntuz (...) osatutako hutsune-marka erabiliko da. Eremu bat, elementu bat edo gehiago, edo elementu baten barneko aipu oso bat kenduz gero, ez da hutsune-markarik jarriko.

Aita San Inazio Loyola-coaren bizitza ... / Pedro Ribadeneira-c izcribatu zuanetic ...
Jose Goenaga Tolosa-co semeac atera ta laburtua

1.0.2H Elementu bat hizkuntza edota idazkera batean baino gehiagotan transkribatu behar denean, lehen hizkuntza ez diren hizkuntzetan azaldutako informazioaren aurrean berdin-ikurra (=) jarriko da.

Eremu bereko ondoz ondoko bi elementu edo gehiago hizkuntza edota idazkera batean baino gehiagotan transkribatu behar direnean, hizkuntzen edota idazkeren arabera bilduko dira multzoka, bakoitzari dagokion marka aurretik jarrita. Lehen multzotik aurrerako multzo bakoitzaren aurrean berdin-ikurra (=) jarriko da.

1.0.2I Deskribapenean eremu edo elementuren bat jaso gabe uzten bada, eremu edo elementu horri dagokion puntuazioa ere ez da jarriko.

1.0.3 DESKRIBAPENAREN HIZKUNTZA ETA IDAZKERA-MOTA

1., 2., 3., 4. eta 6. eremuak osatzen dituzten elementuak dokumentuan ageri diren hizkuntzan eta idazkeran transkribatzen dira, baita eremu horietan egiten diren tartekatzeak ere. Arau honetatik kanpo daude dokumentu-motaren izendapen orokorra, 1. eremuan, eta banatzaile-funtzioaren aipua, 4. eremuan.

5., 7. eta 8. eremuetako informazioa zentro katalogatzailearen hizkuntzan edota idazkeran adieraziko da. Arau honetatik kanpo daude, 7. eremuan, gako-izenburuaren aipua eta bestelako aipamenak.

Ohiko baliabide tipografikoen bidez transkribatu ezin diren ikurrak eta irudiak deskribatu egingo dira, eta deskribapena taket artean jarriko da; beharrezkoa bada, deskribapenari argibide-ohar bat gehituko zaio.

Zentro katalogatzailearen erreproduktzio-baliabideen bidez latinarenaz bestelako idazkerarik eman ezin bada, eremu horien transliterazioa egingo da. Ikus VII. eranskina.

1.0.4 LABURTZAPENA ETA LABURDURAK

Elementu bat laburtu behar denean, haren tarteko edo amaierako hitzak kendu ahal izango dira. Kasu horietan nahitaezkoa izango da hutsune-marka erabiltzea. Zenbait pertsona edo korporazioen izenak barne hartzen dituen erantzukizunaren aipua laburtu behar denean, ordea, hutsune-marka ez ezik, «et al.» (et alii = eta beste batzuk) laburdura ere erantsiko da.

Beste kasu jakin batzuetarako agindutako laburdura espezifikoak kasuan kasu dagozkien arauetan azalduta daude.

1., 2. eta 6. eremuetan, ezin da eman berariaz agindu edo baimendu gabeko laburtzapenik eta laburdurarik (ikus VIII. eranskina), baldin eta laburdurok transkribatzen ari garen iturrian agertzen ez badira.

1.0.5 LETRA LARRIEN ERABILERA

Letra larriz idatziko da eremu bakoitzeko lehen hitzaren lehen letra. Gainerakoan, dokumentuaren hizkuntzaren ortografia-arauei jarraituko zaie. Halaber, letra larriz idatziko dira hainbat elementuko lehendabiziko hitzaren lehen letrak (esaterako, dokumentu-motaren izendapen orokorra, pareko izenburua, izenburu alternatiboa eta atalaren izenburua).

1.0.6 AZENTUAK ETA BESTELAKO ZEINU DIAKRITIKOAK

Beharrezkoak diren azentuak eta bestelako zeinu diakritikoak adieraziko dira, informazioa jasotzen den iturrian agertu ala ez, dokumentuaren testuinguru ortografikoaren arabera.

1.0.7 AKATSAK

Akatsak informazio-iturrian agertzen diren moduan jasoko dira, jarraian, taket artean, «sic» edo «i.e.» laburdurak eta zuzenketak dituela. Testuan, akatsa dela eta, azaltzen ez diren letrak ere taket artean adieraziko dira.

On Maniuel [sic] Lekuona eta bere teatroa
 Der englische Schaurroman um 1880 [i.e. 1808]
 Balea eta euskaldunak / Mu[r]gil eta Sarda Taldeak

1.0.8 INFORMAZIO-ITURRI NAGUSIA ZEHAZTEA, ITURRI NAGUSI BAT BAINO GEHIAGO DITUZTEN DOKUMENTUETAN

1.0.8A Unitate fisiko bakarreko dokumentuak

- 1) Dokumentu batek zenbait lan biltzen baditu eta lan horientzat guztientzat informazio-iturri komunik ez badu, lan horien informazio-iturri guztiak hartuko dira informazio-iturri nagusitzat.
- 2) Iturri desberdineko argitalpen-datak bat ez badatoz, datarik berriena duena hartuko da iturri nagusitzat. Nolanahi ere, kopiak baldin badira, dokumentuaren azken edizioarena hartuko da iturri nagusitzat.
- 3) Dokumentu batean, osotasunari dagokion iturriaz gain, zati bakoitzak bere informazio-iturriak baditu, iturri nagusia deskribapen-motaren arabera (osoa edo analitikoa) hautatuko da.
- 4) Dokumentua idatzia, ahozkoa edo kantatua denean, baldin eta informazio-iturria hizkuntza edota idazkera batean baino gehiagotan errepikatzen bada, iturri nagusia honela hautatuko da:
 - a) Lehenik, dokumentuan erabilitako hizkuntzan edota idazkeran dagoen iturria hartuko da, baldin eta hizkuntza bakarra erabiltzen bada edota, zenbait hizkuntza erabilia, bat nagusi bada.
 - b) Bigarrenik, lanaren jatorrizko bertsioan erabilitako hizkuntzan edota idazkeran dagoen iturria hartuko da, baldin eta hizkuntza hori katalogatzen ari garen edizioan erabilitakoen artean badago. Baina itzulpenaren hizkuntza edota idazkera hartuko da baldin eta argi badago argitalpenaren helburua jatorrizko lana itzultzea dela.
 - c) Azkenik, aurreko paragrafoetan agindutakoa bete ezin bada, informazio-iturri nagusia aukeratzeko, hizkuntzen arteko lehentasun-hurrenkera honi jarraituko zaio: euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa, italiera, portugesa eta alemana.

1.0.8B Unitate fisiko bat baino gehiagoko dokumentuak

Lanak zenbait unitate fisikotan edo zatitan banatzen direnean, nork bere informazio-iturri nagusia duela, informazioa hurrenkera honetan hartuko da: lehen unitate fisikotik edo zatitik; halakorik izan ezean, eskuragarri dagoen lehen unitate fisikotik edo zatitik; lehen unitate fisikoa edo zatia zein den antzeman ezin daitekeenean, informazio gehien duen unitate fisikoaren edo zatiaren informazio-iturritik. Azkenik, edozein unitate fisikotatik edo zatitatik edota nolabaiteko elementu bateratzaile izan daitekeen karpeta, kutxatila eta abarretik hartuko da. Garrantzitsutzat joko diren aldaerak oharretan adieraziko dira.

1.0.9 DESKRIBAPENAREN XEHETASUN-MAILAK

Komenigarria da deskribapenean xehetasun-maila desberdinak ezartzea, katalogo bat eratzeak arazo desberdinak sortarazten baititu helburuen eta erabiltzaileen arabera.

Zentro bakoitzak zehaztuko du, bere beharren eta funtsen garrantziaren arabera, jarraitu nahi duen xehetasun-maila, hala nola, ondare guztietarako deskribapen bera ezarriko duen edo dokumentu-motaren arabera deskribapen-maila ezberdinak erabiliko dituen edota mota bereko dokumentuen artean, ezaugarri jakin batzuen arabera, deskribapen-maila desberdinak erabiliko dituen. Horretarako, eta adibide gisa, hiru maila hauek ezartzen dira:

1.0.9A Deskribapenaren lehen maila

Gutxienez, honako elementu hauek bildu behar ditu:

Izenburu nagusia / lehen erantzukizunaren aipua, baldin eta sarreraren aldean oso bestelakoa bada edo egile bat baino gehiago badago edota sarrerarik ez badago. — Edizioa (lehena izan ezik). — Dokumentu-motaren datu espezifikoak (hala badagokio). — Lehen argitaratzailea, argitalpen-data
 Oinarrizko deskribapen fisikoa
 Oharrak
 Zenbaki normalizatua

1.0.9B Deskribapenaren bigarren maila

Gutxienez, eskema honi lotuko zaio:

Izenburu nagusia [Dokumentu-motaren izendapen orokorra] = Pareko izenburua : azpiizenburua edota izenburuari buruzko informazio osagarria / lehen erantzukizunaren aipua ; beste erantzukizunen aipu batzuk. — Edizioa / edizioari dagokion erantzukizunaren aipua. — Dokumentu-motaren datu espezifikoak. — Lehentasuneko argitaralekua : lehentasuneko argitaratzailea, argitalpen-data
 Deskribapen fisikoa (elementu guztiak, material gehigarriaren aipua kenduta). — (Seriearen izenburu nagusia / serieari dagokion erantzukizunaren aipua, seriearen zenbaki normalizatua ; seriearen zenbakia. Azpiseriearen izenburua, azpiseriearen zenbaki normalizatua ; azpiseriearen zenbakia)
 Oharrak
 Zenbaki normalizatua

1.0.9C Deskribapenaren hirugarren maila

Arau hauetan adierazita dauden eta dokumentuari aplikatu dakizkiokeen zehaztasun guztiak bilduko dira.

1.1 IZENBURUAREN ETA ERANTZUKIZUNAREN AIPUAREN EREMUA

EREMUAREN ELEMENTUAK

Izenburu nagusia

Dokumentu-motaren izendapen orokorra

Pareko izenburuak

Azpiizenburua edota izenburuari buruzko informazio osagarria

Erantzukizunaren aipua

1.1.1 ITURRIAK

Ikus 1.0.1

1.1.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Eremu honetan puntuazio hau erabili beharko da:

- a) Dokumentu-motaren izendapen orokorra taket artean ([]) jarriko da.
- b) Pareko izenburuen aurretik berdin-ikurra (=) jarriko da.
- c) Azpiizenburuaren edota izenburuari buruzko informazio osagarriaren aurretik bi puntu (:) jarriko dira.
- d) Lehen erantzukizunaren aipuaren aurretik zehar-marra (/) jarriko da.
- e) Elkarren segidako erantzukizun bat baino gehiago aipatu behar denean, bigarrenaren eta hurrengo guztien aurretik puntu eta koma (;) jarriko da. Erantzukizun guztiek edo batzuek esaldi bakarra osatzen dutela uste denean, ordea, erantzukizunaren aipu bakartzat hartuko dira.
- f) Erantzukizunaren aipuan korporazio bat baino gehiago azaltzen bada, horietako bat nagusia eta gainerakoak menpekoak direla, koma batez (,) bereiziko dira, baldin eta elkarren arteko lotura sintaktikorik ez badute.
- g) Dokumentuan izenburu bat baino gehiago ageri bada, izenburu bakoitzak bere erantzulea duelarik, bigarren izenburuaren eta hurrengoaren aurretik puntua jarriko da (.). Izenburu bakoitzari, jakina, bere erantzukizunaren aipua jarriko zaio.

h) Egile bakarra eta izenburu bat baino gehiago ageri denean, bigarren izenburuaren eta ondokoan aurretik puntu eta koma jarriko da (;), hitz edo esaldi batez elkarri lotuta egonagatik ere.

i) Izenburu komuna eta menpeko izenburua puntu batez (.) bereziko dira.

j) Zati baten izendapenaren ondoren menpeko izenburua izanez gero, koma eta tarte batez bereziko dira (,).

Adibideak

Izenburu nagusia [Dokumentu-motaren izendapen orokorra] = Pareko izenburua / erantzukizunaren aipua

Izenburu nagusia [Dokumentu-motaren izendapen orokorra] : azpiizenburua edota izenburuari buruzko informazio osagarria / erantzukizunaren aipua

Izenburu nagusia [Dokumentu-motaren izendapen orokorra] : azpiizenburua edota izenburuari buruzko informazio osagarria = Pareko izenburua : azpiizenburua edota izenburuari buruzko informazio osagarria / erantzukizunaren aipua

Izenburu nagusia [Dokumentu-motaren izendapen orokorra] / erantzukizunaren aipua = Pareko izenburua / pareko erantzukizunaren aipua

Izenburu nagusia [Dokumentu-motaren izendapen orokorra] / erantzukizunaren aipua ; bigarren erantzukizunaren aipua ; hirugarren erantzukizunaren aipua

Izenburua [Dokumentu-motaren izendapen orokorra] / erantzukizunaren aipua

Izenburua [Dokumentu-motaren izendapen orokorra] : azpiizenburua edota izenburuari buruzko informazio osagarria ; Izenburua : azpiizenburua edota izenburuari buruzko informazio osagarria / erantzukizunaren aipua

Izenburua [Dokumentu-motaren izendapen orokorra] = Pareko izenburua ; Izenburua = Pareko izenburua / erantzukizunaren aipua

Lan nagusiaren izenburua. Lan osagarriaren izenburua [Dokumentu-motaren izendapen orokorra]

Izenburu komuna : azpiizenburua edota izenburuari buruzko informazio osagarria. Zati baten izendapena, Menpeko izenburua [Dokumentu-motaren izendapen orokorra]

1.1.3 IZENBURU NAGUSIA²

1.1.3A Deskribapenaren lehen elementua da, eta zehatz-mehatz transkribatuko da informazio-iturri nagusian ageri bezalaxe, azentuak, zeinu diakritikoak eta akatsak barne (ikus 1.0.6 eta 1.0.7), baina puntuatzeko edo letra larriak erabiltzeko modua kontuan hartu gabe (ikus 1.0.5). Salbuespen gisa, izenburua luzeegia denean, laburtu egin *daiteke*, tarteko edo amaierako hizkiak kenduta betiere, eta esanahia aldatu gabe eta informazio garrantzitsua galdu gabe. Laburtu dela adierazteko, hutsune-marka (...) erabiliko da.

² Hemendik aurrera, «izenburu nagusia» erabili ordez, «izenburua» erabiliko da, argitasunaren mesedetan termino osoa erabili behar denean izan ezik.

Izenburuan zentro katalogatzailearen ohiko baliabideez ezin kopia daitekeen zeinuren bat dagoeanean, zeinu horren ordeaz azalpen labur bat jarriko da taket artean. Beharrezkoa izanez gero, azalpen luzeagoa emango da oharretan.

[Bost] axola
Oharrean
 Izenburuan «Bost» adierazten duen esku baten irudia ageri da
 Nekazaritzako irakur[r]aldiak : mendi-aldeko ikastolaentzat

Izenburuaren barruan eten-puntuak ageri direnean, horien ordeaz marra bat ipiniko da. Taketak ageriz gero, horien ordeaz parentesiak ipiniko dira.

Bai__ baina ez
Informazio-iturri nagusian
 Bai ... baina ez

Izenburuan letra etzanean ageri diren hitzak, kakotx artean ipiniko dira. Baina izenburu osoa horrela ageri denean, xehetasun hori ez da nabarmenduko.

Izenburu batean inisialak bereizteko tartea besterik erabili ez bada, inisialak transkribatzerakoan tartekak kendu egingo dira. Hala, «A B C» «ABC» transkribatuko da.

1.1.3B Izenburu alternatiboa izenburu nagusiaren parte da. Beti letra larriz idatziko da izenburu alternatiboaren aurretik izaten den «edo» juntagailuaren (edo beste hizkuntzetako baliokidearen) ondoren datorren hitzaren lehen letra.

Antso azkarra edo Miramamolinen esmeralda
 Milovan Djilas edo Komunismoaren giltzarria
 Amaya o Los vascos en el siglo VIII
 Metamorfosiak edo Urrezko astoa
 Euscal-naparren joera edo Emigracioa
 Mapamundi o Mapa general del globo terrestre

1.1.3C Informazio-iturri nagusian izenburu bat baino gehiago ageri bada —pareko izenburuak izan nahiz hizkuntza berean emandako lan beraren zenbait izenburu izan—, horietatik bat aukeratu beharko da izenburu nagusirako. Horretarako, aintzat hartuko dira, hurrenkera honetan, dokumentuan nagusi den hizkuntza —pareko izenburuak direnean— eta iturrian izenburuek ageri duten tipografia edo segida.

Termino estatistikoen hiztegia = Diccionario de términos estadísticos = Dictionnaire de termes statistiques = Statistical terms dictionary

Origen y evolución de la pintura vasca = Euskal pinturaren sorrera eta eboluzioa

Plano de Bilbao = Bilboko launirudia

Vera effigies diui Ferdinandi III

Oharrean

Beste izenb. bat tipografia txikiagoarekin: Magni Ferdinandi verus in imagine vultus

1.1.3D Izenburu nagusia lan-mota edo lanaren eduki intelektual edo artistikoa adierazten duen termino bat izan daiteke. Halaber, sigla-multzo bat ere izenburu edo izenburuaren parte izan daiteke.

Lan osoa

Margoak

Marrazkiak, akuarelak eta pinturak

Romanzas de zarzuela

TRATERSUP

Actas

EGA mailan idazketa hobetzen : forma, testu-egitura eta prozesua landuz

1.1.3E Egilearen, zuzendariaren edo antzezlearen izena, edota erantzukizunarekin zerikusia duen beste edozein informazio izenburuaren elementu gramatikala bada, bere horretan transkribatuko da, hau da, izenburu nagusiaren osagai gisa.

Tomas Akinokoaren lan hautatuak

Joannes Etcheberriren lan osoa = Ouvres complètes : 1712-1718

Grimm anaien ipuinak

Les plus jolis contes d'Andersen

El mundo de los Beatles

Shakespeare's comedies

Plano Telstar de Sevilla

Zlataren egunkaria

Jon Mirandereren gutunak : (1948-1972)

Obras completas de Voltaire

1.1.3F Izenbururik edo izenburu-zatirik ageri ez duten lanetan, iturri nagusian ageri den pertsonaren edo korporazioaren izena hartuko da izenburu nagusitzat.

Koldo Mitxelena

Luis de Castresana : pintura

Toribio Alzaga : heriotzaren 50. urte mugan zenbait lan

Dalí

Danny Daniel

X Sesiones Técnicas de Ingeniería Naval

Picasso : 145 dessins pour la presse et les organisations

1.1.3G Informazio-iturri nagusian izenburu orokorra ez ezik, argitalpenean bildutako lanen banakako izenburuak ere ageri badira, izenburu orokorra hartuko da izenburu nagusitzat, eta besteak oharretan transkribatuko dira.

Sherlock Holmesen bi kasu berri

Oharrean

Edukia: Zilarrizar ; Gizon konkortua

Sentimientos : todas las canciones de Blanca Izquierdo

Oharrean

Edukia: Vagando por los caminos ; Soy como soy ; Caminar ; Qué fue lo que falló ; Siempre estoy solo ; A tí, madre ; Amigo, amigo mio ; El cielo está en tí ; Es un día gris ; Amaneció al fin ; Always alone

Bost istorio lazgarri

Oharrean

Edukia: Mrs. Vealen agerraldia / Daniel Defoe. Ikustaldi harrigarri bat / Charles Dickens. Hilerrri ondoan bizi zen gizon bat zegoen / Montagne Rhodes James. Isiltasuna / Edgar Allan Poe. Rodrigo edo Dorre liluragarria / Donatien Alphonse François de Sade

Arkotxarrak [sic] euskal antzerkian

Oharrean

Edukia: Josan / Jose Antonio Arkotxa. Markesaren semea / Iosu Arkotxa

Tene lehiaketa 1997

Oharrean

Edukia: 903 (itsumustutako zita) / Goio Ramos. Tabakoa txarra da osasunerako / Xabier Etxaniz Rojo. Apirileko egun urrunak / Maite Urkia. Joanes eta zazpi morroiak / Julen Azpeitia. Itxaropen izpi bat / Naiara Azpeitia

1.1.3H Izenburu nagusia izenburu komunak eta menpeko izenburuak osa dezakete, baldin eta atalen, gehigarrien, zatien eta abarren izenburua horiek identifikatzeko nahikoa ez bada eta horretarako izenburu komuna edo argitalpen nagusiaren izenburua jartzea beharrezkoa bada.

Agua, azucarillos y aguardiente. Pasacalle

Gerra de las Galias. Libro V

Atalaren, gehigarriaren edo zati baten izenburua izenburu nagusitzat har daiteke, baldin eta izenburu komunik gabe esanahi osoa badu. Halakoetan, izenburu komuna 6. eremuan emango da.

Euskal Herriko atlas historikoa

Seriearen eremuan: (Lur entziklopedia tematikoa)

El cuerpo humano

Seriearen eremuan: (Enciclopedia básica escolar de preguntas y respuestas ; 3)

1.1.3I Izenburu orokorrik gabeko dokumentuak

1.1.3Ia) Informazio-iturri nagusi bera dutenak

Informazio-iturri nagusian bi izenburu edo gehiago egonik, izenburu orokorrik ageri ez bada, izenburuak iturri nagusian duten hurrenkeran transkribatuko dira, betiere, non eta izenburuetako bat tipografikoki nabarmendu ez den.

Izenburu gehiegi daudela uste bada, komeni direnak ken *daitezke*, betiere, hiru lehenak izan ezik. Lehen hiru izenburu horien ondoren hutsune-marka jarriko da. Beharrezkoa ikusten bada kendutakoak oharretan jaso *daitezke*.

El Buscón ; El entremetido, la dueña y el soplón ; La hora de todos y la fortuna con seso / Francisco de Quevedo

La paloma : habanera / S. Iradier. Per tu ploro : sardana / P. Ventura

Cross-curricular teaching materials : Atlanta 96 ; Let's go! : Keeping healthy / egileak, Arantza Echevarria Mendia ... [et al.]

1.1.3Ib) Informazio-iturri nagusi bera ez dutenak

Zenbait lan biltzen dituen dokumentu batek ez izenburu orokorrik, ez informazio-iturri nagusi komunik ez badu, lan guztien izenburuak transkribatuko dira, dagokien hurrenkeran. Horrelakoetan, izenburuok ez dira taket artean jarriko.

Joxe Miel Barandiaran / Martin Garcia. Gizona, lana, makina / Azpeitiko Zine Klub Taldea. Uztarría / Maria Jesus Fonbellida

Amarraditos / letra, Margarita Durán ; música, Pedro B. Pérez. Indiecito dormido / letra, Atahualpa Yupanqui ; música, P. del Cerro. Porque tú me acostumbraste / letra y música, Frank Domínguez

1.1.3J Informazio-iturririk ez duelako dokumentuak izenbururik ez badu, eta zer izenburu duen jakiteko modurik ez badago, dokumentuaren edukia albait zehatzen eta laburren azalduko duen izenburua asmatuko da. Izenburu hori taket artean jarriko da.

1.1.4 DOKUMENTU-MOTAREN IZENDAPEN OROKORRA

Aukerakoa da, eta katalogo batean dokumentu-mota desberdinen erregistro bibliografikoak daudenean bakarrik izaten da benetan baliagarria.

Kasu bakoitzean, dokumentu-mota bakoitzerako ezarritakoa aplikatuko da.

1.1.4A Dokumentu-motaren izendapen orokorra adierazi behar dela uste bada, izenburuaren ondoren jasoko da, zentro katalogatzailearen hizkuntzan eta beste tartekatze batzuetatik taket-pare desberdinen bidez bereizita.

Musika eta ahotsa [Bideoa] / [egilea, Xirula Mirula Taldea ; zuzendaria, Imanol Urbietá]

Material-mota izendatzeko terminoak dagozkien kapituluetan daude ezarrita.

1.1.4B Dokumentuak zenbait izenburu izanik izenburu orokorrik ez badu, dokumentu-motaren izendapen orokorra lehen izenburuaren ondoren jasoko da.

Azken lamia [Bideoa] ; Z-Z / Azpeitiko Zine Klub Taldea. Itxuiten / Juan Miguel Gutierrez. Aizkora / M. J. Fonbellida

1.1.5 PAREKO IZENBURUAK

1.1.5A Izenburu nagusiaren ondoren jasoko dira, informazio-iturri nagusian ageri den tipografik edo segidak ezarritako hurrenkeran eta izenburua transkribatzeko agindutako arau berberak erabilia. Ikus 1.1.3A.

Euskararen hotsak = Los sonidos del euskara = Les sons de la langue basque = The sounds of basque

Gastronomia vasconum = Cocina vasca = Euskal sukaldaritza = La cuisine basque = Basque cookery = Die baskische Küche

Euskal idazleak = Basque writers = Escritores en lengua vasca

Deskribapenean bigarren mailako xehetasunak jasotzea erabakitzen bada, nahikoa izango da lehen pareko izenburua transkribatzea.

1.1.5B Dokumentuaren izenburua eta jatorrizko izenburua hizkuntza desberdinetan badaude, jatorrizko izenburua pareko izenburu gisa jaso beharko da, baldin eta informazio-iturri nagusian azaltzen bada eta deskribapenaren beste zati batekin lotura gramatikalik ez badu (esaterako, izenburu alternatiboarekin, izenburuari buruzko informazio osagarriarekin, erantzukizunaren aipuarekin edo edizioaren aipuarekin).

Los nibelungos = Nibelungenlied

Un tesoro en la cartera = Losers, weepers

Raíces profundas = Shane

Lo que el viento se llevó = Gone with the wind

Mapa guía de Mallorca = Map guide of Majorca

1.1.5C Izenburu orokorrik gabeko dokumentuak

Informazio-iturri nagusiaren arabera, izenburu orokorrik ez duen dokumentu batean bi lan edo gehiago bilduta badaude, bakoitzak bere izenburua duela, eta lan horietako bakoitzak pareko izenburu bat edo gehiago badauka, pareko izenburu bakoitza dagokion izenburuaren ondoren jasoko da.

Maldan behera = Pendiente abajo ; Harri eta herri = Piedra y pueblo / Gabriel Aresti ; edición bilingüe de Javier Atienza

Yo soy aquí quien manda = Qui comando io / M. Piovano ; letra española, A. Figueroa. El domingo al ir a misa = La domenica andando a la Messa / Renato Angiolini ; letra española, A. Figueroa

1.1.5D Informazio-iturritik kanpo agertzen diren pareko izenburuak jasotzea egokia dela ikusten bada, oharretan jasoko dira.

1.1.5E Informazio-iturri nagusian letra edo hitz bat behin bakarrik azaltzen bada, baina informazio-iturri nagusiaren diseinuak garbi uzten badu behin baino gehiagotan irakurri behar dela, letra edo hitza errepikatuko da taketak erabili gabe.

Guía industrial Goierri = Goierri gida industrialia
(*Informazio-iturrian Guía industrial GOIERRI gida industrialia agertzen da*)

Deskribapenaren lehen maila erabiltzen bada (ikus 1.0.9A), izenburu horren transkribapena ondokoa izango litzateke:

Guía industrial Goierri

1.1.5F Informazio-iturri nagusian dokumentu bera, testua behekoz gora, hizkuntza edota idazkera batean baino gehiagotan ageri bada, pareko izenburua oharretan jasoko da.

Eusko Jaurlaritzaren liburutegietako aldizkako argitalpenen katalogo orokorra
Oharrean

Badu gainera atari eta orrialdekatze propioa behekoz gora gaztelaniaz: Catálogo colectivo de publicaciones periódicas de las bibliotecas del Gobierno Vasco

Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren fiskalitatea
Oharrean

Badu gainera atari eta orrialdekatze propioa behekoz gora gaztelaniaz:
La fiscalidad del Derecho Civil Foral del País Vasco

1.1.6 AZPIIZENBURUA EDO TA IZENBURUARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA

1.1.6A Transkribatzeko modua

Ikus 1.1.3A

1.1.6B Azpiizenburua edota izenburuari buruzko informazio osagarria dagokien izenburuaren ondoren adieraziko da, hura edozein motatakoa izanda ere.

Gorrotoa lege : Oñaz-Ganboatarren guduetan girotutako elaberri giristinoa

Olerki galduak : recuperación de un poeta olvidado

Gabriel Aresti : biografia

Europa : mapa político

Arbolaren erbesteko sustraiak : Euzkadiko lehenengo Jaurlaritzako burukideen bizitzak

1.1.6C Azpiizenburu bat baino gehiago edota izenburuari buruzko informazio osagarri bat baino gehiago azaltzen denean, informazio-iturri nagusiko tipografiak edo segidak ezarritako hurrenkeran transkribatuko dira.

Atlantida : egia ala mito? : kataklismo geologiko baten historia

Ardatz 5 : giza-natur arloa : B-D ereduak

Lamento andaluz : pasodoble flamenco : versión para guitarra

Sempere : obra gráfica : catálogo razonado

1.1.6D Informazio-iturri nagusian ageri ez diren azpiizenburuak edota izenburuari buruzko informazio osagarria oharretan transkribatuko dira normalean, salbu eta dokumentua identifikatzeko edota deskribapena zuzen ulertzeko beharrezkoak direnean.

La nueva economía en Francia y en España : [conferencias y ponencias del congreso celebrado ...]

Bernardo Atxagaren hitzaldia «Ilusioa» [Bideoa] : [hitzaldia, KM Kulturunea, 1995-6-16]

Asteasu : [mapa]

Goyescas : [opera]

Biologia-Geologia : paisaiaren pausoz-pausoko azterketa : BBB 3-IEE 2 zikloa

Oharrean

Natur zientzietako curriculum-materialak

1.1.6E Informazio-iturri nagusian izenburuaren aurretik ageri den izenburuari buruzko informazio osagarri guztia deskribapenean izenburuaren ondoren jasoko da, baldin eta gramatikalki zuzena bada. Aldaketa hori egitea ezinezkoa bada eta lotura gramatikalik ez badago, informazio osagarria oharretan jasoko da.

Bilbo = Bilbao : bizia, paisaia, sinboloak

(Atarian informazio osagarria izenburuaren aurretik agertzen da)

Oharrean

Izenb. aurretik: Hiria

Ahozko literatura : genero txikiak

(Atarian informazio osagarria izenburuaren aurretik agertzen da)

No llores por mí, Argentina = Don't cry for me, Argentina / A. Lloyd Webber, Tim Rice ; letra espanyola, Arttime, Azpilicueta

Oharrean

«Evita» operakoa

1.1.6F Informazio-iturri nagusian, izenburuaz gain, jatorrizko izenburua edo ohikoa ageri badira, hizkuntza berean emanak, horiek biak azpiizenburu gisa jasoko dira, betiere, baldin eta beste elementu batean sartu behar ez badira (esaterako, izenburu alternatibo gisa). Halaber, beste edizio batzuetan izandako izenburua jasotzeko ere, nahiz eta jatorrizkoa edo ohikoa izan ez, arau bera beteko da. Jatorrizko izenburua beste hizkuntza batean dagoen kasuetarako ikus 1.1.5B.

La Celestina : tragicomedia de Calixto y Melibea

Die Sage von den Nibelungen : Nibelungenlied

Sonata para piano nº 8 en do menor, op. 15 : Patética

1.1.6G Erantzukizunaren aipu bat edota argitaratzailearekin, banatzailearekin nahiz deskribapenaren beste elementuren batekin (esaterako, deskribatzen den dokumentuaren oinarri izan den lanaren izenburuarekin) lotutako aipu bat gramatikalki azpiizenburuaren edo izenburuari buruzko informazio osagarriaren zati denean, informazio hori azpiizenburuaren edo izenburuari buruzko informazio osagarriaren barruan sartuko da.

Elebitasuna eta hizkuntz jabekuntza : AESLA-ren IX. Kongresu Nazionalaren aktak =
Bilingüismo y adquisición de lenguas : actas del IX Congreso Nacional de AESLA

La reina de las nieves : un cuento de Hans Christian Andersen

Bocaccio 80 : argumento basado en varios cuentos de Bocaccio

La señorita capricho : vodevil en tres actos : arreglo castellano de La dame de Chez Maxim, de Georges Feydeau / adaptación y cantables de Ramón Asensio Mas y José Juan Cadenas ; música del maestro Benezy

1.1.6H Informazio-iturri nagusian dokumentuaren pareko izenburu bat edo gehiago ageri badira, baina azpiizenburu bakarra edota izenburuari buruzko informazio osagarri bakarra badago, horiek pareko azken izenburuaren ondoren jarriko dira. Arau hau ez da beteko pareko izenburuak informazio osagarria bere baitan daukan kasuetan.

Calling all beginners = Llamada a los principiantes : curso para los que comienzan o reanudan el estudio del inglés

Erizkizundi irukoitza = Triple cuestionario = Triple questionnaire : (euskara 1925)

A mi manera = Comme d'habitude = My way : rock lento

African book world & press : a directory = Répertoire du livre et de la press en Afrique

1.1.6I Azpiizenburua edota izenburuari buruzko informazio osagarria zenbait hizkuntzatan edota idazkeratan daudenean

1.1.6Ia) Informazio-iturri nagusian, azpiizenburua edota izenburuari buruzko informazio osagarria zenbait hizkuntzatan edota idazkeratan ageri badira, azpiizenburu eta informazio osagarri hori hizkuntza edota idazkera berean dagoen izenburuaren ondoren transkribatuko dira.

Perfil y pulso de Guipúzcoa : pinacoteca lírica = Gipuzkoaren ertzepi ta biotz-taupadak : olerki-kutxa

El hombre y su conducta : ensayos filosóficos en honor de Risieri Frondizi = Man and his conduct : philosophical essays in honor of Risieri Frondizi

Sevilla : plano de la ciudad = Seville : plan of the town

1.1.6Ib) Pareko izenbururik ez dagoenean eta informazio-iturri nagusian azpiizenburuak edota izenburuari buruzko informazio osagarria hainbat hizkuntzatan edota idazkeratan emanak ageri direnean, izenburuaren hizkuntzan edota idazkera berean dagoena jasoko da; eta, halakorik ez badago, informazio-iturri nagusian lehenengo ageri dena. Beharrezkoa dela ikusten bada, gainerrakoa ere deskribapenean jaso daitezke, aurretik tartea, berdin-ikurra eta tartea jarrita.

Haize garbia : eskuara zaindu eta azkartu = défense et promotion de la langue basque

Euskera : Euskaltzaindia ´ren lan eta agiriak = trabajos y actas de la Academia de la Lengua Vasca = travaux et actes de l'Academie de la Langue Basque

Gabriel Aresti (1933-1975) : Gabriel Arestiren mundua : erakusketa eta jardunaldiak = exposición y jornadas

Lertxundi : euskaradun arte unibertsala = arte universal en euskara = universal art expressed in the basque idiom

Barcelona : planol de la ciutat = Stadplan = pianta della città

Psychodrama : na orkeste = für Orchester = for full orchestra

1.1.6J Izenburu orokorrik gabeko dokumentuak

1.1.6Ja) Informazio-iturri nagusian dokumentuan bildutako bi lan edo gehiagoren izenburuak ageri badira, baina izenburu orokorrik ez badago, horietako lan bakoitzaren azpiizenburua edo izenburuari buruzko informazio osagarria dagokion izenburuaren ondoren jasoko da.

Bilbao = Bilbo : plano callejero. Vizcaya = Bizkaia : mapa de carreteras

Ezpata zorrotza : olerkiak ; Ezkutuko aria : antzerkia / Etxebarria ´tar Juan Anjel

Izeko aberatsa : iru eginzadun eres-antzerkia ir[r]itsua ; Irulearen negar[r]a : iru egintza ta antzeburua dituan zorigaitz-antzerkia / [Etxaniz´tar Nemesio apaizak egiña]

Medikuntza antropologia / Anton Erkoreka. Zuberoako herri teatroa : ohiko pastoralak / Beñat Oihartzabal

1.1.6Jb) Izenburu orokorrik gabeko dokumentu batean egile baten zenbait lanen izenburuak eta, izenburu horiekin guztiekin lotutako azpiizenburu eta informazio osagarri bakarra ageri direnean, azpiizenburu edo informazio osagarri hori azken izenburuaren ondoren jasoko da. Datu horien arteko lotura argi adierazita ez badago, honako hau egin daiteke: edo taket artean beharrezko diren azalpenak eman, edo azpiizenburua edo izenburuari buruzko informazio osagarria oharretan jaso.

La rebelión de los negros ; El hombre que era dos ; Tres tiros un Viernes Santo ; El héroe : cuatro piezas teatrales / José Sánchez Boudy

Barcarrota : pasodoble ; Villanueva de la Serea : pasodoble-marcha : [ambas] para banda / Antonio Ramiro Soto

1.1.6Jc) Izenburu orokorrik gabeko dokumentu baten informazio-iturri nagusian ageri direnean, batetik, izenburu nagusi bi edo gehiago, bakoitzak bere egilea duela, eta, bestetik, izenburu horiekin guztiekin lotutako azpiizenburu eta izenburuari buruzko informazio osagarri bakarra, azpiizenburu edota izenburuari buruzko informazio osagarri hori oharretan adieraziko da.

Capitanía Cides 1986 / Antonio Carrillo Colomina. Desperta ferro / José María Valle Satorres

Oharrean

Bandarako kristau martxak

1.1.6K Ez da azpiizenburutzat hartuko izenburuari edo pareko izenburuei buruzkoa ez den informazioa, nahiz eta informazio-iturri nagusian adierazita egon. Horrela bada, ez dira deskribapenean jasoko irudi-kopurua, figura-kopurua eta antzekoak. Halako informazioa adierazi beharra ikusiz gero, oharretan jasoko da.

1.1.6L Izenburua siglaz edo akronimoz osatuta badago eta izen osoa informazio-iturri nagusian ageri bada, izen osoa azpiizenburu gisa jasoko da. Ordea, izen osoa izenburu nagusian ageri bada, sigla-multzoa edo akronimoa jasoko da azpiizenburu gisa.

HINE : hizkuntza idatziaren neurketa eskolan : OHOk 8. mailaren azterketa A, B eta D eruedetan

ISBD (M) : International Standard Bibliographic Description for Monographic Publications

Larrialdiei aurregiteko bidea : (LABI)

Helduen euskalduntzearen oinarrizko kurrikulua : (HEOK)

1.1.6M Izenburu nagusia izenburu komun batek eta menpeko izenburu batek osatzen badute, azpiizenburu edo izenburuari buruzko informazio osagarri bakoitza dagokionaren ondoren jasoko da (izenburu komunaren ondoren, menpeko izenburuaren ondoren edo, biei badagokie, bien ondoren).

Introducción a la psicopatología y la psiquiatría. Preguntas-respuestas : sistemas de autoevaluación

Gizarte zientziak, geografia eta historia : irakaslearen gida didaktikoa. DBH 3

Cinco canciones para la paz. Canción n. 3, El día se va, op. 86 : para canto y guitarra / letra y música, Manuel Guerrero Carabantes

1.1.6N Izenburu batek azalpenen bat behar badu, azalpen hori taket artean adieraz daiteke azpiizenburu gisa nahiz informazio osagarri gisa.

Munduko gaztagintza : [gida didaktikoa]

NOLEGA 1999-2000 : [aurkezpen txostena]

Arkitektura neoklasikoa Euskal Herrian : [erakusketa] = Arquitectura neoclásica en el País Vasco : [exposición]

1.1.7 ERANTZUKIZUNAREN AIPUA

1.1.7A Erantzukizunaren aipua eremu honetako azken elementua da. Elementu horretan dokumentuaren eduki intelektual edo artistikoaren zuzeneko edo zeharkako erantzukizuna duten pertsonen edo korporazioen izenak azalduko dira.

Katiluaren ipurdia / Martin Etxeberria Garro

Eibarrera jatorraren bidetik / Imanol Laspiur Zabala

Bekatuaren itzala / Xabier Mendiguren ; prologoa eta epilogoia, Joxe Azurmendi

Oceanía físico político / Instituto Cartográfico Latino

Zientzia eta teknikarako euskara : zenbait hizkuntza-baliabide / Martxel Ensunza,
Jose Ramon Etxebarria, Jazinto Iturbe

El imposible vencido : arte de la lengua bascongada / su autor el padre Manuel de
Larramendi

1.1.7B Korporazioaren izena iturri nagusian agertu arren, zer funtzio betetzen duen argi adierazita ez badago eta dokumentuaren edukian edo beste iturriren batean begiratuta argitu ezin badaiteke, horren inguruko aipuak 7. eremuan adieraziko dira.

Erantzukizunaren aipua agindutako informazio-iturrian edo atariko gainerako orrialdeetan edo azalean ageri ez delarik, bestelako iturri batetik jasotzen bada, takek artean adieraziko da. Agindutako iturrietan azaltzen ez bada, baina bai dokumentuaren zatiren batean, halakoetan, beharrezkoa den kasuetan, eremu honetan jasoko da. Nahi izanez gero, oharretan eman *ahal izango da*.

Postalerako luzexko / [Edu Romero Treuiller]
(*Aipua bizkarrean eta azalean soilik azaltzen da*)

1.1.7C Dokumentuan azaltzen ez diren egile edo lankideak, nahiz eta beste iturri batzuetan azaldu, ez dira erantzukizunaren aipuan jasoko. Hala ere, haiek aipatzea beharrezkoa dela ikusten bada, oharretan egingo da.

1.1.7D Erantzukizunaren aipua transkribatzeko modua

1.1.7Da) Erantzukizunaren aipu nagusiak informazio-iturrian ageri diren bezalaxe transkribatuko dira.

Olerki berritze / Arrese'tar Emeterio'ren aapaldiak ; irudiak, Etxeberria'tar Santos'enak

Euskaldunak poema : XV kantuetan / Nikolas Ormaetxea «Orixe'k» egiña ; Santos Etxeberria'ren irudiak

El lazarrillo de Tormes = Tormes'ko itsu-mutil[!]a / texto castellano y traducción vasca, Nicolás Ormaechea (Orixe)

Abarrak : euskara batuan / Kirikiño ; egokitze lana, A. Ugarteburu ; marrazkiak, J. M. Aleman

Zerribarne dinosaurua / [testua] Pepe Caccamo ; [irudiak] Carles Arbat ; [itzultzailea, Koldo Izagirre]

1.1.7Db) Izen bat edo izen bihurtutako esaldi bat pertsona edo korporazio batek betetzen duen funtzioaren ingurukoa bada, erantzukizunaren aipuaren barruan jasoko da. Funtziorik adierazten ez duten gainerako izenak edo izen bihurtutako esaldiak izenburuari buruzko informazio osagarritzat hartuko dira (ikus 1.1.6G).

Aita gurea / J. L. Señeri Paul aba'ren Gogoareu mana deritxon italerazko idaztitik ;
J. L. Zugatzaga'tar Pil[[]]ipa abak euskeraldua

Albaniaren konkista / Frontera Films Irun S. A.-ren produkzio bat ; A. Amigo-k eta
L. Calparsoro-k egina ; Alfonso Ungria-k zuzendua

1.1.7Dc) Zenbait pertsonak edo korporaziok argitalpenean funtzio bera betetzen badute, erantzukizunaren aipu bakarrean jasoko dira. Informazio-iturrian funtzio bera betetzen duten erantzuleak gehienez ere hiru badira, hiruren izenak jasoko dira. Hiru baino gehiago badira, lehenengo ageri dena hartuko da, ondoren, hutsune-marka eta, horren atzetik «et al.» laburdura taket artean jarrita. Beharrezkoa dela ikusten bada gehiago ere jaso daitezke.

Euskararen liburu zuria / Euskaltzaindiak eragina ; SIADECOk koordinatua ; egile eta laguntzaileak, Koldo Mitxelena Elissalt ... [et al.] ; zuzendaria, Martin Ugalde ; itzultzaileak, Dionisio Amundarain ... [et al.]

Fisika eta kimika : DBH 3 / egileak, Carlos Arribas Puras ... [et al.] ; koordinatzailea, Sabin Gorrotxategi Zelaieta ; moldatzaileak, Jon Landabidea Núñez, Luis Carlos Zaballós Ruiz ; itzultzaileak, Txaro Idiakez Korta, Tomas Sarasola Arregi ; zuzentzailea, Jose Antonio Sarasola Arregi ; laguntzaileak, Julia Alberdi Jauregi ... [et al.]

Gazteak eta euskara / koordinatzailea, Arantxa Urbe ; jarraipen taldea, Iñaki Arruti ... [et al.]

Karrantzako naturaren gidaliburua / Zigor Arteaga ... [et al.]

Txulufri eta arrosa / Ikastolen Elkartea, Labayru Ikastegia ; [koordinazioa, bilketa eta idazketa, Nerea Arregi ... et al. ; ahozko artxiboaren azterketa, Itsaso Arrieta eta Gorka Zarate ; ikerketa musikala eta transkribapenak, Alberto Lauzirika eta Jon Etxeandia]

Unibertsoa / Neil Ardley eta Ian Ridpath ; [itzultzaileak, José Luis Zendoia eta Josu Sakana]

Zeinu-lengoaia eskuliburua : Haur Hezkuntza / [lan-taldea, Begoña Díez de Prado ... et al. ; margolaria, Jon Ander Berasaluce ; zeinu-lengoiako irakaslea, Juanjo Abascal Martín]

1.1.7Dd) Erantzukizunaren aipuan ez da jasoko jatorria, tratamendua, lanbidea, maila edo kargua adierazten duen terminorik. Halakoetan ez da hutsune-markarik idatziko. Hala ere, termino horiek jaso egingo dira erantzukizuna identifikatzeko lagungarriak direla ikusten bada. Nolanahi ere, kontu handiz ibili beharko da, halakorik kentzeak oker gramatikalik eragin ez dezan.

Derecho político y estilo de la Real Audiencia de Galicia / Bernardo Herbella de Puga

Informazio-iturri nagusian

Lic. Bernardo Herbella de Puga

baina

Historia del derecho / dirección del Dr. D. Rafael Gilbert y Sánchez

La perfecta casada / fray Luis de León

1.1.7E Erantzukizunaren aipu bat baino gehiago badago, agindutako informazio-iturriko tipografiak edo sekuentziak ezarritako hurrenkeran transkribatuko dira, erantzukizunaren garrantziari begiratu gabe. Informazioa agindutako iturritik hartzen ez bada, erantzukizunen aipuak ahalik eta hurrenkerarik logikoenean transkribatuko dira.

Gutunak / Montesquieu ; moldapena eta lan orriak, Manu Erzilla

Anastasio Otxoa ikazkina / Xabi Otero, argazkiak ; Valentin Terrazas, testua ; [itzulpena, Periko Diez de Ultzurrun]

Ekonomia / Paul A. Samuelson, William D. Nordhaus ; laguntzailea, Michael J. Mandel ; itzulpena, Hori-Hori

Tintin Tibetean / Hergé ; [itzulpena, Joxemari Azurmendi]

Sokratesen defentsa / Platon ; sarrera, Joxe Azurmendi ; itzulpena, Julián Peña ; itzulpenaren berrikuspena, Jesus Mari Arrojeria

Ipuñak / Wilde'tar[r] Oskar ; Altuna'tar[r] Joseba'k euzkeralduta ; Jauregibeitia't[t]ar Ander'en idantzekijak

Bostak zoriotsu / Enid Blyton ; itzulpena, Xabier Garcia ; marrazkiak, J. Correas

1.1.7F Nahi ez bada, garrantzi txikiko edo garrantzirik gabeko lankidetzari dagozkien erantzukizunen aipuak ez dira deskribapenean aipatuko.

1.1.7G Partaidetza adierazten duten erantzukizunen aipu formalak jaso egingo dira, nahiz eta erantzuleen izenak aipatu ez.

Urrats : euskal pedagogia / [egileak, irakasle talde bat]

Izar baten dirdira : Jesus'en Kandida Maria Amaren bizitza / beraren alaba batek idatzia

Historia del famoso navegante árabe Simbad el Marino dividida en siete viajes / traducido del italiano

Enciclopedia agrícola / publicada por una junta de ingenieros agrónomos

Nouvelle chronique de la ville de Bayonne / par un bayonnais

1.1.7H Egilea ezezaguna dela adierazten duten terminoak agindutako iturrian azaltzen badira, erantzukizun gisa jaso *daitezke*.

Arrotz misterioitsua / anonimoa ; moldapena eta lan-orriak, Alex Aldekoa-Otalora

Larruzko botaren ikerketa / txinar anonimoa ; itzulpena, Maider Etxaidea

Poema klandestinoak / anonimoa ; itzulpena, Lucien Etchezaharreta

Caprice, or, Anecdotes of the Listowel family : an Irish novel / by an Unknown

1.1.7I Erantzukizunaren aipuaren barruan sartuko dira sintaxi-mailan hari lotuta egonik egileari, lanari eta abarri buruzko informazioa ematen duten hitzak.

Abaroa ta babesa : iru ataletan / Arriolatar Xalbador apaizak gaztelaniaz egindako antzerkiya ; eta Beobide'tar Joane Marik euzkeratua

Ardi galdua / R. M.^a Azkuek arteka-marteka egindako gertirudia ; edergarriak, lenengo bostak, A. Guezala-renak, beste zazpirak, R. Rochelt-enak

Tintin eta marrazoen aintzira : filmearen albuma / Hergé ; Hergeren pertsonaien arabera Raymond Leblanc-ek egindako marrazki bizidunetan oinarritua ; [itzulpena, Joxemari Azurmendi]

Euskal protestantismoa zer zen / Joanes Leizarraga Beraskoizkoak 1571 urtean argitaratutako eskribuen gainean Gabriel Arestik tajututako liburua

Concierto italiano : BWV 971 / Johann Sebastian Bach ; editado a partir de las primeras ediciones y copias manuscritas por Klaus Engler

1.1.7J Erantzukizunaren aipuaren eta hari dagokion izenburuaren arteko harremana

1.1.7Ja) Erantzukizunaren aipuaren eta hari dagokion izenburuaren arteko harremana nahikoa argia ez bada, erantzukizunaren aipuari hitz edo esaldi bat erantsiko zaio, taket artean, harreman hori argitzeko. Harremana argia izanik, erantzukizunaren aipua eta izenburua lotzen dituen hitzik ez bada, erantzukizunaren aipua zehar-marraren ondoren jasoko da, besterik gabe.

Euskal ipuinen antologia bat / [antolaketa] Iñaki Aldekoa

Jantoki txinoan / [testua] Pako Aristi ; [ilustrazioa] Jon Zabaleta

Antología de poetas españoles / [selección de] Francisco Álvarez Allende, Alfonso García Rodríguez

baina

Altabizkar / Benito Lertxundi

Babilonia / Joan Mari Irigoien

1.1.7Jb) Informazio-iturri nagusian adierazten diren dokumentuaren korporazio babesleak erantzukizunaren aipuetan bilduko dira, baldin eta babeslearen eta dokumentuaren arteko harremana esplizitua bada edo azalpen labur bat tartekatuta argi badaiteke. Horrela ez bada, oharretan azalduko da, non eta jadanik seriearen edo argitalpenaren eremuan jasota ez dagoen.

Astigarraga eta sagardoa / Zipotza Elkartea ; laguntzaileak, Astigarragako Sagardogileak, Astigarragako Udala, Kutxa Fundazioa

Développements technologiques aux Etats-Unis dans le domaine de la supraconductivité haute température / cette étude a été réalisée par la société GC Conseil ; avec l'aide du Ministère de la Recherche et de la Technologie

Navarra en el Camino de Santiago / promueve, Gobierno de Navarra ; guión, María García Roncal, Helena Suescun Ciriza ; imagen, Fermín Excurdia Senosiain ... [et al.]

1.1.7K Deskribapenaren beste elementu bati (esaterako, jatorrizko izenburuari, deskribatzen den dokumentuaren oinarri izan den lanaren izenburuari, itzuli den edizioari eta abarri) lotutako informazioa gramatikalki erantzukizunaren aipuaren zati denean, erantzukizunean jasoko da.

Oilarra, azeria eta zakurra : (Esopo-ren alegia) / Joan Amades-ek jasotako bertsiotan oinarriturik Francesc Boadak egin du egokitze lana ; euskal itzulpena, Joxantonio Ormazabal ; irudiak, Montserrat Torres

Zazpi antxumeak / Xosé Ballesterosek egokitua W. eta J. Grimm anaien testuan oinarriturik ; Sofia F. Rodriguez eta Ana Miguezzen irudiak ; [euskarazko itzulpena, Koldo Izagirre]

1.1.7L Gehigarriei eta beste osagarri batzuei buruzko erantzukizunen aipuak erantzukizun gisa adieraziko dira, baldin eta agindutako informazio-iturrian badaude edota dokumentuan berariaz aipatzen badira. Erantzukizun horiek lan osoari edo lanaren zatirik garrantzitsuenari dagozkion erantzukizunen aipuen ondoren kokatuko dira. (Edizio partikular baten gehigarrietarako, ikus 1.2.5D).

El gobierno y régimen feudal del Señorío de Vizcaya / Fidel de Sagarminaga ; índice de Adolfo Lafarga

Christau doctriñ berri-ecarlea / Claudio Fleuri abadeac arguitara atera zuanetic Juan Antonio Ubillos coac eusquerara itzulia ; [aitzin solasa, oharrak eta hiztegia, Patxi Altuna]

1.1.7M Erantzukizunen aipuak zenbait hizkuntzatan edota idazkeratan daudenean

1.1.7Ma) Informazio-iturri nagusian pareko izenburuak edo azpiizenburuak edota izenburuari buruzko informazio osagarria hainbat hizkuntza edota idazkeratan emanda badaude baina erantzukizunaren aipua hizkuntza edota idazkera bakarrean ageri bada, erantzukizuna horien guztien ondoren jasoko da.

Lan harremanen hiztegia = Diccionario de relaciones laborales / UZEI

Euskaltzaindiaren historia laburra = Breve h^a. de la Real Academia de la Lengua Vasca, Euskaltzaindia = Brève histoire de Euskaltzaindia, Académie de la Langue Basque = A brief history of Euskaltzaindia, Royal Academy of the Basque Language = Zur Geschichte des Euskaltzaindia, der Akademie des Baskischen Sprache / [textu orijinala, Martin Ugalde eta Jose Antonio Arana Martija ; itzultzaileak, euskara Xabier Mendiguren, frantsesa Pierre Xarritton, ingelesa Cristina Usobiaga, alemana Klaus Niebel]

Les fleurs du mal = Las flores del mal / Charles Baudelaire ; [traducción de Antonio Martínez Sarrión]

Symphony n. 8 in B minor : D 759 : Unfinished = Symphony Nr. 8 h-moll : D 759 : Unvollendete = Symphonie n° 8 en si mineur : D 759 : Inachevée = Sinfonía n. 8 in si minore : D 759 : Incompluta = Sinfonía no. 8 en sí menor : 759 : Incompleta / Franz Shubert

1.1.7Mb) Informazio-iturri nagusian pareko izenburuak edo azpiizenburuak edota izenburuari buruzko informazio osagarria hainbat hizkuntza edota idazkeratan emanda badaude eta erantzukizunaren aipua ere zenbait hizkuntza edota idazkeratan ageri bada, erantzukizunaren aipu bakoitza dagokion izenburuaren, azpiizenburuaren edo izenburuari buruzko informazio osagarriaren ondoren jasoko da.

Euskal Autonomi Elkarteko mendateen atlas digitala / Jaurlaritza, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila = Atlas digital de los puertos de

montaña de la Comunidad Autónoma del País Vasco / Gobierno Vasco,
Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente

Euskal Herriko etxeak / [argazkiak, Robert Thurin ; aintzin-solas, Claude Labat ; idatziak, Itxaro Borda] = Maisons du Pays Basque / [photographies, Robert Thurin ; préface, Claude Labat ; textes, Itxaro Borda] = Casas del País Vasco / [fotos, Robert Thurin ; introducción, Claude Labat ; textos, Itxaro Borda]

Kodeen normalizazioa / Eusko Jaurlaritz, Estatistika-Zuzendaritza = Normalización de códigos / Gobierno Vasco, Dirección de Estadística

Sahara Occidental / Cour Internationale de Justice = Wester Sahara / Internationale Court of Justice

Erantzukizunaren aipu bakoitza dagokion pareko izenburuaren, azpiizenburuaren edo izenburuari buruzko informazio osagarriaren ondoren jarri ezin bada, erantzukizunen aipu guztiak batera jasoko dira pareko azken izenburuaren, azken azpiizenburuaren edo izenburuari buruzko azken informazio osagarriaren ondoren. Pareko erantzukizun aipu bakoitzaren aurrean tartea, berdin-ikurra eta tartea jarriko dira.

Ahots teknika = Técnica vocal / Edurne Aguerri ; Pello Zabalaren sarrera =
introducción de Pello Zabala

Printings at Gregynog : aspects of a great private press = Argraffu yng Ngreynog :
agweddau ar wasg breufat fawr / Michael Hutchins ; traslated by David Jenkins = y
cyfieithiad gan David Jenkins

1.1.7Mc) Informazio-iturri nagusian erantzukizunen aipuak hizkuntza edota idazkera batean baino gehiagotan ageri direnean baina pareko izenburu edo azpiizenbururik ez dagoenean, erantzukizunen aipu guztiak izenburuaren, azpiizenburuaren edo izenburuari buruzko informazio osagarriaren ondoren jasoko dira. Pareko erantzukizun bakoitzaren aurrean tartea, berdin-ikurra eta tartea jarriko dira.

Hiztegi batua / Euskaltzaindia = Real Academia de la Lengua Vasca = Académie de
la Langue Basque

Tin statistics / International Tin Council = Conseil International de l'étain =
Consejo Internacional del Estaño

1.1.7N Izenburu orokorrik gabeko dokumentuak

1.1.7Na) Informazio-iturri nagusian egile baten bi lan edo gehiagoren izenburuak ageri direlarik, izenburu orokorrik azaltzen ez bada, erantzukizunaren aipua edo erantzukizunen aipuak azken izenburuaren, pareko azken izenburuaren, azken azpiizenburuaren edo izenburuari buruzko azken informazio osagarriaren ondoren jasoko dira.

Poesia argitaragabea ; Azken poesia / Gabriel Aresti

Artikuluak ; Hitzaldiak ; Gutunak / Gabriel Aresti

Haritchabalet ; don Juan eta bere adixkidiak / Jean Baptiste Constantin ; Patri
Urkizuren edizioa

La dama del alba ; La sirena varada ; Nuestra Natacha / Alejandro Casona ; prólogo de Mauro Armíño

1.1.7Nb) Dokumentu batek zenbait egileren lanak biltzen dituelarik, izenburu orokorrik ez badu, erantzukizunaren aipu bakoitza dagokion izenburuaren ondoren (edo pareko izenburuaren, edo azpiizenburuaren edo izenburuari buruzko informazio osagarriaren ondoren) jasoko da.

Altzate'ko Jaun / Pio Baroja ; Agirre'tar Maria Dolores eta Yurramendi'tar Felipe'k euskaratua. Amal : bi egintzetan eratutako antzerki ituna / Rabindranath Tagore ; Agirre'tar Maria Dolores'ek euskaratua

Txotx ; 40 ezetz / gidoi eta zuzendaritza, Asier Altuna, Telmo Esnal. Altsasu 1936 / zuzendaria, Helena Taberna ; gidoilariak, Helena Taberna, Andres Martorell

Los invictos / Willian Faulkner. Bajo la rueda / Herman Hesse. Los asesinos / Ernest Hemingway

Cuarteto sobre temas vascos : op. 31 / José María Usandizaga. Cuarteto n. 1 en fa menor / J. Muñoz Molleda

1.1.7Nc) Izenburu orokorrik ez badago eta erantzukizunaren aipu batek lan bat baino gehiago hartzen badu, argi eta garbi adierazi beharko da erantzukizunaren aipu bakoitzaren eta lan desberdinen arteko harremana zein den. Komeni denean, oharren bidez emango da harreman horren berri.

Memorias ; Cuadros de viaje / Enrique Heine ; la traducción del alemán ha sido hecha por Manuel Pedroso, Manuel G. Morente

Oharra

Lehenengo idazlanaren itzultzailea Manuel Pedroso eta bigarrenarena Manuel G. Morente

Mimiambos ; Fragmentos mímicos / Herodas. Sufrimientos de amor / Partemio de Nicea ; introducciones y notas [para la primera obra] de José Luis Navarro y [para la segunda y tercera obras de] Antonio Melero

El sombrero de tres picos ; Noches en los jardines de España / Manuel de Falla

Oharra

Lehenengo idazlanaren egilea Gregorio Martínez Sierra, Pedro Antonio de Alarcónen lanean oinarrituta

1.1.70 Egilearen edo beste edozein erantzuleren izena izenburuaren, azpiizenburuaren edo izenburuari buruzko informazio osagarriaren parte denean, ez da erantzukizunaren aipuaren eremuan jasoko, salbu eta informazio-iturri nagusian bereizita ageri denean.

Andersen'en ipuiñak : ume ipuiñ-ameslariak-aitita-amamaren atsegin-erazle / egilea, Otazua ta Asua'tar Benito ; argitaratzailea, Errekaldeko Lagun Artea Kultur Taldea ; babeslea, Sabino Arana Kultur Elkargoa

Bernardo Atxaga / antologia eta sarrera, Koldo Izagirre

The dramatic works of W. Shakespeare / with remarks on his life and writings by Thomas Campbell

Álbum Beethoven / transcripciones para guitarra por Miguel Llobet

Luis de Castresana : pintura

baina

Andimaren idazlan hautatuak / Andima Ibiñagabeitia ; Pako Sudupek prestatua

1.1.7P Izenburu nagusia izenburu komun batez eta menpeko izenburu batez osatuta badago, erantzukizunaren aipu bakoitza dagokion izenburu-zatiaren ondoren joango da. Zalantza izanez gero edo erantzukizunaren aipua izenburu osoari baldin badagokio, azken zatiaren ondoren eman-
go da.

Manual de ortopedia y fracturas / Apley. Preguntas respuestas : sistema de autoevaluación / C. B. Lavy, D. S. Barret

Danzas fantásticas. Ensueño / Joaquín Turina

1.2 EDIZIOAREN EREMUA

EREMUAREN ELEMENTUAK

Edizioaren aipua

Pareko edizioaren aipua

Edizioari dagozkion erantzukizunen aipuak

Edizioaren beste aipua

Edizioaren beste aipuari dagozkion erantzukizunen aipuak

1.2.1 ITURRIAK

Ikus. 1.0.1

1.2.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.0.2

Edizioaren eremurako agindutako puntuazioa hauxe izango da:

- a) Pareko edizio bakoitzaren aurretik berdin-ikurra (=) jarriko da.
- b) Edizioari edo edizioaren beste aipuari dagokion lehen erantzukizunaren aurretik zehar-
-marra (/) jarriko da.

c) Edizioari edo edizioaren beste aipuari dagozkion hurrengo erantzukizunen aurretik puntu eta koma (;) jarriko da, erantzukizun guztiek edo horietariko batzuek esaldi bakarra osatzen ez badute behintzat.

d) Edizioaren beste aipuaren aurretik koma (,) jarriko da.

Adibideak

- . — Edizioaren aipua
- . — Edizioaren aipua = Pareko edizioaren aipua
- . — Edizioaren aipua / erantzukizunaren aipua
- . — Edizioaren aipua / erantzukizunaren aipua ; bigarren erantzukizunaren aipua ; hirugarren erantzukizunaren aipua
- . — Edizioaren aipua / erantzukizunaren aipua = pareko edizioaren aipua / erantzukizunaren aipua
- . — Edizioaren aipua, edizioaren beste aipua
- . — Edizioaren aipua / erantzukizunaren aipua, edizioaren beste aipua / erantzukizunaren aipua

1.2.3 EDIZIOAREN AIPUA

1.2.3A Eremuaren lehen elementua da. Edizioaren aipua egiterakoan, dokumentuari dagokion edizioa edo aurreko edizio bati dagokionez dituen aldaketak adieraziko dira, betiere, dokumentuan bertan halakorik azaltzen bada. Lehen edizioaren aipua alde batera utz *daiteke*.

1.2.3B Edizioaren aipua dokumentuan ageri bezalaxe adieraziko da, ahal den guztietan laburdurak erabiliz (ikus VIII. eranskina). Zenbakiak transkribatzean zenbaki arabiarren ordinalak erabiliko dira. Edizioaren inguruko azalpen osagarriak esanguratsuak direla ikusten bada, jaso egingo dira.

Informazio-iturri nagusian

Bigarren edizioa

Horrela transkribatuko da

. — 2. ed.

Transkribatzeen beste zenbait adibide

. — 3rd ed.

. — 2nd ed.

. — 2. argit.

. — 3. ed.

. — 5. Aufl.

. — Ed. lab.

. — Argit. lab.

- . — Ed. berrik.
- . — Ed. zuz. eta egun.
- . — 6^a ed. rev. y puesta al día
- . — 4^e éd.
- . — 2. eginaldiya

1.2.3C Edizioaren aipua letra batek edo gehiagok edota zenbaki batek edo gehiagok osatuta badago eta beste inolako hitzik ageri ez bada, deskribapenean termino argigarriren bat jarriko da taket artean.

- . — 4. [ed.]
- . — [Estado] C

Edizioaren aipua adierazteko soilik edo batik bat zenbakiak edo letrak ez diren karaktereak erabili badira, karaktere horien ordeztu letrak nahiz zenbakiak, komeni dena, jarriko dira, eta beharrezkoa dela ikusten bada, azalpen bat emango da 7. eremuan.

1.2.3D Aipu bat edizioari buruzkoa ote den argi ez badago, «edizioa», «edizio berrikusia» edo antzeko hitzen bat edo beste hizkuntza nahiz idazkera batzuetan emandako baliokideren bat dagoen begiratu da halakotzat jotzeko; betiere, aipuok edizioaren apailatzaileei edo kidekoei buruzkoak ez badira, halakoak 1. eremuan jaso behar baitira.

- . — Luxuzko ed.
- . — Ed. ofiziala
- . — Behin-behineko edizioa
- . — Ed. zenbakitua
- . — Ed. osoa
- . — Ed. biblia-paperean

1.2.3E Dokumenturen batean edizioaren inguruko aipurik ageri ez arren, aurreko edizioekin alderatuta aldaketa garrantzitsuak egin direla jakinez gero, edizioaren aipua sar *daiteke* deskribapenean, taket artean, informazio-iturri nagusiko hizkuntzan.

- . — [Ed. berria]
- . — [Argit. zab.]
- . — [2. argit. zuz. eta osatua]
- . — [Ver. Aufl.]
- . — [Rev. ed.]

1.2.3F Edizioari buruzko aipu bat hizkuntza edota idazkera bat baino gehiagotan ageri bada, izenburuaren hizkuntzan edota idazkeran ageri dena hartuko da. Halakorik egin ezin bada, lehenengo ageri dena jasoko da.

1.2.3G Edizioaren aipua beste eremu bateko elementu baten zatia bada eta elementu hori dagoneko jasota badago, ez da berriz jasoko.

The compact edition of the Dictionary of the National Biography
eta ez
Dictionary of the National Biography. — Compact ed.

1.2.3H Deskribapenaren beste elementu batzuekin (esaterako, jatorrizko izenburuarekin, eta abarrek) lotutako informazioen bat edizioaren aipuaren parte denean, horren barruan jasoko da.

. — Ed. facs. de la 1^a ed. del Quijote
. — Jat. bertsioren 2. ed.

1.2.4 PAREKO EDIZIOAREN AIPUA

Informazio-iturri nagusian edizioaren aipuak hizkuntza edota idazkera batean baino gehiagotan ageri badira, pareko edizio gisa jaso *daitezke*.

. — Argit. lab. = Ed. reducida
. — 2. argit. berrik. eta egun. = 2^a ed. rev. y act.
. — Ed. corr. y aum. = Éd. corr. et augm. = Ed. zuz. eta hand.
. — 3. argit., argit. ofiziala = 3^a ed., ed. oficial = 3^a ed., éd. Officielle

1.2.5 EDIZIOARI DAGOZKION ERANTZUKIZUNEN AIPUAK

1.2.5A Erantzukizunaren aipua lanaren edizio bati edo batzuei, baina ez guztiei, dagokienean, erantzukizun hori eremu honetako hirugarren elementu gisa jasoko da, edizioaren aipuaren ondoren.

Transkripzioarako, ikus 1.1.7D

. — 4. argit. / Lekuona apaizak prestatua eta aintzin-solastua
. — 3^e éd. / révisée par J. Dupond

1.2.5B Erantzukizunaren aipuak lan baten lehen edizioari dagozkiola argi baldin badago, izenburuaren eta erantzukizunaren aipuaren eremuan transkribatuko dira, salbu eta gramatikalki edizioaren aipuaren zati denean.

Alegiak eta poemak / Jules Moulier «Oxobi» ; Ainhoa Beolaren edizioa

1.2.5C Erantzukizunaren aipua lan baten edizio guztiei edo deskribatzen den edizioari eta aurreko edizio guztiei dagokienean, izenburuaren eta erantzukizunaren aipuaren eremuan jasoko da.

Zalantza izanez gero, izenburuaren eta erantzukizunaren aipuaren eremuan transkribatuko da.

1.2.5D Deskribatzen den edizioaren gehigarriei edo bestelako osagarriei, baina ez guztiei, dagozkien erantzukizunaren aipu formalak jaso egingo dira, baldin eta erantzuleak argi identifikatuta ageri badira. Hala ez bada, edizioaren aipuaren eremuaren barruan jasoko dira.

- . — Ed. berrikuslea eta aitzin-solasaren itzultzea / Edorta Agirre
- . — 2^a ed. / con un nuevo epílogo del autor
- . — 2^a ed. rev. / con índice alfabético de materias por J. Pérez
- . — 6^a ed. / [con ilustraciones de Doré]

baina

- . — 5^a ed., con índice toponímico

1.2.5E Informazio-iturri nagusian pareko edizioaren aipuak hizkuntza edota idazkera batean baino gehiagotan ageri badira (ikus 1.2.4) eta edizioaren erantzukizunaren aipua hizkuntza edota idazkera bakarrean ageri bada, erantzukizunaren aipua pareko edizioaren aipu guztien ondoren jasoko da.

- . — Argit. ofiziala = Ed. oficial / Herrizaingo Sailak prestatua
- . — Ed. conmemorativa = Oroitzapenezko argit. / realizada por la Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián

Informazio-iturri nagusian edizioaren aipuak eta edizioaren erantzukizunaren aipuak hizkuntza edota idazkera batean baino gehiagotan ageri badira, erantzukizunaren aipu bakoitza edizioaren aipuaren ondoren jaso *daiteke*.

- . — 2. argit. zuz. eta gehit. / zuzendaritza eta koordinazioa, Antonio Galera Coletto, Bernardo Catón Santarén = 2^a ed. corr. y aum. / dirección y coordinación, Antonio Galera Coletto, Bernardo Catón Santarén

Informazio-iturri nagusian edizioaren aipua hizkuntza edota idazkera bakarrean ageri bada eta edizioaren erantzukizunaren aipua hizkuntza edota idazkera batean baino gehiagotan, erantzukizunaren aipua izenburu nagusiaren hizkuntza edota idazkeran jasoko da. Irizpide hori ezin bada aplikatu, aurrena azaltzen den aipua jasoko da.

- . — 2. argit. / R. Bozas-Urrutiak ikuskatu, oharpenez ornitu ta euskarazko itzulpen batez geitua

Nahi izanez gero, erantzukizunaren pareko aipuak edizioaren aipuaren ondoren jasoko dira, bakoitzaren aurretik berdin-ikurra (=) jarriko da.

- . — 2. argit. / R. Bozas-Urrutiak ikuskatu, oharpenez ornitu ta euskarazko itzulpen batez geitua = aumentada con una traducción al euskera y notas de Rodolfo Bozas-Urrutia

1.2.6 EDIZIOAREN BESTE AIPUA

1.2.6A Edizioaren beste aipua egingo da, edizioaren aipuaren eta horri dagozkion erantzukizunen aipuen ondoren, honako kasu hauetan:

a) Dokumentuan bertan azaltzen bada beste edizio baten barruko edizioa edota adierazitako lehen edizioaren baliokidea dela.

- . — Ed. zuz. eta egun., 3. argit.
- . — 4. argit. / Maria Etxaniz, 2. argit. egun.
- . — 1. argit., 2. argit. zuz.
- . — Ed. lab., 2. ed.

b) Edizio nagusiaren beste inprimaketa batzuetako edukiarekin alderatuz aldaketa nabarmenak ageri baditu.

- . — 1. argit., [11 mapa berrirekin]

1.2.6B Aldaketarik ageri ez duten berrinprimaketen berri eman daiteke, komenigarria dela ikusten bada.

- . — 1. argit., 1. berrinp.
- . — 1. argit., 2. berrinp.
- . — 2nd ed., 2nd printing
- . — 4^e éd., 3^e tirage

1.2.7 EDIZIOAREN BESTE AIPUARI DAGOZKION ERANTZUKIZUNEN AIPUAK

Edizioaren beste aipuari dagozkion erantzukizunen aipuak 1.2.5 puntuan ezarritakoaren arabera jasoko dira.

- . — 1. argit., berrinp. / Mikel Zubizarreta

1.2.8 IZENBURU OROKORRIK GABEKO LANEN BILDUMAK

Dokumentu batean izenburu orokorrik gabeko zenbait lan bildurik egonik, lanetako bakoitzaren edizioa bereiz adierazita dagoenean, edizio horietako bakoitza dagokion lanaren izenburuaren eta erantzukizunen aipuen ondoren jasoko da. Halakoetan, ohiko puntuazioa erabiliko da eta ez edizioaren aipuetarako agindutakoa.

Viva Triana : pasodoble, 3^a ed. ; Rusiam melody : fox, 2^a ed. / música y arreglo,
Ernesto Vázquez

Miguel de Unamuno, 5^a ed. ; Escuela de Madrid, 2^a ed. ; La imagen de la vida
humana, 2^a ed. / Julián Marías

1.2.9 LIBURUKI EDO UNITATE FISIKO BAT BAINO GEHIAGO DUTEN LANAK, ZENBAIT EDIZIOTAN EMANAK

Deskribatu beharreko dokumentua, bildumaren ezaugarriak direla eta, bi edizio edo gehiagoko zenbait unitate fisikok osatuta badago, oharren bidez adieraz daiteke zein ediziori dagokion unitate fisiko horietako bakoitza. Edukiari buruzko oharra edota deskribapen-maila desberdinak erabiliz gero, edizioari buruzko xehetasunak zati bakoitzerako ezarritako lekuan jasoko dira.

1. libk., 3. ed., 1972 ; 2. libk., 1. ed., 1969

1.3 DOKUMENTU-MOTAREN DATU ESPEZIFIKOEN EREMUA

Eremu hau ez da erabiliko dokumentu-mota guztiak deskribatzerakoan. Kasuan kasu zehaztuko da zer elementu deskribatuko diren eta nola.

1.4 ARGITALPENAREN, BANAKETAREN ETA ABARREN EREMUA³

EREMUAREN ELEMENTUAK⁴

Argitaralekua eta *banaketa-lekua*

Argitaratzailearen eta *banatzailearen* izena

Banatzaile-funtzioaren aipua

Argitalpen-data eta *banaketa-data*

Fabrikazio-lekua, fabrikatzailearen izena eta fabrikazio-data

1.4.1 ITURRIAK

Ikus 1.0.1

³ Eremu honetan argitaratzailea aipatzen den guztietan, argitalpenaren edo antzekoaren edozein erantzule dela ulertuko da, dokumentu-motaren arabera.

⁴ 1.4.3/1.4.6 ataletan bildutako arauk argitaratzailearentzat nahiz banatzailearentzat balio dute. 1.4.4F araua, aldiz, banatzaileari baino ez dagokio. Kontuan izan banatzaileari dagozkion aipu guztiak aukerakoak direla. Edonola ere, banatzailearen datuak azaltzea komeni da, argitaratzailearen izena ageri ez denean.

1.4.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.0.2

Argitalpenaren, banaketaren eta abarren eremuko elementuetan honako puntuazio hau erabili beharko da:

- a) Bigarren edo hurrengo argitaralekuaren, banaketa-lekuaren eta abarren aurretik puntu eta koma (;) jarriko da.
- b) Argitaratzailearen, banatzailearen eta abarren izenaren aurretik bi puntu (:) jarriko da.
- c) Banatzaile-funtzioaren aipua taket artean ([]) adieraziko da.
- d) Argitalpen-dataren, banaketa-dataren eta abarren aurretik koma (,) jarriko da.
- e) Fabrikazioari dagozkion datuak (lekua, izena, data) parentesi artean jarriko dira. Parentesiaren barruan argitaralekuetarako, argitaratzailearen izenerako eta argitalpenaren datarako agindutako puntuazio bera erabiliko da.

Adibideak

- . — Argitaralekua : argitaratzailea, data
- . — Argitaralekua : argitaratzailea : beste argitaratzailea, data
- . — Argitaralekua : argitaratzailea ; argitaralekua : argitaratzailea, data
- . — Argitaralekua : argitaratzailea, data ; banaketa-lekua : banatzailea [funtzioa], data
- . — Argitaralekua : argitaratzailea, data (fabrikazio-lekua : fabrikatzailea, fabrikazio-data)

1.4.3 ARGITARALEKUA

1.4.3A Eremuaren lehen elementua da. Argitaralekua argitaratzaileak egoitza dueneko herriaren izena da. Dokumentuan ageri den modu gramatikal eta ortografiko berean transkribatuko da; ahal bada, aipurekin batera batzuetan ageri ohi diren preposizioak eta hitzak kenduta.

Informazio-iturri nagusian

En Bilbao

Horrela transkribatzen da

Bilbao

Informazio-iturri nagusian

Bilbon

Horrela transkribatzen da

Bilbo

Informazio-iturri nagusian

Donostia'n

Horrela transkribatzen da

Donostia

Identifikatzeko beharrezkoa dela ikusten bada, hiriaren izenaren aldaera bat gehitu daiteke, taket artean.

- . — Villamayor de Marquina [Elgoibar]
- . — Lutetia [Paris]
- . — Genf [Ginebra]

Izen bat laburtuta edo zati bat falta duela ageri denean, taket artean erantsiko da izen osoa.

- . — Abanto [Zierbena]
- . — Pamp [Pamplona]
- . — N. Y. [New York]

1.4.3B Dokumentuan ageri den argitaralekua benetakoa ez dela jakinez gero, horren ondoren dagokion lekuaren izena jar daiteke, taket artean eta aurretik «i.e.» laburdura duela, edo, bestela, ohar baten bidez eman daiteke beharrezkoa den azalpena.

- . — Andoain [i.e. Tolosa]

1.4.3C Argitaratzailea oso ezaguna ez delako, haren helbide osoa adierazi beharra dagoela ikusten bada, helbidea argitaralekuaren aipuaren ondoren jarriko da. Helbideari buruzko datuak eremu horretarako agindutako iturrian azaltzen badira, parentesi artean adieraziko dira; hala ez bada, taket artean.

- . — Madrid [Segre, 25] : Edifrans
- . — Valencia (Dr. Moliner, 6) : Nau Llibres

1.4.3D Oso ezagunak ez diren lekuak identifikatzeko edo izen bera dutenak bereizteko, leku-izenei herrialdearen, probintziaren edo eremu geografikoaren izena jarriko zaie ondoan; parentesi artean, azalpenok agindutako iturrian ageri badira, eta taket artean, iturri horretatik jasota ez badaude. Herrialdearen, probintziaren eta abarren izena jartzea beharrezkoa bada, oharretan leku-izenen euskarazko aldaera jarriko da, halakorik izanez gero.

- . — Getaria (Lapurdi)
- . — Jatsu (Nafarroa Beherea)
- . — Bastida [Nafarroa Beherea]
- . — Córdoba [Argentina]

1.4.3E Elementu hau deskribatzeko erabili beharreko iturrian argitaratzaile edo banatzaile batek argitaraleku edo banaketa-leku bat baino gehiago baditu, tipografikoki nabarmentzen dena jasoko da beti eta, halakorik ez badago, lehenengo ageri dena. Gainerako lekuak jasotzea ala ez *aukerakoa* izango da. Iturrian ezein leku-izenik nabarmendu ez den kasuetan izenen bat jaso gabe uzten denean, «[etab.]» laburdura erabil *daiteke*. Iturrian azaltzen diren herriak zenbait herrialdetakoak izanik horien artean Euskal Herrikoen bat badago, jaso egingo da.

- . — Baiona [etab.]
- . — Donostia ; Bilbo
- . — Zarautz ; Iruñea ; Larrabetzu
- . — London ; New York ; Ottawa
- . — Bilbao ; Barcelona

(*Informazio-iturri nagusian Barcelona tipografikoki nabarmendua*)

1.4.3F Dokumentuan ageri ez arren lekua zein den ziur jakinez gero, taket artean adieraziko da. Argitaralekua zein den ez badakigu, esku artean ditugun datuen arabera izan litekeena jarriko da, informazio-iturri nagusiaren hizkuntzan, taket artean eta galdera-ikurrarekin. Leku-izenik jartzea ezinezkoa bada, goragoko administrazio-eremu baten izena (probintzia, autonomia-erkidego, estatu eta abarrena) jarriko da taket artean.

- . — [Euba]
- . — [Belgika]
- . — [Nafarroa?]

Argitaralekua zein den jakiterik ez dagoenean, «s.l.» laburdura jarriko da taket artean.

- . — [S.l.]

1.4.3G Lekuaren izena iturri berean hizkuntza edota idazkera batean baino gehiagotan ageri bada, izenburu nagusiarekin bat datorrena aukeratu da. Halakorik egin ezin bada, tipografikoki nabarmentzen dena jasoko da eta, halakorik ere ez badago, lehenengo ageri dena. Komenigarria dela uste bada, pareko aipuak egin *daitezke*.

- . — Gaubea = Valdegovía
- . — Lejona = Leioa
- . — London = Londres

1.4.3H Banatzailea azaltzen bada, eta haren eta argitaratzailearen egoitzak herri berean ez badaude, banatzailearen egoitza adierazi egingo da.

- . — Euba : Ibaizabal ; Sondika : Edelvives [banatzailea]
- . — París : Unesco ; Madrid : Mundi-Prensa [banatzailea]

1.4.3I Argitaratu gabeko dokumentuak deskribatzean (eskuizkribuak, jatorrizko arte-lanak, filmak edo bideoak, soinu-grabazioak, ordenagailuko fitxategiak eta abar) ez da argitaralekuaren berri emango.

1.4.4 ARGITARATZAILEAREN IZENA

1.4.4A Argitaralekuaren ondoren, eta eremuaren bigarren elementu gisa, argitaratzailearen izena jasoko da.

1.4.4B Argitaratzailearen izena laburtu egingo da, baldin eta laburtuz gero, zalantzarik gabe identifikatu badaiteke.

- . — Iruñea : Igela
Informazio-iturrian
Igela argitaletxea
- . — Zarauz : Icharopena
Informazio-iturrian
Editorial Icharopena
- . — Donostia : Txertoa
Informazio-iturrian
Txertoa argitaldaria
baina
- . — Oñati : Arantzazu Frantziskotar Argitaletxea

Argitaratzailearen izen osoa jadanik izenburuaren eta erantzukizunaren aipuaren eremuan jasota badago, eremu honetan laburtuta edo siglen bidez eman daiteke, horretarako taketik erabili beharrik gabe.

- Arthropoda / [Udako Euskal Unibertsitatea, Natur Zientziak Saila]. — Iruinea : UEU
- Erredox ekuazioak : (doikuntza) / autores, Aurora González Martín ... [et al.]. — Bilbao : AGM [etab.]

Argitaratzailearen aipuan beste pertsona edo korporazio baten funtzioa adierazten duten hitzak ageri badira aipuari gramatikalki loturik, jaso egingo dira.

- . — Madrid : publicado por OPE para el Museo del Prado

1.4.4C Argitaratzaile bat baino gehiago daudenean, beti tipografikoki nabarmentzen dena jasoko da; halakoetan, ez da adieraziko beste batzuk aipatu gabe utzi direla. Nabarmendutakorik egon ezean, lehenengo ageri dena hartuko da. Gehiago ere jaso *daitezke* zentro katalogatzaileak garrantzitsuak direla irizten badio. Argitaratzaileak nabarmendu ez den kasuetan, izenen bat jaso gabe uzten denean, «[etab.]» laburdura erabil *daiteke*.

- . — Donostia : Tarttalo ; Barcelona : Timun Mas
- . — Oñati : Arantzazu E. F. ; [Bilbo] : Labayru Ikastegia ; [Bilbo] : Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa
- . — Bilbao : Bilbao Bizkaia Kutxa [etab.]

1.4.4D Korporazio batek bere menpeko sail, zerbitzu edo abarren bidez argitaratzen duenean eta dokumentuan hala adierazten denean, menpeko korporazioa bakarrik hartuko da argitaratzaile-

letzat, betiere, argi identifikatzeko nahikoa bada. Hala ez bada eta korporazio nagusiaren izena ere jarri beharra badago, jasotako dokumentuan ageri diren hurrenkeran jarriko dira.

- . — Vitoria-Gasteiz : Emakunde
- . — Bilbo : Bizkaiko Foru Aldundia, Ingurugiro eta Lurralde Ekintza Saila
- . — Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
- . — Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritza, Argitalpen Zerbitzu Nagusia
- . — [Leioa] : Euskal Herriko Unibertsitatea, Materialen Fisika Saila
eta ez
- . — [Leioa] : Euskal Herriko Unibertsitatea, Zientzia Fakultatea, Materialen Fisika Saila
eta ez
- . — [Leioa] : Materialen Fisika Saila

1.4.4E Argitaratzailea zein den ez dakigunean, «[s.n.]» laburdura erabiliko da.

- . — Durango : [s.n.]
- . — [S.l. : s.n.]
edo
- . — [S.l.] : [s.n.]

1.4.4F Agindutako informazio-iturrian argitaratzailearen aipuaren barruan banatzaile-funtzioaren inguruko ohar bat ageri bada, eta deskribapenean jaso nahi izanez gero, informazio-iturrian ageri bezalaxe jasoko da.

- . — Segura : Xabier Olano Mendia ; Donostia : banatzailea, Zabaltzen
- . — Madrid : F. Martín Asín : distribuido por Paraninfo

Banatzailearen izena agindutako informazio-iturrian ageri ez arren, jaso egin nahi bada, 7. eremuan jasoko da.

1.4.4G Fabrikazio-lekuak eta fabrikatzailearen izenak ezin izango dute argitaralekua eta argitaratzailearen izena ordezkatu.

- . — [S.l. : s.n.], 1997 (Lasarte-Oria : Antza)
- . — [S.l. : s.n.], 1998 (Donostia : Zorroaga liburudenda)
- . — [S.l.] : [s.n.], 1970 (Burgos : Aldecoa)

Fabrikatzailea aldi berean argitaratzailea bada, edo izan daitekeela uste bada, argitaratzaile gisa baino ez da jasoko.

- . — Vitoria-Gasteiz : [Eusko Jaurlaritzaren Inprimategi-Erreprografia Zerbitzua]

1.4.4H Faksimileen edo argazkien kopietan, kopiaren lekua, argitaratzailea eta data jasoko dira argitalpenaren eremuan. Jatorrizko edizioaren argitaratze- eta inprimatze-datuak oharretan adieraziko dira.

Euskaldunak. III, Gaztaiñaro / Nikolas Ormaetxea «Orixe». — Donostia-San Sebastián : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentua = Diputación Foral de Guipúzcoa, Departamento de Cultura, Euskera, Juventud y Deportes, 2000

Oharrean

Argit. honen faks.: Zarautz : Itxaropena, 1950

1.4.4I Argitaratzailearen izena hizkuntza edota idazkera bat baino gehiagotan ageri bada, izenburu nagusiaren hizkuntzan dagoena hautatuko da. Halakorik egin ezin bada, tipografikoki nabarmentzen dena hartuko da eta, halakorik ez badago, lehenengo ageri dena. Pareko aipuak egin *daitezke*.

. — Donostia : Euskal Herriko Unibertsitatea = San Sebastián : Universidad del País Vasco

. — Bilbo : Euskaltzaindia = Real Academia de la Lengua Vasca = Académie de la Langue Basque

. — Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del País Vasco

1.4.5 BANATZAILE-FUNTZIOAREN AIPUA

Eremuaren hirugarren elementua da. Banatzailea zein den argi ez badago, hitz edo esaldi bat jar *daiteke* azalpen modura, taket artean.

. — Donostia : Plan : Iñaki Beobide [banatzailea]

. — [Vitoria : Lurkoi] : Pull Norte [banatzailea]

1.4.6 ARGITALPEN-DATA

1.4.6A Eremu honen laugarren elementua da. Zenbaki arabiarretan adieraziko da kristau-arokoa bada. Gainerako kasuetan dokumentuan ageri bezalaxe idatziko da, ondoan, taket artean, kristau-aroko baliokidea duela.

, 1975

, 5378 [1618]

, 1269 de la Hégira [1843]

, an II [1793]

, anno XV [1937]

, II año de la victoria [1940]

, an troisième de la République Française [1792]
 , anno VII republicano [1798]
 , [1665]
eta ez
 MDCLV
 , floréal an 10 [1802]

Argitalpen-datak dagokion eremuan adierazitako edizioaren edo inprimaketaren aipuekin loturik egon behar du. Edizioaren beste aipua jasotzen denean, horrexeri lotu beharko zaio data.

1.4.6B Ageri den data okerra bada, dela akats batengatik dela beste arrazoi batzuentzat, argitalpenean ageri bezalaxe transkribatuko da, ondoan, taket artean, «i.e.» laburdura eta data zuzena jarrita.

, 535 [i.e. 1535]
 , 1890 [i.e. 1980]
 , 1989 [i.e. 1990]

1.4.6C Dokumentuan argitalpen-datarik ageri ez bada, baina beste aipuetatik (fabrikazioaren, lege-gordailuaren edo copyright-aren datatik) data zein den ziur jakin badaiteke, horixe jarriko da argitalpen-datan taket artean, betiere, baldin eta dokumentuari dagokion edizioa lehen argitalpenekoa bada.

[1992]
Argitalpen-datarik ez duen edizio baten lehen inprimaketa da, baina inprimaketa-data badu

1.4.6D Ziur egon ezean, argitalpen-datarako, fabrikazioaren, lege-gordailuaren edo copyright-aren daten artean edizioa argitaratutako datatik gertuen dagoena adieraziko da, dagokion laburdura aurretik jarrita.

, inp. 1998
 , L.G. 2001
 , cop. 1983

1.4.6E Data horiek bat etorri gero, lehentasun-hurrenkera honen arabera hautatuko dira: fabrikazioarena, lege-gordailuarena eta copyright-arena.

1.4.6F Dokumentuan ezin datarik azaltzen ez bada, gutxi gorabeherako data bat jarriko da, taket artean. Gutxi gorabeherako data dela adierazteko, «ca.» laburdura gehituko zaio aurretik edo galdera-ikurra jarriko zaio ondoren, edo antzeko beste bide bat erabiliko da.

, [1898 edo 1899] *Urte bat edo bestea izan daitekeenean*
 , [1957?] *Data hori izan litekeela uste denean*

, [1905etik 1921era bitartean]	<i>20 urte baino gutxiagoko data-tarteak direnean bakarrik</i>
, [ca. 1940]	<i>Gutxi gorabeherako data denean</i>
, [193-]	<i>Hamarkada ziur jakiten denean</i>
, [193-?]	<i>Hamarkada hori izan litekeela uste denean</i>
, [17--]	<i>Mendea ziur jakiten denean</i>
, [17--?]	<i>Mende hori izan litekeela uste denean</i>

1.4.6G Urte desberdinetan argitaratutako unitate fisikoen argitalpen-data jasotzean, lehenengo eta azkenengo argitaratutakoen datak adieraziko dira marratxo batez lotuta.

- . — Madrid : Victoriano Suárez, 1930-1944
- . — Madrid : Columbia, 1975-1976

Unitate fisiko guztiak eskuratu ez badira, lehenengo argitaratutakoaren urtea adieraziko da, ondoren marratxo jarrita.

- . — Donostia : Lur, 1997-
- . — Madrid : Victoriano Suárez, 1930-

1.4.7 FABRIKAZIO-LEKUA, FABRIKATZAILEAREN IZENA ETA FABRIKAZIO-DATA

1.4.7A Hurrenkera horretan adieraziko dira lehenago agindutako arauen (1.4.3/1.4.6) arabera. Elementu hauek jaso ala ez aukerakoa da.

1.4.7B **Salbuespenak**

1.4.7Ba) Argitaralekua eta argitaratzailea azaltzen ez direnean, fabrikazio-lekua eta fabrikatzailearen izena adieraziko dira beti.

- . — [S.l. : s.n.], 1961 (Donostia : Izarra)

1.4.7Bb) Nahi izanez gero, argitalpen-dataren ondoren fabrikazio-data jar daiteke, betiere, data biak bat ez badatoz.

- . — Bayonne : Ikas, 1979 (Zarautz : Itxaropena, 1977)
- . — Donostia : Elkar, 1986 (inp. 1983)

1.4.7C Fabrikazio-lekuak edo fabrikatzaileak bat baino gehiago badira, 1.4.3E eta 1.4.4C arauak aplikatuko dira.

1.5 DESKRIBAPEN FISIKOAREN EREMUA

EREMUAREN ELEMENTUAK

Materialaren tamaina eta izendapen espezifikoa

Bestelako ezaugarri fisikoen aipua

Neurriak

Material gehigarria

1.5.1 ITURRIAK

Ikus 1.0.1

1.5.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.0.2

Hauxe da deskribapen fisikoaren elementuetan erabili beharreko puntuazioa:

- a) Tamaina eta neurriak ez diren ezaugarri fisikoen aurretik bi puntu (:) jarriko da, eta koma batez (,) bereiziko dira.
- b) Neurrien aurretik puntu eta koma (;) jarriko da.
- c) Material gehigarriaren aipu bakoitzaren aurretik gehi ikurra (+) jarriko da.

Adibideak

- . — Materialaren tamaina eta izendapen espezifikoa : ezaugarri fisikoak ; neurriak
- . — Materialaren tamaina eta izendapen espezifikoa : ezaugarri fisikoak ; neurriak + material gehigarria
- . — Materialaren tamaina eta izendapen espezifikoa : ezaugarri fisikoak ; formatua eta/edo neurriak + material gehigarria
- . — Materialaren tamaina eta izendapen espezifikoa : ezaugarri fisikoak ; neurriak + material gehigarria + material gehigarria

1.5.3 MATERIALAREN TAMAINA ETA IZENDAPEN ESPEZIFIKOA

1.5.3A Materialaren tamaina eta izendapen espezifikoa, katalogatzen den dokumentua osatzen duen unitate-kopurua zehaztuko da zenbaki arabiarretan, eta, ondoren, material-mota. Erabili beharreko terminologia, ahal den neurrian, eranskinetan ezarritakoa izango da edo, bestela, ka-

talogatu beharreko dokumentuan bertan erabilitakoa. Era berean, kontuan hartu beharko da dokumentu-mota desberdinak deskribatzeko araututakoa.

215 or.
72 o.
1 part.
2 parte
1 disko
1 album (25 posta-txartel)
8 diap.
1 est.
1 mapa
2 argk.
3 libk.

1.5.3B Ahal dela, tamaina ahalik eta zehatzen adieraziko da. Orrialdeei, orriei eta abarri edo denborari dagozkien datuak parentesi artean jarriko dira.

1 karpeta
1 part. (4 o.)
1 atlas (225 or.)
1 part. (2 libk.)
1 gardenki (6 gainjarriak)
1 film. (120 fotograma bikoitz)
2 bideokasete (120 min)
1 disko (45 min)
1 film-biribilki (50 min)
1 mikrofitxa (200 fotograma)

1.5.3C Dokumentuak bi unitate fisiko edo gehiago baditu, unitate bakoitzaren tamaina gehituko zaio parentesi artean. Tamaina adieraztea *aukerakoa* izango da zatien tamaina deskribatzeko orrialdeak, orriak eta minutuak zehaztu behar direnean.

4 parte (20, 22, 22, 24 or.)
2 libk. (175, 235 or.)
2 disko (45, 49 min)

1.5.4 BESTELAKO EZAUGARRI FISIKOEN AIPUA

Bestelako ezaugarri fisikoen deskribapena eremuaren bigarren elementua da, eta kapitulu bakoitzean dokumentu-mota bakoitzerako ezarritakoaren arabera egingo da.

- 1 disko (45 min) : 33 b/min, monoa
- 1 part. (214 or.) : ir.
- 1 part. (270 or.) : 14 faks.
- 1 plano : kol. tinta-mar.
- 2 mapa : kol.
- 1 lur-globo : igeltsua
- 3 aireko argazki : kol.
- 1 txirrika : kol.
- 2 mikrofitxa : negatiboa
- 1 film. (30 fotograma) : soinua

1.5.5 NEURRIAK

Neurrien deskribapena eremuaren hirugarren elementua da, eta kapitulu bakoitzean dokumentu-mota bakoitzerako ezarritakoaren arabera egingo da.

- 275 or. ; 22 cm
- 1 mapa : kol. ; 28 × 40
- 1 mar. ; 18 × 14 cm
- 1 argk. ; 10 × 18 cm
- 1 argazki-negatibo ; 35 mm
- 10 diap. : kol. ; 7 × 7 cm
- 1 disko (16 min) : 45 b/min, monoa ; 30 cm
- 4 mikrofitxa ; 10 × 15 cm
- 1 disko konpaktu : soinua ; 12 cm

1.5.6 MATERIAL GEHIGARRIA

1.5.6A Eremu honen laugarren elementua da, eta dokumentuarekin batera argitaratutako materiala zehaztuko da bertan. Eremuak unitate fisiko bereizi bat edo gehiago izan ditzake.

1.5.6B Elementu hau 1.5.3/1.5.5 paragrafoetan eta material-mota desberdinetarako arau espezifikoeetan ezarritakoaren arabera deskribatuko da.

250 or. : ir. ; 24 cm + 1 disko

1 part. (445 or.) + 1 libreto

1 disko (55 min) : 33 b/min, estereoa ; 30 cm + 1 kartel

1 mikrofilm-txirrika : kol. ; 35 mm + 1 irakasle-gidaliburu

1 mapa : kol. ; 40 × 55 cm, 1 or. 50 × 65 cm + 1 aireko argazki

1.5.6C Material gehigarriaren izendapen hutsaren ondoren, deskribapen fisikoa gehitu *daiteke*.

1 part. (2 libk.) ; 21 cm + 1 disko (40 min) : 33 b/min, monoa ; 30 cm

1 mapa ; 28 × 35 mm + 1 aurkibide toponimiko (24 or. ; 30 cm)

35 diap. : kol. ; 5 × 5 cm + 1 kasete (20 cm) : monoa

1.5.6D Komenigarria dela ikusten bada, material gehigarriaren deskribapena honela egin daiteke:

- a) Zati bereizitzat hartuta
- b) Bigarren mailako deskribapena eginez (ikus 1.9.1)
- c) Oharren bidez (ikus 1.7.4Bc)

1.6. SERIEAREN EREMUA

EREMUAREN ELEMENTUAK

Seriearen izenburua

Seriearen pareko izenburuak

Seriearen azpiizenburua edota izenburuari buruzko informazio osagarria

Serieari dagozkion erantzukizunen aipuak

ISSNa (argitalpen seriatuen nazioarteko zenbaki normalizatua)

Seriearen zenbakia

Azpiserieen eta atalen izendapena edota izenburua

Azpiserieen eta atalen pareko izenburuak

Azpiserieen eta atalen azpiizenburua edota izenburuari buruzko informazio osagarria

Azpiserieei eta atalei dagozkien erantzukizunen aipuak

Azpiserieen eta atalen ISSNa

Azpiserieen eta atalen zenbakia

1.6.1 ITURRIAK

Ikus 1.0.1

1.6.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.0.2

Hauxe da seriearen eremuko elementuetan erabili beharreko puntuazioa:

- a) Seriearen, azpiseriearen edo atalaren pareko izenburu bakoitzaren aurretik berdin-ikurra (=) jarriko da.
- b) Azpiizenburu edota izenburuari buruzko informazio osagarri bakoitzaren aurretik bi puntu (:) jarriko da.
- c) Serie, azpiserie edo atal bati lotutako lehen erantzukizunaren aurretik zehar-marra (/) jarriko da.
- d) Hurrengo erantzukizun bakoitzaren aurretik puntu eta koma (;) jarriko da, non eta erantzukizun guztiek edo batzuek esaldi bakarra osatzen ez duten.
- e) Serie edo azpiseriearen ISSN zenbakiaren aurretik koma (,) jarriko da.
- f) Serie edo azpiseriearen barneko dokumentu baten zenbakiaren aurretik puntu eta koma (;) jarriko da.
- g) Seriearen barneko azpiserie baten izendapenaren edo azpiserie baten izenburuaren aurretik puntua (.) jarriko da. Bi datuak adierazten baldin badira, izenburuaren aurretik koma (,) jarriko da.
- h) Serie-aipu bakoitza parentesi artean jarriko da; eta bat baino gehiago badira, tartea erabilia bereiziko dira.

Adibideak

(Seriearen izenburu nagusia / erantzukizunaren aipua ; seriearen zenbakia)

(Seriearen izenburu nagusia : seriearen izenburuari buruzko informazio osagarria / erantzukizunaren aipua ; seriearen zenbakia)

(Seriearen izenburu nagusia = Seriearen pareko izenburua / erantzukizunaren aipua ; seriearen zenbakia. Azpiseriearen izenburua = Azpiseriearen pareko izenburua ; azpiseriearen zenbakia)

(Seriearen izenburu nagusia / erantzukizunaren aipua ; seriearen zenbakia. Seriearen barneko atalaren edo azpiseriearen izendapena, atalaren edo azpiseriearen izenburua / atalaren edo azpiseriearen erantzukizunaren aipua, azpiseriearen ISSN-a ; azpiseriearen zenbakia)

(Seriearen izenburu nagusia ; seriearen zenbakia) (Seriearen izenburu nagusia / erantzukizunaren aipua ; seriearen zenbakia)

1.6.3 SERIEAREN IZENBURUA

1.6.3A Seriearen izenburua dokumentuaren informazio-iturrian ageri bezalaxe adieraziko da. Letra larriak, azentuak, puntuazio-zeinuak eta abar nola erabili jakiteko, ikus 1.1.3A eta argitalpen seriatuei buruzko kapitulua. «Bilduma» hitza edo baliokideak izenburuan azaltzen direnean, adierazgarriak izan ezean, jaso gabe utziko dira.

- . — («Julio de Urkixo» Euskal Filologia Mintegiko urtekariaren gehigarriak)
- . — (Gure klasikoak)
- . — (Kuliska)
- . — (Auspoa liburutegia ; 296)
- . — (Añamendi)
- . — (Sail beltza)
- . — (Pentsamendu garaikidea)
- . — (Ipurbeltz saileko ale bereziak)
- . — (Orhi)
- . — (El barco de vapor)
- . — (Kimutxo)
- Informazio-iturrian*
(Kimutxo saila)
- . — Kardaberaz
- Atarian*
(Kardaberaz bilduma)
- . — (Txosten eta agiriak = Informes y documentos)
- Informazio-iturrian*
(Txosten eta agiriak bilduma = Colección informes y documentos)

1.6.3B Seriearen izenburua dokumentuan hainbat modutara emanda ageri denean, material-motari buruzko kapituluetan eremu honetarako agindutako iturrietan lehenengo ageri dena hartuko da izenburu nagusitzat. Gainerakoetatik dokumentua identifikatzeko beharrezkoak direnak oharretan emango dira. Arauen arabera lehentasuna duen iturrian izenbururik ageri ez bada, gainerako iturrietarako ezarritako lehentasun-hurrenkeraren arabera jasoko da.

1.6.4 SERIEAREN PAREKO IZENBURUAK

1.1.5 paragrafoan ezarritako arauetara jarraituko zaie.

- . — (Poesía vasca, hoy = Gaur egungo euskal poesia)
- . — (Bide-hezkuntza = Educación vial)
- . — (Kartografiaren bilduma = Colección de cartografía)

1.6.5 SERIEAREN AZPIIZENBURUA EDOTA IZENBURUARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA

Seriearen azpiizenburua edota izenburuari buruzko informazio osagarria izenburua identifikatzeko beharrezkoa denean besterik ez da jasoko.

- . — (Gizonak & Lanak : bibliofiliako lanen bilduma)
- . — (Geografía de Guipúzcoa : diapositivas comentadas = Gipuzkoako geografia : diapositibak adierazpenekin)
- . — (La guitarra : trozos de maestros europeos)

1.6.6 SERIEARI DAGOZKION ERANTZUKIZUNEN AIPUAK

Seriearen erantzukizunaren lehen aipuan korporazio baten izena ageri denean, jaso egingo da, baldin eta izenburua termino orokorra bada eta erantzukizuna argi eta garbi hari loturik badago. Horiek horrela, beste kasu batzuetan, lehen aipuaz gain beste batzuk ere jaso *daitezke*, seriea identifikatzeko beharrezkoak direla uste bada.

- . — (Filosofia / Udako Euskal Unibertsitatea)
- . — (Doktorego tesiak / Euskal Herriko Unibertsitatea)

1.6.7 ISSN-A (ARGITALPEN SERIATUEN NAZIOARTEKO ZENBAKI NORMALIZATUA)

Dokumentuan ageri bada, zenbaki hori adierazi egin behar da, aurretik ISSN siglak jarrita.

- . — (Harlax, ISSN 1130-9628)
- . — (Monografías INIA, ISSN 0210-3354 ; n. 81)
- . — (Habeko mik, ISSN 0212-6788 ; 13)

1.6.8 SERIEAREN ZENBAKIA

Seriearen zenbakia zein den jakinez gero, beti zenbaki arabiarretan adieraziko da. Era berean, zenbakiaren aurrean nahiz atzean, deskribatzen den dokumentua izendatzen duen terminoa jaso *daiteke*, laburtuta, hala badagokio.

- . — (Euskara agerian = La langue basque dans la vie publique ; 1)
- . — (Documentos ; 51/99)
- . — (Literatura unibertsala ; 32)
- . — (Kardaberaz ; 22 A)
- . — (Musika gida = Guía musical ; 2)
- . — (Philosophische Abhandlungen ; Bd. 25)
- . — (Cartógrafos del mundo ; mapa 15)

1.6.9 AZPISERIEEN ETA ATALEN IZENDAPENA EDOTA IZENBURUA

Serie bat ataletan banatuta badago, izenburu nagusirako izenburu komuna eta, jarraian, atalaren izendapena edota izenburua jasoko dira. Azpiserieen kasuan berdin egingo da, baldin eta iturri berean azpiseriearen izenburua seriearen izenburuari loturik ageri bada. Hala ez den kasuetan, azpiseriea bigarren serietzat hartuko da. Atal bat edo azpiserie bat identifikatzeko, izendapen bat edo izenburu bat nahiz biak batera erabil daitezke.

- . — (Ipotxak eta erraldoiak. Sail laranja)
- . — (Ortzadar ; 6. Literatura)
- . — (Monumenta ignatiana. Serie quarta)
- . — (Jone, Jon eta Txintxon. I. taldea, Nortasun eta autonomia pertsonala ; 1)
- . — (Euskal Azterlan bilduma. Maior Saila = Colección Estudios Vascos. Serie Maior ; 5)
- . — (Cartografía militar de España. Serie 2v, Mapa general ; n. 5)

1.6.10 AZPISERIEEN ETA ATALEN PAREKO IZENBURUAK

1.6.4 paragrafoan serierako ezarritako arauen arabera deskribatuko da.

1.6.11 AZPISERIEEN ETA ATALEN AZPIIZENBURUA EDOTA IZENBURUARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA

1.6.5 paragrafoan serierako ezarritako arauen arabera deskribatuko da.

1.6.12 AZPISERIEEI ETA ATALEI DAGOZKIEN ERANTZUKIZUNEN AIPUAK

1.6.6 paragrafoan serierako ezarritako arauen arabera deskribatuko dira.

1.6.13 AZPISERIEEN ETA ATALEN ISSN-A

Bai serieak eta bai azpiserieak edo atalak ISSN-a badute, azpiserieari edo atalari dagokion ISSN-a besterik ez da jasoko. Seriearen ISSN-a oharretan eman *daiteke*.

- . — (Acta Universitatis Upsaliensis. Studia Romanica Upsaliensia, ISSN 0562-3022 ; 27)
eta ez
- . — (Acta Universitatis Upsaliensis, ISSN 0562-2822. Studia Romanica Upsaliensia, ISSN 0562-3022 ; 27)

1.6.14 AZPISERIEEN ETA ATALEN ZENBAKIA

1.6.8 paragrafoan ezarritakoari jarraituko zaio.

1.6.15 SERIE BAT BAINO GEHIAGO

Dokumentu bat serie bati baino gehiagori badagokie, serie guztiak adieraziko dira, bakoitza parentesi banatan.

- . — (Euskararen lekukoak ; 20) (Karmel sorta ; 12)
- . — (Acta Salmanticensia) (Studia Philologica Salmanticensia. Anejos. Estudios ; 11)
- . — (A Film for Language Teachers ; 4) (Notes for Teacher Trainers)

Zein bere aldetik argitaratutako eta katalogatutako lanen zatien kasuan, honako hau jasoko da: lehenik, zatiori dagokien lanaren seriea eta, bigarrenik, deskribatzen den argitalpenean dagokion seriea.

- . — (Episodios nacionales ; 53. Cuarta serie) (El libro de bolsillo)

1.7 OHARREN EREMUA**1.7.1 ITURRIAK**

Ikus 1.0.1

1.7.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.0.2

Oharrak bata bestearen atzetik idazten badira, puntua, tartea, marra eta tartea (. —) erabiliko dira elkarrengandik bereizteko. Ahal dela, oharren puntuazioa eta dagokien eremurako ezarritakoa bat etorriko dira. Ohar nagusiari hasiera ematen dion/dioten hitzak/hitzek ohiko puntuazioa eramango du/dute. Erabilitako terminoak bibliografian sarritan erabiltzen direnetakoak badira, laburtuta eman daitezke.

1.7.3 OHARREN ZER-NOLAKOAK

1.7.3A Oharrak zer diren

Oharren helburua da deskribatzen den dokumentuarekin zuzenean edo zeharka loturik egonik gainerako eremuetan adierazi ezin izan den informazioa ematea. Ohar horietatik, batzuk deskribapenaren eremuren bati dagozkio, beste batzuk, ordea, ez. Arauen arabera eremuetan jaso beharreko oharrez gain, beste ohar batzuk jar *daitezke* katalogatzaileari beharrezkoak iruditzen bazaizkio.

1.7.3B Oharrak nola jasoko diren

Oharrak adierazteko modua jasotako informazioaren arabera izango da. Horrela, oharrean deskribapen-eremu bateko elementu baten baino gehiagoren inguruko informazioa adierazten denean (hala nola, izenburuaren ingurukoa, erantzukizunaren ingurukoa eta abar), informazio hori, ahal dela, eremu horretako elementuei dagokien hurrenkeran jarriko da. Ohar batean hainbat eremutako informazioa azaltzen denean, informazio hori bereizteko, puntua besterik ez da jarriko. Hitzek hitzeko aipamenak kakotx artean jarriko dira eta ondoren, marra batez berezita, aipamenean iturria, baldin eta iturri nagusitik hartu ez badira.

1.7.4 OHARREN HURRENKERA

1.7.4A Eremu jakin bateko informazioa osatzen duten oharrak

1.7.4Aa) Izenburuaren eta erantzukizunaren aipuaren eremua

Lehenik, izenburuari buruzko oharrak adierazi behar dira, eta horietatik, itzulpenaren oharrak jarriko dira hasieran.

Jat. izenb.:

Honen itzulpena:

Izenb. az. hartua

Karpetako izenb.:

Izenb. kutxatik hartua

Izenb. orriburutik hartua

Bigarrenik, pareko izenburuei, azpiizenburuari eta dokumentuaren nolakoari, zertarakoari, literatura-formari eta hizkuntzari buruzko oharrak adierazi behar dira.

Az. pareko izenb. ingelesez eta gaztelaniaz

Az. azpiiz.:

Honen egokitzapena:

Bi ekitaldiko komedia

Ingelesez euskarazko azpitituluekin

Telebistarako lana

Euskarara bikoiztua

Azkenik, erantzukizunaren aipuari dagozkion oharrak adieraziko dira.

Ustezko eg.:

Eg. izen osoa:

Izenb. aurretik: Kultura Saila

Honen lanean oinarritua:

Honen izenordea:

Azalaren arabera, eg.:

1.7.4Ab) Edizioaren eta historia bibliografikoaren eremua

Eremu honetan honako ohar hauek jasoko dira: beste edizioei edo berrinprimatzei buruzko oharrak, deskribatzen den dokumentuarekin lotutako beste dokumentu batzuei buruzkoak, kopia faksimileen jatorrizko edizioari buruzko oharrak eta abar.

Lan honetan oinarritua: Electzionetaco catichima / Pierre Bidart, 1889?

Argit. honen faks.: Madrid : imprenta de Ibarra, 1783

Honen separata: Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco

Honek jarraitzen dio: Vivir (San Sebastián)

Honen faks.: Euskalzale : astean asteango albistaria. Bilbon : Euskalzale moldagintzan, 1897-1899

1.7.4Ac) Argitalpenaren, banaketaren eta abarren eremua

3. libk. 1845ekoa da

Nekazaritza eta Arrantza Sailak ere argitaratua

1979an egindako grabaketa

1.7.4Ad) Deskribapen fisikoaren eremua

201-251 or. ere zenbakituak

Bi aldeetan inprimatutako o.

Mapa guztiak 1:50.000 eskalan daude

Behi larruan inprimatua

Aireko argazkitan oinarritutako mapa
PAL kolore-sistema
16 mm-ko formatuan ere badago

1.7.4Ae) Seriearen eremua

Lehenengo libk., ser. honetan argit.:
Jatorrian ser. honetan argit.:

1.7.4B Eremu jakin bati lotuta ez dauden oharrak

Hauxe izan liteke hurrenkera:

1.7.4Ba) Tesiari buruzko oharrak

Euskal Herriko Unibertsitateko doktorego tesia
Deustuko Unibertsitatea-Tesia

1.7.4Bb) Ale-kopuruari buruzko oharrak

200 ale zenbakituta
20 aleko ed. mug.
Pergaminozko 10 aleko botaldi berezia

1.7.4Bc) Material gehigarriari buruzko oharrak

Deskribapen fisikoaren eremuan eman den informazioa nahikoa ez dela uste denean idatziko dira.

CD honekin batera, osagarri gisa, bideo bat eta liburu bat atera dira
Honekin batera: Pedro Bernardo Villarreal de Berriz : katalogoa. [20] or. ; 30 cm
Honekin batera ikasmateriala : praxinoscopio

1.7.4Bd) Edukiari buruzko oharrak

Dokumentuaren edukia —gehigarria, osoa edo partziala— oharretan deskribatuko da, baldin eta beste eremu batzuetan jaso ez den informazioa adierazi nahi bada.

Testu-antologia: 150-201 or.
Bibliog.: 10-110 or.
Dokumentu-hautaketa: 1975-1978
Lege-gehigarria: 251-279 or.
Frantses eta ingelesezko laburpenak

Edukia: zarzuelarako hamairu erromantza

Seriea osatzen duten mapen aurkibidea dakar

Edukia: Josan / Jose Antonio Arkotxa. Markesaren semea / Iosu Arkotxa

Edukia: T. 1. Geografia fisikoa — T. 2. Giza Geografia — T. 3. Geografia ekonomikoa

Edukia: Adios euscal erriari ; Er[r]ucar[r]iya ; Glu, glu, glu ; Francisco Ezquiibel jaunari ; Cantari euscalduna ; Nere maitiarentzat ; Nere onguille maiteari ; Nere amac balequi ; Nere etorrera ; Zugana Manuela ; Guernicaco arbola

1.7.4C Aleari buruzko oharrak

At. gabeko alea

Ale osagabea

500 botaldiko 28. alea

Errusiako larruz azaleztatua

Eg. eskaintza autografoa

Azkue Bibliotekatik jasotako alea

Eskuz koloreztatua

2-6 diap. falta dira

Karpetan eg. eskaintza autografoa

1.8 ZENBAKI NORMALIZATUAREN ETA ESKURATZE-BALDINTZEN EREMUA

EREMUAREN ELEMENTUAK

Zenbaki normalizatua

Gako-izenburua

Eskuratze-baldintzak eta/edo prezioa

1.8.1 ITURRIAK

Ikus 1.0.1

1.8.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.0.2

Eremu honen elementuetan puntuazio hau erabili behar da:

- a) Gako-izenburuaren aurretik tartea, berdin-ikurra eta tartea jarriko da (=).
- b) Eskuratze-baldintzei eta/edo prezioari buruzko oharren aurretik tartea, bi puntu eta tartea jarriko da (:).
- c) Zenbaki normalizatuari edo eskuratze-baldintzei edota prezioari buruzko informazio guztia parentesi artean jarriko da (()).
- d) Zenbaki normalizatu bat baino gehiago eta eskuratze-baldintzei eta/edo prezioari buruzko beste ohar batzuk adierazi behar direnean, horien aurretik puntua, tartea, marra eta tartea jarriko dira (. —).

Adibideak

Zenbaki normalizatua = Gako-izenburua

Zenbaki normalizatua : prezioa

Zenbaki normalizatua (informazio gehigarria) : prezioa (informazio gehigarria)

Zenbaki normalizatua (informazio gehigarria) : prezioa. — Zenbaki normalizatua (informazio gehigarria)

1.8.3 ZENBAKI NORMALIZATUA

1.8.3A Eremuaren lehen elementua da. Zenbakiaren aurretik ISBN edo ISSN siglak jarriko dira edo, bestela, dokumentu-motaren arabera egokitutako normalizazio-sisteman dagozkionak. Zenbakiaren atalak marratxo batez (-) bereiziko dira.

ISBN 84-7214-187-X

ISBN 0-233-96744-3

ISSN 0379-1211

HMVALP1590

9-02.015

1.8.3B Argitalpenean ageri den zenbakia oker dagoela konturatuz gero, zuzendu egingo da. Zenbaki okerra zenbaki zuzenaren ondoren adieraziko da, aldamenean, parentesi artean, okerra hitza jarrita.

ISBN 0-340-16427-1. — ISBN 0-340-16427-2 (okerra)

1.8.3C ISBNaren ondoren, dokumentua zein azal edo formaturekin argitaratu zen zehaztu *daitetze*, horretarako erabili ohi diren laburdurak parentesi artean jarrita. Nahi izanez gero, xehetasun horiek adierazi *daitetze*, nahiz eta dokumentuak ISBN edo bestelako zenbaki normalizaturik izan ez.

ISBN 84-7214-187-X (az. arr.)
 ISBN 0-233-96744-3 (ohialezko az.)
 ISBN 0-085152-392-7 (tol. eta az. hol.)
 RK 11719 (estereo)
 (Az. arr.)
 (Oihalezko az.)
 (Plastikozko kutxatila)

1.8.4 GAKO-IZENBURUA

Gako-izenburua serie baten parte den dokumentuaren ISSNaren ondoren jarriko da. Gako-izenburua eta izenburu nagusia berbera izanda ere, gako-izenburua adierazi egingo da.

ISSN 1132-1679 = _eta kitto!

1.8.5 ESKURATZE-BALDINTZAK ETA/EDO PREZIOA

1.8.5A Eskuratze-baldintzak eta/edo prezioa *aukerako* elementua da. Prezioa zenbakitan adieraziko da, dagokion diruaren ikurrarekin batera.

: 10 €
 : 3.000 pta.
 : ez dago salgai
 : alokairuan

1.8.5B Eskuratze-baldintzei eta/edo prezioari buruzko oharren ondoren, behar diren zehaztasun guztiak emango dira, parentesi artean.

: 2.000 pta. (1.000 pta. kideentzat)
 : 12 € (6 € ikasleentzat)
 : 50 € (Mondragon Unibertsitateko ikasleentzat doan)

1.8.6 ISBN BAT BAINO GEHIAGO

1.8.6A Dokumentuak bi ISBN edo bestelako bi zenbaki normalizatu dituenean, bata dokumentuarena eta bestea horri dagokion sail edo multzoarena, lehendabizi dokumentuaren ISBNa edo zenbaki normalizatua adieraziko da eta, ondoren, sail edo multzoarena, horiek identifikatzeko beharrezko diren azalpenekin.

ISBN 0-576-28207-5. — ISBN 0-576-28202-2 (lan osoa)

1.8.6B Dokumentuari ISBN bat baino gehiago edo bestelako zenbaki normalizatu bat baino gehiago dagokionean —dokumentuaren agermodu bakoitzeko bana edo, baterako argitalpenen edo baterako ekoizpenen kasuan, argitaratzaile bakoitzeko bana—, ISBN edo zenbaki normalizatu bat baino gehiago jaso beharra ikusten bada, zenbakien ondoren beharrezko diren azalpenak emango dira parentesi artean.

ISBN 84-95589-62-1 (Alberdania). — ISBN 84-8331-947-0 (Elkar)

ISBN 3-598-10134-1 (Saur). — ISBN 2-2290-1000-8
(France Expansi3n). — ISBN 0-8103-0990-4 (Gala Research). —
ISBN 0-905450-X (Hans Zell)

SPA 1046-3 (estereoa). — QPA 1046-3 (kuadrafonikoa)

1.9 UNITATE FISIKO BAT BAINO GEHIAGO DUTEN DOKUMENTUAK

Unitate fisiko bat baino gehiago duten dokumentuak bi motatakoak izan daitezke:

- a) Material-mota bereko bi unitate fisiko edo gehiago biltzen dituztenak.
- b) Material-mota desberdineko bi unitate fisiko edo gehiago biltzen dituztenak.

Kasu batzuetan, dokumentua osatzen duten unitate fisikoetariko bat nagusia izaten da eta gainerakoak material gehigarria. Beste batzuetan, unitate fisiko guztiak garrantzi berekoak izaten dira (multimedia).

Unitate fisiko guztiak banan-banan deskribatu nahi direnean edo unitate fisiko bakarra deskribatu nahi denean, bi maila edo gehiagoko deskribapen-sistema erabil daiteke. Edonola ere, horrez gain, deskribapenerako beste bide batzuk erabil daitezke, hala nola, edukiari buruzko oharra egitea, material gehigarri gisa deskribatzea edo deskribapen berezia egitea, kasuan kasu dagokionaren arabera.

1.9.1 BI MAILAKO DESKRIBAPENA

1.9.1A Eskema

Lehen mailako deskribapenean dokumentu osoari dagokion informazioa adieraziko da. Bigarren mailako deskribapenean unitate fisiko bakoitzari dagokion informazioa adieraziko da, betiere, deskribapenerako aukeratu den xehetasun-mailaren arabera (ikus 1.0.9).

1.9.1B Puntuazioa

Arau nagusiari jarraiki, informazioa eremuka eta elementuka antolatuko da (ikus 1.0.2 paragrafoa eta eremuetako elementu bakoitzerako ezarritako puntuazioa). Unitate fisiko bakoitzaren izenburuaren aurretik hurrenkeraren adierazle bat azaltzen denean, izenburua eta adierazlea bereizteko, tartea, bi puntu eta tartea (:) jarriko dira. Hurrenkeraren adierazleak jasotzerakoan dokumentuan ageri duten forma eta terminologia berari eutsiko zaio eta ohiko laburdurak erabiliko dira.

I :

T. I :

Libk. I :

Kasetea Y :

Biribilkia I :

Diskoa 3 :

Kuadernoa 1 :

Partea 2.a :

Murillo / Diego Ángulo Iñiguez. — Madrid : Espasa Calpe, 1981

3 libk. ; 28 cm

ISBN 84-239-1280-5

I : Su vida, su arte, su obra. — XI, 486 or., [5] oir. — Aurkibidea. — ISBN 84-239-4281-3

II : Catálogo crítico. — VIII, 653 or. — Bibliog.: 605-625 or. — ISBN 84-239-4282-1

III : Láminas. — 500 oir. — ISBN 84-239-4283-X

Manual de historia universal. — 3ª ed. — Madrid : Espasa-Calpe, 1979-

libk.; 25 cm

T. I : Prehistoria / Martín Almagro Basch. — 1981. — 916 or., VIII kol. oir. : ir., mapak. — Bibliog. — Aurkibidea. — ISBN 84-239-4853-4 (az. arr.). — ISBN 84-239-4861-7 (az. hol.)

T. II : Edad antigua / Luis Suárez Fernández. — 1979. — 639 or. : ir., kol. mapak. — Bibliog. — Aurkibidea. — ISBN 84-239-44855-2 (az. arr.). — ISBN 84-239-4862-5 (az. hol.)

Historia de España / dirigida por Ramón Menéndez Pidal. — Madrid : Espasa-Calpe, 1935-

T. XXVI : La España de Fernando VII / por Miguel Artola Gallego ; introducción por Carlos Seco Serrano. — 1968. — XXXVI, 99 or., [29] kol. oir., [11] kol. o. mapekin : ir., 29 cm

Brisas de España [Musika inprimatua] : composiciones para piano / Óscar de la Cinna. — Barcelona : Juan Bta. Pujol, [ca. 1900] 10 libk. ; 35 cm

At. grab. — Jabetza Intelektualaren Erregistrotik etorritakoa

1 : Jota-Reverie : op. 563. — 7 or. — X.-zk.: 37. or. C

2 : La mora : serenata morisca : op. 589. — 5 or. — X.-zk.: 38. or. C

3 : Polo sevillano : op. 662. — 5 or. — X.-zk.: 39. or. C. — Letrakin

4 : Bolero : op. 685. — 5 or. — X.-zk.: 40. or. C

5 : Seguidillas manchegas : op. 686. — 5 or. — X.-zk.: 41. or. C

6 : Seguidilla sevillana : op. 687. — 5 or. — X.-zk.: 42. or. C

7 : Seguidillas granadinas : op. 690. — 5 or. — X.-zk.: 43. or. C. — Letrakin

8 : Seguidilla calesera : op. 698. — 5 or. — X.-zk.: 44. or. C

9 : Zapateado : op. 707. — 7 or. — X.-zk.: 45. or. C

10 : Malagueña antigua : op. 710. — 5 or. — X.-zk.: 46. or. C

Arte español : siglo XX. — Madrid : edita y distribuye Visual Ediciones, D.L. 1987

6 bideokasete (Beta) (60 min) : soinua, kol.

González / productores, Laurence Boulting, William Leeson ; dirigido por Barrie Gavin. — A 201

Miró / escrito y narrado por Roland Penrose ; productor, Christopher Martin ; director, Robin Lough. — A 202

Picasso / dirigido por Didier Baussy. — A 203

Chillida / productor, William Leeson ; director, Laurence Boulting. — A 204

Saura / dirigido por José María Berzosa. — A 205

Tapies / dirigido por André S. Labarthe. — A 206

Bat bitan banatzen da / Andoni Irala. — Donostia : Etor, inp. 1975-1976

2 libk. ; 23 cm

ISBN 84-7986-075-5

1. zatia: Mao Tse-Tung'en pentsa-muiña. — 1975. — 277 or. — ISBN 84-7086-073-9

2. zatia: Mao Tse-Tung-en azkon zorrotza. — 1976. — 159 or. — ISBN 84-7086-076-3

1.9.2 MATERIAL GEHIGARRIA DUTEN DOKUMENTUAK

1.9.2A Material gehigarria duen dokumentua (ikus 1.5.2) ere bi mailatan deskriba daiteke. Kasu honetan, deskribapenaren lehen mailan dokumentu nagusiari dagokion informazioa bilduko da edo, material gehigarria argitalpen nagusirik gabe deskribatzen bada, dokumentu nagusiari eta material gehigarriari, biei, dagokien informazio komuna. Material gehigarriari dagokion informazioa deskribapenaren bigarren mailan jasoko da.

Artesanía vasca = Euskal eskulangintza / [prólogo = hitzaurrea, Julio Caro Baroja ; textos = testuak, Juan José Lapitz ... et al.]. — [Vitoria-Gasteiz] : Diputación Foral de Álava = Arabako Foru Aldundia, D.L. 1985

210 or. : ir. ; 29 cm + 1 geh.

Honekin batera: Guía de artesanos de la Comunidad Autónoma Vasca = Euskal Autonomiako eskulangileen gida-liburua. — [28] or. ; 28 cm

1.9.3 MULTIMEDIA

1.9.3A Dokumentu-motaren izendapen orokorrerako «multimedia» terminoa erabiliko da.

1.9.3B Multimediako dokumentu baten zatien artean ezaugarri fisikoa beste desberdintasunik ez dagoenean, dokumentuari oro har maila bakarreko deskribapena egingo zaio eta zatiak deskribapen fisikoaren eremuan azalduko dira. Komeni bada, zati guztien tamainak deskribapen fisikoaren lehen elementu gisa jaso daitezke, edo, bestela, zati bakoitzerako deskribapen fisiko bat egin daiteke.

15 mapa, 50 fitxa, 1 gidaliburu ; 20 × 30 × 40 cm-ko kutxan

148 diap. : kol.

1 zinta-txirrika (90 min) : 4 pista, 19 cm/s, monoa

1.9.3C Multimedia dokumentu baten zatiak deskribapen fisikoari dagozkion elementuetan ez ezik beste elementu batzuetan ere desberdinak badira, dokumentuaren deskribapena bi modu hauetan egin daiteke:

- a) Bi mailako deskribapena eginez.
- b) Maila bakarreko deskribapena eginez eta zatiei buruzko datuak oharretan emanaz.

360 or. : kol. ir. ; 25 cm

Oharrean

1 disko (15 min) : 45 b/min, estereoa ; 18 cm

Oro har, bi mailako deskribapen-sistema nahiago izaten da zatien datu bibliografikoak desberdinak direnean, esaterako, zati bakoitzak bere izenburua, bere erantzukizuna eta bere zenbaki normalizatua duenean.

1.9.4 BI MAILA BAINO GEHIAGOKO DESKRIBAPENA

1.9.4A Deskribapena bi maila baino gehiagotan egin behar dela uste denean, hau da, bigarren mailan deskribatu diren unitate fisikoen parte diren unitate fisikoak zein bere aldetik deskribatu nahi direnean, beharrezko ikusten diren maila guztiak zehaztuko dira.

Derecho civil español, común y foral / José Castán
Tobeñas. — 8ª ed. — Madrid : Reus. — 23 cm. — ISBN 84-290-1019-X

T. 6º : Derecho de sucesiones. — 1978-1979

Vol. 1º : La sucesión en general. — 8ª ed. / revisada y
puesta al día por José Mª Castán Vázquez. — 1978. —
475 or. — ISBN 84-290-1252-4

Vol. 2º y 3º : Los particulares regímenes sucesorios

2º : La sucesión testamentaria ; La sucesión forzosa.
— 8ª ed. / revisada y puesta al día por José Bautista
Montero Ríos, José Mª Castán Vázquez, con la
colaboración, en la parte de sucesión forzosa, de
Juan Vallet de Goytisolo. — 1979. — 742 or. — ISBN
84-290-1203-6

3º : La sucesión intestada ; La sucesión contractual ;
La sucesión excepcional. — 8ª ed. / revisada y
puesta al día por José Luis de los Mozos. — 1978.
— 418 or. — ISBN 84-290-1188-9


1.9.5 ERREGISTRO OSATUGABEA

1.9.5A Unitate fisiko bat baino gehiago duten dokumentuetan, deskribapen bibliografikoa osatu gabe gelditu daitezke, dela lana osatzen duten zati batzuk argitaratu ez direlako, dela zentro katalogatzaileak zati horiek eskuratu ez dituelako. Hauexek dira osatu gabeko datuen artean ohikoenak: lanari amaiera ematen dion zatiaren data, unitate fisikoen kopurua, zenbait ohar —esaterako, edukiari dagokiona— eta bigarren edo hirugarren mailako deskribapenari dagozkionak.

2.

kapitulua

Argitalpen monografikoen deskribapena



2.0 ARAU OROKORRAK

Kapitulua honetako arauen arabera deskribatuko dira liburuak, liburuxkak eta orri solteak, jatorrizkoak nahiz faksimileak izan. Era berean, arau horien bidez deskribatuko dira estampa-bildumak, musika-lanak eta geografia-atlasak ere, baldin eta testurik badute; horrelakoetan, lan horien deskribapen-arau berezien 3. eremuko datuak jaso beharko dira. Antzinako inprimakien deskribapenak arau bereziak ditu (ikus 2.10). Antzinako inprimakitzat hartzen dira 1801. urtea baino lehenagokoak.

2.0.0 DESKRIBAPENAREN ANTOLAKETA

Ikus 1.0.0

2.0.1 INFORMAZIO-ITURRIAK

Ikus 1.0.1

2.0.1A Informazio-iturri nagusia eta iturriak kontsultatzeko agindutako hurrenkera

Monografiaren informazio-iturri nagusia ataria da, eta, ataririk ez badago, haren ordean erabili den argitalpenaren zatia. Argitalpenak ataririk ez badu, edo lan osorako balio duen ataririk ez badu (hiztegi elebidun batzuek bezala), informazio gehien biltzen duen argitalpenaren zatia hartuko da ataritzat; hala nola, azala (gainazala izan ezik), atariaurrea, testuaren hasiera, kolofoia edo beste edozein zati. Argitalpenak ez baditu inon ageri deskribapena egiteko oinarritzko datuak, beste iturri bat erabiliko da.

Iturri nagusitzat hartuko dira atarian jaso ohi den informazioa biltzen duten parez pareko edo ondoz ondoko bi orrialdeak, datuaren bat errepikatuta dutela ere.

Argitalpenak ataririk ez badu, oharretan adierazi beharko da haren ordean zein iturri erabili den.

2.0.1B Eremuetarako agindutako informazio-iturriak

Ondorengo taulan zehazten da zein informazio-iturri erabili behar den deskribapenaren eremu bakoitzean. Agindutako iturri horietatik kanpo jasotako informazioa taket artean edo oharren bidez emango da.

Eremua	Agindutako informazio-iturriak
1 Izenburua eta erantzukizunaren aipua	Informazio-iturri nagusia
2 Edizioa	Informazio-iturri nagusia, dokumentuaren aurretikoak eta kolofoia

4	Argitalpena, banaketa eta abar	Informazio-iturri nagusia, dokumentuaren aurretikoak eta kolofoiak
5	Deskribapen fisikoa	Argitalpena bera
6	Seriea	Seriearen ataria, monografiaren ataria, azala, argitalpenaren gainerakoa
7	Oharrak	Edozein iturri
8	ISBNa eta eskuratzeko baldintzak	Edozein iturri

2.0.2 PUNTUAZIOA

Ikus 1.0.2. Ikus, halaber, deskribapenaren elementuetarako eremu bakoitzean erabili beharreko puntuazio-arauak.

2.0.3 DESKRIBAPENAREN HIZKUNTZA ETA IDAZKERA-MOTA

Ikus. 1.0.3

2.0.4 LABURTZAPENA ETA LABURDURAK

Ikus 1.0.4

2.0.5 LETRA LARRIEN ERABILERA

Ikus 1.0.5

2.0.6 AZENTUAK ETA BESTELAKO ZEINU DIAKRITIKOAK

Ikus 1.0.6

2.0.7 AKATSAK

Ikus 1.0.7

2.0.8 INFORMAZIO-ITURRI NAGUSIA ZEHAZTEA, ITURRI NAGUSI BAT BAINO GEHIAGO DITUZTEN DOKUMENTUETAN

Ikus 1.0.8

2.0.9 DESKRIBAPENAREN XEHETASUN-MAILAK

Ikus 1.0.9

2.1 IZENBURUAREN ETA ERANTZUKIZUNAREN AIPUAREN EREMUA

EREMUAREN ELEMENTUAK

Izenburu nagusia

Dokumentu-motaren izendapen orokorra

Pareko izenburua

Azpiizenburua edota izenburuari buruzko informazio osagarria

Erantzukizunaren aipua

2.1.1 ITURRIAK

Ikus 2.0.1B

2.1.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.1.2

2.1.3 IZENBURU NAGUSIA

2.1.3A Izenburu nagusia transkribatzeko, 1.1.3 paragrafoan ezarritako araei jarraituko zaie.

Korapiloak

Astakiloak Finisterre aldean

Madame Bovary

Egunero hasten delako

Pupuan trapua

Antonio Truebaren ipuiñak

(Izenburu nagusia erantzukizunaren aipuaz osatua dago)

J. A. Artze

(Izenburu nagusia erantzukizunaren aipuaz osatua dago)

Bederatzi gutun t'erdi

Zer irakurri__ hura ikasi

(Atarian: Zer irakurri ... hura ikasi)

3D Studio 4

Perraulten ipuinak

Gipuzkoako Eskolarteko XIV. Bertsolari Txapelketa

Gartzelako poemak

dBase III Plus

Cinco horas con Mario ; Diario de un cazador ; Mi idolatrado hijo Sisí / Miguel Delibes

Mattin bertsularia

Oharrean

Edukia: Mattin, nere gizona / Mari Treku. Ahal dena ; Etxe xokotik kantari / Mattin Treku

2.1.4 DOKUMENTU-MOTAREN IZENDAPEN OROKORRA

Ikus 1.1.4

2.1.4A Dokumentu-motaren izendapen orokorra adieraztea beharrezkoa dela iritziz gero, «testu inprimatua» terminoa erabiliko da monografiatarako. Era berean, «braille-testua» terminoa erabil daiteke idazkera horretan emandako argitalpenetan.

2.1.5 PAREKO IZENBURUAK

2.1.5A Pareko izenburuak transkribatzeko, 1.1.5 paragrafoan ezarritako arauetara jarraituko zaie.

Diccionario general vasco = Orotariko euskal hiztegia

Euskal Herriko baserriaren arkitektura = La arquitectura del caserío de Euskal Herria

Azken belaunaldia = Última generación = Dernière génération = The last generation

Hiztegia : Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa (1936ko urritik 1937ko ekainera)
= Diario Oficial del País Vasco (octubre 1936-junio 1937)

Dictionarium bibliotecarii practicum ad usum internationalen in XXII linguis =
The librarian's practical dictionary in 22 languages = Wörterbuch des Bibliothekars in
22 Sprachen

2.1.6 AZPIIZENBURUA EDOTA IZENBURUARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA

2.1.6A Azpiizenburua edota izenburuari buruzko informazio osagarria transkribatzeko, 1.1.6 paragrafoan ezarritako arauetara jarraituko zaie.

Muskiz : azterketa historiko-artistikoa

Erreka Mari : Euskal Herriko azken lamiña!

La Guerra Civil en Euzkadi : 136 testimonios inéditos recogidos por José Miguel de Barandiaran

Literatura eta harrikoa : hamaika pauso hitzen urmaeletik bizitzaren harraskara

Euskal Herria : le pays de la langue basque

Euskararen aldeko borrokan : euskalgintza eta euskalaritzako idazlan hautatuak, 1956-1983

Antecedentes próximos de la sociedad vasca actual : siglos XVIII y XIX = Gaurko euskal gizartearen sorburu hurbilak : XVIII-XIX. mendeak

Gerla urte, gezur urte : Iruñea 1936-40, isiltasunean mintzo

2.1.7 ERANTZUKIZUNAREN AIPUA

2.1.7A Erantzukizunaren aipua transkribatzeko, 1.1.7 paragrafoan ezarritako arauetara jarraituko zaie.

Komediaren jainkoa / Patxi Ezkiaga Lasa

Kcappo : tempo di tremolo / Pako Aristi

Blancos y negros : (guerra en la paz) / por Arturo Campión

Carmen / P. Merimée ; Maria Garikanok euskaratua

Historia baten bila : (teatro lan luzea) / Urkiola Taldea

Zorotariko euskal hiztegia / Joxean Sagastizabal ; ilustrazioak, Antton Olariaga

Tractores y motores agrícolas / por Pedro V. Arnal Atares, Antonio Laguna Blanca

Arkitekturaz hamar liburuak / Vitruvio ; [euskaratzailea, Xanti Iruretagoiena ; berrikuslea, Eduardo Artamendi ; hitzaurregilea, Juan Calatrava]

Etumetako basajauna / egilea, Juan V. Araquistain ; itzulpena eta egokitzapena, Enrike Zurutuza

Geografiarekin lanean / Alberto Prego ; itzultzaileak, Miren Arratibel eta Mitxel Murua

Dogoen hiria XV. mendean : Venezia / Christine eta Giuseppe del Torre ; Maria-Barbara Battiston-en irudiak

Orhipean : gure herria ezagutzen / Juan Carlos Etxegoien «Xamar»

Agakia : euskeras irakurten ikastekoa / Bizkaiko elexgizon batek iratzija

La Guerra Civil en Navarra (1936-1939) / José M^a Jimeno Jurio ; prólogo de Josu Chueca Intxusta ; edición a cargo de Roldán Jimeno Aranguren ; coordinación, David Mariezkurrena Iturmendi

Patziku Parranda / Asun Arriazu, Eduardo Gil Bera ; azala eta marrazkiak, Pedro Osés

Euskal izendegia = Nomenclator onomástico vasco = Liste de prénoms basques / J. M. Satrustegui

La Navarra marítima / Tomás Urzainqui, Juan M^a de Olaizola

Euscal-naparren joaera edo Emigracioa / José Colá eta Goiti jaunac erderaz izkribitua ; eta euskerara itzulia Marcelino Soroa Lasa-c

2.2 EDIZIOAREN EREMUA

EREMUAREN ELEMENTUAK

Edizioaren aipua

Pareko edizioaren aipua

Edizioari dagozkion erantzukizunen aipuak

Edizioaren beste aipua

Edizioaren beste aipuari dagozkion erantzukizunen aipuak

2.2.1 ITURRIAK

Ikus 2.0.1B

2.2.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.2.2

2.2.3 EDIZIOAREN AIPUA

2.2.3A Edizioaren aipua transkribatzeko 1.2.3 paragrafoan ezarritako arauetara jarraituko zaie.

- . — 2. argit.
- . — 4. ed.
- . — Ed. lab.
- . — Argit. berria, berr. eta osatua
- . — Ed. zuz. eta egun.
- . — 1st ed.

- . — 4. Aufl.
- . — Argit. faks.
- . — Compact ed.
- . — 5^e éd.
- . — 3^a ed.

2.2.4 PAREKO EDIZIOAREN AIPUA

2.2.4A Pareko edizioaren aipua transkribatzeko, 1.2.4 paragrafoan ezarritako araei jarraituko zaie.

2.2.4B Lehendabizi, izenburu nagusiaren hizkuntzan datorren aipua jasoko da. Halakorik ez badago, lehenengo azaltzen den aipua hartuko da. Nahi izanez gero, beste hizkuntza batzuetan agertzen direnak ere transkriba *daitezke*.

- . — 1. argit., 2. berrinp. = 1^a ed., 2^a reimp.
- . — Students' ed. = Ed. pour les étudiants

2.2.5 EDIZIOARI DAGOZKION ERANTZUKIZUNEN AIPUAK

2.2.5A Edizioari dagozkion erantzukizunen aipuak transkribatzeko, 1.2.5 paragrafoan ezarritako araei jarraituko zaie.

- . — Oraín barriro arguitaraten da zorzigarrenez / Agustin Cardaberaz
- . — Ed. novissima / curante Joanne Carnandet
- . — 1^a ed. / corr. y expurgada de las faltas de ediciones anteriores por José Antonio de Uriarte
- . — 6^a ed. / con un índice alfabético de materias por el traductor

2.2.6 EDIZIOAREN BESTE AIPUA

Ikus 1.2.6

2.2.7 EDIZIOAREN BESTE AIPUARI DAGOZKION ERANTZUKIZUNEN AIPUAK

Ikus 1.2.7

2.2.8 IZENBURU OROKORRIK GABEKO ARGITALPENAK

Ikus 1.2.8

2.2.9 ZENBAIT EDIZIOTAN ARGITARATUTAKO LIBURUKIAK BILTZEN DITUZTEN LANAK

Ikus 1.2.9

2.3 DOKUMENTU-MOTAREN DATU ESPEZIFIKOEN EREMUA

Argitalpen monografiko inprimatuetan ez da eremu hau erabiltzen.

Arau hauek erabiliz gero arau espezifikoekin ere deskriba daitezkeen dokumentuetarako —atla-setarako, esate baterako—, arau espezifiko horiek eremu honetan jasotzea komeni da.

2.4 ARGITALPENAREN ETA BANAKETAREN EREMUA*EREMUAREN ELEMENTUAK*

Argitaralekua eta *banaketa-lekua*

Argitaratzailearen eta *banatzailearen* izena

Banatzaile-funtzioaren aipua

Argitalpen-data eta *banaketa-data*

Inprimalekua, inprimatzailearen izena, inprimatze-data

2.4.1 ITURRIAK

Ikus 2.0.1B

2.4.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.4.2

2.4.3 ARGITARALEKUA

2.4.3A Argitaralekua transkribatzeko, 1.4.3 paragrafoan ezarritako arauetara jarraituko zaie.

. — Donostia-San Sebastián

. — Donostia

. — San Sebastián

- . — Oiartzun
- . — Oyarzún
- . — Bastida (Araba)
- . — Bilbo
- . — Bilbao
- . — Vitoria-Gasteiz
- . — Gasteiz
- . — Vitoria
- . — Barcelona ; Madrid ; San Sebastián
- . — [Bergara?]
- . — [S.I.]
- . — Iruña = Pamplona
- . — Iruñea
- . — Pamplona
- . — Iruña
- . — Londres
- . — London

2.4.4 ARGITARATZAILEAREN IZENA

2.4.4A Argitaratzailea transkribatzeko, 1.4.4 paragrafoan ezarritako araei jarraituko zaie.

- . — Donostia : Hordago
- . — Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
- . — Donostiya : viuda de L. Lancis-en moldiztegiuan
- . — [Irun] : Alberdania ; [Donostia] : Elkar
- . — Zarautz : Itxaropena
- . — La Puebla [de Labarka] : Udala
- . — Hondarribia : Hiru
- . — Bilbo : Deustuko Unibertsitatea, Zuzenbide Fakultatea
- . — [Donostia-San Sebastián] : Gipuzkoako Diputazioa : Arkeolan
- . — Bilbao : Labayru Ikastegia : Bilbao Bizkaia Kutxa
- . — [S.I.] : [s.n.]
- edo*
- . — [S.I. : s.n.]
- . — Oñati : Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea = Instituto Vasco de Administración Pública
- . — Donostia : Sendoa ; Lasarte-Oria : Ostoa
(*Bigarren argitaratzailea tipografikoki nabarmendua*)

- . — Vergara : imp. y encuadernación de J. F. López
- . — Pamplona : imprenta de Erice y García
- . — Bilbao : tipografía de Sebastián de Amorrortu
- . — Oxford : Clarendon Press ; New York : Oxford University Press

2.4.5 BANATZAILE-FUNTZIOAREN AIPUA

2.4.5A Banatzaile-funtzioa transkribatzeko, 1.4.5 paragrafoan ezarritako araei jarraituko zaie.

- . — San Sebastián : J. M. Lasagabaster : Cuadernos universitarios [banatzailea]

2.4.6 ARGITALPEN-DATA

2.4.6A Argitalpen-data transkribatzeko, 1.4.6 paragrafoan ezarritako araei jarraituko zaie.

- , 1986
- , 1259 de la Hégira [1843]
- , an II [1793]
- , 1895 [i.e. 1985]
- , [ca. 1700]
- , [1892?]
- , [195-?]
- , [1920tik 1930era bitartean]
- , cop. 1976
- , L.G. 1998
- , inp. 2002
- , trigessima Ianuarij anno domini 1545
- , anno incarnationis domini 1521

2.4.7 INPRIMALEKUA, INPRIMATZAILEAREN IZENA, INPRIMATZE-DATA

2.4.7A Inprimalekua, inprimatzailearen izena eta inprimatze-data transkribatzeko, 1.4.7 paragrafoan ezarritako araei jarraituko zaie; hau da, fabrikazio-lekua, fabrikatzailearen izena eta fabrikazio-data jasotzeko ezarritakoei.

- . — Euba : Ika ; Zornotza : Ibaizabal, 1993 (Bilbao : Igarri)
- . — Irun : Alberdania, inp. 2004
- . — Donostia : Gaiak, L.G. 1993 (Erandio : Rontegui)
- . — Bilbao : Bilbao Bizkaia Kutxa, 1993 (Bilbao : Gestingraf)
- . — [S.l : s.n.], imp. 1978 (Madrid : Gráf. Caro)

2.5 DESKRIBAPEN FISIKOAREN EREMUA

EREMUAREN ELEMENTUAK

Materialaren tamaina eta izendapen espezifikoak

Irudiak

Neurriak

Material gehigarria

2.5.1 ITURRIAK

Ikus 2.0.1

2.5.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.5.2

2.5.3 MATERIALAREN TAMAINA ETA IZENDAPEN ESPEZIFIKOA

Eremuaren lehenengo elementua da eta, bertan, material inprimatuaren izendapen espezifikoak adierazi behar da (liburukia, karpeta, orrialdea, orria eta abar). Elementu hori transkribatzeko, kontuan izan behar da argitalpenak liburuki bakarra edo gehiago duen, edo liburukitzat hartu ote daitekeen.

2.5.3A Liburuki bakarreko argitalpenak

2.5.3Aa) Liburuki bakarreko argitalpenaren tamaina adierazteko, zenbat orrialde, orri edo zutabe dituen zehaztu behar da. Zutabeak zenbakituta badaude eta beste zenbaketarik ez badago, adierazi egingo dira. Liburukiaren tamaina jasotzeko orduan ez dira kontuan hartuko zenbakituta ez dauden edo aparteko sekuentzia osatzen duten publizitate-orrialdeak eta abar.

2.5.3Ab) Argitalpenean ageri den zenbakera arabiarra edo erromatarra bada, dagoen bezala jasoko da, zenbakidun azken orrialdearen, orriaren edo zutabearen zenbakia adierazita. Erromatarraz bestelako zenbakerak (zenbaki grekoak, hebrearrak eta abar), zenbakera arabiarra ekarriko dira; halakoetan, nahi izanez gero, ohar baten bidez adieraz daiteke argitalpenean azaltzen den zenbakera.

340 or.

XLII, 138 or.

X or., 14 o., 250 or.

75, 87 or.

256 or., 75 zut.

58 or.

Oharrean

Orrialdeak zenbaki grekoz

Ordenatzeko sistema gisa, zenbakiak azaldu beharrean, ondoz ondoko letrak azaltzen badira, lehenengo eta azken letrak adieraziko dira, marraz bereizirik eta ondoren, orrialde, orri edo zutabe hitzen laburdura jarriko da.

a—n or.

A—R o.

Sekuentzia berean zenbakera bat baino gehiago ageri bada (esaterako, zenbaki erromatarrekin hasi eta zenbaki arabiarrekin jarraitzen badu), ez da horri buruzko azalpen berezirik emango, eta zenbakidun azken orrialdean eta abarretan ageri den bezala transkribatuko da.

143 or.

(Lehen 15 orrialdeak zenbaki erromatarrez)

2.5.3Ac) Orrien alde biak zenbakituta badaude, argitalpenaren deskribapenean orrialdeen kopurua zehaztuko da. Halakoetan, alde batean baino ez badago testurik, ezaugarri hori oharretan adieraz *daiteke*.

224 or.

Oharrean

Orrien ifrentzua zuri

Orrien alde bat baino ez badago zenbakituta, argitalpenaren deskribapenean orrien kopurua zehaztuko da. Halakoetan, alde bietan testua badago, ezaugarri hori oharretan adieraz *daiteke*.

137 o.

Oharrean

Bi aldeetatik inprimatutako orriak

2.5.3Ad) Argitalpenaren orriak zenbakiturik ez badaude eta alde batetik baino ez badaude inprimatuta, deskribapenean orrien kopurua zehaztuko da; alde bietatik inprimatuta badaude, berriz, orrialdeen kopurua adieraziko da. Orrialdeen edo orrien kopurua taket artean jasoko da eta zenbaki arabiarretan.

[96] or.

[141] o.

Argitalpenean zenbakitu gabeko orrialde- eta orri-sekuentziak azaltzen badira, sekuentzia nagusiaren arabera egingo da deskribapena.

[90] or.

(Argitalpenak 50 orrialde ditu eta 20 orri zenbakitu gabe)

[141] o.

(*Argitalpenak 100 orri ditu eta 82 orrialde zenbakitu gabe*)

2.5.3Ae) Argitalpenaren orri edo orrialde batzuk zenbakituta badaude eta beste batzuk zenbakitu gabe, bi aukera hauek gerta daitezke:

1) Zenbakirik gabeko orri edo orrialdeek argitalpenaren zati txikia hartzea. Horrelakoetan ez dira jasoko.

2) Zenbakirik gabeko orri edo orrialdeek argitalpenaren zati handia hartzea. Horrelakoetan, 2.5.3Ad) paragrafoan ezarritako arauaren arabera jasoko dira.

XXV, [220] or.

2.5.3Af) Argitalpenaren orrialdeak eta abar sekuentzia batean baino gehiagotan zenbakituta badaude, denak jasoko dira, baldin eta liburukiaren sekuentzia horiek hiru baino gehiago ez badira.

2.5.3Ag) Argitalpenaren zenbaketa konplexua edo irregularra bada, eta hiru sekuentzia baino gehiago baditu —horietako batzuk zenbakirik gabe egon daitezke—, tamaina adierazteko, «1 libk.» idatziko da eta, ondoren, «askotariko orrialdekatzea», «askotariko orrikatzea» edo «askotariko zenbaketa» terminoei dagokien laburdura. Arau hori erabiliko da, batez ere, sekuentziak asko badira eta horiek aipatzea garrantzizkoa ez bada.

Baina argitalpenak sekuentzia asko izanik, tamaina aipatzea merezi badu eta zenbaketa homogeneoa badu, sekuentzia guztiak batu eta guztira dagoen orrialdeen eta abarren kopurua adieraziko da, ondoren, parentesi artean, «askotariko orrialdekatzea» edo «askotariko orrikatzea» terminoei dagozkien laburdurak jarrita.

Bestalde, sekuentzietako bat nagusi bada, lehendabizi, sekuentzia horren zenbakia jasoko da, eta, ondoren, gainerako sekuentzien orrialdeak eta abar batuta ateratzen den kopurua.

561 or. (ask. or.)

eta ez

95, 110, 200, 156 or.

520 o. (ask. o.)

eta ez

140, 110, 150, 120 o.

106, [95] or.

eta ez

106, 20, 35, 40 or.

1 libk. (ask. or.)

Argitalpeneko askotariko orrialdekatzea aipatu ordez

1 libk. (ask. zenbk.)

eta ez

96, 25 or., 150 kol., 32 or., 15 o.

2.5.3Ah) Argitalpenaren orrialdeen eta abarren zenbaketak akatsak dituela edo oker dagoela ohartuz gero, azken orrialdearen eta abarren zenbakia jasoko da, eta, ondoren, zenbaki zuzena taket artean.

239 [i.e. 293] or.

2.5.3Ai) Zenbaketa bikoiztuta badago —argitalpen elebidunetan maiz gertatzen den bezala—, orrialdearen eta abarren laburduraren ondoren, «bikoiztua» terminoari dagokion laburdura jarriko da. Bikoiztuta dauden orrialdeak eta abar guztiz bat ez badatoz, datu hori sekuentziaren zenbakia-
ren ondoren adieraziko da, parentesi artean.

253 or. bik.

XII, 314 or. (28-310 bik.)

2.5.3Aj) Argitalpena eguneratzeko argitaratutako orri solteak deskribatzeko, «1 libk.», «2 libk.» eta abar jarriko da. Argitalpen-mota oharretan adieraziko da.

1 libk.

Oharra

Sei hilabeteetan behin eguneratzen dira orri solte hauek

2.5.3Ak) Argitalpenaren orrialdeak eta abar sekuentzia handiago baten zati badira (esate baterako, liburuki bat baino gehiago duten lanetan —liburuki horietako bat aparte deskribatzen denean—, aparteko botaldietan, etab.), lehen eta azken orrialdeen eta abarren zenbakiak jasoko dira, ondoren dagokien laburdura jarrita.

221-267 or.

IV or., 433-645 or., [26] o.

43-85 o.

Argitalpenak bi zenbaketa baditu aldi berean, bata liburukiarena eta bestea sekuentzia handiago batean dagokion zatiarena, lehenengoa deskribapen fisikoaren eremuan emango da, eta sekuentzia handiagoarena oharretan.

51 or.

Oharra

105-155 or. ere zenbakituak

2.5.3Al) Argitalpenaren orrialdeen edo orrien sekuentzia batzuk kontrako norabidean zenbakituta badaude, eta sekuentzia horiek hiru baino gehiago ez badira, denak adieraziko dira, hurrenkera zuzenean; lehenengo, deskribapenaren oinarri izan den atariaren ondoko sekuentzia adieraziko da, eta, ondoren, gainerakoak. Hiru sekuentzia baino gehiago badaude, ikus 2.5.3Ag).

VIII, 156, 159 or.

2.5.3Am) Ale batek azken orrialdeak falta baditu, eta guztira zenbat orrialde dituen jakiterik ez badago, datu hori oharretan jasoko da.

321 or.
Oharra
Azken orrialdeak ments ditu

2.5.3An) Orrialdeen eta abarren sekuentzian sartuta ez dauden orrirudi, mapa, plano eta abarren kopurua, horien ondoren adieraziko da, sakabanatuta egon edo bakarra izanik ere.

216 or., 75 o., [6] oir.
X, 32, 79 or., [1] oir., [2] o. mapekin, [1] o. planoekin
75 or., XVI oir.

2.5.3Ao) Argitalpena braillez edo bestelako ukipen-idazkeraz idatzirik badago, datu hori deskribapen fisikoaren eremuan adieraz *daiteke* dagokion terminoaren bidez.

325 or. braillez
2 libk. braillez

2.5.3B Liburuki bat baino gehiago duten argitalpenak

2.5.3Ba) Argitalpenak liburuki bat baino gehiago baditu, tamaina adierazteko, liburuki-kopurua zehaztuko da.

3 libk.

2.5.3Bb) Argitalpenaren liburuki-kopurua eta tomo-kopurua bat ez badatoz, aldea oharretan jasoko da, betiere, baldin eta edukia deskribatzen ez bada edo bigarren mailako deskribapena egiten ez bada (ikus 2.9.1).

5 libk.
Oharra
Libk. zenbakiak: 1, 2A, 2B, 2C, 3
6 libk.
Oharra
3 t. 6 liburukitan

2.5.3Bc) Argitalpenaren liburuki guztiek, argitalpena osoan hartuta, orrialdekatze edo orrikatze jarraitua badute, orrialde edo orrien kopurua liburuki-kopuruaren ondoren jasoko da parentesi artean.

5 libk. (540 or.)

Litekeena da liburuki batzuek edo guztiek, sekuentzia nagusiaz gain, berezko zenbaketa duen beste sekuentzia bat izatea, esaterako hitzaurreak, sarrerek eta antzekoak osatu ohi dutena. Horrelakoetan, aparteko sekuentzia horien orrialde-kopurua sekuentzia nagusiaren ondoan jasoko da.

8 libk. ([74], 894 or.)

2.5.3Bd) Liburuki bakoitzak bere orrialdekatzea edo orrikatzea badu, zentro katalogatzaileak, beharrezkoa baderitzo, liburuki bakoitzaren orrialdeen eta abarren kopurua adieraz *dezake*, parentesi artean eta liburuki-kopuruaren ondoren.

5 libk. (95, 103, 87, 115, 100 or.)

2 libk. (X, 245; VIII, 283 or.)

2.5.3Be) Lana oso-osorik argitaratu ez bazen, argitaratuta dauden liburukiaren edo liburukien deskribapen fisikoa egingo da, eta oharretan adieraziko dira beharrezko diren azalpenak.

5 libk.

Oharra

Ez da libk. gehiago argitaratu

2.5.3Bf) Liburuki bat baino gehiagoko argitalpena bi maila edo gehiagotan deskribatzen bada (ikus 1.9.1), ale bakoitzaren orrialdeen eta abarren kopurua alearen deskribapen fisikoan jasoko da.

2.5.3C Liburukiak ez diren argitalpenak

Argitalpena liburukia ez bada, zer lan-mota den adieraziko da dagokion terminoaren bidez, eta ondoren, lan horren orrialdeen eta abarren kopurua jasoko da, parentesi artean.

1 kutxa (ask. or.)

2 karpeta (12, 15 o.)

1 karpeta (225 or., [3] kol. oir.)

1 o. tol. (8 or.)

2.5.4 IRUDIAK

2.5.4A Eremuaren bigarren elementua da eta «ir.» laburduraz adieraziko da argitalpenaren orrialdeen eta abarren kopuruaren ondoren. Edonola ere, eremuaren lehen elementuan adierazitako laminadun orrialde edo orriez gain, argitalpenean beste ezin elementu grafikorik ez badago, ez da bigarren elementu hau jasoko, betiere salbu eta tamaina liburukitan zehazten denean.

235 or. : ir.

(Irudiak argitalpenaren orrialdekatzearen barruan daude)

453 or., 8 oir. : ir.

(Zortzi orrirudiez gain, argitalpenak orrialdekatzearen barruan irudiak ditu)

XII, 380 or., 10 oir., [3] o. mapekin

(Eremuaren lehenengo elementuan adierazten dituen irudiak baino ez ditu)

Bigarren mailako irudiak (hala nola, binetak, inisial apainduak, diagramak eta abar) jaso gabe utz *daitezke*, eta ez dira iruditzat hartuko koadroak, zenbaki-taulak eta abar.

2.5.4B Adierazi beharra ikusiz gero, «ir.» laburduraren ondoren irudi-mota zehaztu *daiteke*.

528 or. : ir., mapak, planoak

Baina argitalpenean irudi-mota bakarra ageri bada (adibidez, mapak, planoak, erretratuak, musika-notazioak, faksimileak eta abar), «ir.» laburdura kendu egin *daiteke* eta irudi-mota bakarrik adierazi.

321 or. : mapak, planoak

2.5.4C Argitalpenak irudiak dituela eta zein irudi-mota dituen zehazteaz gain, argitalpenaren irudi-kopurua ere adieraz *daiteke*. Irudi guztiak kolorezkoak badira, «kol. ir.» laburduraren bidez zehatz *daiteke*; kolorezko eta zuri-beltzezko irudiak ageri badira, «kol. eta z.-b. ir.» laburdura jar *daiteke*. Kolorezko iruditzat hartuko da gutxienez bi koloretan inprimatutakoa, beltza barne.

118 or. : 28 kol. eta z.-b. ir.

43 or. : ir., 25 faks.

3 libk. : kol. mapak

2.5.4D Argitalpenean irudiak batez ere edo soil-soilik irudiak badaude, datu hori adierazi egingo da.

320 or. : denak ir.

500 or. : batez ere ir.

208 or. : batez ere mapak

2.5.5 NEURRIAK

2.5.5A Eremuaren hirugarren elementua da, eta hauxe jaso behar du: argitalpenaren azalaren luzera, bizkarraren paraleloan neurtuta, zentimetrotan adierazita.

; 25 cm

Zentimetro-frakzioak zentimetro osotzat hartuko dira.

; 18 cm

(Argitalpenak 17,2 cm-ko luzera du)

2.5.5B Argitalpenaren forma berezia bada (adibidez, zabalera luzera baino handiagoa badu, edo luzera zabalaren aldean ohi baino handiagoa bada), luzeraren ondoren zabalera ere adieraz *daiteke*.

; 18 × 24 cm

; 20 × 20 cm

2.5.5C Zabaldurik kontsultatzeko diren orri solteen neurria luzera adieraziz emango da. Toles-
turik badaude, luzeraren ondoren, tolestuta hartzen duten luzera adieraz *daiteke*.

1 o. ; 40 cm, tol. 20 cm

Tolestuta kontsulta daitezkeen orri solteetan, tolestuta duten luzera baino ez da jasoko.

1 o. tol. (4 or.) ; 28 cm

2.5.5D Argitalpenak neurri ezberdineko liburukiak baditu, neurri guztiak adieraziko dira li-
burukien sekuentziari jarraiki.

; 18, 25 cm

; 18, 25, 30 cm

2.5.6 MATERIAL GEHIGARRIA

2.5.6A Material gehigarria deskribatzeko, 1.5.6 paragrafoan ezarritako arauetara jarraituko zaie.

73 or. : ir. ; 21 cm + 5 mapa : kol. ; 60 × 40 cm, tol. 30 × 20 cm

640 or., 6 kol. oir. ; 27 cm + huts-zerrenda

75 or. ; 21 cm + 1 disko

234 or. ; 23 cm + 1 disko (16 min) : 33 b/min, monoa ; 17,6 cm

2 libk. : ir. ; 27 cm + 1 aurkibide (20 or. ; 34 cm)

4 libk. : ir. ; 22 cm + 5 est.

2.6 SERIEAREN EREMUA

EREMUAREN ELEMENTUAK

Seriearen izenburua

Seriearen pareko izenburuak

Seriearen azpiizenburua edota izenburuari buruzko informazio osagarria

Serieari dagozkion erantzukizunen aipuak

ISSNa (argitalpen seriatuen nazioarteko zenbaki normalizatua)

Seriearen zenbakia

Azpiserieen eta atalen izendapena edota izenburua

Azpiserieen eta atalen pareko izenburuak

Azpiserieen eta atalen azpiizenburua edota izenburuari buruzko informazio osagarria

Azpiserieei eta atalei dagozkien erantzukizunen aipuak

Azpiserieen eta atalen ISSN-a

Azpiserieen eta atalen zenbakia

2.6.1 ITURRIAK

Ikus 2.0.1B

2.6.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.6.2

2.6.3 SERIEAREN IZENBURUA

Ikus 1.6.3

2.6.4 SERIEAREN PAREKO IZENBURUAK

Ikus 1.6.4

2.6.5 SERIEAREN AZPIIZENBURUA EDOTA IZENBURUARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA

Ikus 1.6.5

2.6.6 SERIEARI DAGOZKION ERANTZUKIZUNEN AIPUAK

Ikus 1.6.6

2.6.7 ISSN-A (ARGITALPEN SERIATUEN NAZIOARTEKO ZENBAKI NORMALIZATUA)

Ikus 1.6.7

2.6.8 SERIEAREN ZENBAKIA

Ikus 1.6.8

2.6.9 AZPISERIEEN ETA ATALEN IZENDAPENA EDOTA IZENBURUA

Ikus 1.6.9

2.6.10 AZPISERIEEN ETA ATALEN PAREKO IZENBURUAK

Ikus 1.6.10

2.6.11 AZPISERIEEN ETA ATALEN AZPIIZENBURUA EDOTA IZENBURUARI BURUZKO
INFORMAZIO OSAGARRIA

Ikus 1.6.11

2.6.12 AZPISERIEEI ETA ATALEI DAGOZKIEN ERANTZUKIZUNEN AIPUAK

Ikus 1.6.12

2.6.13 AZPISERIEEN ETA ATALEN ISSN-A

Ikus 1.6.13

2.6.14 AZPISERIEEN ETA ATALEN ZENBAKIA

Ikus 1.6.14

2.6.15 SERIE BAT BAINO GEHIAGO

Ikus 1.6.15

2.7 OHARREN EREMUA

2.7.1 ITURRIAK

Ikus 2.0.1B

2.7.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.7.2

2.7.3 OHARREN ZER-NOLAKOAK

Ikus 1.7.3

2.7.4 OHARREN HURRENKERA

Ikus 1.7.4

2.7.4A Eremu jakin bateko informazioa osatzen duten oharrak

2.7.4Aa) Izenburuaren eta erantzukizunaren aipuaren eremua

Izenb. az. hartua

Gaztelaniaz ere argitaratu da izenb. honekin: La piedad peligrosa

Honen itzulpena: The home video makers handbook

Hitzaldiaren izenb.: El síndrome de Down adulto

At.: IVAPeko Administrazio Hizkeraren Atala

2.7.4Ab) Edizioaren eta historia bibliografikoaren eremua

Argit. honen faks.: Matriti : Ex Officina Fráncisci Martínez, 1631

1946ko 1. argit. berrinprimatua

Honen separata: The papers of the Bibliographical Society of America.

6. libk. (1923)

2.7.4Ac) Argitalpenaren eta banaketaren eremua

5. libk. 1982koa da

Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzari esker argitaratua

2.7.4Ad) Deskribapen fisikoaren eremua

8 t. 4 liburukitan
Mapak karpeta batean daude

2.7.4Ae) Seriearen eremua

Lehen, Nueva fontana ser. argitaratu zen
Lehen, 67 zenbakiarekin argitaratu zen
Jatorrian, bildumatik kanpo argitaratu zen
Lehen, zenbakirik gabe argitaratu zen ser. honetan:
Ser. izenb. gainazaletik hartua
Ser. izenb. frantsesez, ingelesez eta italieraz

2.7.4B Eremu jakin bati lotuta ez dauden oharrak**2.7.4Ba) Tesiei buruzko oharrak**

Tesia-Euskal Herriko Unibertsitatea, 1996
Tesia-Universitat Berlin

2.7.4Bb) Ale-kopuruari buruzko oharrak

500 ale zenbakituta
25 ale zenbakituta biblia-paperean

2.7.4Bc) Material gehigarriari buruzko oharrak

Honekin batera: Euskal Autonomia Erkidegoko mapa hidrologikoa : 1:150.000
eskala : [memoria]
Honekin batera: karpeta bat material grafikoarekin

2.7.4Bd) Edukiari buruzko oharrak

Barruan du (319-410 or.): El toreo contemporáneo (1966-1993) / Juan Antonio Polo
Jat. faks. barne: Icasbidea : christauen doctrina ... / Gaspar Astete Jesusen
Compañiacoac gaztelaniaz ta orain beste jesuita batec eusqueraz ezarria. — Burgos :
Compañiaco Hizquiroian, 1747

2.7.4C Aleari buruzko oharrak

Itzultzailearen eskaintza autografoa duen alea
Lizundutako alea

Ertzetan eskuz idatzitako oharrak

Ale hondatua

Errusiako larruz azaleztatua

2.8 ZENBAKI NORMALIZATUAREN ETA ESKURATZE-BALDINTZEN EREMUA

EREMUAREN ELEMENTUAK

ISBNa (liburuaren nazioarteko zenbaki normalizatua)

Eskuratze-baldintzak eta/edo prezioa

2.8.1 ITURRIAK

Ikus 2.0.1B

2.8.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.8.2

2.8.3 ISBN-A

Ikus 1.8.3

2.8.4 ESKURATZE-BALDINTZAK ETA/EDO PREZIOA

Ikus 1.8.5

2.8.5 ISBN BAT BAINO GEHIAGO

Ikus 1.8.6

2.9 LIBURUKI BAT BAINO GEHIAGO DUTEN ARGITALPENAK

Liburuki bat baino gehiago, bakoitzak bere izenburua duela, duten argitalpenak bi eratara deskriba daitezke: edukiari buruzko ohar baten bidez (ikus 2.7.4Bd), edo bi maila edo gehiagoko deskribapenaren bidez. Deskribatzeko bigarren era oso egokia da bibliografia nazionaletarako eta gai batean sakondu nahi duten katalogoetarako.

Bi maila edo gehiagoko deskribapenak egiteko, 1.9.1/1.9.2 eta 1.9.4/1.9.5 paragrafoetan ezarritako arauak jarraituko zaie.

2.10 1801. URTEA BAINO LEHENAGO INPRIMATUTAKO ARGITALPENAK¹

2.10.0 Atal honetan 1801. urtea baino lehenago argitaratutako liburuak, liburuxkak eta orri solteak deskribatzeko arauak zehaztuko dira

Argitalpen horietarako 2.0/2.9 paragrafoetan ezarritako arauak ere erabiliko dira, betiere, atal honetako arauetan ezarritako aldaketak eta gehikuntzak kontuan izanik.

2.10.1 IZENBURUAREN ETA ERANTZUKIZUNAREN AIPUAREN EREMUA

2.10.1A Izenburuaren transkripzioa

Izenburua transkribatzerakoan, jatorrizkoaren ortografia errespetatuko da.

2.10.1Aa) Latindar alfabetoaren letra larriak letra xehean jartzeko, deskribatzen den argitalpenaren erabilerari begiratuko zaio. Erabilera finkorik ez badago, jarraibide hauek bete beharko dira:

U eta V beti u bihurtuko dira; hasieran badoaz, berriz, v idatziko da.

J eta I beti i bihurtuko dira, baina IJ bukaera ij idatziko da.

J eta U letra larri gotikoak beti i eta v bihurtuko dira.

Vita Francisci Borgiae Tertij Societatis Iesu Generalis

Atarian

VITA FRANCISCI BORGIAE TERTIJ SOCIETATIS IESV GENERALIS

2.10.1Ab) Gaur egungo alfabetoan ez dauden antzinako letra xeheen ordezkariak (lokarridun letrak, s luzea, r karratua), gaur egungo alfabetoan dituzten baliokideak transkribatuko dira: ¶ = s , ¶ = r , ¶ = st , eta ¶ zeinuaren ordezkariak eta, e, y eta e kopulatioak idatziko dira.

2.10.1Ac) Gaur egungo i nahiz j eta u nahiz v letra xeheen balioaz grafia zaharrean erabiltzen ziren i eta j eta u eta v letrak iturrian ageri bezala transkribatuko dira.

¹ Argitalpen hauen ezaugarri nagusia da eskuz egindako paperean eta eskuz inprimatuta egotea. Halako argitalpenak deskribatzeko, ISBD (A) : *International Standard Bibliographic Description for Older Publications (Antiquarian)*, 1980, arautegia ezarri du FIABek. Edonola ere, arau horiek XVIII. mendean geroztik antzinako tekniken bidez inprimatutako argitalpenetan ere erabili daitezke. Inprimatutako lehen liburuen (inkunablen eta XVI. mendekoak) deskribapen zehatzagoaren erakusgarri dira, besteak beste, katalogo espezializatu hauek: *Gesamtkatalog der Wiegendrucker, Catalogue of books printed in the XV. Century now in the British Museum, el Catálogo general de incunables en bibliotecas españolas*, eta *A descriptive catalogue of printing in Spain and Portugal 1501-1520*, Frederick John Norton-ena.

Año espiritual del ... señor don Juan de Palafox y Mendoza
... obispo de Osma : diuidido en meses y semanas ...

Atarian

AÑO ESPIRITUAL, DEL ... SEÑOR DON IVAN DE
PALAFOX Y MENDOZA ... OBISPO DE OSMA, Diuidido
en Mefes, y Semanas ...

2.10.1Ad) Liburuki edo zati bat baino gehiago duten argitalpenetan, liburuki edo zati bakoitzaren izenburuan unitate bakoitzari lan osoan dagokion zerbakia ageri bada, azken liburukiaren edo zatiaren zerbakia jasoko da eremu honetan, lehenengoaren ondoren, taket artean eta aurretik marratxoa jarrita.

Prima [-decima] egloga della Bucolica di Virgilio

Quinti Horatii Flacci Epistolarum liber primus [-secundus]

2.10.1B Argitalpenak ataririk ez badu eta ezein informazio-iturritan ez bada izenbururik ageri, izenburu nagusirako izenburu izuna eratuko da argitalpena identifikatzeko beharrezko diren testuko lehen hitzak hartuta.

Señor : un fiel vasallo de V. M. zeloso de su real servicio, y del beneficio público del Reyno de Aragón ...

2.10.1C Izenburu luze bat laburtzen bada, ez da jasoko ez izenburu alternatiboa ezta hura izenburu nagusiarri lotzeko erabiltzen den juntagailua ere. Izenburua laburtzeko, ulertzeko beharrezko ez diren hitzak edo esaldiak kenduko dira. Kendu direla adierazteko, dagokion zeinua erabiliko da.

Comercio de Holanda ...

Atarian

Comercio de Holanda o El gran thesoro historial y político del florenciente comercio que los holandeses tienen en todos los estados y señorios del mundo

Apología de la lengua bascongada ó Ensayo crítico filosófico de su perfección y antigüedad sobre todas las que se conocen ...

Atarian

Apología de la lengua bascongada ó Ensayo crítico filosófico de su perfección y antigüedad sobre todas las que se conocen : en respuesta á los reparos propuestos en el Diccionario geográfico histórico de España, tomo segundo, palabra Nabarra

2.10.1D Izenburuaren eta erantzukizunaren aipuren eremuan ez dira jasoko atarian agertu arren izenburuaren zati ez diren esaldi, aipu, otoizlabur eta abar.

Mes eucarístico, esto es, preparaciones ... y acción de gracias para antes y después de la sagrada comunión ...

Izenb. aurretik

Alabado sea el santísimo sacramento

2.10.1E Izenburuari gehitutako azalpenak ez dira izenburutzat hartuko, nahiz eta hari lotuta egon preposizio, juntagailu, esaldi kopulatibo edo antzekoen bidez, eta, hortaz, izenburuari buruzko informazio osagarritzat hartuko dira.

Romancero general : en que se contienen todos los romances que andan impresos ...

Rethorica en lengua castellana : en la cual se pone muy de manifesto en breue lo necesario para saber bien hablar y escriuir ...

2.10.1F Egilearen izena atarian izenburuaren aurretik ageri bada eta izenburuarekiko sintaxi-loturarik ez badu, erantzukizunaren aipua izenburuaren eta izenburuaren informazio osagarriaren ondoren jasoko da. Egilearen izenak iturrian duen kokalekua oharretan adieraziko da.

De asserenda Hispanorum eruditione sive De viris Hispaniae doctis enarratio /

Alphonsus Garcia Matamoros

Oharra

Eg. izena izenb. aurretik

2.10.1G Erantzukizunaren aipu bat baino gehiago dagoenean, iturrian ageri diren hurrenkeran jasoko dira.

2.10.1H Tesi baten «respondens»a eta «praeses»a erantzukizunaren aipu berean jasoko dira, bakoitzak betetzen duen funtzioa adierazita. Aitzitik, izenburuarekin edo izenburuaren informazio osagarriarekin sintaxi-loturarik badute, informazio-iturrian azaltzen diren bezala jasoko dira. (Ikus gainera 14.2.2Ad3).

Philosophiae theses quas pro annuis D. Thomae Aquinati ab Ausonensi Trid. Sem. dicatis cultibus / suscipiet defendendas Dn. Ioannes de Soler, et Casades ... patrono Petro Ioanne Comas, et Borrellas ...

Disputatio theologica de peccato primo primi hominis, quam ... sub praesidio ... Iacobi Tringlandii ... publice defendet Adrianus Heeroboord ...

2.10.2 EDIZIOAREN EREMUA

2.10.2A Edizioaren aipua jaso egingo da baldin eta argitalpenari dagokion edizioak aurreko beste edizio baten ondoan desberdintasun nabariak baditu, kontuan izan gabe ezberdintasun horiek informazio-iturrian adierazita dauden ala ez.

2.10.2B Edizioaren aipuan «edizio» terminoa (edo dagokion hizkuntzako baliokidea) ageri ohi da edo, bestela, hari loturiko terminoren bat, esate baterako «berrikusia». «Berrinprimatua» terminoa edizioaren aiputzat hartuko da, baldin eta izenburuari loturik ageri bada eta aurreko edizio bat dagoela garbi badago. Aitzitik, argitalpenaren eta abarren eremuari loturik ageri bada, eremu horretan jasoko da.

2.10.2C Edizioaren aipua, oro har, argitalpenean ageri bezala jasoko da. Ataritik hartzen bada, transkripzio zehatza egingo da. Edizioaren aipua beste iturri batetik hartzen bada, laburtuta eta zenbaki arabiarretan eman daiteke, ikus 1.2.3B.

- . — Nunc primum in lucem edita
- . — Editio altera, ab innumeris erroribus emendata
- . — Editio undecima emendatissima
- . — Edition augmentée
- . — [2^a ed.]
- . — Bigarren edicionea corrigetua, eta emendatua
- . — [3e éd]
- edo*
- . — [Troisieme édition]

2.10.2D Edizioari buruzko datuak atarian izenburuaren eta erantzukizunaren aipuaren aurrean ageri direnean, ezaugarri horren berri emango da oharretan.

2.10.2E Edizioari buruzko datuak izenburuaren, izenburuaren informazio osagarriaren edo erantzukizunaren aipuaren zati badira, edota elementu horietako bati gramatikalki loturik badaude eta, hortaz, dagoeneko jasota badaude, ez dira berriro jasoko edizioaren eremuan.

Libro de albeytería / nueuamēte corregido y emendado y añadidas en el sesenta y nueue pregūtas

2.10.2F Edizioaren beste aipua (adibidez, berrinprimatze-aipua) beste eremu bati dagozkion aipuei loturik azaltzen bada, edizioaren eremuan jasoko da.

2.10.3 ARGITALPEN-MOTAREN XEHETASUN ESPEZIFIKOEN EREMUA

Antzinako argitalpenak deskribatzeko orduan ez da eremu hau erabiliko. Edonola ere, edukiaren ezaugarriengatik argitalpenak beste arau berezi batzuen arabera deskribatu behar badira (adibidez, aldizkako argitalpen bat edo atlas bat), argitalpen-mota bakoitzarentzat eremu honetarako ezarritako arauak erabiltzea komeni da (ikus 1.3).

2.10.4 ARGITALPENAREN, INPRIMAKETAREN ETA ABARREN EREMUA

2.10.4A Argitaralekua

2.10.4Aa) Argitaralekuaren aipuan jaso beharrekoak dira aipuaren aurretik ageri diren preposizioak. Era berean argitaralekuaren aipuan jasoko dira argitaralekuaren aipuari loturik ageri diren hitzak edo esaldiak. Aitzitik, argitaratzailearen izenaren eta abarren aipuari, helbide bati edo marka tipografiko bati loturik ageri diren hitzak edo esaldiak argitaratzailearen izenaren eta

abarren aipuan jasoko dira. Argitaralekuaren aipua informazio-iturrian ageri den kasu gramatikal eta ortografia berean transkribatuko da.

- . — Tolosan
- . — Bilbon
- . — Iruñean
- . — En Pamplona
- . — Baionan
- . — Bayone
- . — Avignhonen
- . — Impressum Venetiis
- . — Impreso en Bilbao
- . — Donostian
- . — Parisiis
- . — Parisen
- . — Burdigalae [Bordele]
- . — Augustae Vindelicorum [Ausburgo]

2.10.4Ab) Argitalpenean ez bada argitaralekua azaltzen, baina bai helbide bat, marka tipografiko bat edo aipu faltsuren bat, jaso egingo dira, aurretik, taket artean jarrita argitaralekuaren edo argitaralekua izan litekeenaren izena.

- . — [Sevilla] : se hallará en la Alcaizería de la Losa, en la casa de Alonso Castiso
- . — [Madrid] : imp. de la calle de Atocha

2.10.4Ac) Argitalpenean argitaraleku bat baino gehiago azaltzen bada, tipografikoki nabarmenduta dagoena jarriko da lehenengo; halakorik ez badago, iturrian ageri diren hurrenkeran jasoko dira.

- . — Bononiae ; sed prostant Venetiis
- . — En Barcelona ; se vende en Madrid
- . — Orleans ; Paris

2.10.4Ad) Argitaraleku nagusia eta abar beste eremu baten zati gisa baino azaltzen ez bada eta eremu horretan aipatuta badago, edota argitaratzailearen aipuaren eta abarren bidez edo eremu honetarako informazio-iturri nagusia ez den beste informazio-iturri batzuen bidez jakiten bada, eremu honetan jasoko da, taket artean, argitalpen-datari dagokion eran eta eremuan erabilitako hizkuntzan edo idazkeran.

- . — [Iruñea] : Iruñeco libruguille Antonio Castilla-ren echean
- . — [Venetiis] : Vindelinus de Spira
(Argitaralekua argitalpenaren bukaerako bertso batzuetan agertzen da,
inprimatzailearen izenarekin lotuta)

2.10.4B Argitaratzailearen izena

2.10.4Ba) Argitalpenean ez bada argitaratzailearik azaltzen, argitaratzailetzat hartuko dira liburu-saltzailea, liburuaren inprimatzaile eta saltzailea, edota inprimatzailea, baldin eta dagokion lekua-rekin loturik azaltzen bada eremu honetarako agindutako iturriren batean.

- : Joannes-Frances Robert, libouru eguillearen baitan ...
- : B. Lapeyrette inprimaçaliac moulezco letretan çaria
- : Antonio Aubanel liburu salçaliaren, eta aita seindiaren choil imprimuçaliaren beithan
- : imprenta y librería de Joseph García Lanza
- : printed and sold by R. Bell
- : por Luis Sánchez
- : libruguille Francisco de la Lama-ren echean

Argitaratzaileen eta abarren izenak argitalpenean azaltzen diren ortografia eta kasu gramatikal berean transkribatuko dira, haiei loturik dauden hitz eta esaldiekin batera.

- : Pedro Gurruchaga-ren moldizteguian
- : apud Joannem Mariam Salvioni, typographum Vaticanum
- : in officina Jacobi Saconi
- : in officina Birckmannica, sumptibus Arnold Mylij
- : en casa de Martín Nucio
- : por Francisco Sanz
- : printed for the editor, and sold by him

2.10.4Bb) Argitaratzaileari eta abarri buruzko datuak argitalpenean azaltzen diren bezala emango dira. Argitaratzailearen eta abarren aipu osoaren zatiak ez dira banaka emango salbu eta argitalpenean horrela ageri direnean. Informazio-iturri nagusian ageri den argitaratzailearen eta abarren aipuan inprimatzailearen izena azaltzen bada, aipu horretan jasoko da.

- : Andre Lamaignère alhargunaren imprimerian salcen da Anyere C. Bernain baithan
- : en la imprenta de D. Antonio Fernández, a expensas de la Real Compañía de Impresores y Libreros del Reyno
- : por Juan de la Cuesta, vendese en casa de Francisco de Robles

2.10.4Bc) Oro har, ez dira jasoko argitaratzailearen lanbide-titulua, helbidea eta bestelako datuak, eta hutsune-markaren bidez adieraziko da jaso gabe utzi direla. Edonola ere, argitaratzailearen helbidea jaso egin *daiteke* lagungarria denean argitalpena identifikatzeko edo noizkoa den jakiteko.

- : V^a H. Casterman ...
- Atarian*
- : V^a H. Casterman editor pontificalis

: por Luis Sánchez ...

Atarian

Por Luis Sánchez, impresor del Rey N. S.

. — En Valencia : junto al molino de Rovella

. — Está impreso en Medina del Campo : en coral [sic] de bueyes

2.10.4Bd) Argitaratzaileak eta abar bat baino gehiago badira, lehenengo ageri dena jasoko da beti; nahi izanez gero, gainerakoak ere jaso *daitezke*, informazio-iturrian azaltzen diren hurrenkeran. Denak adierazten ez direnean, horren berri emango da hutsune-markaren ondoren [et al.] jarrita edo jaso gabe utzi direnen kopurua adierazten duen esaldi baten bidez.

. — Tournai : H. Casterman editeur : Librairie de P. Lethielleux : librairie de H. Casterman

. — Tournai : H. Casterman ... [et al.]

. — Tournai : H. Casterman ... [eta bi gehiago]

Edizioaren eta abarren aipuak zati asko baditu puntu eta komaz bereiziko dira, betiere, baldin eta argitalpenean bereizita badaude.

. — A Orleans : chez Couret de Villeneuve ; se trouve á Paris : chez Nyon ainé ...
[eta bost gehiago]

2.10.4Be) Argitaratzaileari eta abarri buruzko informazioa informazio-iturri nagusian azaltzen ez bada, edo informazio-iturri nagusian egonik beste eremu baten elementuen barruan azaltzen bada, edota argitalpenaz kanpoko iturri batetik hartu bada, dagokion lekuan jasoko da ahalik eta laburren, taket artean, eta izenburu nagusiaren hizkuntzan eta idazkeran. Argitaratzailearen izena eta abar ere taket artean jasoko da baldin eta marka tipografikotik edo irarkola-ikurretik hartu bada.

. — [Bilbo : Delmas-en alargunaren seme nagosiyaren moldateguiyan, ca. 1868]
(*Atarian irarkola-ikurra azaltzen da*)

. — [Hispali : Iohannes Pegnitzer, Magnus Herbst et Thomas Glockner, ca. 1496]

Atarian

Tres Personae

(*Dokumentuan falta diren argitalpen-eremuaren datuak, Haebler-etik hartuak*)

2.10.4Bf) Argitalpenak liburuki bat baino gehiago badu eta denak argitaratzaile berarenak ez badira, argitalpenaren lehenengo argitaratzaile ez diren argitaratzaile guztien izenak oharretan jasoko dira.

2.10.4Bg) Antzinako argitalpenen deskribapenean ez da argitaratzailearen funtzioaren aipurik jasoko.

2.10.4C Argitalpen-data

2.10.4Ca) Argitalpen-data osorik emango da, eguna, hilabetea eta urtea adierazita, baldin eta argitalpenean hala ageri bada.

- , 1761 lotazillaren III egunian
- , 3 febrero 1502
- , a doze dias del mes de enero de 1524
- , a XXVII de enero 1527 [i.e. 1572]

Zaharkituta gelditu diren data-idazkeren eta zenbakitan ez dauden hilaren egunen gaur egungo baliokideak taket artean jasoko dira.

- , 1518 tertio nonas januarij [urt. 3]
- , 1515 duodecemo kalendas octobris [ira. 20]
- , 15 cal. aprilis [mar. 18]
- , IX Kal. iun. [mai. 24] 1501
- , die vero primo februarii anno ab Incarnatione domini 1502 [1503]

2.10.4Cb) Zenbaki erromatarrak zenbakera arabiarrean jarriko dira. Oker badaude, bere hartan emango dira, ondoren, zenbaki zuzena zenbaki arabiarretan jarrita. Ez dira jasoko inprimatze-urtearekin ageri ohi diren esaldiak; hala nola, «urtean inprimatua», «anno» eta antzekoak.

- , 1634
- Argitalpenean*
- MDCXXXIV
- , DCXXXI [i.e. 1631]
- , 1782
- Argitalpenean*
- , M. DCC. LXXXII

Argitalpenaren data oso luze emanda badago, gaur egungo erabilera normalizatura bihur *daiteke*.

- , 1509ko ekainaren 12a
- Argitalpenean*
- Anno ab Incarnatione Domini millesimo quingentesimo nono, die vero decimo secundo iunii

2.10.4Cc) Lan batek liburuki, zati edo faszikulu bat baino gehiago baditu, eta urte ezberdinetan argitaratu badira, argitalpen-dataren aipua 1.4.6G paragrafoan azaldu bezala egingo da.

Argitalpen-datak eta liburukien, zatien edo faszikuluen sekuentzia bat ez badatoz, argitalpen-datak argitalpenen agerpenaren hurrenkeran eman *daitezke* edo, bestela, gorabehera hori ohar baten bidez azaldu.

- , 1535, 1530, 1532
- edo*
- , 1530-1535
- Oharra*
- 1. libk., 1535 ; 2. libk., 1530 ; 3. libk., 1532

Argitalpen baten zati bakoitzak bere ataria badu, eta atari horietako datak eta lan osoaren atari nagusikoa bat ez badatoz, argitalpen-zatien atariko datak oharretan jasoko dira.

, 1601

Oharra

2. ataleko atarian, 1599

2.10.4D Inprimalekua, inprimatzailearen izena eta inprimatze-data

2.10.4Da) Inprimalekua eta inprimatzailearen izena edizio-dataren ondoren jasoko dira, parentesi artean betiere, baldin eta lehenago jaso ez badira, hau da, datu horiek informazio-iturri nagusitik kanpo ageri direlako lehendik eremu honetan jasota ez badaude. Argitalpenean ez bada horri buruzko daturik azaltzen baina zentro katalogatzaileak zein diren badaki, taket artean adieraz daitezke, parentesi barruan.

. — Parisiis : apud Victorem Palme, 1870 (Anicii : ex typis M.-P. Marchessou)

. — En Montilla : por el autor y a su costa, 1622 (por luan Baptista de Morales)

2.10.4Db) Inprimatze-data eta argitalpen-data desberdinak badira, eta inprimatze-data dokumentuan bertan ageri bada baina ez iturri nagusian, argitalpen-dataren ondoren jasoko da parentesi artean. Inprimatze-data ageri den informazio-iturria dokumentuz kanpoko bada, parentesiaren barruan eta taket artean jarriko da.

. — Pamplonan : Josephe Joachin Martinezen imprentan, 1737 (1739)

(Bigarren data lizentzietan dator)

. — Avignhonen : Antonio Aubanel, 1650 [(1654)]

. — En Madrid : en la Imprenta Real, 1604 (por Iuan Flamenco, 1603)

2.10.5 DESKRIBAPEN FISIKOAREN EREMUA

2.10.5A Liburuki bakarreko argitalpen baten orrialdeak edo orriak zenbakitu gabe badaude baina signatura tipografikoak baditu, signatura tipografiko horiek adieraziko dira tamaina deskribatzerakoan.

. — Sign. A-L8, M6

Orrialdekatzeari edo orrikatzeari buruzko informazio zehatzagoa eman nahi izanez gero (zenbat orrialde edo orri zuri dagoen, edo argitalpenaren beste edozein ezaugarri), datu horiek parentesi artean eman daitezke labur azalduta, edo, bestela, oharretan jaso.

[1], 87, [1] o.

(Lehenengo eta azkeneko orriak zenbakitu gabe, zuriz)

2.10.5B Irudien aipuan, *nahi izanez gero*, «ir.» laburduraren ostean, irudia egiteko erabilitako teknika adieraz *daiteke*, parentesi artean.

- : ir. (zura)
- : ir. (xilografia)
- : ir. (ur-bortitza)
- : ir. (grabatua)

2.10.5C Formatua eta/edo neurriak

Antzinako argitalpenen deskribapen fisikoaren eremuaren hirugarren elementua argitalpenaren formatua eta/edo neurriak da.

2.10.5Ca) Formatua —koadernoaren eratzeko, orria zenbat aldiz tolestu den ikusita zehazten baita— zenbaki ordinaletan adieraziko da. Behin bakarrik tolestuta badago (2°), fol. laburduraz adierazi ohi da.

- ; Fol.
- ; 4°
- ; 8°
- ; 12°
- ; 16°
- etab.*

2.10.5Cb) Formatuaren ondoren luzera adieraziko da parentesi artean.

- ; Fol. (33 cm)
- ; 4° (21 cm)

2.10.5Cc) Formatua zehaztu ezin bada, neurriak baino ez dira emango.

- ; 22 cm
- ; 27 × 12 cm

2.10.5Cd) Alea ertzetatik oso moztuta badago, oharretan emango da horren berri.

2.10.5Ce) Argitalpenak liburuki bat baino gehiago baditu eta horietako bakoitzak bere formatua eta/edo neurriak baditu, formatu guztiak eta dagozkien neurriak jasoko dira. Liburuki guztiak formatu bera izanik neurri ezberdinak badituzte, neurririk txikiena eta handiena bakarrik adieraziko dira, marratxo batez bereizita.

- ; Fol. (33 cm), 4° (21 cm), 8° (16 cm)
- ; 4° (18-22 cm)

Liburuki bakoitzaren formatua eta/edo neurriak ohar baten bidez eman *daitezke* bigarren mailako deskribapenean (ikus 1.9.1) edo, bestela, edukiari buruzko oharretan.

2.10.6 SERIEAREN EREMUA

Jakina denez, antzinako argitalpenen deskribapenean ezin da ISSNrik adierazi, geroztik ezarritakoa baita.

2.10.7 OHARREN EREMUA

Antzinako argitalpenak deskribatzeko, oharrei buruz 2.7.3/4 paragrafoan ezarritakoaz gain, ondoren datozen oharrak ere kontuan hartu behar dira, bereziki argitalpen-mota horretarako erabiltzekoak baitira.

2.10.7A Erreferentzia bibliografikoak

Erreferentzia bibliografikoak inkunableak deskribatzeko nahitaezkoak dira eta XIX. mendea baino lehenagoko argitalpenak katalogatzean ere sar *daitezke*. Oharretan jasotako datuak labur eta normalizatuta emango dira.

CCPB 000207373

FSS ATV 4.699

GW. 2.906

Hain 8.274

Salvá 1.341

Palau 145.717

Vinson 87 a

Erreferentzia bibliografikoen ohar horiek argitalpen osoari dagozkio, eta eremuaren lehenengo elementua dira.

2.10.7B Deskribapen fisikoaren eremuari buruzko ohar bereziak

Nahitaezkoak dira inkunableak deskribatzeko, eta gomendagarriak XVI. mendeko inprimakietarako. Gainerako kasuetan honako hauek zehazteko oharrak jar *daitezke*: inprimakietan erabilitako tipografia, testuaren antolamendua eta lerro-kopurua, inzialen forma, marka tipografikoak, erabilitako tintak eta inprimatzailea identifikatzeko lagungarri izan daitekeen eta garrantzitsutzat jotzen den beste edozein zehaztasun. Datu horien ondoren signatura tipografikoak jaso *daitezke*, non eta deskribapen fisikoaren eremuan jasota ez dagoen.

. — L. got. ; 2 zut. ; 26 lerro ; tart. edo min. inzialetarako ; irarkola-ikurra ; tinta gorria eta beltza

. — Sign.: a8, b-m6, n4

Ohar horiek jaso gabe utz *daitezke*, baldin eta erreferentzia bibliografikoen oharretan adierazitako deskribapenean emanda badaude.

2.10.7C Aleari buruzko oharrak

Deskribapen bibliografikoaren xedea katalogo bat egitea bada, oso gomendagarriak dira alearen jatorriari eta azalari buruzko oharrak sartzea, batez ere, azala bitxia denean. Irudiak eskuz koloretatuak daudenean, datu hori ere aleari buruzko oharretan jasoko da.

2.10.8 IDENTITATE TIPOGRAFIKOAREN EREMUA (FINGERPRINT)

Eremu hau zenbaki normalizatuaren eremuaren baliokidea da eta *aukerakoa* da. Eremu hau erabiliko da, batetik, edizio baten ateraldi edo eginaldi ezberdinetako aleak izanik ezberdintasunak dituzten ale bikoiztuak identifikatzeko eta, bestetik, atari berdina duten unitate bibliografikoak, hala nola, edizio faltsuak eta aizunak, bereizteko.

2.10.8A Eremuko elementuak

Oraindik ez dago ezarrita nazioarteko eredu finkorik antzinako argitalpenen identitatea zehazteko, baina bada horretarako erabiltzen den sistema bat², alegia, toki jakin batzuetan ageri diren inprimatutako azken bi lerroetako azken bi karaktereez osatutako 16 karaktere kontuan hartzen duen sistema. Karaktere horiek jasotzeko, honako toki hauek hartuko dira:

- 1) Atariaren ondoren dagoen aurkia edo lehenengo aurkia.
- 2) Aurrekoaren ondoren dagoen 4. aurkia.
- 3) 13. orri edo orrialde zenbakidunaren aurkia, edo, halakorik ez badago, 17.arena. Orriek zenbakirik ez badute, 2. puntuan adierazitakoaren ondorengo 4. aurkia.
- 4) 3. puntuan adierazitako aurkiaren ifrentzua. Halakoetan, azken bi lerroetako lehenengo bi karaktereak erabiltzen dira.

2.10.8B Identitate-karaktere horiek osatzeko, honako zehaztasun hauek adieraziko dira:

- 1) Hirugarren puntuko karaktereak nondik hartu diren. Horretarako, (3) jarriko da 13. aurkitik hartu direnean, (7) 17. aurkitik hartu direnean eta (C) aurkiak zenbakiturik ez daudenean.

² Ikus:

Computers and early books. — London : Mansell, 1974, Appendix B.

Bayle, Edith, Marie-José **Beaud**, Jean Francois **Maillard**. «Le système des empreintes : bilan et propositions». In: *Bulletin des bibliothèques de France*, 25 (1980) 9-10. zk., 461-479 or.

Fingerprints. I. Manuel. II. Exemples. — Paris : Institut de recherche et d'histoire de textes, 1984.

2) Data, jatorrizko grafia eta puntuazioarekin.

. — iaa. a.e, a,a. yade (3) 1615

R. 32671
Cervantes Saavedra,
Miguel de. Ocho comedias
y ocho entremeses

. — iaa. a.e, a,a: yade (3) 1615

Cerv. Sedó 8698
Cervantes Saavedra,
Miguel de. Ocho comedias
y ocho entremeses


2.10.8C Argitalpenak 16 karaktereak osatzeko behar beste orri ez baditu, azken lerroen aurreko lerroetatik hartuko dira karaktere-pareak.

2.10.8D Liburuki bat baino gehiago duten lanetan, liburuki bakoitzean erabiliko da aipaturako sistema, kasuan kasu dagokion liburukiaren zenbakia adierazita.

3.

kapitulua

Eskuizkribuen deskribapena



3.0 ARAU OROKORRAK

Kapitulua honetako arauen arabera deskribatuko dira eskuizkribuak eta eskuizkribu-bildumak. Eskuizkribuen artean, eskuz idatzitako liburuez gain (zentzu hertsian hartuta), gutunak, hitzal-diak, lege-dokumentuak eta abar ere sartzen dira. Lan bakoitza bereiz deskribatu beharko da, eskuizkribuok bildumak osatzen dituztenean izan ezik.

Testu mekanografiatuak ere arau horien arabera deskribatuko dira. Aitzitik, eskuizkribuen eta testu mekanografiatuen kopia mekanikoak, fotografikoak eta abar deskribatzeko, monografiaren eta mikroformen arauak jarraituko zaie, zer argitalpen-mota den kontuan hartuta. Musika edo kartografiako eskuizkribuak deskribatzeko, arau hauetatik gain, kontuan hartu beharko dira musika-lanetarako eta material kartografikorako arauak ere.

3.0.0 DESKRIBAPENAREN ANTOLAKETA

Ikus 1.0.0

3.0.1 INFORMAZIO-ITURRIAK

Ikus 1.0.1

3.0.1A Informazio-iturri nagusia eta iturriak kontsultatzeko agindutako hurrenkera

Eskuizkribuen informazio-iturri nagusia eskuizkribua bera da. Eskuizkribuaren barruan, lehen-tasuna izango du, lehenik, ataritik edo kolofonitik hartutako informazioak; bigarrenik, orriburitik edo testu hasieratik hartutakoak; eta, azkenik, testutik bertatik ateratako informazioak. Edonola ere, eskuizkribuaren jatorrizko osagai diren iturriek lehen-tasuna izango dute beti, gerora erantsitako osagaien ondoan. Eskuizkribu-bildumetan, eskuizkribuen multzo osoa hartuko da informazio-iturri nagusitzat.

Iturri nagusirik ez badago, informazioa jasotzeko, iturri hauek hartuko dira, hurrenkera honetan:

- lan beraren eskuz idatzitako kopia
- lan beraren edizio inprimatua
- erreferentziako iturriak
- beste iturri batzuk

3.0.1B Eremuetarako agindutako informazio-iturriak

Ondorengo taulan zehazten da zein informazio-iturri dagokion eskuizkribuak deskribatzeko eremu bakoitzari. Agindutako iturri horietatik kanpo jasotako informazioa taket artean edo oharren bidez emango da.

Eremua	Agindutako informazio-iturriak
1 Izenburua eta erantzukizunaren aipua	Eskuizkribua edo eskuizkribu-bilduma bera eta horien kopiak, eskuz idatziak nahiz inprimatuak
4 Data	Eskuizkribua edo eskuizkribu-bilduma bera eta erreferentziako iturriak
5 Deskribapen fisikoa	Eskuizkribua bera eta beste edozein iturri
7 Oharrak	Eskuizkribua bera eta beste edozein iturri

3.0.2 PUNTUAZIOA

Deskribapenean erabili beharreko puntuazio orokorrerako ikus 1.0.2. Ikus, halaber, deskribapenaren elementuetarako eremu bakoitzean erabili beharreko puntuazio-arauak.

3.0.3 DESKRIBAPENAREN HIZKUNTZA ETA IDAZKERA-MOTA

Ikus. 1.0.3

3.0.4 LABURTZAPENA ETA LABURDURAK

Ikus 1.0.4

3.0.5 LETRA LARRIEN ERABILERA

Ikus 1.0.5

3.0.6 AZENTUAK ETA BESTELAKO ZEINU DIAKRITIKOAK

Ikus 1.0.6

3.0.7 AKATSAK

Ikus 1.0.7

3.0.8 INFORMAZIO-ITURRI NAGUSIA ZEHAZTEA, ITURRI NAGUSI BAT BAINO GEHIAGO DITUZTEN DOKUMENTUETAN

Ikus 1.0.8

3.0.9 DESKRIBAPENAREN XEHETASUN-MAILAK

Ikus 1.0.9

3.1 IZENBURUAREN ETA ERANTZUKIZUNAREN AIPUAREN EREMUA

EREMUAREN ELEMENTUAK

Izenburu nagusia

Dokumentu-motaren izendapen orokorra

Pareko izenburuak

Azpiizenburua edota izenburuari buruzko informazio osagarria

Erantzukizunaren aipua

3.1.1 ITURRIAK

Ikus 3.0.1B

3.1.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Tarteen erabilerarako, ikus 1.0.2.

Agindutako puntuaziorako, ikus 1.1.2.

3.1.3 IZENBURU NAGUSIA

3.1.3A Izenburu nagusia transkribatzeko, 1.1.3 paragrafoan ezarritako araei jarraituko zaie. Laburtutako hitzak osorik emango dira, salbu eta tratamendu-formulak edo erabilera arrunteko laburdurak direnean.

Doctrina santuaren explicacioa San Carlos Borromeoren doctrinatic ta libruatic aterraa

Pedro Migel Urruzuno'ren olerki ta ipuiak

Jesucristo gure Jaunaren Evangelio santua San Juanen araura

Amodioac lotuac daucan galan gazte lirain batec ...

Iulii Higini de astrologia poetica

Salomonen cantan cantea Cegamaco escueran ; Avertenzie Jonasen profecia gañen

Ordenanzas de la N. y L. villa de Motrico

Octo libri polithicorum Aristotelis

(*Izenb. kolofoitik hartua: «Expliciunt octo libri polithicorum Aristotelis ...»*)

Fuero de Viguera et de Val de Funes

(*Izenb. testuaren basieratik hartua: «Aqueste es el Fuero de Viguera et de Val de Funes ...»*)

3.1.3B Izenbururik ez duten eskuizkribuak

Eskuizkribuari eskuizkribua bera ez den iturri batetik hartutako izenburua jartzen bazaio, iturri horren berri eman beharko da oharren eremuan (ikus 3.7.4C).

Ahal bada eta beharrezkoa dela ikusten bada, izenburu izunak testuaren jatorrizko hizkuntzan idatziko dira. Hala egiten ez bada, testuaren hizkuntza parentesi artean adieraziko da eta, zalantzarik izanez gero, oharretan emango da horren berri (ikus 3.4.7B).

3.1.3Ba) Literaturako nahiz bestelako eskuizkribuek nolabaiteko unitatea osatzen dutenean edukiaren aldetik nahiz fisikoki, edukia azaltzen duen izenburu labur bat emango da. Geroztik argitaratu egin diren lanen eskuizkribuen kasuan, lana izendatzeko erabili ohi den izenburua jasoko da.

[Frantziako historiari buruzko apunteak]

[Kristau ikasbidea urdiaineraz]

[Sermoiak, 1813]

Avisos históricos que comprenden las noticias y sucesos más particulares ocurridos en nuestra monarquía desde el año de 1639

Oharrean

Izenb. «Semanario erudito» XXXI-XXXIII (1790) ediziotik hartua

Ekitaldi jakin baterako prestatutako testuak (hitzaldiak, mintzaldiak, sermoiak eta abar) jasotzen dituzten eskuizkribuetan, ekitaldi horiek non eta noiz egin ziren adierazi behar da izenburuaren ondoren.

[Breves apuntes en defensa de las libertades vascongadas : escrito leído a la llamada Comisión de Arreglo de Fueros nombrada por el señor don Juan Bravo Murillo en 1852]

[Discurso theologico sobre el motu propio de Benedicto XIII, de sagrada memoria, en que se anula el voto de ayunar en la vigilia de S. Ignacio de Loyola : hecho por la provincia de Guipúzcoa ... el día 21 de marzo de 1729]

3.1.3Bb) Eduki bera duten orotariko eskuizkribu-bildumen izenbururako, eskuizkribua izendatzeko erabili ohi den izenburua hartu daiteke edo, bestela, edukia azaltzen duen izenburua.

[Corpus Pelagianum]

3.1.3Bc) Antzinako, Erdi Aroko eta Errenazimentuko eskuizkribuetarako, ez baitute oro har ataririk izaten, komeniz gero, inprimatutako antzinako monografietarako araututakoa erabil daiteke (ikus 2.10.1); hala egiten ez bada, eskuizkribua izendatzeko erabili ohi den izenburua erabiliko da edo, bestela, edukia azaltzen duen izenburua.

[Manuscrito conteniendo un acuerdo del regimiento del Concejo de San Sebastián de 23 de febrero de 1663 con motivo del terremoto acaecido]

[De temporibus liber]

3.1.3Bd) Gutunak, posta-txartelak, telegramak eta abar deskribatzeko orduan, honako hauek adierazi behar dira: dokumentua zein motatakoa den zehazten duen izenburua («gutuna», «posta-txartela», «telegrama»...) eta, ondoren, data (urtea, hila eta eguna adierazita), non idatzi zen, hartzailearen izena eta nora bidalitakoa den. Dokumentutik bertatik edo haren gutun-azaletik edo estalkitik hartu ez diren datu guztiak taket artean eman beharko dira.

[Posta-txartela] 1966 mar. 17, Firenze, Fausto [Arocenari]

[Zorion txartela] Ondarribian [L. L. Bonaparteri]

[Gutuna] 1964 [maiatzak] 23, Eibar, Fausto Arocenari, Donostia

[Lettera] 1862 dic. 18, Parigi, a Fraschini

3.1.3Be) Lege-dokumentu solteak, bai errege-dokumentuak (erregalia edo pribilegioak, prohibisioak, zedulak eta abar), bai dokumentu publikoak (testamentuak, eskriturak, kontratuak eta abar) deskribatzeko orduan, honako hauek adierazi behar dira izenburuan: dokumentua definitzen duen izenburua, hitz batez edo esaldi labur batez emana; dokumentua sinatutako data, urtea, hila eta eguna adierazita; dokumentuan aipatzen diren pertsonen izenak, betiere dokumentuaren arduradunetz bestelakoak; eta, azkenik, dokumentua egilestearen arrazoia, baldin eta labur adieraz badaiteke. Dokumentutik bertatik hartzen ez diren datu guztiak taket artean eman beharko dira.

Real Cédula, 1770 oct. 23, para que en las universidades se observen las reales resoluciones que van insertas, relativas a la provisión de cátedras

Testamento, 1520 sept. 2, en Santa María de Barrameda y ante el escribano de Sanlúcar, Pero Fernández

3.1.3Bf) Eskuizkribu-bildumak deskribatzeko, hau da, pertsona, familia edo erakunde batek eraturako eskuizkribu-bildumak edota pertsona, familia edo erakunde jakin bati buruzkoak (jatorrizko eskuizkribuak nahiz kopiak izan, bai eta argazkiak eta inprimaturako materialak biltzen dituztela ere) deskribatzeko orduan, bilduma izendatzeko erabili ohi den izena hartuko da izenburuztat edo, bestela, bilduma definitzen duen izenburu bat. Termino zehatzagorik erabili ezean, hauek erabiliko dira bildumok izendatzeko: «gutunak», igorle bakarreko gutunetarako; «elkarridazketa», pertsona batzuen arteko gutunetarako edota zenbait igorlek pertsona bati edo gehiagori bidalitako gutunetarako; «paperak», pertsona edo familia baten orotariko materialerako; eta «agiriak» erakunde bati buruzko materialerako.

[Papeles de trabajo de Gabriel Celaya]

[Carlos Santamaria eta Euskaltzaindiaren arteko elkarridazketa]

[Koldo Mitxelena eta Seber Altuberen arteko elkarridazketa]

[Documentos referentes a la villa de Orduña]

[Documentos del Partido Nacionalista Vasco]

3.1.4 DOKUMENTU-MOTAREN IZENDAPEN OROKORRA

«Eskuizkribua» terminoa idatziko da, 1.1.4 paragrafoan ezarritako kasuetan eta moduan.

3.1.5 PAREKO IZENBURUAK

1.1.5 paragrafoan ezarritako araei jarraituko zaie.

Pío IX-ren erri-cantaotsa = Ynno popolare de Pío IX = Himno popular de Pío IX

Euskal tokiak = Toponimia vasca

Gernikako aritzaren oroipenak = Recuerdos del roble de Guernica

3.1.6 AZPIIZENBURUA EDOTA IZENBURUARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA

3.1.6A Azpiizenburua edota izenburuari buruzko informazio osagarria transkribatzeko, 1.1.6 paragrafoan ezarritako araei jarraituko zaie.

Monuments de la langue basque : avec une introduction qui traite de l'étude de la langue basque et en meme temps contient une description et caractéristique d'elle

Mendiburu-ri : zortziko para canto y piano

Deun izenak : «Karmengo Amaren egutegia 1951»tik aterata

3.1.6B Eskuz idatzitako gutun, hitzaldi, lege-dokumentu eta antzekoen izenburuan 3.1.3Ba), d), e) paragrafoetan adierazitako formari, datari edo zergatiari buruzko informazio espezifikoa azaltzen ez bada, informazio hori izenburuari buruzko informazio osagarri gisa jasoko da.

García Lorca ante el esperpento : [discurso de recepción en la Real Academia Española el 21 de mayo de 1972]

3.1.7 ERANTZUKIZUNAREN AIPUA

3.1.7A Eskuizkribuan azaltzen den erantzukizunaren aipua jasotzeko, 1.1.7 paragrafoan ezarritako arauari jarraituko zaie.

Grandes anales de quince días / Francisco de Quevedo y Villegas

Tratado del gobierno de la Compañía / por el padre Juan de Mariana

Elicara erabiltceco liburua / Ioannes Etcheberri dotor theologoac eguiña ...

Ama Virgíña Guciz Garbi Concepciocoaren oficio laboru edo eguintzacho /
latiñezco itz neurtuetatic eusquerazco zorzicoetara itzulia Jesusen Compañiaco aita
Aranagatic itzulia

Cristianoaren doctrina / lo izo José Jáuregui
(*Egilearen izena testuaren amaieratik jaso*)

3.1.7B Eskuizkribuan ez bada azaltzen erantzukizunaren aipua edo egilearen sinadura, taket artean eman beharko dira arduradunaren edo arduradunen izenak, betiere informazio hori beste iturri batzuetatik jakin badaiteke.

Este es el primer viaje y las derrotas y camino que hizo el almirante don Christóval Colón quando descubrió las Yndias / puesto sumariamente [por fray Bartolomé de las Casas]

3.1.7C Eskuizkribu batean egilearen izena edo sinadura laburtuta edo zati bat falta duela ageri bada, nahi izanez gero, osatu egin daiteke falta diren zatiak taket artean emanda.

Estoria de los godos / e compúsola don Rodrigo [Ximénez de Rada] arçobispo de Toledo

Informe sobre la reforma y mejor arreglo de los teatros y espectáculos públicos de España / por D. G. M. de J. Ll. [Gaspar Melchor de Jovellanos]

3.1.7D Erantzukizunaren aipua transkribatzeko orduan, beharrezkoa dela ikusiz gero, jaso egingo dira jatorria, tratamendua, lanbidea, titulua edo kargua adierazten duten terminoak; jasotzen ez badira, hutsune-marka jarriko da.

3.2 EDIZIOAREN EREMUA

Eskuizkribuetan ez da eremu hau erabiltzen.

3.3 DOKUMENTU-MOTAREN DATU ESPEZIFIKOEN EREMUA

Eskuizkribuetan ez da eremu hau erabiltzen.

3.4 DATAREN EREMUA

Eskuizkribuen deskribapenean eremu honek beste material batzuetan argitalpenaren edota banaketaren eremuak duen tokia hartzen du.

3.4.1 ITURRIAK

Ikus 3.0.1B

3.4.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.4.2

3.4.3 ESKUIZKRIBUAREN DATA

3.4.3A Eskuizkribuek edo eskuizkribu-bildumek datarik badute, hasiera eta bukaerako data edo datak (bat baino gehiago badago) jasoko dira. Data urtea edo urteak emanaz adieraziko da eta, eskuizkribu bereizietan, nahi izanez gero, hila eta eguna, hurrenkera horretan, gehituko da.

Doctrinale / Alexander de Villa Dei. — 1458

Gai dagonaren indarra : jostirudia egintza batian / Barriola ta Aizpuruat'ar Abelino'k idatzia. — 1915

Karlo'tar berriketak / [Francisco Apalategui]. — 1922-1930

Eskuizkribuak kristau-arokoa ez den data izanez gero, 1.4.6A paragrafoan ezarritako arauari jarraituko zaio.

Era 1159 [1121]

3.4.3B Eskuizkribuak datarik ageri ez badu, data ahalik eta zehatzen emango da, 1.4.6F paragrafoan ezarritako arauari jarraituz.

. — [14...]

Hau da, XV. mendea

. — [1550-1600?]

Hau da, XVI. mendearen bigarren erdia (gutxi gorabehera)

. — [163-?]

Hau da, XVII. mendearen 3. hamarkada (gutxi gorabehera)

3.5 DESKRIBAPEN FISIKOAREN EREMUA

EREMUAREN ELEMENTUAK

Materialaren tamaina eta izendapen espezifikoa

Bestelako ezaugarri fisikoak

Neurriak

3.5.1 ITURRIAK

Ikus 3.0.1B

3.5.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.5.2

3.5.3 MATERIALAREN TAMAINA ETA IZENDAPEN ESPEZIFIKOA

3.5.3A Eskuizkribu bereizien tamaina adierazteko, 1.5.3 paragrafoan ezarritako arauetara jarraituko zaie. Zenbakirik gabeko orriarik badago, gutxi izanda ere, zenbatu egingo dira eta kopurua taket artean jasoko da zenbakitan, zenbakitutako sekuentzian bezala.

157 o.

VII, 215 o.

[10], 324 or.

161-208 o.

Orriak alde batean bakarrik zenbakituta daudenean, monografia inprimatuetan ez bezala, ohar baten bidez adieraziko da orrien ifrentzua zuri dagoela, baina ez da oharrik egingo ifrentzuan testurik badago.

180 o.

Oharrean

Orrien ifrentzua zuri

3.5.3B Antzinako, Erdi Aroko eta Errenazimentuko eskuizkribuetan, orrialdekatzea edo orrikatzea deskribatzerakoan, parentesi artean jasoko da testu-orrialdeen zutabe-kopurua (baldin eta zutabe bat baino gehiago badago) eta testuz betetako orrialdeen lerro-kopurua; horretarako, lerro-kopuru ugariena adieraziko da edo, gorabehera handia badago, txikiena eta handiena.

197 o. (32 lerro)

220 o. (2 zut., 38 lerro)

83 o. (24-26 lerro)

3.5.3C Eskuizkribu-bildumen kasuan, bilduma osatzen duten pieza, liburuki, paper-sorta, kutxa edo karpeten kopurua adieraziko da. Nahi izanez gero, paper-sorta, kutxa edo karpeten kopurua jasotzen denean, pieza-kopurua ere adieraz daiteke, kopuru zehatza nahiz gutxi gorabeherakoa emanda.

3 libk.

5 paper-sorta (73 pieza)

15 kutxa (ca. 800 pieza)

3.5.4 BESTELAKO EZAUGARRI FISIKOAK

3.5.4A Papera ez den materialean kopiatutako eskuizkribu bereizietan material-motaren izena adieraziko da. Material-mota bat baino gehiago badago, denak adieraziko dira.

181 o. : perg.

247 o. : perg. eta papera

3.5.4B Eskuizkribuetako edo eskuizkribu-bildumetako irudiak 2.5.4 paragrafoan zehaztutakoaren arabera adieraziko dira. Eskuizkribuan batez ere irudiak ageri badira, material grafikorako arauetan ezarritakoari jarraituko zaio (ikus 5.5.4).

78 o. : perg., ir., mapak

3.5.5 NEURRIAK

3.5.5A Liburuki eta pieza bakanen neurriak emateko, 2.5.5 paragrafoan ezarritako arauetara jarraituko zaie. Eskuizkribuak josi gabe eta kutxa batean gordeta badaude, kutxaren luzera adieraziko da.

Zabalera ere jasoko da, baldin eta luzeraren erdia baino txikiagoa bada edo luzera baino handiagoa bada. Eskuizkribua tolestuta dagoenean, guztira duen neurriaz gain, tolestuta hartzen duen neurria ere jasoko da.

45 or. ; 26 × 22 cm

1 o. : perg. ; 58 × 28 cm, tol. 29 × 14 cm

3.5.5B Antzinako, Erdi Aroko eta Errenazimentuko eskuizkribuetan, idatzitako orrialdeen luzera eta zabalera adieraziko dira eta, komenigarria dela ikusten bada, azalen neurriak jasoko dira oharretan (ikus 3.7.4H).

3.5.5C Eskuizkribu-bildumen piezen, liburukien, kutxen edo karpeten neurriak berdinak izanez gero, luzera zentimetrotan adieraziko da. Berdinak ez badira, neurri guztiak adieraziko dira atalen sekuentziaren arabera; alabaina, neurri askotakoak badira, handienaren luzera adieraz daiteke, ondoren «edo txikiagoak» jarrita.

8 kutxa ; 37, 28 cm

27 libk. ; 34 cm edo txikiagoak

3.6 SERIEAREN EREMUA

Eskuizkribuetan ez da eremu hau erabiltzen.

3.7 OHARREN EREMUA

3.7.1 ITURRIAK

Ikus 3.0.1B

3.7.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.7.2

3.7.3 OHARREN ZER-NOLAKOAK

Ikus 1.7.3

3.7.4 OHARREN HURRENKERA

3.7.4A Eskuizkribu-motari, -generoari eta -formari buruzko oharrak

Eskuizkribua edo eskuizkribu-bilduma zein motatakoa den adierazi behar da, betiere deskribapenaren ezein eremutan jadanik azalduta ez badago. Horretarako, termino hauetako bat erabiliko da:

Autografoa	<i>(Egileak berak idatzitako eskuizkribuetarako)</i>
Eskbu.	<i>(Gainerako eskuizkribuetarako)</i>
Eskbu.-bild.	<i>(Eskuizkribu-bildumetarako)</i>
Mekanografiatua	
Autografo sinatua	
Eskbu. sinatua	

Piezaren edo bildumaren bat kopia edo transkripzioa bada, edota bilduma kopiaz osaturik badago, honela adieraziko da:

Autografoa (mekanografiatutako transkripzioarekin)
 Mekanografiatua (ikatz-paperean egindako kopia eskuz egindako zuzenketekin)
 Eskbu. (batzuk fotokopiak)

Eskuizkribuen generoa eta forma adieraziko da, baldin eta argi ageri bada eta deskribapenaren ezein eremutan jadanik azaldu ez bada.

Olerkia zortziko nagusian dago
 Erabiltzaileak beretzat egindako oharrak
 Izen bereko eleberriaren antzerkirako egokitapena

Eskuizkribu-bildumak deskribatzerakoan, bilduma osatzen duten dokumentu-motak zehaztu behar dira, bai eta dokumentu horien bestelako edozein ezaugarri ere. Pertsona baten paperen bildumen kasuan, pertsona identifikatzeko beharrezko diren datuak eman behar dira.

[Egan-en inguruko paperak / Koldo Mitxelena]

Oharra

Harpidetzari eta beste gai batzuei buruzko askotariko gutunak, Koldo Mitxelenaren erantzun batzuk dituztela. — Horiekin batera, aldizkarian argitaratzeko bidalitako idazlanak daude. — Testuak euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez

[Yakini buruzko paperak / Koldo Mitxelena]

Oharra

Yakinek antolatutako sariketari eta aldizkariaren harpidetzari buruzko idatziak, Koldo Mitxelenari igorritako zorion txartela

3.7.4B Hizkuntzari eta idazkera-motari buruzko oharrak

Eskuizkribua zein hizkuntzatan dagoen idatzita adierazi behar da, salbu eta deskribapenean jadanik azalduta badago.

Testua grekoz. Ertzeko oharrak latinez
 Gaztelaniaz. Testu batzuk toskaneraz
 Jatorrizko testua latinez. Gaztelaniazko itzulpena

Antzinako, Erdi Aroko eta Errenazimentuko eskuizkribuetan, bilduman erabili den edo nagusi den idazkera zehaztu behar da.

Idazkera bisigotikoa. Ertzeko oharra karolingiarrez

Idazkera karolingiarretik gotikora bitartekoa

Idazkera gotikoa (1-32, 48-92 o.) eta humanistiko etzana (33-47 o.)

3.7.4C Izenburuari buruzko oharra

Izenburu nagusia informazio-iturri nagusitik jaso ez bada, zein iturritik jaso den adierazi beharko da, betiere idazlana oso ezaguna ez bada edota izenburu horrekin askotan argitaratu ez bada.

Izenb. txaplatatik hartua

Izenb. lan honetan inprimatutako ediziotik hartua: «Biblioteca de autores españoles», XXI (1852, 376-407 or.)

Halaber, dokumentuak izenburu nagusiaz gain, beste izenbururen bat duenean edo izan duenean, adierazi egingo dira; bereziki adieraziko dira eskuizkribuari gerora gehitutako izenburuak, baldin eta izenburu nagusiaz bestelakoak badira eta deskribapenean azaldu ez badira. Beharrezkoa dela ikusten bada, izenburuaren aldaera arrunta jaso daiteke.

Novella que Diego de Cañizares de latín en romance declaró y trasladó de un libro llamado Scala celi

Oharra

«Sendebat» en bertio bat da. Arabierazko bertioa, Gaztelako Henrike infantearen aginduz egindakoa, honela izendatu ohi da: «Libro de los engannos e los asayamientos de las mujeres»

Garrantzitsua irudituz gero, izenburuaren eta erantzukizunaren aipuaren eremuan jaso ez diren pareko izenburuak eta izenburuari buruzko informazio osagarria ere adieraziko dira. Ikus 3.1.5 /3.1.6.

Discours sur l'avenement de monseigneur le duc d'Anjou a la couronne d'Espagne / par le R. père [Andrè] Le Camus de la Compagnie de Jesus

Oharra

Jatorrizkoa latinez argitaratu zen honako izenb. honekin: Hispanis et Gallis gratulatio habita Parisiis cum Philippus Dux Andegavensis Hispaniarum rex renuntiatus esset

Antzinako, Erdi Aroko eta Errenazimentuko eskuizkribuek izenburu izuna badute edo argitaragabeko lanak badituzte edota identifikatzeko zailak badira, dokumentua identifikatzeko behar beste hitz transkribatuko da testu-zati nagusiko hasierako hitzak («incipit») hartuta. Arau hau egile bakarreko testu literarioetan edo zientifikoetan erabiliko da, alabaina inoiz ez dokumentu-zatien bildumetan edo bestelako agirietan.

Inc. (3. o. ifr.): Quoniam nimia prolixitas solet generare ...

Hobeto identifikatzeko beharrezkoa dela ikusten bada, testuaren azken hitzak («explicit») ere transkriba daitezke.

Explicit (215. o.): et hoc in principit atque per nunc et semper. Amen. Deo gratias

3.7.4D Erantzukizunen aipuei buruzko oharrak

Erantzukizunaren aipuan adierazitako pertsonen eta erakundeen izenen aldaerak jaso *daitezke*, baldin eta identifikatzeko beharrezkoa dela ikusiz gero. Dokumentuarekin zerikusia izanik deskribapenean jaso ez diren pertsonen eta erakundeen izenak oharretan jasoko dira.

Antonio da Fonseca Soares egilea, fray Antonio das Chagas izenaz ere ezaguna da

3.7.4E Idatzitako lekuari, kopiazailearen izenari eta datari buruzko oharrak

Eskuizkribuan non idatzi zen edo kopiazailearen izena azaltzen bada, datu horiek eta informazio-iturria ohar batean jasoko dira, non eta deskribapenean jadanik azalduta ez dauden.

143. o.: Istud opus fere totum scripsit Benedictus Fabregues in monasterio predicatorum Valencie

Eskuizkribuaren dataren inguruan beharrezko ikusten den beste edozein azalpen edo xehetasun ohar honetan jasoko da.

3.7.4F Irudiei buruzko oharrak

Antzinako, Erdi Aroko eta Errenazimentuko eskuizkribuetan (eta nahi izanez gero gainerako eskuizkribuetan ere bai), apaingarriak, errubrikak, edertzapenak eta abar deskribatuko dira. Era berean, irudien egileen izenak (zein diren jakinez gero) eta irudiei buruzko beste edozein datu garrantzitsu jasoko da.

Kapituluetako izenburuak gorriz. Inizialak lumaz, gorriz eta urdinez tartekatutako zirrizarrez egindako apaingarriak dituztela

Borgoina estiloko ertz-apaingarriak eta pinturak. Orrialde beteko irudiak: Deikundea (9. o.) ; Jaiotza (17. o.) ; Artzainen gurtza (29. o.) ; Epifania (40. o.) ; Egiptora ihes (52. o.) ; Daviden otoitza (71. o.) ; Gurutziltatzea (85. o.). Inizialak urrez eta kolorez

3.7.4G Ezaugarri fisiko bereziei buruzko oharrak

Garrantzitsutzat jotzen diren ezaugarri fisikoak adierazi egingo dira, betiere deskribapenean jadanik jasota ez badaude.

Goiko ertza hezetasunak hondatua

3 o. falta dira 27. eta 28. orrien artean

Testua lumaz egindako lauki batean sartuta dago orrialde guztietan

Antzinako, Erdi Aroko eta Errenazimentuko eskuizkribuen deskribapenean, koaderno-kopurua adieraziko da, orri zurien eta hondatutako, moztutako edo falta diren orrien kopurua zehaztuta. Halaber, antzinako orrikatzeak, apeuak, signaturak eta abar adieraziko dira. Beharrezkoa dela ikusiz gero, materialaren prestaeraren edo marraketaren inguruko zehaztasunak ere eman daitezke.

Plegu-erdia, 8 orriko 22 koaderno eta 6 orriko koaderno bat

Koadernoen amaieran apeuak daude. Antzinako orrialdekatzea tintaz (I-CLXXXII) eta modernoa arkatzez. 46. eta 71. orriak zuri daude eta 2. orriak behealdeko ertza moztuta dauka. Lehenengo koadernoak punta lehorrez ildokatua dago eta gainerakoa berunezko puntaz

3.7.4H Azalari buruzko oharrak

Azalaren inguruko datuak ere jasoko dira, zehaztasun guztiak emanez baldin eta antzinakoa bada edo balio artistikoa badu.

Larruzko az., ohol gainean jarria eta mudejar apaingarriez gofratua, tapak hiru nerbiokoak dira eta bakoitzak lau iltze ditu; XV. m.; 32 × 23 cm

3.7.4I Material gehigarriari buruzko oharrak

Labur adieraziko dira eskuizkribuekin edo eskuizkribu-bildumekin batera doazen materialak, hala nola, gutun-azalak edo estalkiak gutunetan; dokumentu gehigarriak, ziurtagiriak eta abar lege-dokumentuetan; eta argitaratu gabeko aurkibideak edo gidak bildumetan.

Horrekin batera, azken jabeak eskuizkribuaren historia azaltzeko eskuz idatzitako bi orri plegu-laurden daude

Posta-zigiludun gutun-azal autografoan

Bildumarekin batera sartutako inbentario zehatz argitaragabea dago

Era berean, atal honetan deskribatuko dira eskuizkribu baten babes-orrian edo azalean eskuz idatzitako edo inprimatutako zatiak.

3.7.4J Jatorriari eta aurreko jabeen buruzko oharrak

Atal honetan ondoko datu hauek jasoko dira: eskuizkribu edo eskuizkribu-bilduma bakoitzaren jatorria (pertsona edo erakundea); aurreko jabeak, erraz jakin badaitezke; noiztik eta zenbat urtetan egon zen aurreko jabeen eskuetan; nola aldatu den eskuz eta nola heldu den gaur egun dagoen tokira; eta, azkenik, eskuizkribuak gaur egungo bilduman izan dituen signatura tipografikoak, egungoaren aurrekoak.

Iñigo Lopez de Mendoza Santillanako lehen markesaren liburutegian izana, haren armarrria, ikurra eta goiburua ageri dira 1. orrialdean; ondoren, haren ondorengo Osuna eta Infantadoko dukeen liburutegian egon zen; 1886an Estatuak erosi zuen. Lehenagoko sign.: R. 5, Reserva 6a 11

Ricardo Heredia Benahaviseko kondearen liburutegiko ex librisa, 1893an Parisen saldua. Lehenagoko sign.: L. 230

Antzinako, Erdi Aroko eta Errenazimentuko eskuizkribuen deskribapenean, jabeen eta irakurleen ohar interesgarrirei buruzko datuak jasoko dira.

Ertzetan eta lerro artean Constantino Lascarisek eskuz idatzitako glosak ditu

3.7.4K Testuaren edizioari buruzko oharra

Eskuizkribuan jasotako lana edota eskuizkribu-bildumaren edukia argitaratuta edo argitaratzear badago, edizioaren datuak adierazi behar dira.

[Biblia edo Testamentu Zar eta Berria] / Louis Lucien Bonaparte ; José Antonio de Uriarteren itzulpena

Oharra

Argit.: Biblia edo Testamentu Zar eta Berria / aita fray José Antonio de Uriartec latiñezco Vulgatatic lembicico aldiz Guipuzcoaco euscarara itzulia ; Luis-Luciano Bonaparte principeac eta José Antonio de Azpiazu guipuzcoatarrac lagunduric. Londres, 1859

Historia general del rey de las Españas don Phelipe Quarto / [Matías de Novoa]

Oharra

Edizioa lan honetan: Colección de documentos inéditos para la historia de España. T. 69, 77, 80, 86

3.7.4L Erreferentzia bibliografikoak

Ohar hauetan jasoko dira gutxienez eskuizkribu edo eskuizkribu-bilduma bakoitzaren inguruan argitaratutako deskribapen onenaren eta osatuenaren erreferentzia bibliografikoa eta argitaratuta dauden edukiaren aurkibideak. Halaber, eskuizkribuaren alderdiren baten inguruan azterketa sakona egiten duten liburuei eta artikuluei buruzko erreferentzia bibliografikoak jasoko dira.

Deskribapena lan honetan: Catálogo de la librería del Cabildo Toledano. 1ª parte, manuscritos / José M^a Octavio de Toledo. Madrid, 1903, CCCXXIII, 161-162 or.

Edukiaren aurkibidea lan honetan: Revista de archivos, bibliotecas y museos. T. IV. (1900), 577-598 or.

Bibliog.: Eine unbekannte Handschrift des Barzizza Kommentars zu Dantes Inferno in Madrid / Marcella Roddewig. In: Italia viva : Festschrift for H. L. Scheel. Tübingen, 1983, 353-368 or.

3.7.4M Edukiari buruzko oharra

Eskuizkribuaren edo eskuizkribu-bildumaren edukiari buruz jaso den informazioa nahikoa ez dela ikusten bada, edo deskribapenean adierazi ez den materiala azaldu beharra dagoela ikusten bada, edota garrantzi nahiz eduki berezia duten piezak direla nabarmendu nahi bada, zerrenda labur eta objektiboa eman daiteke edo, bestela, oharretan adieraz daiteke eskuizkribuaren edo

eskuizkribu-bildumaren edukia, osorik nahiz zati batzuk aukeratuta. Edukiaren izenburuak jasotzean, izenburuok zati bakoitzaren sarreratik hartzea komeni da eta ez aurkibidetik.

Curso de gestores culturales : seminario «Empresas de servicios culturales» (especial referencia al cooperativismo) / Xabide S. Coop. — 1988

Oharra

Badu gainera: Curso de gestores de centros socio-culturales : seminarios / organizado por la Agencia Municipal de Desarrollo Económico y Empleo

Documentació de museus / Servei de Museus de la Generalitat de Catalunya. — [1990?]


Oharra

Edukia: Museus de ciències naturals, museus de ciències humanes : versió 2, desembre de 1989 ; Ciències humanes : versió 3, juliol de 1990 ; Ciències naturals : versió 3, juliol de 1990 ; Annexes : versió 2, juliol de 1990 ; Correspondències : versió 2, desembre de 1989

4.

kapitulua

Material kartografikoaren deskribapena



4.0 ARAU OROKORRAK

Kapitulu honetan material kartografikoa deskribatzeko arauak ezarriko dira. Material kartografikotzat hartuko dira Lurra edo zeruko gorputzak osorik nahiz zatika eta edozein eskalatan irudikatzen dituzten dokumentuak, hala nola, bi eta hiru dimentsioko mapak eta planoak, aeronautika mapak, itsasoko mapak eta zeruko mapak, lur-globoak, bloke-diagramak, lur-ebakidurak, aireko argazkiak, atlasak, goitik hartutako bistak eta abar.

Arau orokor gisa, antzinako material kartografikotzat joko da 1901. urtea baino lehenagoko dokumentuak.

4.0.0 DESKRIBAPENAREN ANTOLAKETA

Ikus 1.0.0

4.0.1 INFORMAZIO-ITURRIAK

Ikus 1.0.1

Inprimatutako atlasetarako, ikus 2.0.1.

4.0.1A Informazio-iturri nagusia eta iturriak kontsultatzeko agindutako hurrenkera

Material kartografikoa —atlasak izan ezik— deskribatzeko informazio-iturri nagusia hurrenkera honetan aukeratuko da:

Dokumentua bera.

Dokumentuak unitate fisiko bat baino gehiago badu, unitate guztien multzoa izango da iturri nagusia.

Edukiontzia edo kutxa, euskarria edo oinarria lur-globoetarako eta abar.

Iturri nagusian ez bada informaziorik azaltzen, material gehigarritik hartuko da, halakorik badago.

4.0.1B Eremuetarako agindutako informazio-iturriak

Ondorengo taulan zehazten da zein informazio-iturri dagokion material kartografikoa deskribatzeko eremu bakoitzari. Agindutako iturri horietatik kanpo jasotako informazioa taket artean edo oharren bidez emango da.

Eremua	Agindutako informazio-iturriak
1 Izenburua eta erantzukizunaren aipua	Informazio-iturri nagusia
2 Edizioa	Informazio-iturri nagusia
3 Datu matematikoak	Informazio-iturri nagusia
4 Argitalpena, banaketa eta abar	Informazio-iturri nagusia
5 Deskribapen fisikoa	Edozein iturri
6 Seriea	Informazio-iturri nagusia
7 Oharrak	Edozein iturri
8 ISBNa eta eskuratzeko baldintzak	Edozein iturri

4.0.2 PUNTUAZIOA

Deskribapenean erabili beharreko puntuazio orokorrerako ikus 1.0.2. Ikus, halaber, deskribapenaren elementuetarako eremu bakoitzean erabili beharreko puntuazio-arauak.

4.0.3 DESKRIBAPENAREN HIZKUNTZA ETA IDAZKERA-MOTA

Ikus. 1.0.3

4.0.4 LABURTZAPENA ETA LABURDURAK

Ikus 1.0.4

4.0.5 LETRA LARRIEN ERABILERA

4.0.5A Letra larrien erabilerarako, 1.0.5 paragrafoan ezarritako arauari jarraituko zaio.

4.0.5B Antzinako material kartografikoa deskribatzean, jatorrizkoaren ortografia errespetatuko da.

4.0.6 AZENTUAK ETA BESTELAKO ZEINU DIAKRITIKOAK

Ikus 1.0.6

4.0.7 AKATSAK

Ikus 1.0.7

4.0.8 INFORMAZIO-ITURRI NAGUSIA ZEHAZTEA, ITURRI NAGUSI BAT BAINO GEHIAGO DITUZTEN DOKUMENTUETAN

Ikus 1.0.8

4.0.9 DESKRIBAPENAREN XEHETASUN-MAILAK

Ikus 1.0.9

4.1 IZENBURUAREN ETA ERANTZUKIZUNAREN AIPUAREN EREMUA*EREMUAREN ELEMENTUAK*

Izenburu nagusia

Dokumentu-motaren izendapen orokorra

Pareko izenburuak

Azpiizenburua edota izenburuari buruzko informazio osagarria

Erantzukizunaren aipua

4.1.1 ITURRIAK

Ikus 4.0.1B

4.1.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.1.2

4.1.3 IZENBURU NAGUSIA

4.1.3A Izenburu nagusia transkribatzeko, 1.1.3 paragrafoan ezarritako arauei jarraituko zaie.

Antzuolako toponimia

Mapamundi o Mapa general del globo terrestre

Adarramendi-Mandoegiko mapa

Bayonne : nouveau plan-guide

Plano callejero de Vitoria

Euskal Herriko kostaldea

Carta geográfica de una parte de la provincia de Guipúzcoa

Artikutzako mapa

Mapa de las provincias Vascongadas y Navarra

Lutèce ou Premier plan de la ville de Paris

Por caminos de Andoain = Andoaingo bideetatik

Oharrean

Edukia: 1. Andoaingo bideetatik = Por caminos de Andoain — 2. Leitzaran — 3. Aizkorri-Onddo — 4. Atxular-Pardaki — 5. Buruntza — 6. Belkoain — 7. Goiburu — 8. Andoain

Mapa de vegetación de la Comunidad Autónoma del País Vasco = Euskal Autonomi Elkarteko landareriaren mapa

Cartografía valenciana

Oharrean

Edukia: I. Valentiae Regni ... / Abraham Ortelius — II. Regni Valentiae Typus / Gerard Mercator — III. Valentia Regnum Contestani, Ptol. Edetani, Plin. / Willem Blaeu — IV. Valentia Regnum Contestani, Ptol. Edetani, Plin. / Hondius — V. Los Reynos de Valencia y Murcia / Jean Baptista Nolin — VI. Les Royaumes de Valence et Murcia / Antonio Zatta — VII. Li regni di Valenza e Murcia / Antonio Zatta — VIII. Partie Meridionale des Etats di Castilla / Didier Vaugondi — IX. Regni Valentiae Tabuala / Tomás López Vergara Machuca — X. Mapa del Reino de Valencia / Antonio José Cavanilles y Palop

(Karpeta batean bildutako 10 mapa orriz osatua)

Próximo Oriente : las primeras civilizaciones ; Mapa de la Palestina antigua

4.1.3B Antzinako material kartografikorako, 2.10.1 paragrafoan ezarritako arauari jarraituko zaio, puntuazioari eta letra larrien eta xeheen erabilerarako izan ezik, horiek dokumentuan azaltzen diren bezala transkribatuko baitira (ikus 4.0.5B).

4.1.3C Argitalpenak izenbururik ez duelako, izenburu izuna sortu behar denean, izenburu izu-nean dokumentuan azaltzen den eremu geografikoaren izena adierazi beharko da.

[Madrilgo planoak]

[Zeruko planisferioak]

[Munduko mapa]

[Urretxuko planoak]

[Gipuzkoako mapa]

[Mendi-ibilbideak Urolatik Bidasoara bitartean]

4.1.3D Halaber, iturri nagusian egilearen edo erantzulearen izena besterik agertzen ez denean ere, izenburu izuna sortu beharko da, bertan eremu geografikoaren izena adierazita. Egilearen edo erantzulearen izena erantzukizunaren aipuan jasoko da.

4.1.3E Izenburu nagusian eskala edo seriearen zenbakia azaltzen denean, datu horiek izenburuan adieraziko dira.

Euskal Herriko mapa geologikoa 1:200.000 eskalan

Hernaldeko mapa 1:5.000

Plànol escala 1:5.000 de Sant Andreu

4.1.4 DOKUMENTU-MOTAREN IZENDAPEN OROKORRA

4.1.4A Dokumentu-motaren izendapen orokorra deskribapenean adieraztea beharrezkoa dela iritziz gero, 1.1.4 paragrafoan ezarritako arauaren arabera egingo da, «material kartografikoa» terminoa erabilita.

4.1.5 PAREKO IZENBURUAK

4.1.5A Pareko izenburuak transkribatzeko, 1.1.5 paragrafoan ezarritako araei jarraituko zaie.

Plano de San Sebastián = Donostiako laun-irudia

Euskal Autonomia Erkidegoko errepedeen mapa = Mapa de carreteras de la Comunidad Autónoma del País Vasco

Tolosako hiri-planoa = Plano-guia de Tolosa

Rutas alternativas para ciclistas = Txirrindularientzako bide alternatiboak

Elorrio : egitamua-kaletgia eta ibilbideak = plano-callejero e itinerarios

Euskalerrico agerkai lurkindarra = Mapa geológico del País Vascongado = Carte geologique du País Basque

Euskadiko mapa = Mapa de Euskadi = Carte d'Euskadi

Aiako Harria : parque natural = parke naturala

4.1.6 AZPIIZENBURUA EDOTA IZENBURUARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA

4.1.6A Azpiizenburua edota izenburuari buruzko informazio osagarria transkribatzeko, 1.1.6 paragrafoan ezarritako araei jarraituko zaie.

Situación de la batalla de Somorrostro : motivada el día 25 de marzo de 1874, por el general en jefe contra el ejército carlista

Bizkaiko ibilgailu kopuruen mapa, 2002 : ibilgailu astunak = Mapa de aforos de Bizkaia, 2002 : vehículos pesados

Mapa hidrogeológico del País Vasco y del Condado de Treviño (Burgos) escala 1: 100.100 : Plan Nacional de investigación de aguas subterráneas

Urdaibai : Reserva de la Biosfera = Biosferako Erreserba

Meagintza irudietan : Bizkaiko eta Kantabriko mea-azpiegitura eta meategirik garrantzitsuenak = Imágenes de la minería : mapa de las principales infraestructuras y minas de Bizkaia y Cantabria

Euskal Herria : fisiko-politiko ; Euskal Herria : ekonomia

Maroc : carte routière = mapa de carreteras

4.1.7 ERANTZUKIZUNAREN AIPUA

4.1.7A Erantzukizunaren aipua transkribatzeko, 1.1.7 paragrafoan ezarritako arauetara jarraituko zaie.

Provincias Vascongadas y Navarra / por el coronel de ingenieros retirado D. Francisco Coello ; grabado por A. Olarte Gochea bajo la dirección del autor

Atlas topográfico de la narración militar de la guerra carlista de 1869 a 1876 / publicado por el Depósito de la Guerra a cargo del Cuerpo de E. M. del Ejército

Roncesvalles, Roncal : Orhi, Abodi, Baigurra, Ortangurieta / proceso cartográfico y dirección gráfica, Fototype

Carta topográfica de la M. N. y M. L. provincia de Guipúzcoa / dedicado a la misma por José Joaquín de Olazabal Arbelaiz

Elorrio : egitama eta kaletgia, gomutarra eta ibilbideak = plano y callejero, monumentos e itinerarios / plano, Roberto Aizpitarte

Aizkorri : Zariaia, Elgea, Urkilla, Altzania, Aizkorri, Aloña / egilea, Imanol Goikoetxea ; toponimi datuak, Aloña Mendi Espeleologi Taldea ... [et al.] ; topografi iturria Araba eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Instituto Geográfico Nacional ; euskarazko laguntza, Martxel Aizpurua

Arama : herriko mapa / egilea, IkerMap, Kartografia eta Lurralde Ikerketak ; lanaren arduraduna, Imanol Goikoetxea ; Eusko Jaurlaritza, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila, Lurraldearen Antolamendurako Zuzendaritza = Gobierno Vasco, Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente, Dirección de Ordenación del Territorio

Euskadiko Antzoki Sarea / Arabako Foru Aldundia = Diputación Foral de Álava, Bizkaiko Foru Aldundia = Diputación Foral de Bizkaia, Gipuzkoako Foru Aldundia = Diputación Foral de Gipuzkoa

Euskal Herriko kostaldea / Miguel Angulo

Izarraitz : Erlo, Andutz, Sesiarte, Punta Mendata, Sakoneta / Imanol Goikoetxea

Tarragona : esquema de la xarxa d'autobusos urbans = esquema de la red de autobuses urbanos / disseny grafic Josef M. Mir i Joaquin Nolla

4.1.7B Antzinako mapetan, egilearen abizena edo sinadura osorik agertzen ez denean (eskuz eginiko mapetan), nahi izanez gero, osatu egin daiteke, falta diren zatiak taket artean idatzita.

4.1.7C Dokumentu kartografikoaren egilearen izena argitalpenaren erantzukizuna duen korporazio batekin nolabait loturik ageri bada, biak jasoko dira erantzukizunaren aipuan. Lehenik, korporazioaren izena jasoko da, salbu eta izenak gramatikalki alderantziz loturik badaude.

4.2 EDIZIOAREN EREMUA

EREMUAREN ELEMENTUAK

Edizioaren aipua

Pareko edizioaren aipua

Edizioari dagozkion erantzukizunen aipuak

Edizioaren beste aipua

Edizioaren beste aipuari dagozkion erantzukizunen aipuak

4.2.1 ITURRIAK

Ikus 4.0.1B

4.2.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.2.2

4.2.3 EDIZIOAREN AIPUA

Ikus 1.2.3

4.2.4 PAREKO EDIZIOAREN AIPUA

Ikus 1.2.4

4.2.5 EDIZIOARI DAGOZKION ERANTZUKIZUNEN AIPUAK

Ikus 1.2.5

4.2.6 EDIZIOAREN BESTE AIPUA

Ikus 1.2.6

4.2.7 EDIZIOAREN BESTE AIPUARI DAGOZKION ERANTZUKIZUNEN AIPUAK

Ikus 1.2.7

4.2.8 IZENBURU OROKORRIK GABEKO LANEN BILDUMAK

Ikus 1.2.8

4.2.9 UNITATE FISIKO BAT BAINO GEHIAGO DUTEN LANAK, ZENBAIT EDIZIOTAN EMANAK

Ikus 1.2.9

4.3 DATU MATEMATIKOEN EREMUA*EREMUAREN ELEMENTUAK*

Eskalaren aipua

Proiekzioaren aipua

Koordenatuen aipua

Ekinozioaren aipua

4.3.1 ITURRIAK

Ikus 4.0.1B

4.3.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Hauxe da eremu honetan erabili beharreko puntuazioa:

a) Datu matematikoen eremuaren aurretik puntua, tarte, marra eta tarte jarriko dira (. —).

b) Proiekzioaren aipuaren aurretik tarte, puntu eta koma, eta tarte jarriko dira (;).

- c) Koordenatuen eta ekinozioaren aipuak parentesi artean jarriko dira () .
- d) Ekinozioaren aipuaren aurretik tartea, puntu eta koma, eta tartea jarriko dira (;) .

Adibideak:

- . — Eskalaren aipua
- . — Eskalaren aipua ; proiektzioaren aipua
- . — Eskalaren aipua ; proiektzioaren aipua (koordinatuak)
- . — Eskalaren aipua (koordinatuak ; ekinozioa)
- . — Eskalaren aipua ; proiektzioaren aipua (koordinatuak ; ekinozioa)

4.3.3 ESKALAREN AIPUA

4.3.3A Datu matematikoen eremuaren lehenengo elementua eskala da. Eskala izenburu nagusian azalduta egon arren, berriro jasoko da eremu honetan ere.

Eskala frakziotan transkribatuko da beti, arrazoi matematikoen gisa (1:). Bat zenbakitzailearen (1) eta izendatzailearen artean bi puntu jarriko dira (:), puntuen aurretik eta atzetik tarterik jarri gabe. Aukerakoa da frakzioaren aurretik «eskala» terminoa edo beste hizkuntza bateko baliokidea jartzea.

- . — Eskala 1:25.000
- . — Escala 1:200.000
- . — Scale 1:250.000
- . — 1:5.000

Mapa hidrogeológico del País Vasco a escala 1:100.000 : mapa de permeabilidades
= Euskal Herriko mapa hidrogeologikoa 1:100.000 eskalan : iragazkortasunen mapa /
cartografía Rugoma. — 1:100.000

4.3.3B Eremu honetan eskalari buruz dokumentuan azaltzen den informazio osagarria ere gehitu daiteke, hala nola, neurkera ezberdinak konparatzen dituen esaldia, edota eskala dokumentuaren zati batzuei baino ez dagokiela adierazten duena. Informazio osagarri bakoitzaren aurretik puntu bat jarriko da, betiere haien artean lotura gramatikalik ez badago.

- . — 1:35.000.000 ekuatorean
- . — Scale 1:250.000.000 or 1 inch to 3,95 miles
- . — 1:59.304.960. One inch to 936 statute miles along meridians

4.3.3C Eskala neurkerak konparatzen dituen esaldi baten bidez azalduta dagoenean dokumentuan, ahal bada, frakzioa kalkulatu eta taket artean adieraziko da. Horren ondoren, esaldia transkribatuko da, betiere sistema metrikoko unitateetan idatzita ez badago. Unitate-kopurua zenbakitan adieraziko da, nahiz eta dokumentuan letratan egon. Neurrien baliokidetasuna erabatekoa ez bada, frakzioaren aurretik «ca.» (circa) laburdura idatziko da.

. — [1:63.360]. 1 inch to 1 mile¹

. — [1:100.000]

eta ez

. — [1:100.000]. 1 cm 1 km-ko

4.3.3D Dokumentuan eskala grafiko bakarra azaltzen bada, ahal bada, frakzioa kalkulatu eta taket artean adieraziko da. Eskala grafikoaren baliokidea sistema metrikotan emanda ez badago, barraren luzera gehituko da taket artean, zentimetrotan adierazita eta aurretik berdin-ikurra jarrita.

. — Eskala [ca. 1:7.076]. 500 kana gaztelar [= 5,9 cm]²

. — Eskala [ca. 1:345.280]. 3 milia espainiar [= 5,5 cm]

Eskala grafiko bat baino gehiago badago, ohiko unitateetan adierazita dagoena aukeratuko da eta oharrean azalduko da beste eskala batzuk ere badaudela.

. — [ca. 1:423.280]. 7 legoa Espainiako 17 1/2 graduaren baliokide dira [= 10,5 cm]

Oharrean

Eskala honela ere adierazia: 15 milia italiar ; 5 legoa arrunt alemaniar ; 6 legoa arrunt ingeles

4.3.3E Dokumentu kartografikoan inolako eskalarik azaltzen ez bada, latitudeen arabera kalkulatu da edo, halakorik ezin bada, eskala adierazita duen antzeko dokumentu kartografiko batekin alderatuta. Kalkulatutako eskala hori taket artean adieraziko da, aurretik «ca.» laburdura jarrita.

4.3.3F Eskala maparen erdialdetik muturretara aldatuz doan kasuetan, eskalaren balio handiena eta txikiena zein diren jakinez gero, adierazi egingo dira, bata eta bestearen artean marratxo jarrita.

. — 1:16.000-1:28.000

Eskalen balioak zein diren jakin ezean, «zenbait eskala» terminoa erabiliko da.

4.3.3G Dokumentuak hainbat zati dituelarik, horietako batzuk eskala batean eta beste batzuk beste batean proiektatuta daudenean, dokumentua deskribatzerakoan eskala biak adieraziko dira, lehendabizi handiena jarrita.

Dokumentuak bi zati izanik haietako bat ere ez bada nagusi, eta izenburu orokorrik ez badu, eskalak transkribatzeko, 1. eremuan zation izenburuak ageri diren hurrenkerari jarraituko zaio.

Dokumentuan ageri diren eskalak bi baino gehiago badira, «zenbait eskala» terminoa erabiliko da.

¹ 1 inch (hazbete) = 2,54 cm
1 mile (milia) = 160.933 cm
160.933 : 2,54 = 63.360

² 1 kana gaztelar = 83,5 cm
83,5x500 = 41.750
41.750 : 5,9 = 7.076

4.3.3H Dokumentu kartografikoa ez bada eskalan proiektatu edota zein eskalatan dagoen ezin bada zehaztu, eskalaren aipuaren ordezkari «eskalarik gabe» edo «eskala zehaztugabea» terminoak erabiliko dira, kasuan kasu dagokionaren arabera.

4.3.3I Eskala bertikalik azaltzen bada —adibidez erliebeko plano batean—, eskala horizontalaren ondoren adieraziko da. Eskala bertikalak adieraztean, bertikalak direla zehaztu beharko da.

4.3.3J Zeruko mapen eskalak zentimetroko gradu, minutu eta segundotan adieraziko dira baldin eta dokumentuan zehaztuta badaude.

. — 1'2 cm-ko

4.3.4 PROIEKZIOAREN AIPUA

4.3.4A Eremuaren bigarren elementua proiektzioaren aipua da. Aipu hori dokumentuan azaltzen denean bakarrik izango da nahitaezkoa.

4.3.4B Proiektzioaren aipuan proiektzioaren izena adieraziko da. Beharrezkoa irudituz gero, proiektzioaren aipuaren inguruko esaldiak gehitu *daitezke*. Esaldi horiek deskribatzen ari garen dokumentuaren proiektzioaren ezaugarriei buruzkoak izan daitezke, esate baterako, meridianoei, paraleloei, lauki-sare militarrei edo elipsoideari buruzko erreferentziak.

Proiektzio hitza laburtu egin *daiteke* (proiekt.).

- ; Lamberten proiekt. koniko konformea
- ; proiekt. azimutal baliokidea
- ; modified Galls proiektio
- ; nazioarteko UTM proiekt. elipsoidea
- ; proyec. cónica conforme de Lambert

4.3.5 KOORDENATUEN AIPUA

4.3.5A Eremuaren hirugarren elementua koordenatuen aipua da eta aukerakoa da.

4.3.5B Koordenatuak hurrenkera honetan jaso behar dira:

- Dokumentu kartografikoaren mendebaldeko muga (longitudea)
- Dokumentu kartografikoaren ekialdeko muga (longitudea)
- Dokumentu kartografikoaren iparraldeko muga (latitudea)
- Dokumentu kartografikoaren hegoaldeko muga (latitudea)

Latitudea eta longitudea gradutan ($^{\circ}$), minututan ($'$) eta segundotan ($''$) adieraziko dira, sistema hirurogeitarrean (360° -ko zirkulua); longitudea Greenwich meridianotik abiatuta kalkulatu da beti.

Latitudearen eta longitudearen graduen, minutuen eta segundoen aurretik, dagokion puntu kardinalaren iniziala idatzi behar da: iparra (I), hegoa (H), ekialdea (E) eta mendebaldea (M). Latitudearen eta longitudearen multzo biak zehar-marra batez bereiziko dira, marra horren atzetik eta aurretik tarterik utzi gabe. Longitudeak eta latitudeak marratxo batez bereiziko dira, marratxoaren aurretik eta atzetik tarterik utzi gabe.

(E $2^{\circ}44'$ -E $2^{\circ}59'$ /I $42^{\circ}58'$ -I $42^{\circ}52'$)

(M 60° -E 60° /I 50° -H 20°)

4.3.5C Zeruko mapetan, hauek dira koordenatuak: maparen erdialdearen igoera zuzena eta maparen ekialdeko eta mendebaldeko mugena; eta maparen erdialdearen deklinazioa eta iparraldeko eta hegoaldeko mugena.

Igoera zuzena «I.Z.» laburtzapenaz adieraziko da; ondoren, orduak jarriko dira eta, beharrezkoa izanez gero, minutuak eta segundoak.

Deklinazioa «dekl.» laburtzapenaz adieraziko da; ondoren, graduak ($^{\circ}$) jarriko dira eta, beharrezkoa izanez gero, minutuak ($'$) eta segundoak ($''$) ere bai, sistema hirurogeitarrean (360° -ko zirkulua), eta iparraldeko hemisferiorako plus zeinua (+) eta hegoaldeko hemisferiorako minus zeinua (-) erabilia.

(I.Z.2 h/dekl.+ 30°)

(I.Z.16 h/dekl.- 23°)

4.3.6 EKINOZIOAREN AIPUA

Datu matematikoen laugarren elementua ekinozioaren aipua da. Aipu hori dokumentu kartografikoan azaltzen denean bakarrik izango da nahitaezkoa.

Ekinozioa edo sasoi data baten bidez adieraziko da, haren aurretik «ek.» laburdura idatzita.

4.4 ARGITALPENAREN, BANAKETAREN ETA ABARREN EREMUA

EREMUAREN ELEMENTUAK

Argitaralekua eta *banaketa-lekua*

Argitaratzailearen eta *banatzailearen* izena

Banatzaile-funtzioaren aipua

Argitalpen-data eta *banaketa-data*

Inprimalekua, inprimatzailearen izena, inprimatze-data

4.4.1 ITURRIAK

Ikus 4.0.1B

4.4.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.4.2

4.4.3 ARGITARALEKUA

4.4.3A Argitaralekuaren izena transkribatzeko, 1.4.3 paragrafoan ezarritako arauci jarraituko zaie.

4.4.3B Antzinako material kartografikoa transkribatzean, jaso egingo dira argitaralekuaren izenaren aurrean azaltzen diren preposizio guztiak eta leku-izenarekin batera ageri diren hitzak eta esaldiak.

- . — Amsterdam : chez I. Covens et C. Mortier, 1701
- . — A Paris : chez P. Du-Val

4.4.3C Argitaralekuaren izena laburturik azaltzen bada, mapan dagoen bezala transkribatuko da eta, ondoren, izen osoa emango da taket artean.

- . — Mti [Matriti]

4.4.4 ARGITARATZAILEAREN IZENA

4.4.4A Argitaratzailearen izena transkribatzeko, ikus 1.4.4.

4.4.4B Antzinako material kartografikoan, argitaratzailearen izena dokumentuan azaltzen den bezala adieraziko da, harekin batera doazen hitzak eta esaldiak jasota eta ageri den kasu gramatikal berean.

- . — En Madrid : en casa de Tomás López, 1786
- . — San Sebastián : litografía de L. Duras y C^a, 1881

4.4.4C Antzinako material kartografikoan, jaso egingo dira argitalpenaren eremuan azaltzen den informazio guztia, nahiz eta garrantzitsua izan ez (adibidez, «Erregearen geografo»), eta materiala identifikatzeko lagungarri izan daitezkeen helbideak.

- . — En Madrid : en casa del autor, Plazuela del Angel, 1778
- . — A Paris : chez I. B. Nolin sur le Quay de l'Horologe du Palais, vers le Pont Neuf, a l'enseigne de la Place des Victoires, 1689
- . — A Paris : chez J. Jaillot, geographe du Roi, joignant les grands augustins aux deus globes, 1718
- . — London : James Wyld, geographer to the Queen and H. R. H. Prince Albert, [1851]

4.4.5 BANATZAILE-FUNTZIOAREN AIPUA

Ikus 1.4.5

4.4.6 ARGITALPEN-DATA

4.4.6A Argitalpen-data transkribatzeko, 1.4.6 paragrafoan ezarritako araei jarraituko zaie.

Argitalpen-datatzat hartuko da material kartografikoan bertan azaltzen dena, alegia, lanaren sorrera-data adierazi ohi duena.

4.4.6B Antzinako materialean, dokumentuan hilabetea eta eguna azaltzen badira, adierazi egingo dira. Halaber, «... urtean inprimatua» edo «... urtea» eta antzeko hitzak edo esaldiak ere jaso egingo dira. Argitalpen-data zehatza zein den jakin ezean, gutxi gorabeherako data jarriko da taket artean.

- . — London : printed and published according to Act of Parliament for J. Almon in Picadilly march 25th. 1776
- . — [Madrid?] : imprenta y litografía de la Biblioteca Universal, [1880?]

4.4.6C Material kartografikoa liburu, atlas edo antzeko batean azaltzen denean, horren argitalpen-data eremu honetan jasoko da eta liburuarena oharretan.

- Les monts Pyrenées : ou sont remarqués les passages de France en Espagne / dressé sur les memoires les plus nouveaux par le Sr. Sanson. — A Paris : Chez H. Jaillot, 1691
Oharrean
Honen barruan: Nouvelle introduction à la géographie / Nicolas Sanson. Paris : Hubert Jaillot, 1692

4.4.7 INPRIMALEKUA, INPRIMATZAILEAREN IZENA, INPRIMATZE-DATA

Ikus 1.4.7

4.5 DESKRIBAPEN FISIKOAREN EREMUA

EREMUAREN ELEMENTUAK

Materialaren tamaina eta izendapen espezifikoa

Bestelako ezaugarri fisikoen aipua

Neurriak

Material gehigarria

4.5.1 ITURRIAK

Ikus 4.0.1B

4.5.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.5.2

4.5.3 MATERIALAREN TAMAINA ETA IZENDAPEN ESPEZIFIKOA

4.5.3A Materialaren tamaina eta izendapen espezifikoa jasotzeko, 1.5.3 paragrafoan ezarritako arauei jarraituko zaie.

4.5.3B Eremu honetan dokumentu kartografikoaren unitate fisikoen kopurua adieraziko da zenbaki arabiarretan eta, ondoren, kasuan kasu dagokion honako termino hauetako bat jarriko da:

Atlasa

Bloke-diagrama

Aireko mapa

Itsas mapa

Aireko argazkia

Fotomapa

Fotomosaiko kontrolatua
 Fotomosaiko ez kontrolatua
 Lur-globoa
 Mapa
 Mapa anamorfikoa
 Zeruko mapa
 Hormako mapa
 Erliebe-mapak
 Maketa
 Ortofotomapa
 Planoa
 Profila
 Sekzioa
 Bista
 Goitik hartutako bista

Kasuren batean, deskribatu beharreko materialari termino horietako bat ere ez badagokio, ondo datorkion beste bat erabil daiteke.

1 itsas mapa
 1 irudizko mapa

4.5.3C Mapa, planoak edo dena delakoa bi orri edo gehiagotan edota orri bakarrean baina zenbait zatitan sekzionatuta inprimatu bada, orri-kopurua adieraziko da.

1 mapa 4 orritan
 2 plano 6 orritan

4.5.3D Orri batean, mapa bat edo plano bat baino gehiago azaltzen denean, deskribapenean mapa-multzo osoa hartzen bada, materialaren izendapen espezifikoren ondoren «1 orri» idatziko da.

4 mapa 1 o.

4.5.3E Mapa bi zatitan, orri bereko aurkian eta ifrentzuan, inprimaturik badago, parentesi artean gehituko zaio: bi aldeak.

1 mapa : (bi aldeak), kol.

4.5.3F Dokumentu kartografikoaren zatiak asko badira eta zenbat diren zehazki jakiterik ez badago, gutxi gorabeherako kopurua emango da.

Ca. 800 mapa

4.5.4 BESTELAKO EZAUGARRI FISIKOEN AIPUA

4.5.4A Dokumentu kartografikoa, besterik adierazi ezean, inprimatua dela ulertu behar da. Eskuizkribua bada «eskbu.» laburdura idatziko da.

1 plano : eskbu., kol.

4.5.4B Dokumentu kartografiko osoa edo zati bat koloretan inprimaturik badago, adierazi egingo da.

1 plano : kol.

4.5.4C Garrantzitsua dela iritiz gero, dokumentuaren euskarria adieraz *daiteke*, adibidez, mapa inprimatzeko erabili den materiala, baldin eta paperean ez badago, edota dokumentua muntatzeko era.

1 globo : kol., zura

1 mapa : kol., plastikoa

1 globo : kol., zura metalezko oinduna

1 mapa : ohial gainean muntatua

4.5.4D Beharrezkoa irudituz gero, atlasen mapa-kopurua adierazi egingo da.

1 atlas (330 or.) : 100 kol. mapa (batzuk tol.)

1 atlas (XX, 150 or.) : 43 kol. mapa

1 atlas (2 libk.) : 180 kol. mapa

4.5.5 NEURRIAK

4.5.5A Dokumentu kartografikoen neurriak honela adieraziko dira: bi dimentsioko dokumentuetan, luzera bider zabalera; hiru dimentsiokoetan, luzera bider zabalera bider altuera. Neurri horiek zentimetrotan adieraziko dira. Zentimetro-frakzioak zentimetro osotan jarriko dira.

1 mapa : kol. ; 28×40 cm

(Benetako neurriak hauek dira: $27,3 \times 39,7$ cm)

1 plano : eskbu., kol. ; 65×50 cm

1 erliebe-mapa : kol., plastikoa ; $40 \times 35 \times 2$ cm

Esferetan eta dokumentu kartografiko zirkularretan, diametroa adieraziko da.

1 globo : kol., metala; 40 cm-ko diam.

1 mapa : kol. ; 2 hemisferio, 13 cm-ko diam., 1 o. 19×27 cm

4.5.5B Zenbait orritan eskala berean inprimatutako mapa, plano eta abarren dimentsioak bakarrean baleude bezala adieraziko dira. Ondoren, orrietako baten neurriak adieraziko dira.

1 mapa 2 orritan : kol. ; 30×70 cm, 1 o. 30×35 cm

Mapa, plano edo dena delakoa bi aldeetan inprimaturik badago eskala berean, lehendabizi, mapa osoaren neurriak jasoko dira eta, ondoren, orriarenak.

1 mapa : (bi aldeak), kol. ; 100×127 cm, 1 o. 50×127 cm

4.5.5C Mapa tolesturik badago, lehendabizi, orri osoaren neurriak adieraziko dira, eta ondoren tolesturarenak.

1 mapa : kol. ; 60×80 cm, tol. 21×15 cm

4.5.5D Neurri ezberdineko mapak biltzen dituzten bildumetan neurriak gehienez ere bi badira, biak adieraziko dira, «eta» juntagailuz loturik. Bi baino gehiago badira, maparik luzeenaren luzera bider zabalaren zabalera adieraziko da eta, ondoren, «edo gutxiago» terminoa jarriko da.

30 mapa ; 40×55 cm eta 48×75 cm

10 mapa : kol. ; 120×80 cm edo gutxiago

4.5.5E Atlasen neurriak monografienak bezala adieraziko dira. Ikus 2.5.5.

1 atlas (XII, 150, 35 or.) : 150 kol. mapa. ; 30 cm

4.5.5F Maparen tamaina orriarena baino txikiagoa bada, lehendabizi maparen neurriak adieraziko dira eta, ondoren, orri osoarenak.

1 mapa : kol. ; 25×35 cm, 1 o. 50×70 cm

4.5.6 MATERIAL GEHIGARRIA

4.5.6A Material gehigarria deskribatzeko, 1.5.6 paragrafoan ezarritako arauetara jarraituko zaie.

1 mapa : kol. ; 40×50 cm + 1 txosten

1 plano : kol. ; 55×70 cm + 1 gida (70 or. ; 25 cm)

1 mapa : kol. ; 40×50 cm + 1 oroitidazki (25 or. ; 30 cm)

4.6 SERIEAREN EREMUA

EREMUAREN ELEMENTUAK

Seriearen izenburua

Seriearen pareko izenburuak

Seriearen azpiizenburua edota izenburuari buruzko informazio osagarria

Serieari dagozkion erantzukizunen aipuak

ISSNa (argitalpen seriatuen nazioarteko zenbaki normalizatua)

Seriearen zenbakia

Azpiserieen eta atalen izendapena edota izenburua

Azpiserieen eta atalen pareko izenburuak

Azpiserieen eta atalen azpiizenburua edota izenburuari buruzko informazio osagarria

Azpiserieei eta atalei dagozkien erantzukizunen aipuak

Azpiserieen eta atalen ISSNa

Azpiserieen eta atalen zenbakia

4.6.1 ITURRIAK

Ikus 4.0.1B

4.6.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.6.2

4.6.3 SERIEAREN IZENBURUA

Ikus 1.6.3

4.6.4 SERIEAREN PAREKO IZENBURUA

Ikus 1.6.4

4.6.5 SERIEAREN AZPIIZENBURUA EDOTA IZENBURUARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA

Ikus 1.6.5

4.6.6 SERIEARI DAGOZKION ERANTZUKIZUNEN AIPUAK

Ikus 1.6.6

4.6.7 ISSN-A (ARGITALPEN SERIATUEN NAZIOARTEKO ZENBAKI NORMALIZATUA)

Ikus 1.6.7

4.6.8 SERIEAREN ZENBAKIA

Ikus 1.6.8

4.6.9 AZPISERIEEN ETA ATALEN IZENDAPENA EDOTA IZENBURUA

Ikus 1.6.9

4.6.10 AZPISERIEEN ETA ATALEN PAREKO IZENBURUAK

Ikus 1.6.10

4.6.11 AZPISERIEEN ETA ATALEN AZPIIZENBURUA EDOTA IZENBURUARI BURUZKO
INFORMAZIO OSAGARRIA

Ikus 1.6.11

4.6.12 AZPISERIEEI ETA ATALEI DAGOZKIEN ERANTZUKIZUNEN AIPUAK

Ikus 1.6.12

4.6.13 AZPISERIEEN ETA ATALEN ISSN-A

Ikus 1.6.13

4.6.14 AZPISERIEEN ETA ATALEN ZENBAKIA

Ikus 1.6.14

4.6.15 SERIE BAT BAINO GEHIAGO

Ikus 1.6.15

4.7 OHARREN EREMUA

4.7.1 ITURRIAK

Ikus 4.0.1B

4.7.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.7.2

4.7.3 OHARREN ZER-NOLAKOAK

Ikus 1.7.3

4.7.4 OHARREN HURRENKERA

4.7.4A Eremu jakin bateko informazioa osatzen duten oharrak

4.7.4Aa) Izenburuaren eta erantzukizunaren aipuaren eremua

Lehenik eta behin, izenburuaren inguruko oharrak adieraziko dira, alegia, izenburuaren iturria, izenburuaren aldaerak eta abar.

Izenb. karpetik hartua

Izenb. maparen ontzitik hartua

Izenb. P. L. Philips-en «A list of maps of America»tik hartua, 307 or.

Bigarrenik, argitalpenaren nolakoa, zertarakoa eta hizkuntza adieraziko dira.

Testua frantsesez, ingelesez eta alemanez
(*Izenburu nagusia gaztelaniaz*)

Testua katalanez, frantsesez eta ingelesez

Deskribapenean jaso gabe badaude, izenburuak eta izenburuari buruzko informazio osagarria jaso *daitezke*.

Pareko izenburuak ingelesez, frantsesez eta alemanez

Zorroan izenburua alemanez, italieraz eta frantsesez
(*Izenburu nagusia gaztelaniaz*)

Hirugarrenik, erantzukizunaren aipuari buruzko oharrak jasoko dira.

Erantzukizunaren aipua iturri nagusitik jaso ez denean, erabilitako iturria oharretan adieraz *daiteke*.

C. Koeman-en iritziz egilea Blaeu: «Atlante Neerlandici»
Kartografoaren izena honekin batera doan txostenetik hartua
Egilearen izen osoa:

4.7.4Ab) Edizioaren eta historia bibliografikoaren eremua

Eremu honetan dokumentu kartografikoak beste dokumentu batzuekin —hala nola, kopia faksimileekin, kopia fotografikoekin, laburpen eta gehigarriekin, kopia hutsekin eta egokitzapene-kin— dituen loturei buruzko datuak adieraziko dira.

Honen kopia:
Ontzi Museoko jatorrizko eskbu. faks.
1954an argitaratu zen lehenengo ed.

4.7.4Ac) Datu matematikoen eremua

Jat. esk. ca. 1:3.000
Jat. meridioa: Madril

Zeruko mapetan magnitudea jasoko da. Mugako magnitudea «mugako magn.» laburduraz adieraziko da edo, bestela, beste hizkuntza bateko baliokideaz, ondoren, gehienez ere 22raino iritsi daitekeen zenbakia jarrita.

Mugako magn. 3,5

Teledetekzioko irudien datu matematikoak eremu honetan adieraz *daitezke*, baldin eta dagoz-
kien eremuetan jaso ez badira.

4.7.4Ad) Argitalpenaren eta banaketaren eremua

Argitalpenaren eremuarekin loturiko datu interesgarriak adierazi egingo dira, betiere lehenago eremu horretan jaso ez badira.

Aurreko argitaraldi guztiak honek argitaratuak:
Lehen, ... argitaratu zen

4.7.4Ae) Deskribapen fisikoaren eremua

Ur marka: C & I Honing
Eskbu. oihal gainean
Zetan inprimatua
Fotokopia

Fotokopia, negatiboa

4.7.4Af) Seriearen eremua

Seriearen aurreko arduraduna:

4.7.4B Eremu jakin bati lotuta ez dauden oharrak

4.7.4Ba) Botaldi mugatuak edo banaketa komertzialik ez dutenak

500 aleko ed. mug.

Honen (iragarki) gisa argitaratua:

Argitaraldi berezia aldizkariaren harpidedunentzat

4.7.4Bb) Edukiari buruzko oharrak

Txertatutako elementuak eta ilustrazioak.

Barruan du: Formenterako mapa turistikoa

Beheko aldean 4 grabatu dakartza Madrileko bistekin

Goian, eskuinaldean, arrokaiaidun kartela, gainaldean arrano bat eta bi aingeru dituela

Barruan du: toponimoen aurkibidea, turistentzat interesgarriak diren tokien zerrenda eta kolorezko irudiak

Eskala 1:40.000.000

Dokumentu kartografikoaren azalpen-atalaren deskribapena, bai eta dokumentuan bertan nahiz harekin batera dauden testuena.

Herriguneeen zerrendak eta distantzien taulak dakartza

Ingurua deskribatzen duen testua dakar gaztelaniaz eta ingelesez

Mapan azaltzen diren ezohiko elementuei buruzko oharrak.

Elizbarrutiak adierazten ditu

Distantzia erradialak adierazten ditu, udaletxea abiapuntu dela

Erliebearen irudikapena deskribatzeko oharrak.

Erliebea sestra-kurben, itzalen eta tinta kolore-motelduen bidez adierazia

Erliebea eta sakonerak sestra-kurben bidez adieraziak

Aleari buruzko oharrak.

Eskuz koloreztatua

Behaldeko erdialdean sinatua
 Sinadura ezabatua
 Lopez Garat-en ondaretik jasoa
 Beheko aldea falta da

Dokumentuaren ifrentzuan dagoen materiala deskribatzeko oharrak.

Ifrentzuan: Iberiar Penintsulako mapa klimatikoa. 1:1.000.000

Ifrentzuan: Errepideei buruzko informazio orokorra

Ifrentzuan: Erdigunearen plano handituta

4.8 ZENBAKI NORMALIZATUAREN ETA ESKURATZE-BALDINTZEN EREMUA

EREMUAREN ELEMENTUAK

ISBNa (nazioarteko zenbaki normalizatua)

Gako-izenburua

Eskuratze-baldintzak eta/edo prezioa

4.8.1 ITURRIAK

Ikus 4.0.1B

4.8.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.8.2

4.8.3 ISBN-A

4.8.3A ISBNa edo beste zenbaki normalizatu bat transkribatzeko, ikus 1.8.3.

ISBN 84-01-60915-4

ISBN 0085-4859

ISBN 00-00000-000-0 (zuz.)

ISBN 84-01-60854-6 (karpeta txikian tol.)

4.8.4 GAKO-IZENBURUA

Gako-izenburua transkribatzeko, 1.8.4 paragrafoan ezarritako araei jarraituko zaie.

. — ISSN 0000-0000 = Gako-izenburua

4.8.5 ESKURATZE-BALDINTZAK ETA/EDO PREZIOA

Ikus 1.8.5

4.8.6 ISBN BAT BAINO GEHIAGO

Ikus 1.8.6

4.9 UNITATE FISIKO BAT BAINO GEHIAGO DUTEN MAPAK

Ikus 1.9

4.9.1 BI MAILAKO DESKRIBAPENA

4.9.1A Bi mailako deskribapena egiteko, 1.9.1 paragrafoan ezarritako araei jarraituko zaie.

Mapa geológico de España E. 1:50.000 / Instituto Geológico y Minero. —
1:50.000 ; proyec. UTM elipsoide internacional. — Madrid : Ministerio de Industria,
Servicio de Publicaciones, D.L. 1972

mapak : kol. ; 40 × 56 cm

1 : Cariño. — D.L. 1976

13 : Avilés. — D.L. 1972

274 : Torquemada. — D.L. 1973

4.9.2 MATERIAL GEHIGARRIA DUTEN DOKUMENTUAK

Ikus 1.9.2

4.9.3 BI MAILA BAINO GEHIAGOKO DESKRIBAPENA

4.9.3A Bi maila baino gehiagoko deskribapena egiteko, 1.9.4 paragrafoan ezarritako araei jarraituko zaie.

Mapa topográfico nacional / Instituto Geográfico y Catastral. — 1:25.000 ; proyec.
UTM elipsoide internacional. — Madrid : IGC, D.L. 1975

mapak 4 orritan : kol. : 40 × 58 cm bakoitza

334 : Gerona. — 1ª ed. — D.L. 1975

I : Gerona

II : La Bisbal

III : Cassa de la Selva

IV : Palamós


4.9.4 FITXA OSATUGABEA

Ikus 1.9.5

5.

kapitulua

Material grafikoaren deskribapena



5.0 ARAU OROKORRAK

Kapitulu honetako arauen arabera deskribatuko da bi dimentsioko material grafikoa, hala nola, estanpak, marrazkiak, marrazki teknikoak, argazkiak, kartelak, orrirudiak eta abar, jatorrizkoak nahiz kopiak izan.

Kapitulu honetan ez da deskribatuko pantailan proiektatzeko material grafikoa: gardenkiak, diapositibak, erradiografiak eta abar.

Arau hauek honako lan hauek deskribatzeko erabiliko dira: lan solteak, lan-multzoak nahiz bildumak, eta liburuki edo karpeta baten zati den material grafikoa.

Lan solteak argitaratuak nahiz argitaragabeak (kopiak egon arren) izan daitezke, eta, beraz, argitalpenaren, banaketaren, inprimaketaren eta abarren aipua izan dezakete edo ez. Zalantza izanez gero, argitaratuzat hartuko dira.

Azaleztatutako liburuki batek edo karpeta batek batez ere material grafikoa duelarik, argitalpen monografikoa bada zalantzarik gabe eta ataria edo baliokideren bat badu, monografiak katalogatzeko arau berezien arabera katalogatu *daiteke* (ikus 1. eta 2. kapituluak). Material grafikoa 1901. urtea baino lehenagokoa bada, antzinako material grafikotzat joko da.

5.0.0 DESKRIBAPENAREN ANTOLAKETA

Ikus 1.0.0

5.0.1 INFORMAZIO-ITURRIAK

Ikus 1.0.1

5.0.1A Informazio-iturri nagusia eta iturriak kontsultatzeko agindutako hurrenkera

Material grafikoaren informazio-iturri nagusia dira dokumentua bera eta dokumentuari finko lotuta ageri diren etiketak, errotuluak eta abar. Deskribatzen den dokumentuak zenbait unitate fisiko bereziak baditu eta zati horiek izenburu orokorrik ez badute, izenburu orokorra duen edukiontzia hartuko da iturri nagusitzat, baldin eta halakorik bada. Arau bera ezarriko zaie dokumentu-bildumei unitate gisa deskribatzen direnean. Kasu bietan ohar bat egingo da informazio-iturria zein den adierazteko.

Informazioa ezin bada iturri nagusitik jaso, honako iturri hauek erabiliko dira, hurrenkera honetan:

- edukiontzia
- inprimaturiko material gehigarria
- materialarekin loturiko beste iturri batzuk

5.0.1B Eremuetarako agindutako informazio-iturriak

Ondorengo taulan zehazten da zein informazio-iturri dagokion material grafikoa deskribatzeko eremu bakoitzari. Agindutako iturri horietatik kanpo jasotako informazioa taket artean edo oharren bidez emango da.

Eremua	Agindutako informazio-iturriak
1 Izenburua eta erantzukizunaren aipua	Informazio-iturri nagusia
2 Edizioa	Informazio-iturri nagusia, edukiontzia eta material gehigarria
4 Argitalpena, banaketa eta abar	Informazio-iturri nagusia, edukiontzia eta material gehigarria
5 Deskribapen fisikoa	Edozein iturri
6 Seriea	Informazio-iturri nagusia, edukiontzia eta material gehigarria
7 Oharrak	Edozein iturri
8 Zenbaki normalizatua eta eskuratzeko baldintzak	Edozein iturri

5.0.2 PUNTUAZIOA

5.0.2A Deskribapenaren elementuetan erabili beharreko puntuaziorako, ikus 1.0.2 paragrafoan ezarritako arauak.

5.0.2B Tartekapenetan (ikus 1.0.2G), tartekatutako datua zalantzarikoa denean, galdera-ikurra jarriko da taket artean.

[Juan?] Bravo Murillo

Hitz laburtuak, oro har, bere horretan jasoko dira. Edonola ere, laburtutako hitz bat, izen bat edo zenbaki bat ondo ulertzen ez bada, osatu egin daiteke, falta diren letrak edo zenbakiak taket artean jarrita.

Ast.[urias]

5.0.3 DESKRIBAPENAREN HIZKUNTZA ETA IDAZKERA-MOTA

Ikus. 1.0.3

5.0.4 LABURTZAPENA ETA LABURDURAK

Ikus 1.0.4

5.0.5 LETRA LARRIEN ERABILERA

5.0.5A Letra larrien erabilerarako, 1.0.5 paragrafoan ezarritako arauei jarraituko zaie.

5.0.6 AZENTUAK ETA BESTELAKO ZEINU DIAKRITIKOAK

Ikus 1.0.6

5.0.7 AKATSAK

Ikus 1.0.7

5.0.8 INFORMAZIO-ITURRI NAGUSIA ZEHAZTEA, ITURRI NAGUSI BAT BAINO GEHIAGO DITUZTEN DOKUMENTUETAN

Ikus 1.0.8

5.0.9 DESKRIBAPENAREN XEHETASUN-MAILAK

5.0.9A Argitaratutako material grafikoan, lehen mailako deskribapenean 1.0.9A paragrafoko arauan adierazitako elementuak jasoko dira.

Dokumentu grafiko argitaragabeen kasuan, deskribapenaren lehen mailan honako elementu hauek adieraziko dira:

Izenburu nagusia / lehen erantzukizunaren aipua. — Burutze-data
Oinarrizko deskribapen fisikoa
Oharrak

5.0.9B Argitaratutako material grafikoan, bigarren mailako deskribapenean 1.0.9B paragrafoan ezarritako elementuak jasoko dira.

Dokumentu grafiko argitaragabeen kasuan, deskribapenaren bigarren maila honetan elementu hauek adieraziko dira:

Izenburu nagusia [Dokumentu-motaren izendapen orokorra] = Pareko izenburua :
 azpiizenburua edota izenburuari buruzko informazio osagarria / lehen erantzukizunaren
 aipua ; beste erantzukizunaren aipu batzuk. — Burutze-data
 Deskribapen fisikoa (material gehigarriaren aipua kenduta)
 Oharrak

5.0.9C Hirugarren mailako deskribapena eginez gero, arauotan adierazitako elementuetatik dagozkion guztiak jasoko dira.

5.1 IZENBURUAREN ETA ERANTZUKIZUNAREN AIPUAREN EREMUA

EREMUAREN ELEMENTUAK

Izenburu nagusia

Dokumentu-motaren izendapen orokorra

Pareko izenburuak

Azpiizenburua edota izenburuari buruzko informazio osagarria

Erantzukizunaren aipua

5.1.1 ITURRIAK

Ikus 5.0.1B

5.1.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.1.2

5.1.3 IZENBURU NAGUSIA

5.1.3A Izenburu nagusia transkribatzerakoan, 1.1.3 paragrafoan ezarritako araei jarraituko zaie.

5.1.3B Izenburua osorik jaso ezin denean, gutxienez lehenengo bost hitzak jasoko dira beti.

Una sola orden en cada conciencia, resistir ...

5.1.3C Izenburuaren deskribapenean jaso gabe utz daitezke, hutsune-markarik erabili beharrik gabe, izenburuari buruzko informazioa ematen ez duten datuak eta izenburuarekin inolako loturararik, ez gramatikalik ez bestelakorik, ez dutenak. Jaso gabe utzitako informazio hori (babesleak, ikurrizak, iragarkiak, prezioak eta abar) kasuan kasu dagokion eremuan adieraziko da, betiere beharrezkoa dela iritziz gero.

5.1.3D Dokumentuan azaltzen diren inskripzioetatik izenburua zein den jakin ezin denean, tipografia hartuko da kontuan izenburu nagusia zein den erabakitzeko.

Catalunya : cancionero popular internacional
(*Jatorrizkoan «Cancionero popular internacional» azaltzen da izenburu nagusiaren aurrean eta letra txikian*)

5.1.3E Izenburuaren zatiak apaingarri gisa jarrita ageri direnean lanean, izenburu nagusia tipografiaren edo antolamenduaren arabera eratuko da.

Bèjart-Vila Matas : skizze = croquis = sketch = croquis = schets
(*Jatorrizkoan azpiizenburuak izenburuaren inguruan azaltzen dira*)

5.1.3F Izenburuaren hitzetako asko laburtuta ageri badira eta osorik ematea beharrezkoa ikusten bada, izenburu osatua taket artean jaso daiteke eta jatorrizko izenburu laburtua oharretan.

[Devoto Santuario que se benera en el Principado de Asturias de María Santísima de Cobadonga]
Oharra
Izenb. laburtua estanpan: Dev. o Sant. o q. se bena en el Principo. de Maria SSma. de Cobado.a.

5.1.3G Testuko lehen hitzak direnean izenburutzat har daitekeen informazio-iturri bakarra, izenburu nagusitzat hartuko dira baldin eta material grafikoaren edukiarekin zuzenean loturik badaude. Hala ez bada, izenburu izuna egingo da eta testuko lehen hitzak oharren eremuan jasoko dira. Ikus 5.7.3A.

[Alfontso XIII.a : karikatura] / Allora
(*Kartelean inskripzio hauek agertzen dira: «Biba [sic] la Pepa ... que es mi pueblo», «Constitución», «Lex», «Derechos de ciudadanía»*)

5.1.3H Garrantzi bereko izenburu bi azaltzen direnean hizkuntza berean emanda, bata zein bestea aukera daiteke; edonola ere, laburrenak eta argienak izango du lehentasuna.

ALELUYAS RADICALES
Oharra
Beste izenb.: ¡ALERTA, ALERTA, FEDERALES!

5.1.3I Lan grafikoan ageri den testu bakarra egilearen edo arduradunaren izena denean, izenburu izuna egingo da (ikus 5.1.3N), eta egilearen edo arduradunaren izena erantzukizunaren aipuan jasoko da.

[Itsu bi, bata gitarra jotzen eta bestea biolina] / L. Alenza

5.1.3J Bildumek izenburu orokorrik ez dutenean, izenburu orokor izuna egingo da.

Bildumetako dokumentuek banakako izenbururik ez dutenean, izenburu izunak egin daitezke, baldin eta katalogazio analitikoa edo bi mailakoa egiten bada edota edukiari buruzko ohar bat beharrezkoa bada.

5.1.3K Zenbait dokumentuk ezaugarri komun bat izanik multzo batean bildu daitezkeenean, bildumak bezala deskriba daitezke; kasu horretan, izenburu izuna egingo da. Ikus 5.1.3N.

[Madrilgo kaleak]

[Israel Sylvestre-ren estampa-bilduma]

[Euskal Herriko armarrak]

5.1.3L Kanpoko iturrietatik hartutako izenburua

5.1.3La) Dokumentuak izenbururik ez badu baina kanpoko iturrietan aipatuta badago forma, hizkuntza edo esanahi ezberdina duten izenburuen bidez, eta izenburu horietako batek ere ez badu adierazten dokumentuaren edukia, izenburu horietatik arauen arabera lehenetsitako iturrian azaltzen dena aukeratuko da, oharretan iturria zein den adierazita. Izenburuaren gainerako aldaerak oharretan jaso daitezke.

[Ibaia / C. Haes]

Oharra

Izenb. hemendik hartua: Estampas de la Calcografía Nacional : 100 aguafuertes del siglo XIX

5.1.3Lb) Dokumentuak izenbururik ez badu baina dokumentuaren beste kopia, edizio edo euskarri batean izenbururik azaltzen dela jakinez gero, iturri horretako izenburua transkribatuko da taket artean. Iturria oharretan jasoko da.

[La comédie]

Oharra

Izenb. beste ale batetik hartua

5.1.3M Liburuetan, karpitetan eta abarretan dagoen material grafikoaren izenburua

5.1.3Ma) Atari batean azaltzen den ilustrazioak izenbururik ez badu eta esanahi argirik ere ez badu, lanaren beraren izenburua hartuko da ilustrazioaren izenbururako, informazio osagarri gisa, taket artean, «[ataria]» jarrita. Kasu horretan, ilustrazioaren egilearen izena izenburu nagusiarekin batera adieraziko da.

INSTRUCCIÓN METÓDICA SOBRE LOS MUERÉS POR D. JOAQUÍN
MANUEL FOS : [ataria] / Juan Barcelón lo grabó ...

Oharra

Honen at. grab.: Instrucción metódica sobre los muerés / por D. Joaquín Manuel
Fos. Madrid : viuda de Joaquín Ibarra, 1790

Ilustrazioak atari osoa hartzen badu, «honen atari grabatua» adieraziko da oharretan, eta «honen atarian» zati bat baino ez badu hartzen.

5.1.3Mb) Lan baten atarian azaltzen den ilustrazioak izenbururik ez baina esanahi argia badu, izenburu izuna egingo da 5.1.3N paragrafoko arauan ezarritakoari jarraiki.

[Santo Domingo] / A. C. D. F. [monograma]

Oharra

Honen at.: Commentariourum super totum Evangelium Matthaei / per ...
Alfonsum de Avendaño ... Madriti : apud Petrum Madrigal, 1592. (T. II)

5.1.3Mc) Ilustrazioa lanaren barrualdean badago eta izenbururik ez badu, izenburu izuna egingo da, lan soltea balitz bezala. Oharretan «honen ilustrazioa» idatziko da eta, ondoren, lan osoaren datuak.

[Ijitoa] / Andrés Lambert

Oharra

Honen il.: El celoso extremeño : de las novelas ejemplares de
Miguel de Cervantes. Madrid : Castalia, 1945

5.1.3Md) Lan baten atariko edo barrualdeko ilustrazioak izenburua duenean, horixe izango du izenburu nagusi.

S. IOANNES EVANGELISTA / A. Z.

Oharra

Honen at.: Discurso legal, histórico y político : en prueba del origen, progresos, utilidad, nobleza y excelencias del arte de la imprenta ... : dedicalo al Excmo. señor D. Pedro Nuñez de Guzman ... / don Melchor de Cabrera Nuñez de Guzman ... En Madrid : en la oficina de Lucas Antonio de Bedmar, año 1675

DERROTA DEL PUENTE FARNESE ... / R. D. Hooge fec. — [En Colonia :
s.n., año 1681]

Oharra

Honen il.: Segunda década de las guerras de Flandes, desde el principio del
Governo de Alexandro Farnese ... / escrita en latín por el P. Famiano Estrada. En
Colonia : [s.n.], año 1681

5.1.3N Izenburu izuna egin behar izanez gero, izenburu horrek dokumentuaren edukia adierazi beharko du. Horretarako, honako datu hauek eman beharko dira kasuan kasu dagokionaren arabera:

— Deskribatutako gai nagusia (pertsonek, gertaerak, ekintzak eta objektuak).

— Deskribatutako leku geografikoak, ezagunak eta garrantzitsuak badira.

— Deskribatutakoaren data (nahi izanez gero, hilabetea eta eguna adierazita) edo denboraldia, baldin eta argitalpen-data edo burutze-data beste bat bada.

[Antonio Enríquez Gómezen erretratua]

[San Pedro]

[1790eko sutea Madrilgo Plaza Nagusian]

[Donostiako ikuspegia]

Material grafikoa beste arte-molde batean (pintura, arkitektura, eskultura eta abar) egindako lanean oinarrituta badago eta izenbururik ez badu, izenburu izuna jatorrizko lanarena izango da.

[Joana Eroa (erregina)] / F. Pradilla P.T.O ; B. Maura D.o y G.B.O, 1881

Izenbururik ez daukaten lan abstraktuen kasuan, zein izenburu duten jakin ezin denean, «izenbururik gabea» esaldia jarriko da taket artean.

[Izenbururik gabea] / H. Mompó

Izenburu izun orokorra egitean, egilearen, erakunde bildumagilearen edo iturriaren izenak ere aipa daitezke. Bilduma izendatzeko izenburu bat erabili ohi bada, huraxe jasoko da.

[Vicente Lópezen marrazki-bilduma]

5.1.4 DOKUMENTU-MOTAREN IZENDAPEN OROKORRA

5.1.4A «Material grafikoa» terminoa idatziko da, 1.1.4 paragrafoan ezarritako kasuetan eta moduan.

5.1.5 PAREKO IZENBURUAK

5.1.5A Pareko izenburuak transkribatzeko, 1.1.5 paragrafoan ezarritako arauetara jarraituko zaie.

Vista del Real Palacio de los Consejos de Madrid = Vue du Palais Royal du Conseil de Castille

Duela 150 urteko Gipuzkoako bistak : 1839-1979-1989 oroitzapena = Vistas de Guipúzcoa hace 150 años : conmemoración de 1839-1979-1989

Der Zulliger-Tafeln-Test : drei Tafeln = three plates = trois planches = tres láminas

5.1.6 AZPIIZENBURUA EDOTA IZENBURUARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA

5.1.6A Azpiizenburua edota izenburuari buruzko informazio osagarria transkribatzeko, 1.1.6 paragrafoan ezarritako araei jarraituko zaie.

Caja de Ahorros Municipal de Bilbao : su actuación benéfico-social
 Debako zezen plaza : 1997.eko abuztua, San Rokeak
 Lizardiri omenaldia : bere heriotzaren 50. urtemuga, Zarautz 1896-Tolosa 1933
 Szondi-test : experimentelle triebdiagnostik
 El sistema nervioso vegetativo : anatomía y farmacología
 Artistas gallegos : pintores contemporáneos

5.1.7 ERANTZUKIZUNAREN AIPUA

5.1.7A Erantzukizunaren aipua transkribatzeko, 1.1.7 paragrafoan ezarritako araei jarraituko zaie.

Arquitectura de la Diputació de Barcelona / dibuixat pels estudiants de l'Escola Tècnica Superior d'Arquitectura de Barcelona, dirigits pels professors Jordi Bertran i Castellví ... [et al.]

COMBAT DU TAUREAU : douze sujets dessinés d'après nature / par Victor Adam
 = Corrida de toros : doce cuadros dibujados [sic] del natural / por Victor Adam

SAN JUAN BAUTISTA : dedicado al Rey por D. Manuel Salvador Carmona, su grabador de cámara / pintado por Mengs, de este tamaño, cuyo original existe en el dormitorio de S. M. ; grabado por Carmona

Colonia Escolar Permanente de Pedernales : obras sociales de la Institución / L. Roisin

Albokaris y dultzaineros / por María Isabel de Larracochea

5.1.7B Monogrametan edo ikurritzetan ageri diren izenak edo inisialak jaso egingo dira, ondoren, «monograma» edo «ikurritza» terminoak taket artean jarrita. Izen osoa zein den jakinez gero, oharrean adieraziko da.

[Zalduna, heriotza eta deabrua] / A. D. [monograma]

Oharra

A. D. monograma Albert Dürer-i dagokio

5.1.7C Estanpetan, lanaren egileen izenekin batera honako hitz edo esaldi hauek azaldu ohi dira: «invenit» («inv.» laburturik), «pinxit» («pinx.» laburturik), «figuravit», «margolaria», «sortzailea» eta abar.

Marrazkiaren egileak identifikatzeko, hitz hauek erabili ohi dira: «delineavit» («delin.» edo «delt.» laburturik), «marrazkilaria», «discinatzailea» eta abar.

5.2 EDIZIOAREN EREMUA

Material grafikoan oso bakanetan aipatzen da edizioa. Batzuetan, zein den jakin daiteke dokumentua ondo aztertuta eta katalogoetz lagunduta. Bildumetan, ordea, sarritan agertu ohi da.

EREMUAREN ELEMENTUAK

Edizioaren aipua

Pareko edizioaren aipua

Edizioari dagozkion erantzukizunen aipuak

Edizioaren beste aipua

Edizioaren beste aipuari dagozkion erantzukizunen aipuak

5.2.1 ITURRIAK

Ikus 5.0.1B

5.2.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.2.2

5.2.3 EDIZIOAREN AIPUA

5.2.3A Edizioaren aipua adierazteko, 1.2.3A paragrafoan ezarritako arauetara jarraituko zaie.

5.2.3B Estampa baten egoeraren aipua oharren eremuan adieraziko da.

5.2.4 PAREKO EDIZIOAREN AIPUA

Ikus 1.2.4

5.2.5 EDIZIOARI DAGOZKION ERANTZUKIZUNEN AIPUAK

Ikus 1.2.5

5.2.6 EDIZIOAREN BESTE AIPUA

Ikus 1.2.6

5.2.7 EDIZIOAREN BESTE AIPUARI DAGOZKION ERANTZUKIZUNEN AIPUAK

Ikus 1.2.7

5.2.8 IZENBURU OROKORRIK GABEKO LANEN BILDUMAK

Ikus 1.2.8

5.2.9 UNITATE FISIKO BAT BAINO GEHIAGO DUTEN LANAK, ZENBAIT EDIZIOTAN EMANAK

Ikus 1.2.9

5.3 DOKUMENTU-MOTAREN DATU ESPEZIFIKOEN EREMUA

Material grafikoa deskribatzean ez da eremu hau erabiltzen, salbu eta argitalpen seriatu gisa azaltzen bada; horrelakoetan, 12. kapituluko arauetara jarraituko zaie.

5.4 ARGITALPENAREN, BANAKETAREN ETA ABARREN EREMUA

EREMUAREN ELEMENTUAK

Argitaralekua eta *banaketa-lekua*

Argitaratzailearen eta *banatzailearen* izena

Banatzaile-funtzioaren aipua

Argitalpen-data eta banaketa-data

Fabrikazio-lekua, fabrikatzailearen izena, fabrikazio-data

Eremu honetako elementuak argitaratutako material grafikoa deskribatzeko baino ez dira erabiliko. Material grafiko argitaragabeetan, «data» elementua baino ez da erabiliko (ikus eskuizkribuei buruzko kapituluko 3.4 paragrafoa). Material argitaragabea non eginda dagoen oharretan adieraz *daiteke*.

5.4.1 ITURRIAK

Ikus 5.0.1B

5.4.1A Liburu bateko material grafikoaren deskribapen bereizia egiteko, material grafikoa bera izango da informazio-iturri nagusia. Liburu osoaren argitalpen-datuak oharretan adieraziko dira. Material grafikoak eremu honi dagokion aipurik ez badu, horren ordez liburuaren argitalpen-datuak emango dira taket artean.

Vista geométrica de la fachada pr.al del Castillo de la Aljafería en Zaragoza. — Zaragoza : lit. de L. Jayme, [1846]

Oharra

Honen il.: Descripción e historia del Castillo de la Aljafería ... / escrita por Mariano Nogués Secall. Zaragoza : imprenta de Antonio Gallifa, 1846. (2. oir.)

INSTRUCCIÓN METÓDICA SOBRE LOS MUERÉS POR D. JOAQUÍN MANUEL FOS ... : [ataria] / Juan Barcelón lo grabó en Madrid año 1789 [Madrid : vda. de Joaquín Ibarra, 1790]

Oharra

Honen at. grab.: Instrucción metódica sobre los muerés / por D. Joaquín Manuel Fos ... Madrid : vda. de Joaquín Ibarra, 1790

5.4.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.4.2

5.4.3 ARGITARALEKUA

5.4.3A Argitaralekuaren izena adierazteko, 1.4.3A paragrafoan ezarritako arauari jarraituko zaie.

5.4.3B Informazio-iturrian helbide bat, barruti bat edo antzekoa besterik azaltzen ez denean, ahal bada, argitaralekuaren izena gehituko da dokumentuaren hizkuntzan taket artean. Beharrezkotzat jotzen bada, tartekatutako datuaren azalpena emango da oharren bidez.

. — [Barcelona] (calle Montserrat, 3)

5.4.3C Argitaraleku bat aukeratzen denean, zergatik aukeratu den oso garbi ez badago, zein iturritatik hartu den adieraziko da oharretan.

5.4.3D Argitaralekua beste eremu baten barruan edo argitaratzailearen nahiz egilearen aipuan bakarrik azaltzen bada, halaxe transkribatuko da eta berriro jasoko da argitalpenaren eremuko lehen elementu gisa. Gaur egungo forma badu, adierazi egingo da taket artean jarrita.

EXERCICIOS DE LA GINETA AL PRINCIPE NUESTRO SEÑOR DON
BALTASAR CARLOS POR DON GREGORIO TAPIA Y SALCEDO CAVALLERO
DEL ORDEN DE SANTIAGO : [ataria] / D^a M^a Eug^a de Beer sculp. en Madrid. —
[Madrid : Diego Diaz, 1643]

5.4.4 ARGITARATZAILEAREN IZENA

5.4.4A Argitaratzailearen, banatzailearen eta abarren izena transkribatzeko, 1.4.4 paragrafoan ezarritako arauetara jarraituko zaie.

La disciplina, unidad y mando único conducen a la victoria : y como consecuencia a ... derechos fundamentales de los ciudadanos / Asociación de Amigos de la Unión Soviética. — [Madrid] : Asociación de Amigos de la Unión Soviética

. — [Barcelona] : Consejo Central del Teatro
(*Kartelean honela agertzen da: «Ministerio de Instrucción Pública y Sanidad, Dirección General de Bellas Artes, Consejo Central del Teatro»*)

5.4.4B Argitaratzailearen izena argitalpenaren eremuko ez den beste elementuren bati loturik bakarrik azaltzen bada, elementu horren zati gisa transkribatuko da eta berriro jasoko da argitalpenaren eremuan tasetan.

CAYDA DE LOS GIGANTES / pintada al fresco en el Rl. Palacio de esta Corte pr Dn Franco. Bayeu, pintor de camara de S. M. y de su Rl. Academia a expensas de su afectissimo Am^o Dn. Baltasar de la Puente ; gravado pr. Manl Salvador Carmona Pensionista de S. M. de su Rl. Academia y de la Rl de París año de 1796. — [Madrid : Baltasar de la Puente, 1796]

5.4.4C Argitaratzailearen aipuren zati konplexuak bereizi egingo dira, baldin eta dokumentuan bereizita ageri badira, hau da, beren artean lotura gramatikalik ez badute.

. — AParis [sic] : chez Huquier vis à vis le grand Chatelet et chez la V. e Chereau rue S.t Jacques

5.4.4D Argitaralekurik eta argitaratzaileak azaltzen ez denean, liburu-saltzailea, inprimatzailea, estantpatzailea edo litografia-lantegia hartuko dira argitaratzailetzat.

. — Madrid : lit. de J. J. Martínez
. — París : imp. F. Champenois

Argitaratzailea eta/edo argitaralekua, eta aurreko paragrafoan adierazitako edozein elementu azaltzen denean, argitaratzailea dagokion tokian jasoko da eta gainerakoak inprimatzailearen tokian.

. — Madrid : Labajos y Cia. Editores, [ca. 1869] (Madrid : lit. de J. Donon)
. — Barcelona : [s.n.], 1840 (Madrid : lit. de Zaragoza)

5.4.4E Argitaratzailearen izena ikurretik, logotipotik edo antzekoren batetik hartu edo atera bada, taket artean adieraziko da, ohar batean zein iturritatik hartu den adierazita.

. — Barcelona : [Amigos de la Unión Soviética]

Oharra

Argitaratzailea goiko eskuinaldeko ikurretik hartua

5.4.4F Informazio-iturrian argitaratzailearen helbidea, barrutia edo argitaratzailearekin lotutako bestelako datuak baino azaltzen ez badira, argitaratzailearen izena —zein den jakin ahal izanez gero— taket artean adieraziko da, material grafikoan azaltzen den datuaren aurretik edo ondoren. Behar izanez gero, informazio horren iturria oharretan adieraziko da.

. — [Madrid : P. de Machy hijo] véndese en casa del autor calle Alcalá, frente de la condesa de Benavente, nº qto., 3º

5.4.4G Material grafikoan argitaratzaileari buruzko daturik azaldu ez arren zein den jakiterik izanez gero, taket artean jasoko da. Argitaratzailea zein den ziur jakin ezean, jasotako izenaren ondoren galdera-ikurra jarriko da edo, bestela, azalpena emango da oharretan.

. — Barna : [Front Catalá d'Ordre]

. — Madrid : [Acción Popular?]

5.4.4H Argitaralekua argitaratzailearen aipuari loturik azaltzen bada, iturrian dagoen bezala transkribatuko da eta lekua berriro errepikatuko da dagokion eremuko lehen elementu gisa taket artean jarrita.

. — [Einsiedlen, Suisse] : Benziger & Ce. editeurs a Einsiedlen en Suisse

5.4.5 BANATZAILE-FUNTZIOAREN AIPUA

Ikus 1.4.5

5.4.6 ARGITALPEN-DATA

5.4.6A Argitalpen-data transkribatzeko, 1.4.6 paragrafoan ezarritako arauetara jarraituko zaie.

Argitalpen-datatzat hartuko da material grafikoan azaltzen dena, alegia, lanaren sorrera-data adierazi ohi duena.

. — Mallorca : 6ª Obra Gráfica, 1984

5.4.6B Material grafikoa liburu batean badago, eremu honetan material grafikoaren argitalpen-data idatziko da, eta liburuarena oharretan.

Vista de Zaragoza. — [Madrid : s.n.], 1890
Oharra
 Honen il.: Viaje por España. [Madrid : s.n.], 1891

5.4.6C Material grafikoan argitalpen-data eta burutze-data azaltzen direnean, argitalpen-data eremu honetan jasoko da eta burutze-data erantzukizunaren aipuekin batera. Burutze-data baino ez bada azaltzen, argitalpen eremuan errepikatuko da taket artean, baldin eta geroago argitaratu ez dela pentsatzeko arrazoirik bada.

MOSE [et] AARON / H. S. P. [monograma] 1526. — [S.l. : s.n., 1526?]

5.4.6D Ez argitalpen-datarik, ez burutze-datarik azaltzen ez bada, baina lana denbora-epe jakin batean argitaratu edo bukatu dela jakinez gero, epe horren hasierako eta amaierako datak jasoko dira taket artean.

, [1859tik 1873ra bitartean]

, [1920a baino lehen]

5.4.6E Argitalpen-data argitaralekuaren edo argitaratzailearen aipuari edo beste edozein eremutako informazioari loturik azaltzen bada, loturik ageri den elementuarekin batera transkribatuko da eta berriro jasoko da eremu honetan taket artean.

BEFORE / invented engraved & published decm^{br} y^c 15th 1736 by W^m Hogarth
 Pursuant to an Act of Parliament. Price two shillings & 6 pence. — [London : W.
 Hogarth, 1736]

5.4.7 FABRIKAZIO-LEKUA, FABRIKATZAILEAREN IZENA, FABRIKAZIO-DATA

5.4.7A Fabrikazio-lekua, fabrikatzailearen izena eta fabrikazio-data transkribatzeko, 1.4.7 paragrafoan ezarritako arauetara jarraituko zaie.

. — [S.l. : s.n., 1938?] (Zaragoza : Ediciones Arribas)

5.5 DESKRIBAPEN FISIKOAREN EREMUA

EREMUAREN ELEMENTUAK

Materialaren tamaina eta izendapen espezifikoak

Bestelako ezaugarri fisikoen aipua

Neurriak

Material gehigarria

5.5.1 ITURRIAK

Ikus 5.0.1B

5.5.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.5.2

5.5.3 MATERIALAREN TAMAINA ETA IZENDAPEN ESPEZIFIKOA

5.5.3A Materialaren izendapen espezifikorako, material honetarako 1.5.3 paragrafoan ezarritako arauetara jarraituko zaie.

5.5.3B Materialaren izendapen espezifikorako, honako termino hauetako bat erabiliko da, aurretik materialaren unitate-kopurua zenbaki arabiarretan adierazita:

Collagea

Marraskia

Marraski teknikoa

Estanpa

Argazkia

Orrirudia

Argazki-negatiboa

Pintura

Afixa

Deskribatu beharreko materialari termino horietako bat ere ez badagokio, ondo datorkion beste bat erabiliko da.

«Orrirudia» terminoa erabiliko da prozesu fotomekanikoen bidez (fototipia, sakongrabitua, offset-a eta abar) lortutako edozein material grafiko izendatzeko.

1 collage

2 mar.

1 est.

4 argk.

3 oir.

1 argazki-negatibo

1 pintura

Nahi izanez gero, aurreko termino horiek beste termino zehatzago batzuekin osa daitezke.

- 5 argk. (posta-txartelak)
- 6 oir. (etiketak)
- 1 oir. (ebakigarria)
- 1 est. (egutegia)
- 1 oir. (kartela)
- 1 oir. (posta-txartela)
- 1 argk. (estereoskopiko pareak)

5.5.3C Material grafikoz osaturiko bildumak deskribatzean, tamaina zehatzago adierazi nahi izanez gero, bilduma osatzen duten zatien kopurua adieraziko da parentesi artean. Kopuru hori bildumaren osagaien kopuru osoa nahiz karpetan, albumean edo liburukian bildutako materialaren kopurua izango da. Datu horiek asko edo korapilatsuak badira, oharretan adieraziko dira.

- 1 karpeta (40 est.)
- 1 album (138 argk.)
- 4 album (60 argk., 2 kartel, 3 oir.)
- 16 est. (10 + 6) : harialderako xilografiak eta harikontrarako xilografiak
- 120 argk. (101 + 19) : zilar-gelatina eta albumina

5.5.3D Tamaina adierazteko, materialaren kopuru zehatza, gutxi gorabeherakoa (asko badira eta kopurua zehaztea nekeza bada) nahiz materiala biltzen duten kutxa, karpeta edo albumen kopurua jarriko da.

- 1 mar.
- 49 est.
- ca. 2.500 argk.
- 1 karpeta
- 5 album

5.5.3E Tamainaren aipuan aukerakoa da euskarria adieraztea. Zentro katalogatzaileak beharrezkoa dela irizten badio, euskarria «lehena» edo «bigarrena» den adieraziko da.

- 2 est. zur gainean
- 1 mar. tanta gardenezko paper gainean
- 1 argk. kortxo gainean
- 1 mar. zur gainean muntatua
- 6 argk. bisita-txartel gainean
- 1 album (80 est. bitela antzeko paper gainean)
- 20 argk. orla litografiatu gainean
- 2 negatibo beira gainean

5.5.4 BESTELAKO EZAUGARRI FISIKOEN AIPUA

5.5.4A Atal honetan, oro har, irudia koloreztaturik, tindaturik edo tonua aldaturik dagoen adieraziko da. Pinturen kasuan, oro har, aipu hori ez da beharrezkoa izaten.

Irudia inprimatu ondoren kolorea eskuz emanda dagoela jakinez gero, datu hori oharretan adieraziko da. Ikus 5.7.4C.

- 1 est. : kol.
- 1 mar. : kol.
- 1 argk. : kol.
- 1 oir. (kartela) : kol.
- 1 collage : kol.
- 1 mar. : lapitz beltza

Bildumetan, dokumentuetako batzuk koloretan direnean, datu hori orokorrean aipatu daiteke edo, bestela, koloretan dauden dokumentuen kopurua adierazi.

- 135 argk. : batzuk kol.
- 39 argk. : 27 kol.

Nahi izanez gero, litografien kasuan, kolore-kopurua adieraz daiteke edo, komenigarria dela ikusten bada, oharretan aipatuko da. Ikus 5.7.4Ad).

- 1 est. : litografia, 2 kol.
- Oharra*
- Beltzean eta marroian estanpatua

5.5.4B Estanpen, marrazkien, argazkien, collageen eta pinturen kasuan, nahitaezkoa da erabilitako prozedura edo teknika adieraztea. Gainerako kasuetan datu hori aukerakoa da.

- 1 est. : ur-bortitza
- 1 mar. : urkolorea
- 1 pintura : olioia
- 1 collage : papera, zura eta artilea
- 1 argk. : paper gazitua
- Aukeran*
- 1 oir. : fototipia

Argazki-negatiboetan, nahi izanez gero, emulsio-mota zehatz daiteke.

- 30 negatibo nitrato gainean : zilar-gelatina
- 7 negatibo beira gainean : kolodioia

Argazki estereoskopikoen kasuan, «erdia» hitza gehituko da beharrezkoa denean.

1 argk. : estereoskopiko erdia

Lan grafikoetan teknika bat baino gehiago erabili denean, nagusia aipatuko da. Euskarria, teknika, prozesua eta formatua adierazteko terminoak nahi den bezala elkar daitezke juntagailuen eta preposizioen bidez.

1 est. : ur-bortitza eta urtinta

Erabili den teknika nagusia zein den jakin ezean, «teknika mistoa» terminoa erabiliko da.

1 est. : teknika mistoa

5.5.5 NEURRIAK

Material grafikoaren kasuan, irudi osoaren edo lan osoaren neurria egoki adierazteko, hainbat neurri eman behar da.

Lehen nahiz bigarren euskarriaren neurriak eman daitezke.

5.5.5A Arau orokor gisa, neurriak luzera bider zabalera emanda adieraziko dira, horretarako, irudia nola biratu behar den hartuko da kontuan. Lehendabizi luzera adieraziko da beti.

1 mar. ; 18×14 cm

1 argk. (posta-txartela) ; 11×15 cm

Lanaren neurriak zentimetrotan adieraziko dira. Zentimetro-frakzioak gorantz biribilduko dira, zentimetro-erdiak edo osoak osatuta. Txirrikan dauden argazki-negatiboen neurriak milimetrotan adieraziko dira. Zentro katalogatzaileak beharrezkoa dela irizten badio, neurriak milimetrotan eman daitezke kasu guztietan.

1 est. ; $8,5 \times 6,5$ cm

1 mar. ; 15×18 cm

1 argk. ; 10×8 cm

1 argazki-negatibo ; 35 mm

5.5.5B Tolesturiko lanetan, lehendabizi, lanek zabalduzko dauzkaten neurriak adieraziko dira eta, ondoren, tolesturik dituztenak, «tol.» laburdura gehituta.

1 est. ; 36×63 cm, tol. 10×20 cm

5.5.5C Irudiak orri bat baino gehiago hartzen badu, orri-multzoaren neurria emango da. Orriak bi baino ez direnean orrion neurria berbera ez bada, orri bien luzera eta zabalera adieraziko da. Bi

baino gehiago badira, luzerarik eta zabalerarik handienak emango dira, ondoren «edo gutxiago» terminoa jarrita.

1 oir. (4 o.) ; neurria guztira 220×120 cm

1 oir. (2 o.) ; 20×20 eta 30×15 cm

1 oir. (5 o.) ; 40×50 cm edo gutxiago

5.5.5D Estanpen kasuan, xaflaren arrastoaren neurria jasoko da, baldin eta halakorik badu. Halakorik ageri ez badu, orriaren neurriak emango dira. Behar izanez gero, neurrien aurretik zer neurtu den adieraz daiteke.

1 est. ; 18×9 cm

1 est. ; xaflaren arrastoa $14,5 \times 12$ cm

1 est. ; o. 30×15 cm

1 est. ; o. 20×15 cm

Oharra

Arrastoa ebakita dago

5.5.5E Euskarrian muntatuta ez dauden argazkietan edo normalizatu gabeko euskarria dutenetan, oro har, oinarritzko euskarriaren neurriak bakarrik adieraziko dira.

1 argk. ; 14×16 cm

Euskarri normalizatua duten argazkietan, euskarri horren neurriak baino ez dira adieraziko.

1 argk. amerikar txartel gainean ; 17×11 cm

Argazki-negatiboetan, emultsioaren oinarriaren neurriak baino ez dira adieraziko.

1 argazki-negatibo ; 35 mm

Dagerrotipoen kasuan xaflaren neurria adieraziko da, zein den jakinez gero.

1 argk. : dagerrotipoa : xafla-bederatzirena ; 7×6 cm

5.5.5F Kasu guztietan, nahi izanez gero, lanak identifikatzeko lagungarri izan daitezkeen beste neurri batzuk eman daitezke, zer neurtu den zehaztuta.

1 est. : ur-bortitza ; xaflaren arrastoa 49×51 cm, 1 o. 68×72 cm

1 argk. ; irudia 7×5 cm, 1 o. 10×8 cm

1 mar. : lapitza eta Txinako tinta ; ir. 13×15 cm, 1 o. 33×42 cm

Irudiak osorik ikusi ezin direnean, euskarria kendu ezin delako edo beste arrazoiren batengatik, ikusten den zatiaren neurriak emango dira eta, nahi izanez gero, euskarriarenak.

1 est. : litografia ; irudiaren ageriko zatia 26×30 cm, euskarria 34×38 cm

1 argk. : dagerrotipoa ; irudiaren ageriko zatia 8×6 cm, kutxatila 12×9 cm

Lanak markoa badu, hura ere lanaren zatitzat hartuko da. Markoaren neurriak bereiz emango dira, markoarenak direla adierazita.

1 pintura : olioia ; irudiaren ageriko zatia 30×34 cm, markoa 47×41 cm

5.5.5G Neurriak irregularrak direnean, kasuan kasu dagokion modura adieraziko da, hau da:

Lanak forma zirkularra badu, diametroa adieraziko da, diametroa dela zehazteko «diam.» laburdura jarrita.

1 est. : mezzotinta ; ir. 6 cm diam.

Lanak forma obalatuia badu, ardatz handia eta txikia adieraziko dira, «obala» hitzaz zehaztuta.

1 est. : urtinta ; ir. obala 7×5 cm

Forma irregularren dimentsioak kalkulatzeko, irudizko laukizuzen batean txertatu eta haren neurriak hartuko dira. Halakoetan, «irreg.» laburdura erabiliko da eta, nahi izanez gero, lanaren forma zehazten duen hitz edo esaldiren bat.

1 collage : argk., egunkari-zatiak, pintura ; irreg., irudi pentagonala 41×36 cm,
1 o. 57×48 cm

5.5.5H Bildumetan neurri desberdineko materialak daudenean, 5.5.5C paragrafoan ezarritako arauari jarraituko zaie.

Karpetetan, albumetan eta abarretan dauden bildumen kasuan, haien kanpoko neurriak emango dira. Lanak, karpetak, albumak eta abar bi neurrikoak badira, biak emango dira. Bi baino gehiagokoak badira, lehendabizi, luzerarik handiena jasoko da, ondoren, zabalerarik handiena eta, ondoren, «edo gutxiago» terminoa.

50 est. : litografia ; 30×24 cm edo gutxiago

1 album (250 argk.) ; 30×40 cm edo gutxiago

3 karpeta (630 oir.) ; 39×33 cm edo gutxiago

Bilduman jasotako materialak kategoria desberdinak (euskarria, formatua, karpeta) hartzen dituztenean deskribapen fisiko ezberdinak bereizi nahi izanez gero, banan-banan adieraziko dira, lan gehien daukanetik hasita.

425 est. : ur-bortitza ; 50×38 cm

65 argk. : paper gazitua ; 25×15 cm

2 karpeta (20 kartel) ; 70×53 cm edo gutxiago

5.5.6 MATERIAL GEHIGARRIA

Ikus 1.5.6

5.6 SERIEAREN EREMUA*EREMUAREN ELEMENTUAK*

Seriearen izenburua

Seriearen pareko izenburuak

Seriearen azpiizenburua edota izenburuari buruzko informazio osagarria

Serieari dagozkion erantzukizunen aipuak

ISSNa (argitalpen seriatuen nazioarteko zenbaki normalizatua)

Seriearen zenbakia

Azpiserieen eta atalen izendapena edota izenburua

Azpiserieen eta atalen pareko izenburuak

Azpiserieen eta atalen azpiizenburua edota izenburuari buruzko informazio osagarria

Azpiserieei eta atalei dagozkien erantzukizunen aipuak

Azpiserieen eta atalen ISSNa

Azpiserieen eta atalen zenbakia

5.6.1 ITURRIAK

Ikus 5.0.1B

5.6.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.6.2

5.6.3 SERIEAREN IZENBURUA

Ikus 1.6.3

5.6.4 SERIEAREN PAREKO IZENBURUA

Ikus 1.6.4

5.6.5 SERIEAREN AZPIIZENBURUA EDOTA IZENBURUARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA

Ikus 1.6.5

5.6.6 SERIEARI DAGOZKION ERANTZUKIZUNEN AIPUAK

Ikus 1.6.6

5.6.7 ISSN-A (ARGITALPEN SERIATUEN NAZIOARTEKO ZENBAKI NORMALIZATUA)

Ikus 1.6.7

5.6.8 SERIEAREN ZENBAKIA

Ikus 1.6.8

5.6.9 AZPISERIEEN ETA ATALEN IZENDAPENA EDOTA IZENBURUA

Ikus 1.6.9

5.6.10 AZPISERIEEN ETA ATALEN PAREKO IZENBURUAK

Ikus 1.6.10

5.6.11 AZPISERIEEN ETA ATALEN AZPIIZENBURUA EDOTA IZENBURUARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA

Ikus 1.6.11

5.6.12 AZPISERIEEI ETA ATALEI DAGOZKIEN ERANTZUKIZUNEN AIPUAK

Ikus 1.6.12

5.6.13 AZPISERIEEN ETA ATALEN ISSN-A

Ikus 1.6.13

5.6.14 AZPISERIEEN ETA ATALEN ZENBAKIA

Ikus 1.6.14

5.6.15 SERIE BAT BAINO GEHIAGO

Ikus 1.6.15

5.7 OHARREN EREMUA**5.7.1 ITURRIAK**

Ikus 5.01B

5.7.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.7.2

5.7.3 OHARREN ZER-NOLAKOAK

5.7.3A Oharren zer-nolakoei dagokienez, 1.7.3 paragrafoan ezarritako araei jarraituko zaie.

5.7.4 OHARREN HURRENKERA**5.7.4A Eremu jakin bateko informazioa osatzen duten oharrak**

5.7.4Aa) Izenburuaren eta erantzukizunaren aipuaren eremua

Lehenik eta behin, izenburuari buruzko oharrak adieraziko dira: lehendabizi itzulpenaren oharra (ikus 1.7.4Aa) eta, ondoren, dokumentuan nahiz beste iturri batzuetan azaltzen diren izenburu-aldaerak.

Jat. izenb.:

Honen itzulpena:

Markoko inskripzioaren izenb.:

Eskuz idatzitako izenb. ifrentzuan:

Izenb. aldatuta 3. eta 7. zk.

Estanpako izenb.: DÍA 24 DE AGOSTO DE 1808. PROCLAMACIÓN DE FERNANDO VII, en la plaza mayor de Madrid

Irudia ere beste izenb. batzuekin argitaratu da

Bigarrenik, pareko izenburuei, azpiizenburuei eta dokumentuaren nolakoari, zertarakoari, molde literarioari eta hizkuntzari buruzko oharrek egingo dira.

Azkenik, erantzukizunaren aipuari dagozkion oharrek adieraziko dira. Ohar horietan informazio hau jaso daiteke:

— Erantzukizunaren aipuan azaltzen diren pertsonen edo korporazioen beste izen edo izen-aldaera batzuk, baldin eta lana identifikatzeko garrantzitsuak direla ikusten bada.

— Izenburuaren eta erantzukizunaren aipuaren eremuan jaso ez diren erantzukizunen aipuak.

— Dokumentuarekin erlazionatutako pertsonen eta korporazioen izenak, baldin eta deskribapenean lehenago aipatuta ez badaude.

Ustezko egilea:

Dohaintza-emailearen aburuz ustezko egilea:

Hainbat iturritan ustezko egiletzat hartu da ...

Lanean azaltzen diren sinadurak, zeinuak, monogramak eta abar izenburuaren eta erantzukizunaren aipuaren eremuan adierazi ez badira, eremu horretan dokumentuan ageri den baliokide bat jaso delako, oharretan transkribatuko dira.

Lana beheko aldean sinatua:

Behealdean sinatua, oholtxo batean:

Lanean eskuz idatzita ageri diren izenburuak, datak eta bestelako inskripzioak oharretan jaso daitezke. Antzinako material grafiko argitaratuaren eta argazkien kasuan, inskripzio horiek aleari buruzko ohar batean transkribatuko dira. (Ikus 5.7.4C).

Artistak sinatua, harri gainean eta arkatzez

Xaflaren beheko aldean sinatua eta inizialak lapitzez arrasto markaren azpian

Jatorrizko lanaren egilearen izena jakinez gero, adierazi egingo da. Deskribatzen den lana eta jatorrizkoa berdin-berdinak badira, «honen kopia» terminoa erabiliko da eta aldaketaren bat egin bada, «honetan oinarrituta».

Honen kopia: Santa Isabel de Hungría curando a un tiñoso de Murillo

Honetan oinarrituta: La Virgen Niña en oración de Francisco de Zurbarán

5.7.4Ab) Edizioaren eta historia bibliografikoaren eremua

Ikus 1.7.4Ab)

Edizioaren egoera eta ale-kopurua jasoko dira.

1. egoera-proba
2. egoera
- 50 aleko botaldia

Garrantzitsua irudituz gero, lanaren aurreko eta ondorengo argitalpenari buruzko oharrek egingo dira, bai eta materialaren bestelako erabilerei buruzkoak ere.

Fotograbatu gisa argitaratutako alea lan honetan:

Honen azal gisa argitaratua:

Honen edizio berrinprimatua:

5.7.4Ac) Argitalpenaren eta banaketaren eremua

Argitalpenaren, banaketaren, inprimaketaren eta egikeraren inguruko datuak bakoitzari dago-kion eremuan adierazi ez badira, eta garrantzitsuak direla uste bada, oharretan emango dira.

8-10 xaflek beste argitaratzaile bat dute

Material grafiko argitaragabeen, non eginda dagoen adieraz daiteke oharretan, datu hori dokumentuan bertan azalduz gero edo erreferentzia-iturrien bidez jakinez gero.

Lan grafikoa karpeta edo liburuki argitaratu baten zatia bada edo izan bada, lanaren ezaugarrien deskribapenean dagokion karpeta edo liburukiari egingo zaio erreferentzia. Horretarako, sarrera gisako esaldi normalizatuak erabiliko dira, hala nola, «honen atari grabatua», «honen frontispizioa» eta «honen atarian», «honen il.». Esaldien ondoren bi puntu idatziko dira.

Honen at. grab.: Historia de Nuestra Señora de Guadalupe / fray Grabiél de Talavera. Toledo : casa de Juan Guzmán, 1597

Estanpak edo argazkiak jatorrizkoan argitalpen baten zati gisa argitaratu badira eta geroago bereiz argitaratu badira, oharretan emango da horren berri.

5.7.4Ad) Deskribapen fisikoaren eta material gehigarriaren eremua

Deskribapen fisikoaren eremuan eman gabe dauden eta edizioaren ale guztiei dagozkien ezau-garri fisiko garrantzitsuak oharretan adieraziko dira.

Deskribapen fisikoari dagozkion datuak konplexuak direlako eremu horretan jaso ezin direnean, oharretan emango dira.

Liburuxkak, argazki-negatiboen kopiak, iragarkiak, egunkari-zatiak, collageak eta abar barne

Koloreztatzeari buruzko oharra egingo da baldin eta jatorrizko irudia argitaratu ondoren eskuz koloreztatuta badago (ikus 5.5.4). Beharrezkoa dela iritziz gero, material grafikoan zenbat kolore erabili den adieraziko da.

1 est. : eskuz koloreztatua ; 20×30 cm

Oharra

Eskuz koloreztatua XX. mendean

1 est. : litografia, 2 kol. ; 16×20 cm

Oharra

Beltzean eta marroian estanpatua

Eskala ere jaso daiteke beharrezkoa dela ikusten bada (arkitekturako marrazkietan edo grabatuetan eta abarretan).

2 cm-ko eskala grafikoa

Beharrezkoa dela iritziz gero, ur-markak, fabrikaren edo lantegiaren markak eta abar ere adieraz daitezke.

Material gehigarriari buruzko oharrak bukaeran jasoko dira.

50 est. : xilografia ; 20×18 cm + 1 album

Oharra

Albumak ex librisa darama atariaurrean

5.7.4Ae) Seriearen eremua

Serieak bi est. ditu

5.7.4B Eremu jakin bati lotuta ez dauden oharrak

5.7.4Ba) Edukiari buruzko oharrak

1.7.4Bd) paragrafoan ezarritakoari jarraituko zaio.

Barruan du: Errege familiaren 150 argk.

Edukia: Malagako bista portutik ikusita — Malagako bista San Andresko hondartzetatik

Bi irudi edo gehiago bereiz deskribatzerakoan, irudi bakoitzak bere izenburua duen kasuetan eta euskarri bakarrean edo batera azaleztatuta nahiz euskarri berari erantsita daudenean, irudi bakoitza deskribatzerakoan gainerakoei buruzko oharra egingo dira, oharren aurretik sarrera-esaldi hauek idatzita: «hauekin batera estanpatuta» edo «beste batzuekin batera euskarri berean».

Nuestra Señora de los Angeles : Mesones de Isuela (Arciprestazgo de Illueca)...
— [S.l. : s.n., 19- -]

1 oir. ; 17 × 12 cm

Ifrentzuan hauekin batera estanpatuta: Nuestra Señora de Cabañas : La Almunia de doña Godina (Arciprestazgo de La Almunia)

5.7.4Bb) Erreferentziako oharra

Lanaren edo bildumaren deskribapen zehatzagoak azaltzen dituzten iturriak laburtuta adieraziko dira. Lehenik, dokumentua aipatzen duen katalogoaren egilearen izena adieraziko da; ondoren, liburukia; honen ondoren, aipamena ageri den orrialdearen eta erreferentziaren zenbakia; eta azkenik, parentesi artean, alearen egoerari, edizioari eta bestelakoei buruz katalogoan azaltzen diren oharra.

Erreferentzia: Hollstein, III. libk., 110 or.

Erreferentzia: Bartsch, 16. libk., 366

5.7.4Bc) Lanaren deskribapena

Nahi izanez gero, interesgarria dela ikusten bada, eremu honetan lan grafikoaren deskribapena egin daiteke, aurretik «deskribapena» eta bi puntu jarrita.

Deskribapena: figuraren 2/3. Armadura. Eskuineko eskuan agente-makila; ezkerreko eskua ondoko mutilaren sorbaldan

Bildumen kasuan, bilduma osatzen duten zatien zerrenda jaso daiteke, zerrendan data edo denboraldiak, gairik garrantzitsuenak, gertaerak, pertsonak, lekuak eta abar adierazita.

5.7.4Bd) Hurrenkera

Bilduma baten hurrenkera orokorra esplizituki adierazita ez dagoenean, ohar batean zehaztu daiteke bildumako materialaren egitura eta antolamendua.

Kronologikoki ordenatuta

5.7.4Be) Dokumentuan azaltzen diren zenbakiak edo letrak

Beharrezkoa irudituz gero, lanean azaltzen diren zenbakiak —hala nola argazkien negatiboei edo bildumagileei dagozkienak— oharretan jaso daitezke, baldin eta deskribapen bibliografikoaren eremuetan jaso ez badira.

5.7.4Bf) Gehitutako materialari buruzko oharra

Jadanik katalogatuta dagoen bilduma bati gehitutako lan bat bereiz erregistratzen denean, gehiketa horri buruzko ohar bat egingo da.

Honi gehitua:

5.7.4C Aleari buruzko oharrak

5.7.4Ca) Jatorria

Garrantzitsua irudituz gero, material grafikoaren jabe izan diren pertsonak edo korporazioak aipa daitezke oharretan. Nahi bada, jabe bakoitzaren esku egon den urtea edo urteak ere gehitu daitezke. Datu horien sarrera gisa «jatorria» eta bi puntu jar *daiteke*.

Jatorria eta eskuratzeko bidea (ikus 5.7.4Cb) bat badatoz, ez da jatorriari buruzko oharririk egingo eta informazio hori eskuratzeko bideari buruzko oharrean jasoko da.

Aurreko jabeen markak identifikatzeko, ikus «Les marques de collections de dessins et d'estampes», F. Lugt, Amsterdam, 1921, eta gehigarriak.

5.7.4Cb) Eskuratzeko bidea

Ohar honetan material grafikoa nola eskuratu den jasoko da (erosketa, trukea, dohaintza eta abar). Materiala erosi egin bada, ez da beharrezkoa datu hori adieraztea. Ohar honetan sarrera-data gehitu daiteke eta, nahi izanez gero, erregistro-zenbakia, dohaintza-emailea eta jatorria ere bai. Eskuratzeko bidea zein den jakin ezean, datu hori ere adieraz daiteke.

Erosketa, 1951-1952

Dohaintza anonimoa, 1984

Jatorri ezezaguna

5.7.4Cc) Alearen zenbakia

Aleak edizioan duen zenbakia dokumentuan azaltzen denean, adierazi egingo da.

450. alea

50 aleko botaldiko 3.a

5.7.4Cd) Egoera fisikoa

Dokumentuaren egoera fisikoari eta inprimaketaren kalitateari buruzko informazioa eman daiteke. Lanak izan dituen zaharberitze-lan garrantzitsuak ere adieraz daitezke.

Beheko ertzean urratua dago

Mar. oso hondatua

Ondo inprimatua
1980an zaharberritua

5.7.4Ce) Seriearen egoera

Ohar hau serieak osatu gabe daudenean emango da.
Serie osatugabea
Serie osatugabea: 5. eta 8. zenbakiak falta dira

5.7.4Cf) Jatorrizko lanetik bereizi den material grafikoa

Lan baten barruan argitaratutako estampak eta argazkiak gerora lan horretatik bereizi badira, honako hauek erabiliko dira:

Honetatik berezitate est.: ...
Honetatik berezitate argk.: ...

5.7.4Cg) Eskuratzeko, erabiltzeko eta kopiaitzeko baldintzak

Material grafikoa eskuratzeko, erabiltzeko edo kopiaitzeko baldintzekin zerikusia duen guztia oharretan jasoko da.

Mugatua: oso material hauskorra

5.7.4Ch) Bestelako oharra

Katalogatu beharreko aleari buruz aurreko oharretan jaso ez diren berezitasun guztiak adieraziko dira.

Marrazkien, pinturen eta abarren kopien kasuan, jatorrizko lana non dagoen eta zer neurri duen adieraz daiteke, informazio hori edukiz gero.

5.8 ZENBAKI NORMALIZATUAREN ETA ESKURATZE-BALDINTZEN EREMUA

EREMUAREN ELEMENTUAK

ISBNa (nazioarteko zenbaki normalizatua)

Gako-izenburua

Eskuratzeko baldintzak eta/edo prezioa

5.8.1 ITURRIAK

Ikus 5.0.1B

5.8.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.8.2

5.8.3 ISBN-A

Ikus 1.8.3

5.8.4 GAKO-IZENBURUA

5.8.4A Gako-izenburua transkribatzeko, 1.8.4 paragrafoan ezarritako araei jarraituko zaie.

5.8.5 ESKURATZE-BALDINTZAK ETA/EDO PREZIOA

Ikus 1.8.5

5.8.6 ISBN BAT BAINO GEHIAGO

Ikus 1.8.6

5.9 UNITATE FISIKO BAT BAINO GEHIAGO DUEN MATERIAL GRAFIKOA

Ikus 1.9

5.10 ANTZINAKO MATERIAL GRAFIKOA

 Casablanca
 Ke arteko egunak
 Aupa Kintxo!
 Zergatik panpox
 Itsasoek bizi nahi dute
 Azkeneko tangoa Parisen
 Munchausen baroiaren abenturak
 Bihotz ondoko sekretuak
 Haur lehoia
 Aupa Etxebeste!

10.1.3B Izenburu nagusirik gabeko dokumentuak

Filmek edo bideo-grabazioek informazio-iturrietan izenbururik azaltzen ez dutenean edota informazio-iturririk ez dutenean, izenburua jartzeko, 1.1.3J arauari jarraituko zaio.

Publizitate-filmetan, iragarritako produktuaren izen komertziala edo gomendatutako jardueraren izena hartuko da izenburu nagusirako. Izenburu hori taket artean idatziko da izenburuaren ondoren «publizitatea» terminoa azpiizenburu gisa jarrita.

[Museo del Prado : publicidad]

[Vinos españoles : publicidad]

[Segurtasuna errepideetan : publicitatea]

Albistegiak direnean, dokumentuan jasotako ekitaldia identifikatzeko beharrezko diren elementu guztiak gehituko zaizkio ohiko izenburuari (esaterako, lekua, ekitaldiaren eguna, filmazioaren eguna, baldin eta ekitaldikoarekin bat ez badator, bertaratutako pertsona ospetsuak eta abar).

[Acto inaugural del Planetario de Madrid con asistencia de sus majestades los Reyes, 29 septiembre 1986]

Arau hori erabiliko da argitaragabeko materialen edo artxiboko materialen deskribapenean, bai eta film edo bideo-grabazio osoak eratzen ez dituzten fotograma-serieen deskribapenean ere.

Nahi izanez gero, ohar bat egin daiteke ekitaldiaren laburpen txiki bat eta iraupena azaltzeko.

10.1.4 DOKUMENTU-MOTAREN IZENDAPEN OROKORRA

10.1.4A Dokumentu-motaren izendapen orokorrerako, 1.1.4 paragrafoan ezarritako araei jarraituko zaie.

Izendapen orokorra beharrezkoa dela irudituz gero, film zinematografikoetarako «filma» terminoa erabiliko da eta bideo-grabazioetarako «bideoa» terminoa.

Abertzaletasunak 100 urte [Bideoa] : Gernikako seme-alabak

Ehun metro [Filma]

Hamaseigarrenean aidanez [Filma]

10.1.5 PAREKO IZENBURUAK

10.1.5A Pareko izenburuak transkribatzeko, 1.1.5 paragrafoan ezarritako araei jarraituko zaie.

Bainua : autobabeserako aholku erabilgarriak = Baño : consejos prácticos de autoprotección

Crónica de la guerra carlista = Karlistadaren kronika : (1872-1876)

La jungla del asfalto = The asphalt jungla

Antzerkia Euskal Herrian = El teatro en el País Vasco

La pelota vasca : la piel contra la piedra = Euskal pilota : larrua harriaren kontra

10.1.6 AZPIIZENBURUA EDOTA IZENBURUARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA

10.1.6A Azpiizenburua eta abar transkribatzeko, 1.1.6 paragrafoan ezarritako araei jarraituko zaie.

Lurrunezko trenak : mundua aldatu zuen asmaketa

Nire ama sorgina : ez iezaiozu aterik ireki ondo gertatu aurretik

Biziaren jatorria eta eboluzioa : Lurraren konkista

Elkarbizitza : jokabideak eta jarrerak

Euskal Herria joan-jinean : ustegabeko bidaia Euskal Herriaren bihotzean

10.1.6B Dokumentua bada lan luze baten zatiak biltzen dituen lagin bat, lan osoa iragartzeko erabiliko dena, «aurrerakina» terminoa gehituko da taket artean, izenburuari buruzko informazio osagarri gisa.

Memorias de África : [aurrerakina]

10.1.7 ERANTZUKIZUNAREN AIPUA

10.1.7A Filmen eta bideo-grabazioen erantzukizunaren aipuan, informazio-iturri nagusian azaltzen diren pertsona edo erakundeen artean ekoizpeneko edo errealizazioko lanetan garrantzitsu izan direnak edota zentro katalogatzaileak aipagarritzat jotzen dituenak jasoko dira. Eremu honetan jasotzen ez badira ekoizpen-lanetan parte hartu dutenen erantzukizunen aipuak oharretan jasoko dira baldin eta aipatzekoak badira. Ikus 10.7.4Aa).

Erantzukizunen aipuak transkribatzeko, 1.1.7 paragrafoan ezarritako arauari jarraituko zaie.

100 metro / produktore exekutiboa, Jesús Acín Urzainki ; zuzendaria, Alfonso Ungria ; zuzendari laguntzailea, José Ramos Paino ; produkzio zuzendaria, José Luis García Arrojo ; argazki zuzendaria, Angel Luis Fernández ; dekorazioa, Joseba Garmendia ; muntatzailea, Juan García Caffi ; gidoia, Alfonso Ungria

Bagdadeko lapurra / musikagilea, Robert Folk ; kantak, Robert Folk eta Norman Gimbel ; ekoizle exekutiboa, Jake Eberts ; gidoia, Richard Williams eta Margaret French ; ekoizleak, Imogen Sutton eta Richard Williams ; zuzendaria, Richard Williams

La noche más larga / una película de José Luis García Sánchez ; guión, Carmen Rico Godoy, Manuel Gutiérrez Aragón, José Luis García Sánchez ; fotografía, Fernando Arribas ; música, Alejandro Massó

Euskal Herri-musika / Fernando Larrukert-ek zuzendua ; produkzioa, Lankor-Lamia 1978 ; gidoia, Fernando Larruquert, Jose Angel Rebolledo, Javier Aguirresarobe ; laguntzaile orokorra, Jose Angel Rebolledo ; argazkia, Javier Aguirresarobe ; musika herrikoia

Food : green grow the profits / ABC News ; producer and writer, James Benjamin ; director, Al Niggemeyer

Kalabaza tripontzia / dirección, Juanba Berasategi ; guión, Koldo Izagirre ; director de producción, Luis Goya ; música, Oskorri ; diseño de personajes, Angel Lopetegui, Pedro Sestelo, Angel G. Espinosa, Carlos Varela, Juan L. Landa, Juan R. Arretxe

10.1.7B Informazio-iturri nagusian batera azaltzen bada lana nork ekoiztu duen eta norentzat ekoiztu den, biak jasoko dira, informazio-iturrian ageri diren hurrenkeran.

10.1.7C Film eta bideo-grabazioen kasuan, izenburu orokorrik gabeko hainbat lan biltzen direnean, bakoitzak bere izenburua duen modurik, bi modutara deskriba *daitezke*: denak lan bakartzat hartuta, 1.1.7N paragrafoan ezarritakoaren arabera, edo lan bakoitza banaka hartuta. Azken kasu horretan, lan bakoitzaren deskribapenean gainerako lanen erreferentzia egingo da ohar baten bidez. Kasu bakoitzean tamaina nola adierazi behar den jakiteko, ikus 10.5.3C.

10.2 EDIZIOAREN EREMUA*EREMUAREN ELEMENTUAK*

Edizioaren aipua

Pareko edizioaren aipua

Edizioari dagozkion erantzukizunen aipuak

Edizioaren beste aipua

Edizioaren beste aipuari dagozkion erantzukizunen aipuak

10.2.1 ITURRIAK

Ikus 10.0.1B

10.2.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.2.2

10.2.3 EDIZIOAREN AIPUA

10.2.3A Edizioaren aipua 1.2.3 paragrafoan ezarritako arauen arabera jasoko da.

- . — 3. argit.
- . — Euskarazko ed.
- . — 3^a ed.

10.2.4 PAREKO EDIZIOAREN AIPUA

Ikus 1.2.4

10.2.5 EDIZIOARI DAGOZKION ERANTZUKIZUNEN AIPUAK

Ikus 1.2.5

10.2.6 EDIZIOAREN BESTE AIPUA

Ikus 1.2.6

10.2.7 EDIZIOAREN BESTE AIPUARI DAGOZKION ERANTZUKIZUNEN AIPUAK

Ikus 1.2.7

10.2.8 IZENBURU OROKORRIK GABEKO LANEN BILDUMAK

10.2.8A Izenburu orokorrik ez izanik, bakoitzak bere edizioaren aipua duen lanen bildumen deskribapenerako, ikus 1.2.8.

10.2.9 UNITATE FISIKO BAT BAINO GEHIAGO DUTEN LANAK, ZENBAIT EDIZIOTAN EMANAK

10.2.9A Unitate fisiko bat baino gehiago, edizio bi edo gehiagotan emanak, dituzten lanen deskribapenerako, 1.2.9 paragrafoan ezarritako arauari jarraituko zaie.

10.3 DOKUMENTU-MOTAREN DATU ESPEZIFIKOEN EREMUA

Eremu hau erabiliko da filmak edo bideo-grabazioak argitalpen seriatuak diren kasuetan. Ikus 12.3.

NO-DO : noticiarios y documentales cinematográficos.

— Noticiario n. 1 — Noticiario n. 1.976

10.4 ARGITALPENAREN, BANAKETAREN ETA ABARREN EREMUA*EREMUAREN ELEMENTUAK*

Argitaralekua eta *banaketa-lekua*

Argitaratzailearen eta *banatzailearen izena*

Banatzaile-funtzioaren aipua

Argitalpen-data eta *banaketa-data*

Fabrikazio-lekua, fabrikatzailearen izena, fabrikazio-data

10.4.1 ITURRIAK

Ikus 10.0.1B

10.4.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.4.2

10.4.3 ARGITARALEKUA

Ikus 1.4.3

Argitaratu gabeko film eta bideo-grabazioen kasuan, elementu hau jaso gabe utziko da, «s.l.» laburdura erabili beharrik gabe.

10.4.4 ARGITARATZAILEAREN IZENA

10.4.4A Argitaratzailearen edota ekoizlearen izena jasotzeko, 1.4.4 paragrafoan ezarritako araei jarraituko zaie.

Vitoria-Gasteiz : Lavender films, 1989

[Donostia] : Euskadiko Filmatagia = Filmoteca vasca, 1988

Argitaratu gabeko film edo bideo-grabazioen kasuan, jaso gabe utziko dira argitaratzailearen eta abarren izenak, «s.n.» laburdura erabili beharrik gabe.

10.4.4B Eremu honetan jasoko dira erantzukizunaren aipuaren eremuan jaso ez diren argitaratzailearen eta/edo ekoizlearen edo ekoizpen-etxearen aipuak.

10.4.4C Eremu honetarako informazio-iturrietan banatzaile baten izena baino ez bada azaltzen, banatzailea argitaratzailetzat hartuko da. Argitaratzaileak edo ekoizpen-etxeak eta banatzaileak batera ageri badira, banatzaileen izenak ere jaso *daitezke*.

Pamplona : Movies Distribución

Madrid : Producciones de Vídeo Pedagógico ; distribución, Vídeo Docente

Donostia : Tinko Euskara Elkarte [banatzailea], [1992?]

Madrid : editado y distribuido por Polygram Ibérica

[Donostia] : Near, S. A. (ekoiztetxea) : Amets Liburuak (banatzailea), 1999

10.4.4D Dokumentuaren banatzaileak bi edo gehiago direnean, zentro katalogatzailearen herrialdeari dagokiona baino ez da hartuko, aurretik herrialdearen izena jarrita.

10.4.5 BANATZAILE-FUNTZIOAREN AIPUA

Ikus 1.4.5

10.4.6 ARGITALPEN-DATA

10.4.6A Argitalpen-data transkribatzeko, 1.4.6 paragrafoan ezarritako araei jarraituko zaie.

10.4.6B Argitalpenaren eta banaketaren datak bat ez badatoz, data bakoitzaren aurretik dagoen funtzioaren izena jarriko da.

10.4.6C Jatorrizko ekoizpen-data eta argitalpenaren, banaketaren eta abarren data bat ez badatoz, jatorrizko ekoizpen-data oharretan jaso *daiteke*.

10.4.7 FABRIKAZIO-LEKUA, FABRIKATZAILEAREN IZENA, FABRIKAZIO-DATA

10.4.7A Fabrikazio-lekua, fabrikatzailearen izena eta fabrikazio-data jaso egingo dira, baldin eta argitaralekua eta argitaratzailea zein diren ez badakigu; horretarako 1.4.7 paragrafoan ezarritako arauei jarraituko zaie.

10.4.7B Fabrikazio-lekua, fabrikatzailearen izena eta fabrikazio-data jaso egin *daitezke*, argitaralekuarekin, argitaratzailearen izenarekin eta argitalpen-datarekin bat ez datozenean, betiere dokumentuan azaltzen badira eta zentro katalogatzaileak aipagarri direla irizten badio.

10.5 DESKRIBAPEN FISIKOAREN EREMUA

EREMUAREN ELEMENTUAK

Materialaren tamaina eta izendapen espezifikoa

Bestelako ezaugarri fisikoen aipua

Neurriak

Material gehigarria

10.5.1 ITURRIAK

Ikus 10.0.1B

10.5.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.5.2

10.5.3 MATERIALAREN TAMAINA ETA IZENDAPEN ESPEZIFIKOA

10.5.3A Materialaren tamaina jasotzeko, 1.5.3A aruari jarraituko zaio.

10.5.3B Materialaren izendapen espezifikoa egiteko, honako termino hauek erabiliko dira, deskribatzen ari garen dokumentuari dagokionaren arabera:

FILMA	BIDEOA
Biribilkia	Zinta
Kartutxoa	Kartutxoa
Kasetea	Kasetea
Amaierarik gabeko filma	Diskoa

Izenburuaren eta erantzukizunaren aipuaren eremuan dokumentu-motaren izendapen orokorra adierazi ez bada, izendapen espezifikoa adierazten duen terminoari gehituko zaio, kasuan kasu dagokionaren arabera «filma» edo «bideoa» terminoak jarrita.

- 1 film-kartutxo
- 2 bideo-disko
- 1 bideokasete

Bideo-grabazioen deskribapenean, materialaren izendapen espezifikoa adierazten duen terminoari marka komertziala edo bestelako zehaztapen teknikoak gehitu *dakizkiok*e parentesi artean, baldin eta informazio hori bideo-grabazioa erabiltzeko beharrezkoa bada. Zehaztasun horiek eremu honetan adierazi ezean, oharretan jasoko dira.

- 1 bideokasete (VHS)
- 1 bideo-disko (CLV)

10.5.3C Tamainarekin batera proiektzioaren iraupenari buruzko datuak jasoko dira. Horretarako, dokumentuan zehazten den iraupen osoa minututan adieraziko da. Iraupena bost minutu baino gutxiagokoa bada, minutuak eta segundoak adieraziko dira.

- 10 film-biribilki (150 min)
- 2 bideokasete (VHS) (60 min)
- 1 amaierarik gabeko film (3 min 30 s)

Dokumentuan iraupenaren berri ematen ez denean, gutxi gorabeherako denbora adieraziko da, betiere erraz jakiterik badago.

- 1 bideo-disko (CAV) (ca. 20 min)

Dokumentuak unitate fisiko bat baino gehiago duen kasuetan, unitate bakoitzaren iraupena zehazten bada, dokumentu osoaren iraupenaren ordez, unitate fisiko bakoitzaren iraupena adieraz *daiteke*.

2 bideokasete (U-Matic) (60, 65 min)

edo

2 bideokasete (U-Matic) (125 min)

Unitate fisiko bat baino gehiago duten dokumentuetan, unitate guztiek iraupen berbera badute, iraupenaren ondoren «bakoitzak» terminoa jar *daiteke*.

2 film-biribilki (50 min bakoitzak)

3 bideo-disko (ca. 35 min bakoitzak)

Dokumentuan bildutako lan bereizi bakoitzaren iraupena, baldin eta dokumentuan bertan zehaztuta badago, oharretan jasoko da; *nahi izanez gero*, edukiari buruzko oharrarekin batera. Hala eginez gero, iraupen osoa deskribapen fisikoaren eremuan jaso gabe utz *daiteke*.

Dokumentuan izenburu orokorrik gabeko zenbait lan biltzen diren kasuetan, lan horietako bakoitza bereiz deskribatzerakoan, honako esapide hauek erabiliko dira tamaina adierazteko: «... biribilkitatik (kasetetatik, edo dena delakotik) ...garren biribilkian (edo dena delakoan)» (unitate fisiko guztiak sekuentzia bakarrean zenbakituta badaude), edo «... biribilkitatik (kasetetatik, edo dena delakotik) biribilki (edo dena delako) 1ean» (hurrenez hurreneko zenbaketarik ez badute).

5 bideokasetetatik 2. kasetean (20 min)

3 film-biribilkitatik biribilki 1ean (50 min)

Filmetan, *nahi izanez gero*, zintaren luzera gehitu daiteke.

1 film-biribilki (22 min, 577 m)

10.5.4 BESTELAKO EZAUGARRI FISIKOEN AIPUA

Honako ezaugarri fisiko hauek adieraziko dira hurrenkera honetan:

Materiala

Proiektzioaren ezaugarri bereziak (filmak direnean)

Soinuaren ezaugarriak

Kolorea

Proiektzioaren abiadura (filmak direnean)

Abiadura (bira minutuko) bideo-diskoak direnean

Materiala adieraztea proiektzio-tresneria berezia behar denean bakarrik izango da nahitaezkoa.

1 film-biribilki (60 min) : nitratoa

10.5.4A Proiekzioen ezaugarri bereziak

Filmen kasuan, proiektatzeko baldintza bereziak behar dituztenean, adierazi egingo dira ahalik eta laburren (esaterako, Cinerama, Panavision eta abar, anamorfikoa, teknieskopikoa, estereoskopikoa nahiz pantaila anizkuna).

13 film-biribilki (150 min) : Cinerama

10.5.4B Soinuaren ezaugarriak

Soinu-bandarik dagoen ala ez adieraziko da «soinuduna» edo «mutua» hitzen bidez. Film mutuak film soinudunen abiaduran filmatu direnean, ezaugarri hori adierazi egingo da, «mutua soinudunaren abiaduran» adierazpidearen bidez.

2 film-biribilki (95 min) : Panavisión, soinuduna

1 film-biribilki (80 min) : mutua soinudunaren abiaduran

1 bideokasete (Beta) (50 min) : soinuduna

10.5.4C Kolorea

Kolorea adierazteko, «z.-b.» edo «kol.» laburdurak erabiliko dira. Sepian inprimatuta daudenak zuri-beltzean baleude bezala deskribatuko dira.

13 film-biribilki (150 min) : Cinemascope, soinuduna, kol.

Filmean edo bideo-grabazioan zuri-beltzezko eszenak eta kolorezkoak daudenean, ezaugarri hori adierazi egingo da labur-labur.

13 film-biribilki (150 min) : Cinemascope, soinuduna, kol. z.-b.-ko eszenekin

Kolorearen aipuaren ondoren, erabilitako teknikaren inguruko terminoak jar *daitezke* parentesi artean.

1 biribilki (30 min) : kol. (Eastmancolor)

10.5.4D Abiadura

Filmen deskribapenean, proiektzioaren abiadura adieraz *daiteke* fotograma segundokotan (f/s), informazio hori interesgarria dela irudituz gero.

13 film-biribilki (150 min) : Cinerama, soinuduna, kol., 25 f/s

Proiektzioaren abiadura estandarra denean (24 f/s soinudun filmetan eta 16 mutuetan), ez da abiadurarik adieraziko.

Bideo-diskoen kasuan, bira minutuko kopurua (b/min) aipa *daiteke*.

2 bideo-disko (60 min) : soinuduna, kol., 1.500 b/min

10.5.5 NEURRIAK

10.5.5A Filmetan, zintaren zabalera adieraziko da milimetrotan. Zintaren zabalera 8 milimetrokoa denean, sinplea, estandarra, superra edo Maurer den zehaztuko da.

2 film-biribilki (24 min) : soinuduna, kol. ; 16 mm

1 film-biribilki (20 min) : mutua, z.-b. ; 8 mm estandarra

10.5.5B Bideokaseteen kasuan, neurria estandarra (13 mm) ez denean, zabalera adieraziko da milimetrotan.

1 bideo-zinta (30 min) : soinuduna, kol.

1 bideokasete (Beta) (60 min) : soinuduna, kol.

10.5.5C Bideo-diskoen kasuan, diametroaren luzera adieraziko da zentimetrotan.

2 bideo-disko (60 min) : soinuduna, kol., 1.500 b/min ; 20 cm

10.5.5D Filmak edo bideo-grabazioak neurri desberdineko unitateak baditu, neurririk handiena eta txikiena adieraziko dira, neurriok marratxo batez berezita.

2 biribilki (ca. 25 min bakoitzak) : soinuduna, kol. ; 16-35 mm

10.5.6 MATERIAL GEHIGARRIA

Deskribatu beharreko dokumentuaren material gehigarria zein motatakoa den adieraziko da eta, *nahi izanez gero*, deskribapen fisikoa ere bai, horretarako, 1.5.6 paragrafoan ezarritako arauak jarraiki.

1 film-biribilki (25 min) : mutua, z.-b. ; 8 mm super + 1 liburuxka (15 or. ; 18 cm)

1 bideokasete (VHS) (3 min) : soinuduna, kol. + 1 kasete

10.6 SERIEAREN EREMUA

EREMUAREN ELEMENTUAK

Seriearen izenburua

Seriearen pareko izenburuak

Seriearen azpiizenburua edota izenburuari buruzko informazio osagarria

Serieari dagozkion erantzukizunen aipuak

ISSNa (argitalpen seriatuen nazioarteko zenbaki normalizatua)

Seriearen zenbakia

Azpiserieen eta atalen izendapena edota izenburua

Azpiserieen eta atalen pareko izenburuak

Azpiserieen eta atalen azpiizenburua edota izenburuari buruzko informazio osagarria

Azpiserieei eta atalei dagozkien erantzukizunen aipuak

Azpiserieen eta atalen ISSNa

Azpiserieen eta atalen zenbakia

10.6.1 ITURRIAK

Ikus 10.0.1B

10.6.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.6.2

10.6.3 SERIEAREN IZENBURUA

Ikus 1.6.3

10.6.4 SERIEAREN PAREKO IZENBURUAK

Ikus 1.6.4

10.6.5 SERIEAREN AZPIIZENBURUA EDOTA IZENBURUARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA

Ikus 1.6.5

10.6.6 SERIEARI DAGOZKION ERANTZUKIZUNEN AIPUAK

Ikus 1.6.6

10.6.7 ISSN-A (ARGITALPEN SERIATUEN NAZIOARTEKO ZENBAKI NORMALIZATUA)

Ikus 1.6.7

10.6.8 SERIEAREN ZENBAKIA

Ikus 1.6.8

10.6.9 AZPISERIEEN ETA ATALEN IZENDAPENA EDOTA IZENBURUA

Ikus 1.6.9

10.6.10 AZPISERIEEN ETA ATALEN PAREKO IZENBURUAK

Ikus 1.6.10

10.6.11 AZPISERIEEN ETA ATALEN AZPIIZENBURUA EDOTA IZENBURUARI BURUZKO
INFORMAZIO OSAGARRIA

Ikus 1.6.11

10.6.12 AZPISERIEEI ETA ATALEI DAGOZKIEN ERANTZUKIZUNEN AIPUAK

Ikus 1.6.12

10.6.13 AZPISERIEEN ETA ATALEN ISSN-A

Ikus 1.6.13

10.6.14 AZPISERIEEN ETA ATALEN ZENBAKIA

Ikus 1.6.14

10.6.15 SERIE BAT BAINO GEHIAGO

Ikus 1.6.15

10.7 OHARREN EREMUA

10.7.1 ITURRIAK

Ikus 10.0.1B

10.7.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.7.2

10.7.3 OHARREN ZER-NOLAKOAK

Ikus 1.7.3

10.7.4 OHARREN HURRENKERA

10.7.4A Eremu jakin bateko informazioa osatzen duten oharrak

10.7.4Aa) Izenburuaren eta erantzukizunaren aipuaren eremua

Eremu honetako elementuei buruzko oharren bat idatzi behar denean, 1.7.4Aa) arauari jarraituko zaio.

Halaber, film zinematografikoen eta bideo-grabazioen kasuan, honako ohar espezifiko hauek idatziko dira:

Dokumentuaren zer-nolakoak adierazten dituztenak.

- Dokumentala
- Film hezigarria
- Telebistarako lana
- Publizitateko filma

Elkarrizketen, kanten edo testuen hizkuntza edo hizkuntzak adierazten dituztenak.

Errusieraz

Jat. bertsioa gaztelaniazko azpitituluekin
Gaztelaniaz bikoiztua
Gaztelaniaz, ingelesezko kantekin

Eta oharretan jasotzea erabaki den erantzukizunen aipuak (ikus 10.1.7). Halaber, ohar horretan, dokumentuaz kanpoko iturrietatik hartutako erantzukizunen aipuak jaso daitezke, edota lanean parte hartu duten pertsonen edo erakundeen izenen aldaerak, baldin eta deskribapenaren gainerako eremuetan jaso ezin badira.

Aurkezlea: Fernando Rey
Antzezleak: Francisco Rabal, Asunción Balaguer, Agustín González
Zientzia-aholkularitza, José Verdejo Bravo
Pearl S. Buck-en eleberrian oinarritua
Film honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

10.7.4Ab) Edizioaren eta historia bibliografikoaren eremua

1.7.4Ab) arauan agertzen diren kasuez gain, zintaren aurreko bertsioei buruzko oharra, berezitasun historikoei buruzkoak eta abar idatziko dira.

1979ko izen bereko filmaren bertsio lab.

10.7.4Ac) Argitalpenaren, banaketaren eta abarren eremua

Argitalpenari, banaketari eta abarri buruzko oharra edo datari buruzkoak idatziko dira, baldin eta dagokien eremuan jaso ez badira. Argitalpenaren, banaketaren eta abarren data jatorrizko edizioaren datarekin bat ez badator, azken hau oharretan jasoko da.

1974an egina

Filmen kasuan, filma lehenengo aldiz eman zen herrialdearen izena adieraz *daiteke*, baldin eta deskribapenean jaso ez bada edo deskribapenaren gainerako datuetatik ezin bada jakin.

Lehen aldiz Frantzian aurkeztua

10.7.4Ad) Deskribapen fisikoaren eta material gehigarriaren eremua

Deskribapena egiteko aukeratutako zehaztasun-mailaren arabera, honako datu hauek jaso *daitezke*:

Filmen edo bideo-grabazioen soinuaren edozein bereizgarri (adibidez, optikoa edo magnetikoa den, soinu-banda filmean fisikoki integraturik dagoen edota grabazio sinkronizatuan aparte dagoen).

Soinu-banda magnetikoa
Soinu-banda optikoa

Dokumentuaren (filma edo zinta) luzera metrotan, baldin eta dagokion eremuan jaso ez bada (ikus 10.5.3C).

Zinta 90 cm

Filmean edo bideo-grabazioan erabilitako kolore-sistema edo kolore-prozesua, edota kolorearekin zerikusia duen beste edozein zehaztasun.

Kolorearen grabazio-sistema: PAL

Sepiaz inprimatua

Inprimatzeko modua: negatiboa, positiboa, internegatiboa, interpositiboa, kolore-bereizketa, bikoizketa positiboa edo negatiboa xafla mehetan. Zatika artxibaturiko jatorrizko materiala deanean, zein biribilki den zehaztuko da: A, B, C eta abar.

Filmaren oinarrizko gaia: nitratoa, azetatoa edo poliesterra, baldin eta dagokion eremuan jaso ez bada (10.5.4).

Bideo-grabazioaren sistema, baldin eta datu hori deskribapen fisikoaren eremuan jaso ez bada.

Bi hazbeteko bideo-zinten kasuan, lerroen eta eremuen kopuruak eta, ondoren, modulazio-frekuentzia (goi-banda, behe-banda eta abar).

Estandarra ; 405 lerro, 50 eremu, goi-banda

Bideo-zintaren grabazioari dagokion belaunaldia, eta kopia nagusia edo proiektatzeko kopia den.

Hirugarren belaunaldia, proiektatzeko

Proiektzioaren ezaugarri bereziak, baldin eta deskribapen fisikoaren eremuan zehaztu ez badira.

Proiektzio estereoskopikoa

Bideo-diskoetan, mugimenduzko irudien iraupena eta irudi finkeen kopurua, baldin eta bi eratako irudiak badituzte.

Mugimenduzko irudiak 60 min eta 2.000 irudi finko

Filma edo bideo-grabazioa eskuratzeko dauden beste formatu batzuk.

70 mm-ko formatuan ere badago

VHS eta Beta formatuetan ere badago

Halaber, eremu honetan, filmak eta bideo-grabazioak erabiltzeko eta gordetzeko garrantzitsuak izan daitezkeen bestelako datu garrantzitsuak jaso daitezke.

Garrantzitsua dela irudituz gero, material gehigarriari buruzko datuak jaso *daitezke*. Era berean, jaso egin daitezke material gehigarriari buruz deskribapen fisikoaren eremuan jaso ez diren datuak edota, bi maila edo gehiagoko deskribapenen kasuan, zati baten deskribapen bereizian jaso ez direnak (ikus 1.5.6D).

Erantsitako liburuxkan fotogramen kopiak daude

10.7.4Ae) Seriearen eremua

Ikus 1.7.4Ae)

10.7.4B) Eremu jakin bati lotuta ez dauden oharrak

10.7.4Ba) Eremu jakin batekin lotuta ez dauden oharrak idazteko, 1.7.4B aruari jarraituko zaio.

Deustuko Unibertsitateko tesia

500 aleko botaldi berezia

Edukia: Candilejas ; Un día de placer ; Los ociosos

10.7.4Bb) Lana zein ikusle-motari zuzenduta dagoen aipa *daiteke*, baldin eta informazio hori dokumentuan, edukiontzian edo inprimaturiko material gehigarrian adierazita badago.

Erdi mailako ikasleentzat

Ez da egokia 13 urtetik beherakoentzat

10.7.4Bc) Muntatu gabeko materialaren edo albistegien deskribapenean, harraldi bakoitzaren edukiari eta luzerari buruzko oharra egin *daiteke*, horretarako laburdura normalizatuak erabilia. Ikus 10.1.3B.

10.7.4Bd) Film eta bideo-grabazioen kasuan, izenburu orokorrik gabeko hainbat lan biltzen direnean, bakoitzak bere izenburua duelarik, lanetako bat bereiz deskribatzerakoan, ohar bat egingo da, «hauekin» terminoa eta, ondoren, dokumentuko gainerako lanen izenburuak jarrita.

Hauekin: Tecnología y medio ambiente / realización y dirección,

José Humberto Oyamburu y Boix. Un pequeño colonizador

verde / realizador, Guillermo Zúñiga. Vida y muerte

del bosque / realización y dirección, Vicente Ribarrocha García

10.7.4Be) Dokumentuak nazioarteko zenbaki normalizatuaz gain dituen identifikazio-zenbakiak oharrean jasoko dira, aipatzekoak direla irudituz gero. Ikus 1.8.

L.G. SS 745-2003

10.7.4C Aleari buruzko oharrak

Ikus 1.7.4C

10.8 ZENBAKI NORMALIZATUAREN ETA ESKURATZE-BALDINTZEN EREMUA*EREMUAREN ELEMENTUAK*

ISBNa (zenbaki normalizatua edo baliokidea)

Gako-izenburua

Eskuratze-baldintzak eta/edo prezioa

10.8.1 ITURRIAK

Ikus 10.0.1B

10.8.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.8.2

10.8.3 ISBN-A

10.8.3A Filmek eta bideo-grabazioek ez dute nazioarteko zenbaki normalizaturik. Dokumentuak ISBNrik edo ISSNrik badu, 1.8.3 paragrafoan ezarritako arauen arabera jasoko da.

10.8.3B Nazioarteko zenbaki normalizaturik ez dagoenez, dokumentuaren nazioarteko beste edozein identifikazio-zenbaki edo ezaugarri jasoko da eremu honetan.

10.8.4 GAKO-IZENBURUA

Ikus 1.8.4

10.8.5 ESKURATZE-BALDINTZAK ETA/EDO PREZIOA

Ikus 1.8.5

10.8.6 ISBN BAT BAINO GEHIAGO

Ikus 1.8.6


10.9 UNITATE FISIKO BAT BAINO GEHIAGO DUTEN FILMAK ETA BIDEO-GRABAZIOAK

Ikus 1.9

11.

kapitulua

Ordenagailuko fitxategien deskribapena



11.0 ARAU OROKORRAK

Kapitulu honetako arauen arabera deskribatuko dira ordenagailuko fitxategiak eta material osagarria.

Ordenagailuko fitxategiak sekuentzia logiko batean antolatutako informazio edo aginduen multzoak dira, prozesatzeko makina bat erabiltzea beharrezko duten prozeduren bitartez eratu-takoak. Datuak edo programa-lerroak euskarri hauetan egon daitezke grabaturik: zintetan edo disko magnetikoetan, euskarri optikoan edo garai bateko paperezko zintetan, fitxa zulatuetan edo marka sentikorreko fitxetan.

11.0.0 DESKRIBAPENAREN ANTOLAKETA

Ikus 1.0.0

11.0.1 INFORMAZIO-ITURRIAK

Ikus 1.0.1

11.0.1A Informazio-iturri nagusia eta iturriak kontsultatzeko agindutako hurrenkera

Ordenagailuko fitxategien informazio-iturri nagusia izenburua formalki azaltzen duen programaren hasierako pantaila da. Hasieran izenburuaren aipamen formalik egiten ez bada, informazio hori formalki azaltzen duen beste atal batetik hartuko da, esate baterako, menu nagusiko pantailatik.

Behar den informazioa dokumentuan bertan azaltzen ez bada, honako iturri hauek erabiliko dira, lehenetasun-hurrenkera honi jarraiki:

Diskoak, txirrikak, kartutxoak eta abar edo horiei itsatsitako jatorrizko etiketak.

Argitaratzaileak, sortzaileak eta abarrek fitxategiarekin batera argitaratutako informazioa.

Argitaratzaileak, banatzaileak eta abarrek edukiontzian emandako informazio inprimatua.

Informazioa iturri batean baino gehiagotan azaltzen bada, batzuetan beste batzuetan baino osatuago, informaziorik osatuena ematen duen iturria hartuko da.

Fitxategiak fisikoki bereizitako zatiak baditu, edukiontzia edo hari finko itsatsita dagoen etiketa izango da informazio-iturri nagusia, betiere toki horietan dokumentuan eta zatien etiketetan agertzen ez den izenburu orokorrik ageri bada.

Ez bada informaziorik azaltzen ez iturri nagusian, ezta aipatutako gainerako iturrietan ere, honako iturri hauek erabiliko dira, hurrenkera honetan:

Fitxategiaren beste deskribapen argitaratu batzuk.

Beste iturri batzuk.

11.0.1B Eremuetarako agindutako informazio-iturriak

Ondorengo taulan zehazten da agindutako zein informazio-iturri dagokion ordenagailuko fitxategien deskribapenaren eremu bakoitzari. Agindutako iturri horietatik kanpo jasotako informazioa taket artean edo oharren bidez adierazi beharko da.

Eremua	Agindutako informazio-iturriak
1 Izenburua eta erantzukizunaren aipua	Informazio-iturri nagusia, diskoak, txirrikak eta abar, eta horien etiketak; argitaratzaileak argitaratutako informazioa, edukiontzia
2 Edizioa	Informazio-iturri nagusia, diskoak, txirrikak eta abar, eta horien etiketak; argitaratzaileak argitaratutako informazioa, edukiontzia
3 Fitxategi-mota eta tamaina	Edozein iturri
4 Argitalpena, ekoizpena, banaketa eta abar	Informazio-iturri nagusia, diskoak, txirrikak eta abar, eta horien etiketak; argitaratzaileak argitaratutako informazioa, edukiontzia
5 Deskribapen fisikoa	Edozein iturri
6 Seriea	Informazio-iturri nagusia, diskoak, txirrikak eta abar, eta horien etiketak; argitaratzaileak argitaratutako informazioa, edukiontzia
7 Oharrak	Edozein iturri
8 Zenbaki normalizatua eta eskuratze-baldintzak	Edozein iturri

11.0.2 PUNTUAZIOA

Ikus 1.0.2

11.0.3 DESKRIBAPENAREN HIZKUNTZA ETA IDAZKERA-MOTA

Ikus. 1.0.3

11.0.4 LABURTZAPENA ETA LABURDURAK

Ikus 1.0.4

11.0.5 LETRA LARRIEN ERABILERA

Ikus 1.0.5

11.0.6 AZENTUAK ETA BESTELAKO ZEINU DIAKRITIKOAK

Ikus 1.0.6

11.0.7 AKATSAK

Ikus 1.0.7

11.0.8 INFORMAZIO-ITURRI NAGUSIA ZEHAZTEA, ITURRI NAGUSI BAT BAINO GEHIAGO DITUZTEN DOKUMENTUETAN

Ikus 1.0.8

11.0.9 DESKRIBAPENAREN XEHETASUN-MAILAK

Ikus 1.0.9

11.1 IZENBURUAREN ETA ERANTZUKIZUNAREN AIPUAREN EREMUA*EREMUAREN ELEMENTUAK*

Izenburu nagusia

Dokumentu-motaren izendapen orokorra

Pareko izenburuak

Azpiizenburua edota izenburuari buruzko informazio osagarria

Erantzukizunaren aipua

11.1.1 ITURRIAK

Ikus 11.0.1B

11.1.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.1.2

11.1.3 IZENBURU NAGUSIA

11.1.3A Izenburu nagusia transkribatzeko, 1.1.3 paragrafoan ezarritako araei jarraituko zaie. Edonola ere, izenburua zein iturritatik hartua den adierazi beharko da beti oharren bidez.

OpenOffice.org 1.0.2 euskaraz

ABIES : aplicación bibliotecas escolares = eskola liburutegirako aplikazioa

Jolastuz ikasi geografia

Eus Linux : 8.2 bertsioa

Piratekin hizkuntzaren munduan

WordStar

Practicalc II

BASIC

11.1.3B Fitxategiaren edo datu-multzoaren izena (adibidez, tokian toki ezarritakoa) ez da izenburu nagusitzat hartuko, salbu eta informazio-iturri nagusian ageri den izen bakarra bada. Izen hori adierazi beharra dagoela irudituz gero, oharretan jaso daiteke.

11.1.4 DOKUMENTU-MOTAREN IZENDAPEN OROKORRA

11.1.4A Dokumentu-motaren izendapen orokorra adierazi beharra ikusiz gero, 1.1.4 paragrafoan ezarritako arauen arabera egingo da. Izendapenerako «ordenagailuko fitxategia» terminoa erabiliko da.

11.1.5 PAREKO IZENBURUAK

11.1.5A Pareko izenburuak transkribatzeko, 1.1.5 paragrafoan ezarritako araei jarraituko zaie.

11.1.6 AZPIIZENBURUA EDOTA IZENBURUARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA

11.1.6A Azpiizenburua eta abar transkribatzeko, 1.1.6 paragrafoan ezarritako araei jarraituko zaie.

Bai noski! euskaraz : iniciación al euskera : sistema experto multimedia para el aprendizaje del euskera por ordenador

Ortografia euskaraz : windows bertsioa

Eurodimentsioa hezkuntzan : irakaslearen gida

11.1.7 ERANTZUKIZUNAREN AIPUA

11.1.7A Fitxategiaren edukiaren erantzukizuna duten pertsonen edo erakundeen erantzukizunen aipuak 1.1.7 paragrafoan ezarritako arauen arabera transkribatuko dira.

Ordenagailuko fitxategien erantzukizunen aipuan honako hauek adieraziko dira:

Idazleak, sistema-analistak edo analista organikoak, programatzaileak, ikertzaile nagusiak, irudigileak, musikagileak eta abar, baldin eta beren jarduna fitxategiaren edukiarekin loturik badago zuzenean (adibidez, testuaren egilea, zuzendaria, biltzailea, itzultzailea, irudigilea, musikagilea eta abar) nahiz zeharka (adibidez, fitxategiaren edukiaren oinarri izan den lanaren egilea).

Beste lan batean oinarritu diren egokitzzaileak, jatorrizkoaren euskarri berean nahiz beste batean egindakoarenak.

Fitxategiaren idazketan parte hartu dutenen lana babestu duten erakundeak nahiz pertsonak.

Halaber, honako hauek ere sar *daitezke* erantzukizunaren aipuan: egile edo diseinatzaile gisa azaltzen diren pertsonen edo erakundeen izenak, betiere beren lanak fitxategiaren sorrerarekin edo egikerarekin zerikusirik badu; eta fitxategi jakin bati edota fitxategi-mota berezi bati dagokionez erantzukizun espezifikoak izan dituzten pertsonak edo erakundeak.

Lanaren sorreran edo egikeran parte-hartze garrantzitsua izan ez duten pertsonen edo erakundeen aipuak (adibidez, aholkularienak) oharren eremuan jaso *daitezke*, betiere dagokion eremuaren informazio-iturri nagusian azaltzen badira.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ondare arkitektonikoa / zuzendaritza orokorra, Iñaki Lekuona ; itzulpena eta egokitzapena, Xalbador Garmendia, Ana Martin

El Cid / programado por Manuel Ordera ; gráficos, Francis Moragrera

FEDC : Federación Española de Deportes para Ciegos / programación, Rafael Andrade ; desarrollo, Gonzalo Blázquez, Rafael Andrade ; coordinación, Alberto Contreras

11.2 EDIZIOAREN EREMUA

EREMUAREN ELEMENTUAK

Edizioaren aipua

Pareko edizioaren aipua

Edizioari dagozkion erantzukizunen aipuak

Edizioaren beste aipua

Edizioaren beste aipuari dagozkion erantzukizunen aipuak

11.2.1 ITURRIAK

Ikus 11.0.1B

11.2.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.2.2

11.2.3 EDIZIOAREN AIPUA

11.2.3A Edizioaren aipua jasotzeko, 1.2.3 paragrafoan ezarritako araei jarraituko zaie.

- . — Ed. 1985
- . — Behin-behineko argit.
- . — 2. argit. berr.

Fitxategiak inprimatze berezi bat badu, eremu honetan adieraziko da.

- . — OSIRIS ed.

11.2.3B Ordenagailuko fitxategietan, bertsioa, maila, argitalpena eta abar edizioaren sinonimotzat har *daitezke*.

- . — 2.0 bertsioa

11.2.3C Fitxategietako erregistroen zuzenketen argitalpena ez da edizio berrizat hartuko, baldin eta zuzenketak oso garrantzitsuak ez badira (esaterako, akats ortografikoen zuzenketa, datuak trans-

kribatzean egindako akatsen zuzenketa eta abar), baina aldaketok oharren eremuan adieraz *daitezke*. Era berean, ez da edizio berritzat hartuko fitxategiaren forma fisikoan egindako aldaketa.

11.2.4 PAREKO EDIZIOAREN AIPUA

Ikus 1.2.4

11.2.5 EDIZIOARI DAGOZKION ERANTZUKIZUNEN AIPUAK

Ikus 1.2.5

11.2.6 EDIZIOAREN BESTE AIPUA

Ikus 1.2.6

11.2.7 EDIZIOAREN BESTE AIPUARI DAGOZKION ERANTZUKIZUNEN AIPUAK

Ikus 1.2.7

11.2.8 IZENBURU OROKORRIK GABEKO FITXATEGIAK

Ikus 1.2.8

11.2.9 UNITATE FISIKO BAT BAINO GEHIAGO DUTEN FITXATEGIAK, ZENBAIT EDIZIOTAN EMANAK

Ikus 1.2.9

11.3 FITXATEGI-MOTAREN ETA FITXATEGIAREN TAMAINAREN EREMUA

EREMUAREN ELEMENTUAK

Fitxategi-motaren izendapen espezifikoa

Fitxategiaren tamaina

11.3.1 ITURRIAK

Ikus 11.0.1B

11.3.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Eremuaren hasieran puntua, tartea, marra eta tartea jarriko dira.

Tamainaren aipuetako bakoitza parentesi artean idatziko da.

Fitxategien bi izendapen jartzen direnean, tamaina adierazita nahiz adierazi gabe, bigarren izendapenaren aurretik «eta» juntagailua idatziko da.

Adibideak

- . — Fitxategiaren izendapena
- . — Fitxategiaren izendapena (*fitxategiaren tamaina*)
- . — Fitxategiaren izendapena eta fitxategiaren izendapena
- . — Fitxategiaren izendapena (*fitxategiaren tamaina*)
eta fitxategiaren izendapena (*fitxategiaren tamaina*)

11.3.3 FITXATEGI-MOTAREN IZENDAPEN ESPEZIFIKOA

Fitxategi-motaren izendapen espezifikoa zentro katalogatzailearen hizkuntzan jarriko da. Ez dira taketak erabiliko, nahiz eta datuok eremu honetarako informazio-iturri nagusian azaldu ez.

- . — Datuak
- . — Programa
- . — Programak
- . — Datuak eta programa
- . — Datuak eta programak

11.3.4 TAMAINA

11.3.4A Tamainaren aipua aukerakoa da. Tamainaren inguruko datuak informazio-iturrietan agertzen badira eta zentro katalogatzaileari aipagarriak direla iruditzen bazaizkio, jaso egin *daitzke*. Eremu honetan honako hauek jasoko dira:

— Fitxategi-kopurua, zenbaki arabiarretan.

— Erregistroen eta/edo byte-en kopurua datu-fitxategien kasuan, eta aginduen eta/edo byte-en kopurua programen kasuan. Datu horien aurrean, halakorik adierazi behar denean, bi puntu eta tartea idatziko dira.

— Aginduen iturburu-kodearen programazio-lengoaia oharretan jasoko da.

- . — Datuak (1 fitxategi)
- . — Programa (2 fitxategi)
- . — Datuak (3 fitxategi) eta programa (2 fitxategi)
- . — Datuak (1 fitxategi : 900 erregistro, 3.500 byte)
- . — Programa (1 fitxategi : 2.100 agindu)
- . — Datuak (1 fitxategi : 6.000 erregistro) eta programa (1 fitxategi : 3.000 agindu)

11.3.4B Zati bat baino gehiago duten fitxategietan, zati bakoitzaren erregistroen eta/edo byte-en kopurua jaso *daiteke*.

Zatiak asko edo konplexuak badira, datu horiek ohar batean jaso *daitezke*.

- . — Datuak (2 fitxategi : 900, 1.300 erregistro, 9.600 byte)
 - . — Programa (3 fitxategi : 6.300, 2.500, 4.100 byte)
 - . — Datuak (2 fitxategi : 2.500 byte bakoitzak)
 - . — Programa (4 fitxategi)
- Oharrean*
Fitxategiaren tamaina: 1.200, 600, 250, 1.100 agindu

11.3.4C Erregistroen eta/edo byte-en, edo aginduen eta/edo byte-en kopuru zehatza zein den jakin ezean, gutxi gorabeherako kopurua eman *daiteke*. Halakorik ere eman ezin bada, oharretan emango da horren berri.

- . — Datuak (2 fitxategi : ca. 3.000-4.000 erregistro)
 - . — Programa (3 fitxategi : ca. 2.000 agindu bakoitzak)
 - . — Datuak (2 fitxategi : ca. 1.500 zortzikote bakoitzak)
 - . — Datuak (10 fitxategi)
- Oharrean*
Tamaina askotako fitxategiak

11.4 ARGITALPENAREN, EKOIZPENAREN, BANAKETAREN ETA ABARREN EREMUA

EREMUAREN ELEMENTUAK

Argitaralekua, ekoizpen-lekua eta *banaketa-lekua*

Argitaratzailearen, ekoizlearen eta *banatzailearen izena*

Banatzaile-funtzioaren aipua

Argitalpen-data, ekoizpen-data eta banaketa-data

Fabrikazio-lekua, fabrikatzailearen izena eta fabrikazio-data

11.4.1 ITURRIAK

Ikus 11.0.1B

11.4.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.4.2

11.4.3 ARGITARALEKUA

11.4.3A Argitalpenaren, ekoizpenaren eta banaketaren lekua jasotzeko, 1.4.3 paragrafoan ezarritako arauari jarraituko zaie.

11.4.4 ARGITARATZAILEAREN IZENA

11.4.4A Argitaratzailearen, ekoizlearen eta banatzailearen izena nahiz fitxategiaren edizioaren edo zabalkundearen erantzukizuna duen erakundearen izena jasotzeko, 1.4.4 paragrafoan ezarritako arauari jarraituko zaie.

- . — Usurbil : Elhuyar
- . — Málaga : Discos Azahar
- . — London : Psion
- . — Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

11.4.4B Eremu honen informazio-iturrian argitaratzailearen edo ekoizlearen izena eta banatzailearen izena ageri badira, banatzailearen izena ere jaso *daitenke*. Baina banatzailearen izena besterik aipatzen ez bada, jaso egin behar da.

11.4.5 BANATZAILE-FUNTZIOAREN AIPUA

11.4.5A Argitaratzailearen, ekoizlearen eta banatzailearen funtzioak argi azaltzen ez direnean, aipua 1.4.5 paragrafoan ezarritako arauaren arabera jasoko da.

11.4.6 ARGITALPEN-DATA

11.4.6A Argitalpen-data transkribatzeko, 1.4.6 paragrafoan ezarritako arauari jarraituko zaie.

11.4.6B Argitalpenaren edo ekoizpenaren data eta banaketaren data bat ez badatoz, data bakoi-tza dagokion aipuaren ondoren idatziko da.

11.4.6C Datu-bilketen datak, fitxategi osagarrien datak eta edizioarekin eta abarrekin loturiko beste zein-nahi data interesgarri oharretan jasoko da.

11.4.7 FABRIKAZIO-LEKUA, FABRIKATZAILEAREN IZENA ETA FABRIKAZIO-DATA

11.4.7A Ordenagailuko fitxategien deskribapenean datu hori jaso beharra dagoela irudituz gero, 1.4.7 paragrafoan ezarritako arauei jarraituko zaie.

. — [Madrid] : [s.n.], 1987 (Coslada, Madrid : Iberofón)

. — [S.l. : s.n.], 1986 (Cleveland, Ohio : CD Wonderworks)

11.5 DESKRIBAPEN FISIKOAREN EREMUA¹

EREMUAREN ELEMENTUAK

Materialaren tamaina eta izendapen espezifikoa

Bestelako ezaugarri fisikoen aipua

Neurriak

Material gehigarria

11.5.1 ITURRIAK

Ikus 11.0.1B

11.5.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.5.2

¹ Eremu honetarako agindutako arauak honako hauek deskribatzeko erabiliko dira: atzipen lokaleko ordenagailu-fitxategiak ordenagailuetan, batez ere mikroordenagailuetan, sartzeko diren txirrika, kasete, kartutxo edo diskete moduko euskarrietan bildutakoak. Fitxategi horiek euskarri fisiko bakarrean grabatuta egon behar dute eta makina jakin batean erabiltzeko izango dira. Euskarri fisiko batean baino gehiagotan (adibidez, diskoan eta kasetean) grabatutako fitxategien kasuan, euskarri bakoitzeko deskribapen bat egingo da.

Urruneko atzipenez bakarrik erabiltzeko diren ordenagailu-fitxategietan ez da deskribapen fisikoaren eremurik osatuko.

11.5.3 MATERIALAREN TAMAINA ETA IZENDAPEN ESPEZIFIKOA

11.5.3A Materialaren tamaina jasotzeko, 1.5.3A aruari jarraituko zaio.

11.5.3B Materialaren izendapen espezifikorako, honako termino hauetako bat erabiliko da:

Txirrika

Kartutxoa

Kasetea

Disko konpaktua

Disketea

Streamerra

2 disko konpaktu

1 txirrika

2 kasete

1 kartutxo

Deskribatu beharreko materialari horietako termino bat ere ez badagokio, hobeto egokitzen zaion beste bat erabiliko da.

11.5.3C Materialaren izendapen espezifikoaren ondoren, ordenagailuaren izena, modeloa edota zenbakia jaso *daitezke* parentesi artean, baldin eta fitxategia erabiltzeko beharrezkoa bada.

1 kasete (Sinclair ZX81)

1 disko (IBM PC)

11.5.4 BESTELAKO EZAUGARRI FISIKOEN AIPUA

11.5.4A Fitxategia soinua izateko kodifikatuta badago, ezaugarri hori «soinua» terminoaren, bidez adieraziko da.

1 kasete (Sinclair ZX81) : soinua

11.5.4B Fitxategia bi kolore edo gehiagotan ikus badaiteke edota bi kolore edo gehiago izan ditzakeela jakinez gero, ezaugarri hori «kol.» laburduraren bidez adieraziko da. Fitxategia zuri-beltzez edo kolore bakarrez ikusten bada, ez da ezer adieraziko.

2 txirrika : kol.

1 kasete (Sinclair ZX81) : soinua, kol.

11.5.4C Fitxategia erabiltzeko ezinbestekoak diren ezaugarri formalak eremu honetan edo oharren eremuan jaso *daitezke*. Ikus 11.7.4Ai).

Diskoen deskribapenean, alde grabatuak, dentsitatea, sektorea eta pista-kopurua adieraziko dira, bakoitzari dagokion terminoa idatzita.

1 disko malgu : 2 alde, dentsitate bikoitza, 160 pista

1 disko konpaktu : 399 pista

Txirriken eta kaseteen kasuan, pista-kopurua, hazbeteko byte-kopurua (bpi) eta grabazioaren ezaugarri kuantitatiboak jasoko dira.

1 txirrika : 1.700 bpi

1 kasete : 7 pista, 300 bpi, 30 erregistro blokeko

1 disko : 705 zilindro

11.5.5 NEURRIAK

11.5.5A Neurri nagusiak dokumentuarenak berarenak dira, edukiontzia kanpoko neurriak kontuan hartu gabe, non eta edukiontzia dokumentuari finko loturik ez dagoen. Fitxategi-mota-aren arabera honako hauek izango dira neurriak:

Diskoak eta disketeak: diametroa zentimetrotan.

Txirrikak: diametroa zentimetrotan eta, *nahi izanez gero*, zintaren zabalera milimetrotan eta luzera metrotan.

Kartutxoak: ordenagailuan sartzen den kartutxoaren aldearen luzera.

Kaseteak: kasetearen luzera eta zabalera, eta zintaren zabalera, baldin eta neurri estandarrekoak ez badira (10 × 7 cm, 4 mm).

1 disko konpaktu : soinua ; 12 cm

1 txirrika ; 15 cm, 7 mm, 220 m

1 kasete ; 15 × 5 cm, zinta 7 mm

1 diskete : kol. ; 14 cm

11.5.5B Hainbat dokumentu batera biltzen dituzten edukiontzien neurriak jaso egin *daitezke*, material gehigarririk izan ala ez. Datu hau jasotzen denean, «-ko kutxa batean» esaldia erabil *daiteke*.

5 diskete : soinua, kol. ; 15 × 35 × 20 cm-ko kutxa batean

11.5.5C Euskarri-mota bereko hainbat formatutan dauden fitxategietan ez da neurririk jasoko deskribapen fisikoaren eremuan, baina oharren eremuan jaso *daitezke*.

1 disko konpaktu
Oharrean
 14 cm-ko eta 19 cm-ko formatuetan dago

11.5.6 MATERIAL GEHIGARRIA

11.5.6A Material gehigarria jasotzeko, 1.5.6 paragrafoan ezarritako arauetara jarraituko zaie.

2 diskete + 1 eskuliburu
 1 disko konpaktu : kol. ; 14 cm + 1 kode-liburu (120 or. ; 20 cm)
 2 kasete : kol. + 1 kasete soinudun (15 min)

11.5.6B Urruneko atzipeneko fitxategien deskribapenean deskribapen fisikoaren eremurik ez dagoenez, material gehigarriaren aipua oharren eremuan egingo da.

11.6 SERIEAREN EREMUA

Ordenagailuko fitxategien deskribapenean eremu hau erabiliko da baldin eta fitxategiaren zati guztiak serie, azpiserie edo atal berean argitaratuta badaude (edo argitaratzeko asmorik bada). Bestelako kasuetan, zati bakoitza argitaratu den serie, azpiserie edo atalen aipua oharren eremuan jaso *daitezke*.

EREMUAREN ELEMENTUAK

Seriearen izenburua

Seriearen pareko izenburuak

Seriearen azpiizenburua edota izenburuari buruzko informazio osagarria

Serieari dagozkion erantzukizunen aipua

ISSNa (argitalpen seriatuen nazioarteko zenbaki normalizatua)

Seriearen zenbakia

Azpiserieen eta atalen izendapena edota izenburua

Azpiserieen eta atalen pareko izenburuak

Azpiserieen eta atalen azpiizenburua edota izenburuari buruzko informazio osagarria

Azpiserieei eta atalei dagozkien erantzukizunen aipua

Azpiserieen eta atalen ISSNn

Azpiserieen eta atalen zenbakia

11.6.1 ITURRIAK

Ikus 11.0.1B

11.6.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.6.2

11.6.3 SERIEAREN IZENBURUA

Ikus 1.6.3

11.6.4 SERIEAREN PAREKO IZENBURUA

Ikus 1.6.4

11.6.5 SERIEAREN AZPIIZENBURUA EDOTA IZENBURUARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA

Ikus 1.6.5

11.6.6 SERIEARI DAGOZKION ERANTZUKIZUNEN AIPUAK

Ikus 1.6.6

11.6.7 ISSN-A (ARGITALPEN SERIATUEN NAZIOARTEKO ZENBAKI NORMALIZATUA)

Ikus 1.6.7

11.6.8 SERIEAREN ZENBAKIA

Ikus 1.6.8

11.6.9 AZPISERIEEN ETA ATALEN IZENDAPENA EDOTA IZENBURUA

Ikus 1.6.9

11.6.10 AZPISERIEEN ETA ATALEN PAREKO IZENBURUAK

Ikus 1.6.10

11.6.11 AZPISERIEEN ETA ATALEN AZPIIZENBURUA EDOTA IZENBURUARI BURUZKO
INFORMAZIO OSAGARRIA

Ikus 1.6.11

11.6.12 AZPISERIEEI ETA ATALEI DAGOZKIEN ERANTZUKIZUNEN AIPUAK

Ikus 1.6.12

11.6.13 AZPISERIEEN ETA ATALEN ISSN-A

Ikus 1.6.13

11.6.14 AZPISERIEEN ETA ATALEN ZENBAKIA

Ikus 1.6.14

11.6.15 SERIE BAT BAINO GEHIAGO

Ikus 1.6.15

11.7 OHARREN EREMUA**11.7.1** ITURRIAK

Ikus 11.0.1B

11.7.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.7.2

11.7.3 OHARREN ZER-NOLAKOAK

Ikus 1.7.3

11.7.4 OHARREN HURRENKERA

11.7.4A Eremu jakin bateko informazioa osatzen duten oharrak

Deskribapenaren elementuren batekin lotutako oharrak egin behar direnean, 1.7.4A arauan ezarritakoari jarraituko zaio. Horretaz gainera, ordenagailuko fitxategien kasuan, ondorengo arauetan zehazten diren ohar espezifikoak egingo dira. Sistemaren ezaugarriei buruzko oharrak (11.7.4Ai) gainerako oharren aurretik jarriko dira.

11.7.4Aa) Fitxategiaren zer-nolakoei eta zertarakoari buruzko oharrak, baldin eta gainerako deskribapenetik ondorioztatzen ez badira.

Erdi mailako ikasleei matematika irakasteko programa

11.7.4Ab) Fitxategian azaltzen den hizkuntzari eta idazkerari edota karaktere-motari buruzko oharrak.

Ingelesez
EBCDIC karaktereak
Karakterez zirilikoak

11.7.4Ac) Izenburu nagusiaren iturriei buruzko oharrak, baldin eta izenburu nagusia dokumentua bera ez den iturri batetik jaso bada.

Izenb. programaren pantailatik hartua
Izenb. kaseteko etiketatik hartua
Izenb. fitxategiaren sortzaileak emana
Izenb. katalogatzaileak idatzia

11.7.4Ad) Fitxategian, dokumentazio osagarrian edota fitxategiaren bestelako deskribapenetan azaltzen diren izenburu-aldaerei buruzko oharrak. Izenburuaren aldaeratzat har *daiteke* datu-multzoaren tokian tokiko izena, izenburu nagusiaz bestelakoa bada.

Kode-liburuaren izenb.:
Datu-multzoaren izena:

11.7.4Ae) Garrantzi gutxiagoko erantzukizunen aipuei buruzko oharrak, aipagarritzat jotzen badira.

Historia-aholkularia:

11.7.4Af) Fitxategiaren edizioari eta historia bibliografikoari buruzko oharrak, batez ere aurreko bertsioei, inprimatze-aldiren bati egindako zuzenketa txikiei eta fitxategirako datuak hartu diren lanei buruzkoak.

Lehen aldiz 1980an argitaratua
1983ko programaren bertsio eguneratua
Lan honetan oinarrituta:

Halaber, edizioaren inguruko datei buruzko oharrak idatz *daitezke*, baldin eta fitxategiaren edukirako eta erabilerarako garrantzitsuak badira: datuak hartu zireneko iturriaren data, fitxategian jasotako datuei dagozkien datak, datuak bildu zireneko datak, eta fitxategi osagarrien datak baldin eta bereiz deskribatu ez badira.

Datuak 1983ko erroldatik hartuak
1987ko urtarriletik martxora bitartean jasotako datuak
Inkestaren data: 1986ko maiatza
Fitxategi osagarriak 1984an eta 1985ean argitaratuak

11.7.4Ag) Fitxategi-motari eta -tamainari buruzko oharrak

Fitxategiaren tamaina: 150, 200, 250, 300, 500 erregistro
Fitxategiaren tamaina egiaztatu barik
Aldagai-kopurua: 1.050
Fitxategiaren estruktura: hierarkikoa
Programaren edukiera: 3.000 erregistro
Gehienezko erregistro-edukiera: 2.000 byte

11.7.4Ah) Argitalpenari, ekoizpenari, banaketari eta abarri buruzko oharrak, baldin eta dagoen eremuan egin ez bada eta adierazgarriak badira.

Banatzaila:
Datu-bilketaren urtea: 1983
Diskoko etiketaren urtea: cop. 1978

11.7.4Ai) Sistemaren ezaugarriei eta deskribapen fisikoaren eremuari buruzko oharrak

1) Fitxategiaren erabilera baldintzatzen duten sistemaren ezaugarriak zehaztuko dira, aurretik «sistemaren ezaugarriak» terminoa jarrita, honako hurrenkera honetan:

Ordenagailuaren izena, modeloa eta/edo zenbakia

Memoriaren tamaina

Sistema eragilearen izena

Sistema logikoaren ezaugarriak, programazio-lengoaia barne

Ekipamendu periferikoak

Ekipamendu fisikoaren (barnekoaren) aldaketak

Ezaugarri horietako bakoitzaren aurretik, lehenengoaren aurretik izan ezik, puntu eta koma idatziko dira. Ezaugarri berarekin loturiko bi zehaztapen edo gehiago daudenean (adibidez, ordenagailu-modelo bi edo zenbait unitate periferiko), aipu bakarrean jasoko dira koma batez bereizita. Edonola ere, arrazoi praktikoengatik, ezaugarri horiek transkribatzeko gomendatutako hurrenkera aldatu egin daiteke eta dokumentuan azaltzen diren hurrenkera jaso daitezke, horretarako puntuazio ortografikoa erabilia.

Sistemaren ezaugarriak: IBM system/2 modelo 30 ; memoriaren tamaina, 640 Kb ; sistema eragilea DOS 3.3 ; 9 cm-ko disketea, 720 Kb 2 unitatetan ; lengoaia PL/I ; Proprinter inprimagailua

Sistemaren ezaugarriak: kapsula softwarea

2) Deskribapen fisikoaren eremuari buruzko oharren barruan sar *daitezke* 5. eremuan jasotako deskribapenaren informazio osagarria eta dokumentuaren ezaugarri fisiko espezifikoei buruzko datuak.

Halaber, ohar horietan jaso *daitezke* honako datu hauek: fitxategia beste euskarri fisikoren batean dagoen edo beste bitarteko batean erabil daitekeen, ordenagailu baten bertsio batean baino gehiagotan erabil daitekeen, datuak eskuragarri diren, fitxategia grabatu daitekeen eta abar.

Urruneko atzipeneko fitxategien ezaugarri fisikoak ere bertan jasoko dira, baldin eta deskribapen fisikoaren eremuan jaso ez badira.

Kutxari eta material gehigarriari buruzko datuak ere jasoko dira, baldin eta deskribapen fisikoaren eremuan adierazi ez badira edota, maila bat baino gehiagoko deskribapenaren kasuan, zati baten deskribapen bereizian jaso ez badira. Eremu honetan jasoko da kode-liburuen eta dokumentazio osagarriaren ISBNa.

14 eta 9 cm-ko disketean ere badago

Kasetean ere argitaratuta

Honako ere argitaratuta: SANYO MBC-16 PLUS

32 × 36 × 16 cm-ko kutxatilan

Kode-liburua: ISBN 0-00000-000-0

11.7.4Aj) Seriearen eremuari buruzko oharrak

Fitxategia argitaratu den beste serie batzuei edota fitxategiaren zatiak argitaratu diren serieei buruzko oharrak idatz *daitezke*.

11.7.4B Eremu jakin bati lotuta ez dauden oharrak

Ezein eremurekin loturik ez dauden oharrak idatzi behar direnean, 1.7.4B paragrafoan ezarritako arauari jarraituko zaie.

Horretaz gain, honako ohar espezifiko hauek idatziko dira:

11.7.4Ba) Lana zein erabiltzaileri zuzenduta dagoen adieraziko duen oharra, erabiltzaileak beharrezko duen prestakuntza-maila zehaztuta, baldin eta horri buruzko informaziorik ageri bada fitxategian edo berorren dokumentazioan.

Unibertsitateko graduatu-ondokoentzat

11.7.4Bb) Materiala erabiltzaile-talde jakin batentzat mugatuta dagoen edota denboraldi batez debekatuta dagoen adieraziko duen oharra.

Kudeaketa Departamentuko langileentzat soilik erabilgarri

1992ko urtarrila arte ezin daiteke kontsultatu

11.7.4Bc) Erabiltzeko beharrezko diren baliabideak zehaztuko dituen oharra, baldin eta katalogoaren kontsulta-egileak erabil ditzakeen ekipamendu guztietan irakurri ezin bada.

Beharrezko sistema: AT 650 Kb RAM

11.7.4Bd) Fitxategian jasotako datuak beste formatu batean ere eskura daitezkeela azaltzen bada informazio-iturrietan, oharretan emango da horren berri.

Mikrofitxan ere badago

11.7.4Be) Fitxategiaren edukiaren laburpena jasoko duen oharra, baldin eta gainerako deskribapenetik jakin ezin badaiteke.

Laburpena: Bigarren Hezkuntzako 3.500 ikasle CISEk 1987ko urtarrilean egindako kontsulta (galde-sortaren zk.: 2.314)

11.7.4Bf) Fitxategiak izenburu orokorrik ez duten hainbat zati biltzen dituenean, bakoitzak bere izenburua duelarik, lan horietako bakoitza bereiz deskribatzerakoan, ohar bat egingo zaio «hauekin» esapidea eta, ondoren, fitxategian bildutako gainerako zatien izenburuak idatzita.

Hauekin: Población activa, 1985 ; Estadística de paro, 1985

11.7.4Bg) Ohar batean jasoko dira fitxategiaren nazioarteko zenbaki normalizatuaz bestelako identifikazio-zenbakiak, aipatzekoak direla irudituz gero (ikus 11.8).

11.7.4C Aleari buruzko oharrak

11.7.4Ca) Deskribatu beharreko dokumentuaren edozein berezitasuni buruzko oharra idatziko dira, aipagarriak direla irudituz gero.

Zentro katalogatzaileak hainbat zati dituen fitxategiaren zati guztiak ez badauzka, horren inguruko oharra egingo da. Ohar hau aldi baterako baino ez da izango baldin eta zentroak fitxategia osatzeko asmoa badu.

Ale osagabea: XVII. kapitulua falta da

I., II. eta IV. zatiak ditu

11.8 ZENBAKI NORMALIZATUAREN ETA ESKURATZE-BALDINTZEN EREMUA

EREMUAREN ELEMENTUAK

ISBNa (zenbaki normalizatua edo baliokidea)

Gako-izenburua

Eskuratze-baldintzak eta/edo prezioa

11.8.1 ITURRIAK

Ikus 11.0.1B

11.8.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.8.2

11.8.3 ISBN-A

11.8.3A Ordenagailuko fitxategien nazioarteko zenbaki normalizatua ez da oraindik nahitaez ezarri beharrekoa, nahiz eta ekoizpen-etxe batzuk erabiltzen hasi diren.

Fitxategiak ISBN edo ISSNrik badu, 1.8.3 paragrafoan ezarritako arauen arabera jasoko da.

11.8.3B Dokumentuak ISBNrik izan ezean, dokumentuan ageri den identifikazioko nazioarteko beste zenbaki edo ezaugarria jasoko da eremu honetan.

11.8.4 GAKO-IZENBURUA

Ikus 1.8.4

11.8.5 ESKURATZE-BALDINTZAK ETA/EDO PREZIOA

Ikus 1.8.5

11.8.6 ISBN BAT BAINO GEHIAGO

Ikus 1.8.6


11.9 UNITATE FISIKO BAT BAINO GEHIAGO DUTEN ORDENAGAILUKO FITXATEGIAK

Ikus 1.9

12.

kapitulua

Argitalpen seriatuen deskribapena



12.0 ARAU OROKORRAK

Kapitulu honetan, material-mota guztietako argitalpen seriatuak deskribatzeko arauak zehazten dira. Kontuan izan behar da, hala ere, informazio-iturrien, deskribapen fisikoaren eta zenbait oharren inguruan kapitulu honetan ezarritako arauak inprimaturiko argitalpen seriatuetarako sortu direla eta, hortaz, gainerako materialetako argitalpen seriatuen deskribapenerako, gainerako kapituluak kontsultatu beharko dira¹.

12.0.0 DESKRIBAPENAREN ANTOLAKETA

Ikus 1.0.0

12.0.1 INFORMAZIO-ITURRIAK

Ikus 1.0.1 eta 1.0.8

12.0.1A Informazio-iturri nagusia eta iturriak kontsultatzeko agindutako hurrenkera

Argitalpen seriatuen informazio-iturri nagusia lehenengo liburukiaren edo faszikuluaren ataria izango da edo, bestela, atariaren orde zageri den baliokidea. Lehenengo liburukirik edo faszikulurik ez badago, eskura direnen arteko lehenengo liburukiaren edo faszikuluaren ataria izango da informazio-iturri nagusi.

Ataririk egon ezean, haren orde honako iturri hauek hartuko dira hurrenkera honetan: atari analitikoa, azala, orriburua, argitaldariaren marka, orrialde editorialak, dokumentuaren beste aurretiko batzuk, kolofioa, eta izenburua azaltzen den beste orrialde batzuk. Oharretan adieraziko da zein iturri erabili den atariaren orde.

Inprimaturiko testuak ez diren argitalpen seriatuen deskribapenerako (material kartografikoa, mikroformak eta abar), material bakoitzari dagozkion arau espezifikoei jarraituko zaie.

12.0.1B Eremuetarako agindutako informazio-iturriak

Ondorengo taulan zehazten da zein iturri dagokion argitalpen seriatuak deskribatzeko eremu bakoitzari. Agindutako iturri horietatik kanpo jasotako informazioa taket artean edo oharren bidez adierazi beharko da.

¹ Halaber, euskarazko argitalpenek jasaten dituzten berezitasunak (iraupeak eta bilakaerak, funtsezko zein azalezko aldaketak, eredu fitxak gaztelaniazko eta frantseseko irizpideei begira egina izana) konpontzeko eta argitalpenak transkribatzeko orduan, euskarazko izenburuak eta deskribapenak kontuan hartuko dira. Halaber, Euskadiko Liburutegia edo dagokion erakundea abian jartzen denean, erakunde horren irizpideak jarraituko dira.

Eremua	Agindutako informazio-iturriak
1 Izenburua eta erantzukizunaren aipua	Informazio-iturri nagusia
2 Edizioa	Informazio-iturri nagusia, beste aurretiko batzuk eta kolofoia
3 Zenbakia	Informazio-iturri nagusia, beste aurretiko batzuk eta kolofoia
4 Argitalpena, banaketa eta abar	Informazio-iturri nagusia, beste aurretiko batzuk eta kolofoia
5 Deskribapen fisikoa	Argitalpena bera
6 Seriea	Argitalpena bera
7 Oharrak	Edozein iturri
8 Nazioarteko zenbaki normalizatua	Edozein iturri

12.0.2 PUNTUAZIOA

Ikus 1.0.2

12.0.3 DESKRIBAPENAREN HIZKUNTZA ETA IDAZKERA-MOTA

Ikus 1.0.3

Zenbakiaren eremuaren deskribapenean erabili beharreko hizkuntza eta idazkera informazio hori hartu den liburukian edo faszikuluan erabilitakoak izango dira. Eremu horretan tartekatzeren bat egin behar denean, hizkuntza edo idazkera berean egingo da.

12.0.4 LABURTZAPENA ETA LABURDURAK

Ikus 1.0.4

12.0.5 LETRA LARRIEN ERABILERA

Ikus 1.0.5

12.0.6 AZENTUAK ETA BESTELAKO ZEINU DIAKRITIKOAK

Ikus 1.0.6

12.0.7 AKATSAK

Ikus 1.0.7

12.0.8 INFORMAZIO-ITURRI NAGUSIA ZEHAZTEA, ITURRI NAGUSI BAT BAINO GEHIAGO DITUZTEN DOKUMENTUETAN

Ikus 1.0.8

12.0.9 DESKRIBAPENAREN XEHETASUN-MAILAK

Ikus 1.0.9

12.1 IZENBURUAREN ETA ERANTZUKIZUNAREN AIPUAREN EREMUA*EREMUAREN ELEMENTUAK*

Izenburu nagusia

Dokumentu-motaren izendapen orokorra

Pareko izenburuak

Azpiizenburua edota izenburuari buruzko informazio osagarria

Erantzukizunaren aipua

12.1.1 ITURRIAK

Ikus 12.0.1B

12.1.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.1.2

12.1.3 IZENBURU NAGUSIA²

12.1.3A Izenburua transkribatzeko, 1.1.3 paragrafoan ezarritako araei jarraituko zaie.

Euzko-Gogoa
 Arrasate press
 Anthropos
 Jakin
 Ustela
 Antzerti
 Fontes linguae vasconum : studia et documenta
 Argia
 Eskualduna : journal basque-français hebdomadaire
 National geographic
 Euskal-esnalea
 Muy interesante
 Hegats : literatur aldizkaria
 Punto y hora de Euskal Herria
 Administrazioa euskaraz
 Anuario de eusko-folklore
 Pyrenaica
 Idatz & mintz : literatur atalen sorta
 La Baskonia
 Revista de llengua i dret
 Le monde
 Uztaro : giza eta gizarte-zientzia aldizkaria
 Olerti

Izenburua termino orokor bat izan daiteke.

Buletina
 Aldizkaria
 Anuario = Urtekaria
 Papers
 Circular
 Noticias

² Hemendik aurrera, «izenburu nagusia» erabili ordez, «izenburua» erabiliko da, argitasunaren mesedetan termino osoa erabili behar denean izan ezik.

12.1.3B Argitalpen seriatuetan, izenburu gisa ageri den elementu bakarra erantzulearen izena denean, izen hori izango da izenburu nagusia. Halakoetan, deskribapenaren oinarri den liburukiak edo faszikuluak argitalpenaren zer-nolakoei edo edukiari buruzko informazioen bat badu —iturri nagusitik kanpo—, informazio hori azpiizenburu gisa jaso *daiteke* taket artean, edo oharretan eman *daiteke*.

Agrupació d'Ensenyants de Formació Professional de Catalunya

12.1.3C Izenburuan aldagarria den dataren edo zenbakiren bat ageri denean, jaso gabe utziko da eta haren ordeztasuna marka jarriko da (...). Izenburuaren hasieran ageri badira, ordea, ez da hutsune-markarik jarri behar.

Bellas artes ...

(*Honen ordeztasuna: Bellas artes 70, Bellas artes 71 eta abar*)

Rapport annuel de recherches amérindiennes au Québec pour l'année ...

(*Urtero data aldatzen da*)

12.1.3D Atalak³, azpiserieak eta gehigarriak

12.1.3Da) Argitalpenak atal bat baino gehiago duenean, izenburu nagusia eratzeko, izenburu komuna eta, ondoren, atalaren izendapena edota izenburua jarriko dira.

Gaceta jurídica de la CE y de la competencia. Serie L

Cuadernos de sección. Hizkuntza eta literatura

Bizkaiko Batzar Nagusietako legezko aldizkaria. B saila, Barri-emotea, kontrola eta politika-jokera. I, ahaldu nagusia izendatzea eta kentzea = Boletín oficial de las Juntas Generales de Bizkaia. Serie B, Información, control y dirección política. I, Designación y cese del diputado general

Revue générale des routes et des aérodromes. Hors série

Cifras INE. Estadística de hipotecas

Atalen edo serieen zenbakiak balio kronologiko hutsa besterik ez dutenean, ikus 12.3.3H.

12.1.3Db) Azpiserieak eta gehigarriak izenburu bereizgarriak ez dutenean, ageri duten izenburua menpeko izenburu gisa jasoko da argitalpen nagusiaren izenburuaren ondoren.

Bibliografía española. Suplemento de publicaciones periódicas

Príncipe de Viana. Suplemento de ciencias

Kobie. Antropología cultural

Munibe. Ciencias naturales

12.1.3Dc) Atalen edo gehigarrien izenburua ez bada informazio-iturri nagusian azaltzen, baina bai deskribatu beharreko liburukiaren edo faszikularen beste zatiren batean, taket artean jasoko da.

³ Atalak bi mailatan ere deskriba daitezke (ikus 12.9).

12.1.3Dd) Atalek, azpiserieek edo gehigarriek izenburu komunetik argi bereizten den izenburua dutenean tipografiaren bitartez nabarmenduta, izenburu bereizi hori izango da izenburu nagusia. Halakoetan, izenburu komuna seriearen eremuan jasoko da atalen eta azpiserieen kasuan, eta oharretan gehigarrien kasuan.

Das deutsche Buch : Auswaid wichtiger Neuerscheinungen ... — (Deutsche Bibliographie)

Egan

Oharra

Honen euskarazko literatur geh. da: Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País = ISSN 0211-111X

12.1.3E Aldaketak

12.1.3Ea) Argitalpen seriatu baten izenburua deskribatu beharreko alean bertan modu batean baino gehiagotan ageri denean edota argitalpenean zehar aldaketa txikiren bat izan duenean, aldaketa horien berri emango da oharren bidez (ikus 12.7.3Bc).

12.1.3Eb) Argitalpen seriatu baten izenburuak argitalpenean zehar aldaketa nabarmenak baditu, aldatzen denetik aurrera erregistro bibliografiko berria egingo zaio (ikus 12.7.3Cc).

12.1.3Ec) Azpiserieen, atalen edo gehigarrien izenburua argitalpenean zehar tipografiaren bitartez bereizten bada izenburutik, aldaketa garrantzitsuztat joko da, eta seriearen izenburua 6. eremuan jasoko da.

12.1.3F Argitalpen seriatu bat baino gehiago duten dokumentuak

Dokumentuak argitalpen seriatu bat baino gehiago duenean, argitalpen seriatu bakoitzak bere ataria eta zenbaketa duelarik, banaka deskribatuko dira, euren arteko lotura oharren bidez adierazita (ikus 12.7.3C1).

12.1.4 DOKUMENTU-MOTAREN IZENDAPEN OROKORRA

12.1.4A Izendapen orokorra jarri beharra ikusiz gero, «testu inprimatua» terminoa erabiliko da, «braillezko testua» terminoa ere erabil daiteke, argitalpena idazkera-mota horretan egonez gero.

12.1.5 PAREKO IZENBURUAK

Pareko izenburuak transkribatzeko, 1.1.5 paragrafoan ezarritako arauetara jarraituko zaie.

Herri-arduralaritzazko euskal aldizkaria = Revista vasca de administración pública

Bidasoako ikaskuntzen aldizkaria = Boletín de estudios del Bidasoa = Rêvue d'études de la Bidassoa

Euzko Ikaskuntza´ren deia = Boletín de la Sociedad de Estudios Vascos
 Diario oficial del País Vasco = Euzkadi´ko agintaritzaren egunerokoa
 Sancho el Sabio : revista de cultura e investigación vasca = euskal kultura eta ikerketa aldizkaria

12.1.6 AZPIIZENBURUA EDOTA IZENBURUARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA

Ikus 1.1.6

Argitalpen seriatuen atalen, azpiserieen edo gehigarrien kasuan, ikus 1.1.6M.

12.1.6A Izenburu nagusia sigla-multzoa denean eta katalogatu beharreko faszikuluan izen osoa azaltzen denean, izen osoa azpiizenburu gisa transkribatuko da, nahiz eta informazio-iturri nagusitik kanpo ageri; kasu horretan taket artean jasoko da. Izen osoa deskribapenaren oinarri den faszikulutik kanpo ageri bada, oharretan jaso *daiteke*.

RIEV : revista internacional de los estudios vascos = nazioarteko eusko ikaskuntzen aldizkaria = revue internationale des etudes basques

EKA : euskaldunon kontsumo aldizkaria

ACT : arte, ciudad y territorio

BCE : boletín de las comunidades europeas

BIU : boletín de información universitaria = unibertsitateko informazio aldizkaria

12.1.7 ERANTZUKIZUNAREN AIPUA

Ikus 1.1.7

12.1.7A Erantzukizunaren aipua denean izenburu nagusia edota izenburu nagusiaren zati bat forma laburtuan emana, erantzukizunaren aipuan forma osoa jasoko da, betiere, deskribatu beharreko liburukian edo faszikuluan forma osorik ageri bada.

ADIMDE : revista de información / Agrupación de Industrias Marítimas de Euskadi

Boletín FEVAMA / Federación Empresarial Valenciana de la Madera

Aldeezkaria / Artxibozain, Liburuzain eta Dokumentazainen Euskal Elkarte = Asociación Vasca de Archiveros, Bibliotecarios y Documentalistas

12.1.7B Atalen, azpiserieen edo gehigarrien kasuan, izenburu nagusia izenburu komun batek eta menpeko izenburu batek osatzen dutenean, erantzukizunaren aipu bakoitza dagokion izenburu nagusiaren zatiaren ondoren adieraziko da. Zalantzarik izanez gero, erantzukizunaren aipuak izenburu nagusi osoaren ondoren transkribatuko dira.

12.1.7C Ez da erantzukizunaren aipuan jasoko argitalpen seriatuen zuzendarien izena. Adierazi beharra ikusiz gero, oharretan jasoko da.

12.2 EDIZIOAREN EREMUA

EREMUAREN ELEMENTUAK

Edizioaren aipua

Pareko edizioaren aipua

Edizioari dagozkion erantzukizunen aipuak

Edizioaren beste aipua

Edizioaren beste aipuari dagozkion erantzukizunen aipuak

12.2.1 ITURRIAK

Ikus 12.0.1B⁴

12.2.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.2.2

12.2.3 EDIZIOAREN AIPUA

Ikus 1.2.3

12.2.3A Argitalpen seriatuen edizioen aipuak honako hauek izan daitezke:

a) Argitalpen seriatua berrargitaratu, berrinprimatu edo berrikusi dela adierazten dutenak.

. — 2. ed.

. — 2. ed. zuz.

. — Argit. berrik.

. — Ed. faks.

⁴ Bilduma bibliografiko beraren barruan, argitalpen seriatu bateko liburukiak edo faszikuluak edizio ezberdinetakoak badira, eremu honetako elementuak gehiengoaren ediziotik edo edizio zaharreneko lehenengotik hartuko dira; gainerakoen edizioen aipamena oharretan jasoko da.

- b) Edizioa toki jakin batekoa dela adierazten dutenak.
 Egin. — Bizkaiko ed.
 Cambridgeshire farmer's journal. — Northern ed.
- c) Edizioa bereziki irakurle-mota jakin batentzat dela adierazten dutenak.
 . — Medikuentzako argit.
- d) Edizioaren formatua edo euskarri fisikoa adierazten dutenak.
 . — Paperean argit.
 . — Braillean argit.
 . — Disketean argit.
 . — Argit. elektronikoa
 . — Library ed.
 . — Microform. ed.
- e) Edizioaren hizkuntzaren berri ematen dutenak.
 . — Gaztelaniazko argit.

12.2.3B Ez dira edizioaren aipu gisa jasoko honako hauek:

- a) Liburu kiaren edo faszikularen zenbakia edo hurrenkera kronologikoa besterik zehazten ez dutenak. Informazio hori 3. eremuari dagokio (ikus 12.3.3D).
- b) Argitaratutako dokumentua zein motatakoa den adierazten dutenak, baldin eta datu hori atarian edo haren ordez erabilitako argitalpen-zatian ageri ez bada⁵.

. — Mikrofitxan argit.
 (*Atarian agertzen da*)

- c) Aldizkako edo ohiko berrikuspenak adierazten dituztenak, oharretan jasoko baitira.

Oharrean
 Urtekaria, sei hilabete behin ed. berrikusten da

12.2.3C Jaso egin *daitezke*, informazio-iturri nagusian ageri ez arren, deskribaturiko argitalpenetik atera daitezkeen edizioaren aipu guztiak (dokumentu-mota adierazten dutenak izan ezik). Jasotzekotan, taket artean jasoko dira.

. — [2. ed.]

⁵ Halakoetan, 1. eremuan jasoko da dokumentu-motaren izendapen orokor gisa edota, bestela, 5. eremuan, materialaren izendapen espezifiko gisa.

12.2.4 PAREKO EDIZIOAREN AIPUA

Ikus 1.2.4

Informazio-iturri nagusian edizioaren aipua hizkuntza edo idazkera batean baino gehiagotan ageri denean, izenburu nagusikoarekin bat datorren hizkuntzakoa edota idazkerakoa aukeratuko da. Izenburu nagusikoarekin bat datorrenik ez badago, lehenengo azaltzen dena hartuko da. Nahi izanez gero, beste hizkuntzetan edota idazkeretan dauden aipuak gehitu *daitezke*, aipagarriak direla iritziz gero.

12.2.5 EDIZIOARI DAGOZKION ERANTZUKIZUNEN AIPUAK

Ikus 1.2.5

12.2.6 EDIZIOAREN BESTE AIPUA

Ikus 1.2.6

12.2.7 EDIZIOAREN BESTE AIPUARI DAGOZKION ERANTZUKIZUNEN AIPUAK

Ikus 1.2.7

12.3 ZENBAKIAREN EREMUA*Aurretiko oharra*

Zenbakiaren eremuan adieraziko dira 1. eremuan jasotako izenburu nagusiari dagokion argitalpen seriatuaren lehenengo eta azken faszikuluen zenbakiak eta/edo datak.

Deskribatu beharreko liburukia edo faszikulua tartekoa bada, eta lehen eta azken liburukiei edo faszikuluei buruzko eremu honetako datuen iturririk ez badago, faszikulu horiei buruzko edozein informazio, zenbakiaren ingurukoa barne, oharretan jaso *daiteke*. 3. eremua jaso gabe utziko da baldin eta lehenengo eta azken faszikuluen zenbakien datuen iturririk ez badago.

Deskribatu beharreko faszikuluen sekuentzia mugatua denean, 3. eremuan jaso beharreko zenbakien datuak sekuentzia horretako lehen eta azken faszikuluei dagozkienak izango dira. Deskribaturiko sekuentziari dagokion argitalpen seriatuaren lehenengo faszikuluen zenbakia oharretan adieraz *daiteke*. Argitalpen seriatu baten faszikulu solte bat deskribatzen denean, haren zenbakia eta/edo data 3. eremuan adieraziko dira.

EREMUAREN ELEMENTUAK

Zenbakiaren eta dataren transkripzioa

Zenbakirik eta datarik gabeko sekuentzia

12.3.1 ITURRIAK

Ikus 12.0.1B

12.3.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.0.2

Horretaz gain, eremu honetan honako puntuazio hau erabili behar da:

- a) Lehen liburukiaren edo faszikuluaren zenbakia edo data eta azken liburukiaren edo faszikuluaren zenbakia edo data marratxo batez (-) bereizirik idatziko dira. Argitalpen seriatua oraindik argitaratzen ari bada, hori adierazteko, lehenengo liburukiaren edo faszikuluaren zenbakiaren edo dataren ondoren marratxoa jarriko da.
- b) Liburukian edo faszikulan hurrenkera-zenbakia eta data, biak, ageri badira, data parentesi artean idatziko da zenbakiaren ondoren, non eta zenbaki hori dataren zati bat ez den (ikus 12.3.3E).
- c) Liburuki edo faszikulu beraren barruan zenbaketa-sistema bat baino gehiago dagoenean, sistemak baliokideak direlarik, bigarren zenbaketa-sistemaren eta ondorengoan aurretik berdin-ikurra (=) jarriko da.
- d) Zenbaki-sekuentzia berri bakoitzaren aurretik puntu eta koma (;) idatziko da, eta sekuentzia berriaren izendapenaren ondoren, baldin eta halakorik bada, koma (,) idatziko da.

Adibideak

- . — Lehenengo liburukiaren edo faszikuluaren zenbakia edo data-azken liburukiaren edo faszikuluaren zenbakia edo data
- . — Lehenengo liburukiaren edo faszikuluaren zenbakia edo data
- . — Lehenengo liburukiaren edo faszikuluaren zenbakia (lehenengo liburukiaren edo faszikuluaren data)-azken liburukiaren edo faszikuluaren zenbakia (azken liburukiaren edo faszikuluaren data)
- . — Lehenengo liburukiaren edo faszikuluaren zenbakia (lehenengo liburukiaren edo faszikuluaren data)-
- . — Lehenengo liburukiaren edo faszikuluaren zenbakia-azken liburukiaren edo faszikuluaren zenbakia = lehenengo liburukiaren edo faszikuluaren beste zenbaki bat-azken liburukiaren edo faszikuluaren beste zenbaki bat
- . — Lehenengo liburukiaren edo faszikuluaren zenbakia-azken liburukiaren edo faszikuluaren zenbakia ; sekuentzia berriaren aipua, sekuentzia berriaren lehenengo liburukiaren edo faszikuluaren zenbakia-sekuentzia berriaren azken liburukiaren edo faszikuluaren zenbakia

12.3.3 ZENBAKIAREN ETA DATAREN TRANSKRIPZIOA

12.3.3A Zenbaki arabiarak erabiliko dira, bai kardinaletan (1, 2, 3...) bai ordinaletan (1.a, 2.a, 3.a...). Argitalpenaren forma izendatu behar denean (liburukia, faszikuluak, zatia eta abar), laburdurak erabiliko dira (libk., fasz. eta abar). Erabili behar diren gainerako hitzetarako ere, ahal izanez gero, laburdura normalizatuak erabiliko dira.

. — 2004ko 2. hiruhilekoa

. — 1977 aza.

12.3.3B Urteak adierazteko, deskribatu beharreko argitalpenean erabilitako zenbaketa erabiliko da. Erabilitako zenbaketa gregoriarra ez bada, haren ondoren gregoriarra idatziko da taket artean.

. — 5730 [1969 edo 1970]

12.3.3C Alea urtekoa izanik urte naturalari ez badagokio edo deskribaturiko unitatea urtebete baino gehiagokoa bada, data idaztean zehar-marra (/) jarriko da.

. — 1980/81

. — 1980/1982

12.3.3D Argitalpenaren liburukiak edo faszikuluak zenbakien edo daten bidez identifikatzen direnean, lehenengoaren eta azkenaren zenbakiak edo datak adieraziko dira. Argitalpena oraindik argitaratzen ari bada, lehenengoarenak baino ez dira adieraziko.

. — 1-80. t.

. — Vol. 1-

. — 1935-1970

. — 1930-

12.3.3E Liburukiak edo faszikuluak aldi berean zenbakien eta daten bidez identifikatzen direnean, datu biak jasoko dira, data zenbakiaren ondoren eta parentesi artean idatzita.

. — Vol. 3, no. 6 (Aug./Sept. 1970)-v. 5, no. 3 (Mar. 1972)

. — T. 1 (1930)-

Aitzitik, zenbakia dataren zati bat denean, zenbakia dataren ondoren idatziko da parentesirik gabe.

. — 1956, 1. zk.-1975, 12. zk.

12.3.3F Zenbaketa-sistema bat baino gehiago dagoenean, lehenengoa jasoko da; gainerakoak zenbakiaren eremuan edo oharretan adieraz *daitezke*⁶.

. — T. 1, n. 1-t. 6, n. 4 = N. 1 (en. 1973)-n. 24 (oct. 1978)

⁶ Laburdurak soilik euskara batuko hilabeteen izenetan erabiliko dira. Halaber, Euskadiko Liburutegia edo dagokion erakundea abian jartzen denean, erakunde horren irizpideak jarraituko dira.

Azpiserieak edo gehigarriak deskribatzen ari garela, azpiserie edo gehigarri horien izenburuak bi zati dituenean, izenburu komun batek eta menpeko izenburu batek osatutakoa, eta horietako bakoitzak bere zenbakia duenean, menpeko izenburuaren zenbakia zenbakiaren eremuan adieraziko da eta izenburu komunarena 6. eremuan azpiserieen kasuan, eta 7. eremuan gehigarrien kasuan.

12.3.3G Argitalpen batek izenburua aldatzen duelarik, lehengo zenbaketarekin jarraitzen duenean, eremu honetan jasoko da izenburu berriari dagokion zenbaketa.

- . — 6. t. (1971)
- . — 5. libk. (1942)-15. libk. (1952)

12.3.3H Argitalpen batek izenbururik aldatu gabe, sekuentzia berri bati ekiten dionean, lehen-dabizi sekuentzia zaharra adieraziko da eta, ondoren, berria; betiere argitalpenean bertan sekuentzia berri bat besterik ez dela ikusten bada («serie berria», «bigarren garaia» eta abar adierazita dagoelako) eta ez argitalpen seriatu berria.

- . — 49. zk. (2004ko 3. hiruhilekoa)-51. zk. (2005eko 2. hiruhilekoa)
- . — N. 1 (abr. 1979)-n. 12 (feb. 1980) ; 2º trim. 1980-

12.3.3I Faksimileak edo kopiak deskribatzen direnean, eremu honetan jatorrizko edizioaren zenbakiak eta/edo datak adieraziko dira. Kopian bertan azaltzen ez badira, taket artean idatziko dira.

12.3.4 ZENBAKIRIK ETA DATARIK GABEKO SEKUENTZIAK

Argitalpenaren sekuentzia adierazteko, zenbakirik edo datarik erabiltzen ez denean, zenbakiaren ordeztu argitalpenean erabiltzen den forma erabiliko da.

- . — Entrega A (en. 1970)-entrega H (jun. 1975)

12.4 ARGITALPENAREN, BANAKETAREN ETA ABARREN EREMUA

EREMUAREN ELEMENTUAK

Argitaralekua eta banaketa-lekua

Argitaratzailearen eta banatzailearen izena

Banatzaille-funtzioaren aipua

Argitalpen-data

Fabrikazio-lekua, fabrikatzailearen izena eta fabrikazio-data

12.4.1 ITURRIAK

Ikus 12.0.1B

12.4.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.4.2

Marratxoa (-) erabiliko da lehen eta azken liburukiari edo faszikuluari dagozkien edizio-urteak lotzeko. Marratxoaren ondoren urterik ageri ez bada, oraindik argitaratzen ari dela esan nahi du.

12.4.3 ARGITARALEKUA ETA BANAKETA-LEKUA

Ikus 1.4.3

12.4.4 ARGITARATZAILEAREN ETA BANATZAILEAREN IZENA

Ikus 1.4.4

12.4.5 BANATZAILE-FUNTZIOAREN AIPUA

Ikus 1.4.5. Aipu hau beharrezkoa da baldin eta banatzailearen aipuan nahikoa argi adierazita azaltzen ez bada.

12.4.6 ARGITALPEN-DATA

Ikus 1.4.6

12.4.6A Argitalpen seriatu osoa deskribatzen denean, lehen eta azken liburukien edo faszikuluen argitalpen-datak jasoko dira. Jakina denez, data horiek zenbakiaren eremuan agertzen direnekin zerikusia dute eta batzuetan berberak izaten dira.

12.4.6B Oraindik argitaratzen ari diren argitalpenak deskribatzen direnean, lehendabizi lehen liburukiaren edo faszikuluen data idatziko da eta ondoren marratxoa eta lau tarte.

, 1960-

12.4.6C Lehen edo azken liburukian edo faszikuluan argitalpen-datarik azaltzen ez denean, haren ordeztze-urtea, lege-gordailuarena edo copyright-arena erabiliko dira, hurrenkera horretan. Inprimatze-urtearen aurretik «inp.» laburdura idatz *daiteke* eta copyright-aren urtearen aurretik «cop.».

, inp. 1970-

, cop. 1970-

12.4.6D Argitalpen-datarik ez badago, ez eta copyright-aren, inprimatzearen edo lege-gordailuaren datarik ere, gutxi gorabeherako data bat jarriko da taket artean.

, [ca. 1970]-

, [1978?]-

, [198-]-

12.4.6E Argitalpen-dataren inguruko gorabeherak oharretan jasoko dira.

12.4.7 FABRIKAZIO-LEKUA, FABRIKATZAILEAREN IZENA ETA FABRIKAZIO-DATA

Elementu hauek aukerakoak izango dira, baldin eta 12.4.3/12.4.6 paragrafoetan adierazitakoak jasota badaude. Ikus 1.4.7.

. — [S.l. : s.n.], imp. 1963- (Madrid : Rivadeneyra)

. — Madrid : Dirección General de Archivos y Bibliotecas, 1963- (Valencia : Artes Gráf. Soler, 1964-)

12.5 DESKRIBAPEN FISIKOAREN EREMUA

EREMUAREN ELEMENTUAK

Materialaren tamaina eta izendapen espezifikoa

Ilustrazioak

Neurriak

Material gehigarria

12.5.1 ITURRIAK

Ikus 12.0.1B

12.5.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.5.2

Adibideak

Liburukiak edo faszikuluak : ilustrazioak ; neurriak + material gehigarria

Ilustrazioak ; neurriak

Neurriak

12.5.3 MATERIALAREN TAMAINA ETA IZENDAPEN ESPEZIFIKOA

Materialaren izendapen espezifikorako, dokumentu-mota bakoitzari dagokion kapituluaren ezarritako terminoak erabiliko dira.

Tamaina katalogatu beharreko dokumentua osorik argitaratuta dagoenean adieraziko da. Oraindik argitaratzen ari bada, materialaren izendapen espezifikorearen aurretik hiru tarte jarriko dira.

Argitalpen seriatu inprimatuen kasuan, materialaren izendapen espezifikorako, monografiaren kapituluko 2.5.3 paragrafoan ezarritakoari jarraituko zaio.

47 libk.

50 disko

25 est.

30 argk.

12 part.

8 film.

12.5.4 ILUSTRAZIOAK

Ikus 1.5.4. Kasu honetan *aukerako* elementua da.

12.5.4A Argitalpenean ilustrazioak funtsezko elementu direnean (jatorrizko grabatuak, komikiak eta abar), jasotzea gomendatzen da.

: ir.

: batez ere ir.

12.5.4B Ahal izanez gero, zer ilustrazio-mota dagoen adieraziko da.

: mapak

: mus.

12.5.5 NEURRIAK

Ikus 1.5.5

17 libk. : ir. ; 30 cm

25 cm

12.5.6 MATERIAL GEHIGARRIA

Ikus 1.5.6

- + diap.
- + diap. (5 × 5 cm)
- + 1 karpeta (10 fasz.)

Deskribapen fisikoaren eremuan ez da jasoko noizean behin argitaratzen den material gehigarria. Datu hori jakiterik ez badago, jaso gabe utziko da edo, jasotzekotan, oharretan jasoko da.

12.6 SERIEAREN EREMUA

Aurretiko oharra

Eremu hau erabiliko da soilik baldin eta argitalpenaren ale guztiak serie edo azpiserie berean agertu badira. Bestelako kasuetan, aipua oharretan egingo da.

Seriearen izenburu nagusia argitalpenaren berbera izango da, baldin eta argitalpen seriatu gisa deskribatzen bada (ikus 12.1.3).

Eremu honen deskribapenerako, ikus 1.6.3/1.6.15. Horretaz gainera, honako ohar hauek ere kontuan hartuko dira:

- a) Seriearen edo azpiseriearen gako-izenburua eta dagokion izenburu nagusia bat ez badatoz, oharretan adieraziko da.
- b) Seriearen zenbakia eremu honetan jasoko da, baldin eta liburuki edo faszikulu guztiak serie-zenbaki bera badute.
- c) Liburuki edo faszikulu guztiak serie-zenbaki bera ez badute, eremu honetan jaso gabe utziko da eta datu hori oharretan adieraz *daiteke*.

Oharrean

Ser. libk. bakoitza honela zenbatuta: 10, 20, 30 eta abar

EREMUAREN ELEMENTUAK

Seriearen izenburu nagusia

Seriearen pareko izenburuak

Azpiizenburua edota izenburuari buruzko informazio osagarria

Serieari dagozkion erantzukizunen aipuak

ISSNa (argitalpen seriatuen nazioarteko zenbaki normalizatua)

Seriearen zenbakia

Azpiseriearen izendapena edota izenburua

Azpiseriearen pareko izenburuak

Azpiseriearen azpiizenburua edota izenburuari buruzko informazio osagarria

Azpiserieari dagozkion erantzukizunen aipua

Azpiseriearen ISSNa

Azpiseriearen zenbakia

12.6.1 ITURRIAK

Ikus 12.0.1B

12.6.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.6.2

Adibideak:

- . — (Seriearen izenburua, seriearen ISSNa)
- . — (Seriearen izenburua, seriearen ISSNa ; seriearen zenbakia)
- . — (Seriearen izenburua = Seriearen pareko izenburua / seriearen erantzukizunaren aipua, seriearen ISSNa ; seriearen zenbakia)
- . — (Seriearen izenburua, seriearen ISSNa ; seriearen zenbakia. Azpiseriearen izenburua, azpiseriearen ISSNa ; azpiseriearen zenbakia)
- . — (Seriearen izenburua, seriearen ISSNa ; seriearen zenbakia. Azpiseriearen izenburua, azpiseriearen ISSNa ; azpiseriearen zenbakia = Seriearen pareko izenburua ; seriearen zenbakia. Azpiseriearen pareko izenburua ; azpiseriearen zenbakia)
- . — (Lehenengo seriea) (Bigarren seriea)

12.6.3 SERIEAREN IZENBURU NAGUSIA

Ikus 1.6.3

12.6.4 SERIEAREN PAREKO IZENBURUAK

Ikus 1.6.4

12.6.5 AZPIIZENBURUA EDOTA IZENBURUARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA

Ikus 1.6.5

12.6.6 SERIEARI DAGOZKION ERANTZUKIZUNEN AIPUAK

Ikus 1.6.6

12.6.7 ISSN-A (ARGITALPEN SERIATUEN NAZIOARTEKO ZENBAKI NORMALIZATUA)

Ikus 1.6.7

12.6.8 SERIEAREN ZENBAKIA

Ikus 1.6.8

12.6.9 AZPISERIEAREN IZENDAPENA EDOTA IZENBURUA

Ikus 1.6.9

12.6.10 AZPISERIEAREN PAREKO IZENBURUAK

Ikus 1.6.10

12.6.11 AZPISERIEAREN AZPIIZENBURUA EDOTA IZENBURUARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA

Ikus 1.6.11

12.6.12 AZPISERIEARI DAGOZKION ERANTZUKIZUNEN AIPUAK

Ikus 1.6.12

12.6.13 AZPISERIEAREN ISSN-A

Ikus 1.6.13

12.6.14 AZPISERIEAREN ZENBAKIA

Ikus 1.6.14

12.6.15 SERIE BAT BAINO GEHIAGO

Ikus 1.6.15

12.7 OHARREN EREMUA*Aurretiko oharra*

Oharren helburua deskribapen formala zehaztea eta osatzea da; izan ere, deskribapen formalaren arauen arabera jaso gabe uzten baitira hainbat xehetasun, batik bat argitalpen seriatuan zehar izan diren gorabeheren buruzko informazioa. Oharrok argitalpenaren alderdi bibliografikoaren nahiz fisikoaren edozein xehetasun buruzkoak izan daitezke, bai eta edukiari buruzkoak ere.

Halaber, oharrak bi argitalpen erlazionatzeko ere erabil daitezke. Beste argitalpen batzuen erreferentziak erregistro bibliografikoaren helburuei begira komeni den moduan egin daitezke; baina datu bibliografikoak trukatzeko eta agentzia bibliografiko nazionalaren helburuetarako, gako-izenburua eta ISSNaren erabiltzea da egokiena.

Arau hauetan ez dira egin daitezkeen ohar guztiak azaltzen. Ondoren aipatzen direnak ohikoenak dira, batzuk nahitaezkoak dira eta beste batzuk aukerakoak.

12.7.1 ITURRIAK

Ikus 12.0.1B

12.7.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.7.2

Ohar batean, gako-izenburuaren ondoren (gako-izenbururik badago, erabiltzea komeni da), hari dagokion ISSNaren ageri denean, ISSNaren aurretik tarte, berdin-ikurra eta tarte idatziko da (=). ISSNaren ageri denean baina ISSNaren zentroak ezarritako gako-izenburua zein den ez dakigunean, ISSNaren aurretik koma eta tarte idatziko da (,).

12.7.3 OHAR OHIKOENAK**12.7.3A Aldizkakotasunari buruzko oharrak**

Ohar hau nahitaezkoa izango da, baldin eta 1. eremuan jaso ez bada. 1. eremuan jasota badago, aukerakoa izango da. Aldizkakotasuna adierazten denean, aldizkakotasunean izan diren gorabeherak ere adieraziko dira.

Egunkaria
 Astekaria
 Hamaboskaria. Lehenago, hilabetekaria izan zen
 Hilabeteen 2 ale
 Hilabetekaria. Hiruhilabetekaria 5. liburukitik aurrera (1975)
 Bihilabetekaria
 Hiruhilabetekaria
 Lauhilabetekaria
 Seihilabetekaria
 Urtean bi ale
 Urtekaria
 Biurtekaria
 Irregularra
 Noizbehinkakoa

12.7.3B Izenburuaren eta erantzukizunaren aipuaren eremuari buruzko oharrak

12.7.3Ba) Itzulpenari buruzko oharrak

Itzulpenei gagozkiela, jatorrizko argitalpena beste argitaratzaile batek argitaratu duenean baino ez da jasoko datu hori. Ohar horretan, jatorrizko edizioaren izenburua eta ISSN-a ere jasoko dira. Horrela bada, ez da itzulpen-oharrik egingo hainbat hizkuntzatan argitaratutako argitalpen seriatuen jatorrizko edizioak deskribatzean.

12.7.3Bb) Argitalpenak ataririk ez duenean, izenburua zein iturritatik hartu den adierazi behar da da nahitaez.

Izenb. az. hartua

Izenb. orriburutik hartua

12.7.3Bc) Izenburuen aldaerei buruzko oharrak

Liburukiaren edo faszikuluaren iturrietan izenburu nagusiaren aldaerak azaltzen direnean, izenburu-aldaera horiek oharretan adieraziko dira.

Az. izenb.: Egutegi euzkotarra = Calendario vasco : con la traducción española
 (*Izenburu nagusia hauxe da*: Euzkel-egutegiya)

Aldaketa hamasei

Az. izenb.: Aldaketa 16

Argitalpen seriatuaren izenburu nagusiak argitalpenean zehar aldaketa txikiak izan baditu, oharretan jasoko dira edota izenburuak aldaketak izan dituela adieraziko da.

12.7.3Bd) Izenburuan siglak ageri direnean edota izenburua sigla edo akronimoz osatuta dagoenean, oharretan izen osoa eman *daiteke*. Horretarako, deskribatu beharreko faszikuluan izen osorik azaltzen ez denean, kanpoko iturri batetik hartuko da.

12.7.3C Edizioaren eta historia bibliografikoaren eremuari buruzko oharrak

12.7.3Ca) Aldizkako argitalpen berrikusiei eta metatuei buruzko oharrak.

Halakorik egonez gero, nahitaez adieraziko da ohar baten bidez.

Liburuki metatuetan moldatua

Ed. berr., sei hilabetean behin argitaratua

12.7.3Cb) Kopiak

Deskribatu beharreko argitalpena beste baten kopia zehatza denean —bai material inprimatua, bai bestelakoa izan (fotografikoa, soinuduna, ikustekoa eta abar)—, oharretan emango dira jatorrizko edizioa identifikatzeko beharrezko diren funtsezko datuak: izenburua, baldin eta kopiak beste izenburu bat badu; lekua; argitaratzailea; data eta abar. Ohar berean adieraz daiteke jatorrizko argitalpenaren aldizkakotasuna.

Ed. honen kopia: San Sebastián : establecimiento tipográfico y librería Antonio Baroja, 1880-1918

Hilabetekari honen kopia: México, D. F. : Juan Vicens de La Llave, 1943-1945

Astean bi aleko argitalpen honen kopia: Bilbao : oficina de Francisco Cándido Pérez Prieto, 1813-1814

12.7.3Cc) Izenburu-aldaketak

«Honen jarraipena da:» edo «honen ordezkoa da:» erabiliko dira deskribatu beharreko argitalpen seriatua beste baten jarraipena edo ordezkoa denean, aurrekoaren izenburua eta ISSN-a oharretan adieraziko dira.

Karmel : euskal egutegia

Honen jarraipena da: Karmen'go Amaren egutegia, ISSN 1132-2357

«Honek jarraitu dio:» edo «honek ordezkatu du:» erabiliko dira deskribatu beharreko argitalpen seriatua argitaratzeari utzi bazaio, eta hari jarraituz edo haren ordezkoez beste bat argitaratzen bada, berriaren izenburua eta ISSN-a oharretan adieraziko dira.

Egin

Honek jarraitu dio: Euskadi información, ISSN 1139-8590

12.7.3Cd) Bat-egiteak

«Hauen bat-egitea da:» erabiliko da deskribatu beharreko argitalpen seriatua beste bi argitalpen edo gehiago bat egin ondoren sortutakoa denean, bat egindakoen izenburuak eta ISSNak oharretan adieraziko dira.

Hika

Hauen bat-egitea da: Zutik! eta Zer egin?, ISSN 9966-660X

Asmoz ta jakitez

Hauen bat-egitea da: Asmoz ta jakitez (euskarazko ed.), ISSN 1133-7952 eta
Asmoz ta jakitez (gaztelaniazko ed.), ISSN 1133-9861

«Hauekin bat eginda:» erabiliko da argitalpen seriatu batek beste argitalpen batekin edo gehiagorekin bat egin badu, beste izenburu bat duen beste argitalpen bat sortzeko, oharretan adieraziko dira bat egindako beste argitalpen horien izenburuak eta ISSNak, bai eta sortutako argitalpen berriaren izenburua eta ISSNare.

Eroski : kontsumitzaileen aldizkaria = la revista del consumidor vasco

Consum-ekin bat eginda, Consumer, ISSN 1138-3887, sortzeko

Archivum : international review on archives = revue internationale des archives

Janus-ekin bat eginda, Comma, ISSN 1680-1865, sortzeko

12.7.3Ce) Bereizteak

«Aldez, honen jarraipena da:» erabiliko da argitalpen seriatu bat bereiztearen ondorioz sortutako argitalpenen kasuan, oharretan jasoko dira jatorrizkoaren izenburua eta ISSNare, bai eta, komenigarria irudituz gero, bereiztearen ondoren sortutako argitalpenen izenburuak eta ISSNare ere.

Euskal AEko heriotzen estatistika = Estadística de las defunciones en la CA de Euskadi

(*Argitalpenak ez du ISSNrik*)

Aldez, honen jarraipena da: Biztanleriaren berezko mugimendua = Movimiento natural de la población, ISSN 0214-2988

«Hauetan berezia:» erabiliko da argitalpen seriatu bat argitaratzeari utzi eta argitalpen horretatik argitalpen seriatu bat baino gehiago sortzen direnean, oharretan adieraziko dira sortutako argitalpen berrien izenburuak eta ISSNare.

Cuadernos de sección. Antropología, etnografía, prehistoria, arqueología

Hauetan berezia: Cuadernos de sección. Antropología y etnografía, ISSN 0213-0297 eta Cuadernos de sección. Prehistoria y arqueología, ISSN 0213-3024

«Honetatik berezia:» erabiliko da argitalpen seriatu baten parte izan den argitalpena deskribatzerakoan, oharretan adieraziko dira aurreko argitalpen horren izenburua eta ISSNare.

Anales del desarrollo

Honetatik berezia: Anales de anatomía = ISSN 0569-9894

CA: carreteras y autopistas
Honetatik bereizia: Carreteras (Madrid) = ISSN 0008-6908

12.7.3Cf) Bereganatzeak

Deskribatu beharreko argitalpenak beste argitalpen bat bereganatu duen kasuetan, bere izenburua gordeta, bereganatutakoaren izenburua eta ISSN-a oharretan adieraziko dira. Noiz bereganatu zuen ere oharretan adieraz *daiteke*.

Sefarad
1980an hau bereganatu zuen: Estudios sefardíes
Jazykovedny casopis
1950ean hau bereganatu zuen: Linguistica slovac
Estatistika boletina
Hauek bereganatu zituen: Biztanleriaren inkesta ihardueraren arabera (hilabetekaria) eta Biztanleriaren inkesta ihardueraren arabera (hiruhilabetekaria)

Deskribatu beharreko argitalpena beste argitalpen batek bereganatu duen kasuetan, argitalpen bereganatzailearen izenburua eta ISSN-a oharretan adieraziko dira. Noiz bereganatu zuen ere oharretan adieraz *daiteke*.

Estudios sefardíes
1980an honek bereganatua: Sefarad = ISSN 0037-0894
Linguistica slovac
1950ean honek bereganatua: Jazykovedny casopis
La grada de Sestao : periódico deportivo mensual
Honek bereganatua: La grada de la margen izquierda : periódico deportivo mensual

12.7.3Cg) Argitalpen gehigarriak

Argitalpena beste baten gehigarri denean, nagusiaren izenburua eta ISSN-a oharretan adieraziko dira.

Kili berri
Honen geh. da: Kili-kili : ume ta gaztetxoan aldizkaria

12.7.3Ch) Gehigarriak dituzten argitalpenak

Argitalpenak gehigarria duenean, gehigarriaren izenburua eta ISSN-a oharretan emango dira.

Kili-kili : ume ta gaztetxoan aldizkaria
Gehigarria: Kili berri

12.7.3Ci) Aldi bereko edizioak

Deskribatu beharreko argitalpena argitalpen nagusiago baten aldi bereko edizioa denean, edukian, izenburuan eta/edo hizkuntzan harekiko desberdina delarik, argitalpen nagusiaren izenburua eta ISSN-a oharretan adieraziko dira.

New French books

Honen ingelesezko argit.: Bulletin critique du livre français = ISSN 0007-4209

12.7.3Cj) Zenbait edizio

Argitalpenak edizio bat baino gehiago duen kasuetan (ikus 12.2.3Ab-d), edizio horien izenburuak eta ISSNak oharretan adieraz *daitezke*. Asko badira, nahikoa da edizio gehiago ere badela adieraztea.

Edizio ugari

Edizioak hainbat hizkuntzatan

Frantsesez eta ingelesez ere argitaratzen da

12.7.3Ck) Halaber, deskribatu beharreko argitalpenak beste argitalpen batzuekin duen erlazioa ere oharretan jaso *daiteke*, betiere, erlazioa zertan den adierazita eta, ahal izanez gero, argitalpenen ISSNak jarrita.

12.7.3Cl) Hainbat argitalpen batera argitaratzen direlarik, bakoitzak bere zenbaketa badu, argitalpen bakoitza bereiz deskribatuko da, oharrean «hauekin batera argitaratua:» esapidea eta, ondoren, bestearen edo besteen izenburua jarrita.

12.7.3Cm) Aurreko kasuan, argitalpen guztien artean nagusitzat har daitekeenik egonez gero, argitalpen nagusiaren deskribapenean besteen izenburua adieraziko da, izenburuen aurretik «hauek barruan:» esapidea jarrita. Besteetan, nagusiaren izenburua jasoko da, izenburuaren aurretik «honen barruan:» terminoa jarrita.

12.7.3Cn) Aurkibideei buruzko oharrak

Aurkibideak: 1981-1990, 2. aldia, 59. zk. (1990 uzt.-abu.)

12.7.3D Zenbakiaren eremuari buruzko oharrak

12.7.3Da) 3. eremua erabili ez denean, oharretan adieraz *daitezke* eremu horri dagozkion datuak edota eremua erabili ez izanaren arrazoiak.

Argitalpena eten egin zen 1940tik 1949ra

144.etik 156.era zenbakirik gabe

1993. urtetik aurrera zenbakirik gabe

Lehenengo faszikulua zenbakirik gabe

12.7.3Db) Deskribapenaren oinarri izan den alea tarteko zenbaki bat bada, lehenengo liburukiaren edo faszikuluaren datuak oharretan adieraz *daitezke*.

Argitaratutako lehen zenbakia: 1. t., 1. zk. (1970 urt.)

Lehenengo liburukiaren edo faszikuluaren datuak zehatz jakin ezean, horien zenbaketari buruzko edozein informazio oharretan jaso *daiteke*.

Argitaratutako lehen zenbakia: 1. zk. 1980

1960an hasi zen eta 1987an bukatu zen

Argitaratutako azken zenbakia 35.a

12.7.3E Argitalpenaren eremuari buruzko oharrak

Eremu honetako elementuek izan dituzten aldaketen inguruko edozein informazio osagarri oharretan adieraz *daiteke*.

1986tik aurrera, eustatek argitaratua

90. zk. 1936an argitaratu zen eta 91. zk. 1941ean

12.7.3F Deskribapen fisikoaren eremuari buruzko oharrak

5. eremuko datuak osatzen dituen edozein informazio oharretan jaso daiteke.

1975etik aurrera, 35 cm

22-32 cm (argitalpenaren liburukien gutxieneko eta gehieneko neurriak)

12.7.3G Seriearen eremuari buruzko oharrak

Oharretan jaso *daitezke* seriearen izena eta dagokion ISSN-a, baldin eta 6. eremuan jaso gabe utzi badira azpiseriearenak jarri direlako. Seriearen eta azpiseriearen izenburuak azaltzen direnean, seriearen ISSN-a oharretan eman *daiteke*.

Argitalpena hurrenez hurreneko bi serie edo gehiagotan argitaratu bada, serie horien izenburua oharretan adieraz *daiteke*.

12.7.3H Deskribapenaren oinarri den aleari buruzko oharrak

Deskribapenaren oinarri hartu den liburukia edo faszikulua argitalpenaren lehenengoa ez bada, oharretan adieraziko da hartu den alearen zenbakia edo, hala dagokionean, sekuentzia mugatuaren lehenengoarena.

Deskribapenaren oinarria: 78. zk. (1980 api.-eka.)

12.8 ZENBAKI NORMALIZATUAREN ETA ESKURATZE-BALDINTZEN EREMUA*EREMUAREN ELEMENTUAK*

ISSNa (argitalpen seriatuen nazioarteko zenbaki normalizatua)

Gako-izenburua

Eskuratze-baldintzak eta/edo prezioa

12.8.1 ITURRIAK

Ikus 12.0.1B

12.8.2 AGINDUTAKO PUNTUAZIOA

Ikus 1.8.2

12.8.3 ISSN-A

12.8.3A Argitalpenaren ISSNa adieraziko da, zein den jakinez gero. ISSNa transkribatzeko, ISSN siglak idatziko dira eta ondoren haren bi zifra-multzoak. Zifra-multzo bi horiek marratxo batez bereiziko dira.

ISSN 0379-1211

12.8.3B ISSNa okerrekoa bada, 1.8.3B paragrafoan ezarritako arauari jarraituko zaie.

12.8.4 GAKO-IZENBURUA

ISSNaren ondoren, ahal izanez gero, gako-izenburua jasoko da, herrialdeko edo eskualdeko ISSNaren erakundeak ezarritako moduan. Gako-izenburua adierazi egingo da, izenburu nagusia berdina izanda ere.

Quaderns de treball / Institut de Cultura Política
ISSN 0210-8593 = Quaderns de treball. — Institut de Cultura Política

Psicodeia
ISSN 0377-8320 = Psicodeia

12.8.5 ESKURATZE-BALDINTZAK ETA/EDO PREZIOA

12.8.5A Argitalpena doakoa denean edota salgai ez dagoenean, adierazi egin *daiteke*.

12.8.5B Argitalpenaren prezioa honela jaso *daiteke*:

- a) Liburuki edo faszikulu bakoitzaren prezioa adierazita, baldin eta beti bera bada.
- b) Harpidetzaren prezioa adierazita.
- c) Prezio biak adierazita.

12.8.5C Prezioa zenbakitan adieraziko da, zenbakiaren ondoren, dagokion diruaren ikurra jarrita.

Faszikulu bakoitzak 5 €

Urteko harpidetza 100 €

Ale atzeratuak 15 €

12.8.5D Salmenta-prezio berezirik badago (esate baterako, bazkideentzako, atzerritarrentzako eta abar), prezio arruntaren ondoren adieraz *daiteke* parentesi artean.

Urteko harpidetza 50 € (atzerrian 60 €)

12.9 BI MAILA EDO GEHIAGOKO DESKRIBAPENA

12.9.1 Argitalpen seriatuen kasuan, bi maila edo gehiagoko deskribapena egin *daiteke*, baldin eta argitalpenak zein bere aldetik argitaratutako atalak baditu eta atalen izenburuaren aurretik izenburu komuna ageri bada.

12.9.2 Bi mailako deskribapenaren kasuan, lehenengo mailan atal guztien datu komunak adieraziko dira eta, bigarrenean, atal bakoitzaren informazio espezifiko.

12.9.3 Maila bietan, deskribapenaren hurrenkerarako eta puntuaziorako, 12.1/12.8 eremuetan ezarritakoari jarraituko zaio. Edonola ere, atalen izenburuaren aurrean hurrenkera-adierazleren bat dagoenean, bi horiek bereizteko, tartea, bi puntu eta tartea idatziko dira (:).

Alerta informativa / Instituto de Información y Documentación en Ciencia y Tecnología. — Madrid : CSIC, Instituto de Información y Documentación en Ciencia y Tecnología, 1979-

27 cm

Hilabetekaria. — Honen jarraipena da: Resúmenes de artículos científicos y técnicos


Serie A : Química industrial

- A-1 : Ingeniería e industria química. — N. 1 (en. 1979)-
Honen jarraipena da: Resúmenes de artículos científicos y técnicos. A-1, Ingeniería e industria química, ISSN 0210-6655
ISSN 0210-6663 = Alerta informativa. Serie A, Química industrial. A-1, Ingeniería e industria química
- A-2 : Productos farmacéuticos. — N. 1 (en. 1979)-
Honen jarraipena da: Resúmenes de artículos científicos y técnicos. A-2. Productos farmacéuticos, ISSN 0210-668X
ISSN 0210-6698 = Alerta informativa. Serie A, Química industrial. A-2, Productos farmacéuticos
- A-3 : Productos alimenticios. — N. 1 (en. 1979)-
Honen jarraipena da: Resúmenes de artículos científicos y técnicos. A-3. Productos alimenticios,
ISSN 0210-671X
ISSN 0210-6728 = Alerta informativa. Serie A, Química industrial. A-3, Productos alimenticios
- A-4 : Química textil, plásticos y caucho. — N. 1 (en. 1979)-
Honen jarraipena da: Resúmenes de artículos científicos y técnicos. A-4, Química textil, plásticos y caucho, ISSN 0210-6744
ISSN 0210-6752 = Alerta informativa. Serie A, Química industrial. A-4, Química textil, plásticos y caucho
- A-5 : Otros materiales no metálicos. — N. 1 (en. 1979)-
Honen jarraipena da: Resúmenes de artículos científicos y técnicos. A-5. Otros materiales no metálicos, ISSN 0210-6787
ISSN 0210-6795 = Alerta informativa. Serie A, Química industrial. A-5. Otros materiales no metálicos

13.

kapitulua

Katalogazio analitikoa



Katalogazio analitikoaren xedea da lan baten zati bat edo gehiago deskribatzen duen erregistro bibliografikoa egitea. Katalogazio hori honela egin daiteke:

13.1 Serie baten edo monografia baten zatia den eta izenburu bereizia duen lana aparteko argitalpen gisa deskribatuz. Serie edo monografia osoaren datuak seriearen eremuan jasoko dira.

Suárez Fernández, Luis

España cristiana : crisis de la Reconquista : luchas civiles / por Luis Suárez Fernández ... y Juan Reglá Campistol ; prólogo por Ramón d'Abadal i de Vinyals. — 3ª ed. — Madrid : Espasa Calpe, 1981
XCIII, 658 or. : ir., mapak ; 28 cm. — (Historia de España / dirigida por Ramón Menéndez Pidal ; t. 14)

13.2 Lana osatzen duten zatiak oharretan jasoz.

Amo, María Dolores del

Estudio crítico de la necrópolis paleocristiana de Tarragona / María Dolores del Amo. — Tarragona : Diputación Provincial, 1979-1981
2 libk.: ir. ; 24 cm. — (Institut d'Estudis Tarraconenses
Ramón Berenguer IV. Secció d'Arqueologia i Historia ; 42, 45)
Edukia: 1. libk. Testua — 2. libk. Irudiak

13.3 Erantzukizunaren edo oharren eremuan aipatutako lan-zatiei egile-izenburuez osatutako bigarren mailako sarrera eginez.

Sofokles

Edipo, rey / Sófocles. Medea / Eurípides ; [traducción y Prólogo, A. Espina]. — 6ª ed. — Madrid : Mediterráneo, 1979
113 or. ; 19 cm. — (Colección de bolsillo EDIME ; 19)
Egile-izenburuez osatutako bigarren mailako sarrera
Eurípides. Medea. Gaztelania

Teatro mexicano contemporáneo / prólogo de Antonio

Espina. — 3ª ed. — Madrid : Aguilar, 1968
514 or., 6 oir. ; 20 cm
Edukia: ¿En qué piensas? ; Parece mentira ; Sea usted breve / Xavier Villaurrutia. El color de nuestra piel / Celestino Gorostiza. El gesticulador / Rodolfo Usigli. Cada quien su vida / Luis G. Basurto. Susana y los jóvenes / Jorge Ibarregüengoitia. Los frutos caídos / Luisa Josefina Hernández
Egile-izenburuez osatutako bigarren sarrerak egingo zaizkio lan bakoitzari
Villaurrutia, Xavier. ¿En qué piensas?
[etab.]

13.4 ERREGISTRO ANALITIKOA, ADIERA HERTSIAN

Batez ere, egile baten edo gehiagoren lanak biltzen dituzten bildumak, eta monografiak eta argitalpen seriatuen zatiak deskribatzeko erabiliko da. Zatiok unitate fisiko bereziak, bakoitzak bere izenburua duelarik, diren kasuetarako, 13.1 eta 13.2 paragrafoetan ezarritako arauak hobesten dira.

Erregistro analitikoak hiru atal ditu: analizatu den zatiaren deskribapena, hura identifikatzeko behar diren elementuak jasotzen dituen; loturazko elementu bat; eta iturri izan den dokumentua identifikatzeko adierazpen labur bat.

Lehenengo ataleko elementuak honako hauek dira:

- a) Deskribatu beharreko zatiari dagozkion izenburuaren eta erantzukizunaren aipuaren eremuko elementuak.
- b) Zatiari dagozkion edizioaren eremuko elementuak.
- c) Argitalpenaren eremuko elementuak ez dira jasoko. Elementu horiek eta iturri den dokumentuan ageri direnak bat ez badatoz, oharretan jasoko dira.
- d) Beste datu fisiko batzuk, baldin eta iturri den dokumentuaren deskribapenetik jakin ezin badaitezke.
- e) Neurriak, baldin eta argitalpen osoaren deskribapenean jaso ez badira.
- f) Oharrak, baldin eta argitalpen osoaren deskribapenean jaso ez badira.

Bigarren atalaren aurretik «In» idatziko da, tipografikoki nabarmendurik, edo ondoren bi puntu jarrita. Bi puntuen ondoren, honako elementu hauek jasoko dira: lan osoaren sarrera nagusia; ondoren, taket artean, izenburu hautatua, baldin eta halakorik bada; ondoren, izenburu nagusia, edizioaren aipua eta argitalpenaren eremuko beharrezko diren datuak; azkenik, zatiaren kokapena adieraziko da.

Poves Bárcenas, María Luisa

Algunas actividades del Servicio de Catalogación en el año del centenario de la Biblioteca Nacional / María Luisa Poves Bárcenas.

In: **Revista** de archivos, bibliotecas y museos. — Madrid. — T. 73 (1966), n. 1, 179-195 or.

García Figueras, Tomás

La tarea cultural de España en el norte de Marruecos / por Tomás García Figueras

In: **Homenaje** a Guillermo Guastavino : miscelánea de estudios en el año de su jubilación como director de la Biblioteca Nacional. — Madrid : ANABA, 1974. — 461- 470 or.

Belmonte, Isabel

Redes de bibliotecas universitarias / Isabel Belmonte

In: **Signatura**. — ISSN 1132-807X. — N. 2 (en.-abril 1993), 34-39 or.

Bigarren atala lehenengoaren ondoren ere jar *daitেকে*, bloke batean, bi atalak zehar-marra bikoitzez bereizturik (//).

Horrela eginez gero, deskribapenaren lehenengo atalean aukerakoak diren elementuak kendu egingo dira, ez da oharririk egingo, izenburu luzeak laburtu egingo dira, gako-izenburuak erabiliko dira argitalpen seriatuak identifikatzeko, eremuak bereizteko marra kendu egingo da eta, azkenik, zatiaren kokapenari dagozkion datuak ere bloke bakarrean jasoko dira.

Silva, M.

Entre Sevilla y Triana / M. Silva, A. Núñez // Después de un año de espera. Sevilla : Trovador, D.L. 1992. Cara A, l. Int.: La buena gente. Parolillo FLP-100


Moghadam, Valentine M.

La mujer en la sociedad / Valentine M. Moghadam // Revista internacional de ciencias sociales. ISSN 0379-0763. 139 (en. 1994), 115-137 or.

14.

kapitulua

Sarrerak aukeratzea



14.0 AURRE-ARAUAK

14.0.1 APLIKAZIO-EREMUA

Dokumentu baten deskribapen bibliografikoaren helburua da katalogo bibliografiko bat osatzea beste deskribapen askorekin batera. Katalogo hori, kasu honetan, alfabetikoki ordenatuta egoten da egileen eta izenburuen arabera.

Deskribapen bibliografikoen ugaritasuna antolatzeko, beharrezkoa da deskribapenetatik elementuren bat hartzea, aurkibide gisa erabiliz nahi den deskribapen bibliografikoa aurkitu ahal izateko. Elementu horiek SARRERAK dira, eta erregistroa egiterakoan deskribapen bibliografikoaren buruan jartzen direnez gero, IDAZPURU ere esaten zaie.

Egileen eta lan anonimoen katalogo alfabetiko hutsetik abiatuta ere, asko dira sarrera gisa jartzeko har daitezkeen elementuak. Hori dela eta, erregistro bibliografiko bat baino gehiago egon daiteke; horietako bat NAGUSIA izango da eta gainerakoak BIGARREN MAILAKOAK.

Ondoren azalduko diren arauak sarrerak zehazteko balio dute, baita ere jakiteko horietako zein izango den sarrera nagusia eta zein edo zeintzuk bigarren mailakoak.

14.0.2 INFORMAZIO-ITURRIAK

Sarrerak zehazteko, lanen deskribapenerako informazio-iturrietara joko da, 1.0.1A arauan ezarritakoari jarraiki.

14.0.3 UNITATE BIBLIOGRAFIKOA

Unitate bibliografiko bakoitzak bere deskribapena izango du eta, hortaz, bere sarrerak edo idazpuruak. Unitate bibliografikotzat hartuko dira honako hauek:

- a) Dokumentu monografiko guztiak, dokumentuok izan duten edizio bakoitzean (edo berinprimatze bakoitzean, baldin eta deskribapenean jaso beharreko datuetan alde nabariak ageri badituzte), kontuan izan gabe zati edo liburuki bakarrean edo gehiagotan argitaratuta dauden.
- b) Argitalpen seriatu guztiak.
- c) Dokumentu monografikoen eta argitalpen seriatuen zatiak, katalogazio analitikoa egiten bada (ikus 13. kapitulua).
- d) Argitalpen seriatu guztiak, izenburua nabarmen aldatzen zaienean, hau da, izenburuaren hitz esanguratsuenak aldatzen direnean edo beste hurrenkera batean azaltzen direnean.

e) Argitalpen seriatuak, baldin eta sarrera nagusia argitalpenaren erantzukizuna duen pertsona edo korporazioaren izena edota izenburu generikoa izanik, pertsona edo korporazioaren izena edota pertsona edo korporazio erantzulea bera aldatzen bada.

14.0.4 METODOLOGIA

Behin sarrera-mota nagusi guztiak arau orokor batean zehaztuta, ondoren datozen arauak erabiliko dira sarrera nagusia eta beharrezko izan daitezkeen bigarren mailako sarrerak aukeratzeko. Arauok adibidez horniturik daude, eta adibideak bi zati dituzte: lehenengoan, sarrera identifikatzeko beharrezkoa den deskribapen bibliografikoaren zatia jasotzen da, oro har¹, deskribapen horretarako ezarritako arauak betetzen direlarik. Bigarren zatian, letra etzanean, adierazten da zein den sarrera nagusia eta zeintzuk bigarren mailakoak (halakorik balego), forma zehaztu gabe.

ARAU OROKORRAK

14.1 SARRERA-MOTAK

Hiru sarrera-mota daude: norbanako egilearen sarrera, egile korporatiboaren sarrera eta izenburuaren sarrera.

14.1.1 NORBANAKO EGILEAREN SARRERA

Norbanako egiletzat hartuko da lan osoaren nahiz lanaren zati baten edukiaren erantzukizuna duen edozein pertsona, baldin eta deskribapen bibliografikoaren sarrera gisa erabiltzeko moduko izenik badu.

14.1.2 EGILE KORPORATIBOAREN SARRERA

Katalogatzerakoan, korporaziotzat hartuko dira ente kolektiboak, alegia, organizazioak, erakundeak, enpresak, gobernuak eta horien menpeko erakundeak, planak eta programak, elizak, batzarrak eta abar, aldi batekoak direlarik ere, baldin eta izen formal ezaguna badute.

Korporazio horiek, argitalpen osoaren nahiz zati baten erantzukizuna dutelarik, sarrera nagusi izan daitezke, baldin eta argitalpena bera hauetako talde batean edo batzuetan sar badaiteke:

a) Administrazio-izaerako argitalpenak:

¹ Kasu batzuetan deskribapen-arauak ez dira zehatz-mehatz betetzen, adibideak berak argitu dezan araua. Hortaz, adibideak dagokien arauaren arabera ulertu behar dira.

- korporazioarekin berarekin zerikusia dutenak
- korporazioaren jarduerarekin eta barne-araudiarekin zerikusia dutenak
- korporazioaren jarduera ekonomikoarekin zerikusia dutenak
- korporazioaren zuzendariekin eta gainerako langileekin zerikusia dutenak
- korporazioaren baliabideekin (katalogoak, inbentarioak, bazkide-zerrendak...) zerikusia dutenak

b) Lege-xedapenak eta argitalpen ofizialak, hala nola:

- legeak
- lege-indarra duten dekretuak
- administrazio-xedapenak
- nazioarteko tratatuak
- epai judizialak
- legebiltzarren osoko bilkuren egunkariak

c) Korporazioaren pentsamendu kolektiboa jasotzen duten argitalpenak (batzordeen eta abarren txosten eta azterlanak, eta beste pertsona edo korporazio batzuekiko harremanei buruzko adierazpen ofizialak; baina inoiz ez gertaera eta datuen azterketa objektibo soilak jasotzen dutenak).

d) Batzarren, espedizioen eta gertakarien (erakusketak, azokak, jaialdiak...) talde-jarduera jasotzen duten argitalpenak (aktak, ebazpenak eta abar), baldin eta izen bereizgarria badute eta izen hori berariaz eta formalki ageri bada atarian, aurretikoetan edo azalean.

Argitalpena ezin bada ziur kokatu aurreko talderen batean, aurreko talderik ez balegokio bezala katalogatuko da. Edonola ere, kasu horretan bigarren sarrera bat edo gehiago egin daiteke egile korporatiboaren izenaren bidez, arau hauen arabera hala badagokio.

Argitalpena talde horietakoren batean sar badaiteke eta erantzukizuna duen korporazioa beste baten menpekoa bada, menpeko korporazioa sarrera gisa hartuko da baldin eta berorren izena dokumentu-mota bakoitzerako 1. eta 2. eremurako agindutako informazio-iturrian ageri bada. Hala ez bada, korporazio nagusiaren izena jarriko da sarrera gisa, betiere, informazio-iturri nagusian azaltzen bada.

14.1.3 IZENBURUAREN SARRERA

Dokumentu monografiko baten izenburua ere deskribapen bibliografikoaren sarrera izan daiteke aurrerago azalduko diren kasuetan. Izenburua edizio guztietan berbera ez bada, deskribatzen ari garen edizioarena hartuko da, non eta izenburu hautatua erabiltzea ezarrita ez dagoen.

Izenburua dokumentuaren barruko zatietan aldatu egiten bada, lehenengo zatiari dagokion izenburu nagusia hartuko da, salbu eta ondorengo zatietan beste izenburu bat gehiagotan ageri bada.

14.2 EGILEA EZAGUNA DENERAKO ARAUAK

14.2.1 EGILE BAKARRA

14.2.1A Dokumentuaren erantzukizuna pertsona edo korporazio bakarrari dagokionean —bigarren kasuan, 14.1.2 idatz-zatian ezarritakoa betetzen delarik—, sarrera nagusia pertsona edo korporazio horren izenaren bidez egingo da, nahiz eta, pertsonen kasuan, dokumentuan izenik ageri ez.

Haltzak badu bihotzik / Iñaki Mendiguren

Sarrera nagusia Mendiguren

Mekanika kuantikoaren zenbait berezitasun / Joseba Tobar-Arbulu

Sarrera nagusia Tobar-Arbulu

Futbolsofia / Xabier Azkargorta

Sarrera nagusia Azkargorta

Laura kanpoan da / Jabier Muguruza

Sarrera nagusia Muguruza

Programa de gobierno / Partido Socialista de Euskadi

Sarrera nagusia alderdiaren izenaren bidez

Artxibozain, Liburuzain eta Dokumentazainen Euskal Elkartearen estatutoak

Sarrera nagusia elkartearen izenaren bidez

Memoria 1995 = 1995 txostena / Colegio de Abogados de Álava

Sarrera nagusia elkargoaren izenaren bidez

Ilustre Colegio Notarial de Madrid. Reglamento de utilización de la biblioteca

Sarrera nagusia elkargoaren izenaren bidez

San Telmo Museoa : gida liburua = guía

Sarrera nagusia museoaren izenaren bidez

Euskal artea Bilbao Bizkaia Kutzaren bilduman

(Bildumaren katalogoa)

Sarrera nagusia kutxaren izenaren bidez

Humanitateak eta Hezkuntza Zientzietako ikaslearen gidaliburua / Mondragon Unibertsitatea

Sarrera nagusia unibertsitatearen izenaren bidez

Donostiako Nazioarteko Zinemaldia : 40 urte, 1953-1992 = Festival Internacional de Cine de Donostia-San Sebastián : 40 años, 1953-1992

Sarrera nagusia jaialdiaren izenaren bidez

Universidad Politécnica de Madrid, Instituto de Ciencias de la Educación.

Programa de seminarios dirigidos a profesores de la Universidad Politécnica

Sarrera nagusia unibertsitatearen izenaren bidez, ondoren institutuaren izena jarrita azpisarrera gisa

14.2.1B Edozein jurisdikziotako agintari gorenen eginkizunen jardunari dagozkion idazkien kasuan, karguaren izena izango da sarrera nagusi (ikus 15.2.2D eta 15.2.4Cd). Bigarren sarrera egingo da kargua betetzen duen pertsonaren izenaren bidez.

Egoera politikoari buruzko eztabaida : lehendakariaren hitzaldia : Gasteiz, 1999ko irailaren 24a = Debate de política general : intervención del lehendakari : Vitoria-Gasteiz, 24 de septiembre de 1999

Sarrera nagusia karguaren izenaren bidez eta bigarren sarrera Ibarretxe

Encíclica «Mater et Magistra» / Juan XXIII

Sarrera nagusia karguaren izenaren bidez eta bigarren sarrera Juan XXIII.a

Agintari horien idazki ez ofizialetan, bai eta idazki ofizialak nahiz pribatuak biltzen dituzten argitalpenetan ere, pertsona-izena izango da sarrera nagusia. Kasu horretan, bigarren sarrera egingo da karguaren bidez.

14.2.2 EGILE BAT BAINO GEHIAGO DIRENEAN

14.2.2A Lankidetzan egindako lanak

Honako hauek dira:

- 1) Pertsona edo korporazio bik edo gehiagok lankidetzan egindako lanak.
- 2) Zenbait egileren lan banako eta ondo bereiziez osatutako argitalpenak, metodoaren eta edukiaren aldetik batasuna dutenak.
- 3) Pertsona edo korporazio bi edo gehiagoren arteko ideia-trukeak jasotzen dituzten lanak (solasaldiak, gutun-liburuak, eztabaidak eta abar).

14.2.2Aa) Erantzule nagusia adierazita dutenak

Lankidetzan egindako lanaren egileen artean egileetako bat erantzule nagusi gisa ageri bada edota tipografiaren arabera erantzule nagusitzat har badaiteke, sarrera nagusia egile nagusi horri dagozkion izenaren bidez egingo da. Bigarren sarrerak egingo dira gainerako egileen izen bakoitzaren bidez, betiere gehienez bi badira.

Eskola publiko batean : globalizazioa, sistema ireki baten barruko bizi bilakabide gisa = En una escuela pública : la globalización como proceso vital dentro de un sistema abierto / Loli Anaut eta Taldea (y equipo)

Sarrera nagusia Anaut

Giza fisiologia / egilea, M. Asier Garro Beristain ; laguntzailea, Jon Irazusta, Luis Felipe Callado Hernando ; hizkuntz zuzentzailea, Juan Kruz Igerabide Sarasola ; edizio-arduraduna, Antton Gurrutxaga

Sarrera nagusia Garro eta bigarren sarrerak Irazusta eta Callado

Ama-semeak Arantzazuko kondairan / A. Salvatore Mitxelena ; A. Xabier Eulate'ren apaingarriakin

Sarrera nagusia Mitxelena eta bigarren sarrera Eulate

Administrazio idazkiak : 7 ikastunitate / [egilea, Jexux Eizagirre ; laguntzaileak, Dionisio Amundarain ... et al.]

Sarrera nagusia Eizagirre

Erantzule nagusi bat baino gehiago badago, 14.2.2Ab) arauan agindutakoa ezarriko zaio egile-talde horri.

From first words to grammar : individual differences and dissociable mechanisms / Elizabeth Bates, Inge Bretherton, Lynn Snyder ; in collaboration with Marjorie Beeghly ... [et al.]

Sarrera nagusia Bates eta bigarren sarrerak Bretherton eta Snyder

Abadiño ezagutzen / [egileak, J. I. Arrizabalaga, M. Salterain, M^a Karmen Zabala]

Sarrera nagusia Arrizabalaga eta bigarren sarrerak Salterain eta Zabala

Egile nagusiak gehienez ere bi badira eta laguntzailea pertsona edo korporazio bakarra bada, bigarren sarrera egingo da haren izenaren bidez.

Ekonomia / Paul A. Samuelson, William D. Nordhaus ; laguntzailea, Michael J. Mandel ; itzulpena, Hori-Hori

Sarrera nagusia Samuelson eta bigarren sarrerak Nordhaus eta Mandel

Lanaren zuzendari soil gisa ageri den pertsona ez da egile edo erantzule nagusizat hartuko eta, hortaz, ez da sarrera nagusi izango, bigarren sarrera baizik. (Ikus gainera, Edizio-zuzendaria duten lanak, 14.2.2D araua).

Beasain : udalerrri gipuzkoar baten historia / zuzendari eta koordinatzailea, Miguel Ángel López González ; idazleak, Juan José Gozalo Rodríguez ... [et al.] = Beasain : historia de un municipio guipuzcoano / director-coordinador, Miguel Ángel López González ; autores, Juan José Gozalo Rodríguez ... [et al.]

Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrera López González

Argitalpen monografikoetan zuzendaria, ustez edo ziur, egilea ere badela ikusiz gero, egileztat joko da, eta erantzule nagusi gisa jasoko da baldin eta tipografiaren edo beste datu batzuen arabera halaxe dela ikus badaiteke.

14.2.2Ab) Erantzule nagusia adierazita ez dutenak

Lan batean bi edo hiru egilek parte hartzen dutelarik, erantzule nagusia zein den azaltzen ez denean, sarrera nagusia lehenengo ageri den egilearen bidez egingo da. Bigarren sarrerak egingo dira beste egilearen edo egileen izenen bidez.

Eskolaurreko euskararen programakuntza : A eredia / liburu honen egileak, Andoni Arberas, Ion Kortabarria, Uri Ruiz Bikandi

Sarrera nagusia Arberas eta bigarren sarrerak Kortabarria eta Ruiz Bikandi

Azken Brontze Aroa eta Burdin Aroa Euskal Herrian / Carlos Olaetxea Elozegi,
Xabier Peñalver Iribarren

Sarrera nagusia Olaetxea eta bigarren sarrera Peñalver

Eibarko idazlien eta idazlanen antologixia / [egilliak] Enrike Eizagirre, Miriam
Lizarralde, Antxon Narbaiza

Sarrera nagusia Eizagirre eta bigarren sarrerak Lizarralde eta Narbaiza

Hiru pauso, hiru norabide : trilogia Eskandinavian / [egileak] Ramon Olasagasti,
Josu Iztueta, Aitor Elduaien

Sarrera nagusia Olasagasti eta bigarren sarrerak Iztueta eta Elduaien

Egileak hiru baino gehiago badira, izenburua hartuko da sarrera nagusi gisa jartzeko. Bigarren sarrera egingo da lehenengo ageri den egilearen izenaren bidez.

Haur literatura / Seve Calleja ... [et al.]

(Atarian aipatzen diren beste lau egile)

Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrera Calleja

Lanean parte hartu duten egileek beren izenen ordeztaldeen bat erabili badute, talde-izen horixe erabiliko da sarrera nagusitzat. Erreferentziak egingo dira izen bakoitzetik taldearen izenordea bidaltzeko.

Animaliak sakratu direnean / Murgil Taldea

(Murgil Taldea Malores Etxeberria, Iñaki González Garai, Begoña Mendigutxia eta Alizia Stürtze Mendiaren talde-izena da, baina bakoitzak bere egiazko izenarekin ere egin izan du lan)

Sarrera nagusia talde-izenaren bidez eta talde-izenari erreferentzia Etxeberria, González Garai, Mendigutxia eta Stürtze Mendiaren sarreretatik

Kartapazioko poemak / Igerasoro

(Igerasoro Juan Kruz Igerabide eta Karlos Linazasororen talde-izena da)

Sarrera nagusia talde-izenaren bidez eta talde-izenari erreferentzia Igerabide eta Linazasororen sarreretatik

Uluxka eta Makaon / [testua eta marrazkiak] Markoolier ; [moldapena, Mattin
Irigoyen]

(Markoolier Marc «Marko» Armspach eta Olivier «Olier» Gilleronen talde-izena da)

Sarrera nagusia Markoolier eta talde-izenari erreferentzia Armspach eta Olivieren sarreretatik

El proceso de Euskadi en Burgos : el sumarísimo 31/69 / Kepa Salaberri

(Kepa Salaberri Francisco Letamendia «Ortzi» eta Miguel Castellsen talde-izena da)

Sarrera nagusia Kepa Salaberri eta talde-izenari erreferentzia Letamendia eta Castellsen sarreretatik

¡Secuestrados! : 117 días en la encrucijada vasca / Ricardo Zabalza

(Ricardo Zabalza Iñaki Iriondo, Fernando Alonso, Antxon Zeberio, Aintzane Alberdi, José María Caminos eta Iñaki Alsazuaren talde-izena da)

Sarrera nagusia Ricardo Zabalza eta talde-izenari erreferentzia Iriondo, Alonso, Zeberio, Alberdi, Caminos eta Alsazuaren sarreretatik

Los dientes del dragón / Ellery Queen

(Ellery Queen Frederic Dannay eta Manfred B. Lee-ren talde-izena da)

Sarrera nagusia talde-izenaren bidez. Erreferentziak izen bakoitzetik talde-izenera

14.2.2Ac) Idazle baten eta artista baten arteko lankidetzak

Lana idazle batek eta artista batek (margolaria, marrazkilaria, argazkilaria eta abar) lankidetzan egindakoa bada, sarrera nagusia informazio-iturri nagusian lehenengo ageri denaren izenaren bidez egingo da, salbu eta bestea erantzule nagusi gisa ageri bada edota tipografiak hala dela erakusten badu. Bigarren sarrera egingo da bigarrenaren izenaren bidez. Guztira hiru lankide baino gehiago badira, izenburua izango da sarrera nagusi, eta bigarren sarrera egingo da jardun-mota bakoitzaren lehen lankidearen izenaren bidez.

Anastasio Otxoa, ikazkina / Xabi Otero, argazkiak ; Valentín Terrazas, testua ;
[itzulpena, Perico Diez de Ultzurrun]

Sarrera nagusia Otero eta bigarren sarrerak Terrazas eta Diez de Ultzurrun

Asterix Belgikan / gidoia, Goscinny ; marrazkiak, Uderzo ; [itzulpena, Joxemari Azurmendi]

Sarrera nagusia Goscinny eta bigarren sarrerak Uderzo eta Azurmendi

Julietta, Romeo eta saguak / Mariasun Landa Etxebeste ; [irudiak, Asun Balzola]

Sarrera nagusia Landa eta bigarren sarrera Balzola

Risky, zaude geldirik! / Joxemari Iturralde ; marrazkiak, Jon Zabaleta

Sarrera nagusia Iturralde eta bigarren sarrera Zabaleta

14.2.2Ad) Ideia-trukea duten lanak

1) Solasaldiak, elkarrizketak, eztabaidak eta abar

Solasaldien eta elkarrizketen kasuan sarrera nagusia lanaren alderdi literarioa landu duen eta edukiaren zatirik handienaren erantzukizuna duenaren izenaren bidez egingo da. Bigarren sarrera egingo da parte hartu duen pertsona bakoitzaren izenaren bidez, betiere gehienez hiru badira. Hiru baino gehiago badira, lehenengo ageri dena besterik ez da kontuan hartuko.

Jose Elorrieta : sindikalismoaren berri onak / Joxerra Garzia, Nagore Izagirre

Sarrera nagusia Garzia eta bigarren sarrerak Izagirre eta Elorrieta

Solasaldian, elkarrizketan edo eztabaidan parte hartu dutenen hitzak jaso besterik egiten ez bada testuan, parte-hartzaileak gehienez ere hiru badira, sarrera nagusia informazio-iturrian lehenengo aipatzen denaren izena izango da eta; bigarren sarrerak egingo dira gainerako izenen bidez. Parte hartzen dutenak hiru baino gehiago badira, izenburua hartuko da sarrera nagusi gisa eta bigarren sarrera egingo da lehenengo aipatzen denaren izenaren bidez.

Elkarrizketatutako pertsonaren hitzak jasotzen dituzten elkarrizketen kasuan, elkarrizketatutaren izena izango da sarrera nagusia, betiere argitalpenean pertsona bati baino gehiagori egindako elkarrizketak jasotzen ez badira, halakoetan egile bat baino gehiagoko lan-bildumatzat hartuko baita (ikus 14.2.2Da eta 14.2.2Db). Beti egingo da bigarren sarrera parte hartu duen biltzailearen edo elkarrizketatzailearen izenaren bidez.

Hitza hitz : Txillardegirekin solasean / [elkarrizketatzailea] Joxean Agirre

Sarrera nagusia Txillardegi eta bigarren sarrera Agirre

Biziaren hizkuntzaz : Txepetxekin solasean / [elkarrizketatzailea] Jon Sarasua
Sarrera nagusia Txepetx eta bigarren sarrera Sarasua

El odio en el mundo actual : 21 conversaciones con Ernest Bloch ... / Alfred B.
Hasler

(Elkarrizketatutakoen erantzun literalak jasotzen dira, hiru baino gehiago dira)
Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrerak Bloch eta Hasler

Elkarrizketatzailea ala elkarrizketatua, bietako zein ageri den nabarmenago argi ez dagoenean, elkarrizketatzailearen izena hautatuko da.

Argitalpenean pertsona baten ahozko kontakizuna ageri denean, beste pertsona batek tankera literarioa emanda, sarrera nagusia testua idatzi duenaren izenaren bidez egingo da, non eta informazio-iturri nagusian ahozko kontalaria azaltzen ez den erantzule nagusi gisa. Bigarren sarrera egingo da sarrera nagusirako aukeratu ez den pertsonaren izenaren bidez.

La pipa sagrada : los siete secretos de los indios sioux / relatados por Alce Negro ;
recogidos y anotados por Joseph Epes Brown
Sarrera nagusia Brown eta bigarren sarrera Alce Negro

2) Gutun-liburuak

Gutun-liburuan egile baten gutunak eta hiru pertsonak edo gehiagok hari bidalitako gutunak jasotzen direnean, 14.2.2Aa) arauari jarraituko zaio.

Kikero'ren eskutitzak / Etxebarria'tar Juan Anjel'ek lateratik euskeratuta
Sarrera nagusia Kikero eta bigarren sarrera Etxebarria

Epistolari de Jacint Verdaguer / transcripció i notes per Josep Maria de Casacuberta
i Joan Torrent i Fàbregas
Sarrera nagusia Verdaguer eta bigarren sarrerak Casacuberta eta Torrent

Pertsona bik edo gehiagok elkarren artean trukaturako gutunak jasotzen dituzten argitalpenean, egile bat baino gehiagoren artean egindako lanetarako ezarritako arauari jarraituko zaie (ikus 14.2.2Ab). Gutun-liburuan pertsona bik edo gehiagok hartzaile bakarrari bidalitako gutunak jasotzen direnean, egile bat baino gehiagoren lan-bildumetarako arauari jarraituko zaie (ikus 14.2.2D).

Bigarren sarrerak egingo dira biltzailearen izenetik, baldin eta argitalpenean ageri bada, bai eta zenbaiten gutunen hartzaile bakarraren izenetik ere.

Cartas íntimas : epistolario entre Miguel de Unamuno y los hermanos Gutiérrez
Abascal / recopilación, introducción y notas de Javier González de Durana
*Sarrera nagusia Unamuno eta bigarren sarrerak Leopoldo Gutiérrez Abascal eta Ricardo
Gutiérrez Abascal*

Epistolario 1941-1946 / Indalecio Prieto, Toribio Echevarría
Sarrera nagusia Prieto eta bigarren sarrera Echevarría

3) Disertazio akademikoak

XIX. mendea baino lehenagoko disertazio akademikoen kasuan, sarrera nagusia presidentearen («praeses»aren) izenaren bidez egingo da, betiere, argi eta garbi ageri ez bada hautagaia («respondent»a) edo beste pertsona bat dela egilea. Bigarren sarrerak egingo dira hautagaiaren eta bestelako parte-hartzaileen izenen bidez. Halaber, bigarren sarrera egingo da presidentearen izenaren bidez, baldin eta sarrera nagusi gisa jarri ez bada.

Disputatio theologica qua historia sacra contra nonnullos pictorum errores vindicatur / praeside Johanne Fabricio ... et respondente Bonaventura Krahe ...

Sarrera nagusia Fabricio eta bigarren sarrera Krahe

Catholica de sacramento matrimonii dispositio, in alma Ingolstadiensis Academia, anno MDLXXV, publice hasta / praeside R. P. Rodolpho Clencken ... respondente Bartholomaeo Hubero ...

Sarrera nagusia Clencken eta bigarren sarrera Hubero, respondente denez gero

Dissertatio historico-theologica de monogrammate Pauli ... quam praeside Gustavo Georgio Zelner ... / publicae disquisitioni D. XXVI maii AOR MDCCXXI subiicit auctor Georgius Schaar ...

Sarrera nagusia Schaar eta bigarren sarrera Zelner

14.2.2B Lehendabiziko agerpenaz geroztik aldatu egin diren lanak

Talde honetan sartzen dira jatorrizko egilea ez den beste batek nolabait aldatutako testuen lanak, bai eta testua edo edozein eratako material grafikoa iruzkinez, gehigarriez, atariko azterlanez, oharrez eta abarrez horniturik daukaten lanak ere.

14.2.2Ba) Lan eraberrituak, handituak eta eguneratuak

Lan eraberrituen, handituen eta eguneratuen kasuan, sarrera nagusia lehen egilearen (norbanakoa nahiz korporatiboa) izenaren bidez egingo da, non eta informazio-iturri nagusian eraberritzailea, handitzailea eta abar erantzule nagusi gisa ageri ez den. Bigarren sarrera egingo da sarrera nagusirako aukeratu ez denaren izenetik.

Historia de la literatura griega / Carlos Otrifido Müller ; anotada y continuada por Emilio Heitz

Sarrera nagusia Müller eta bigarren sarrera Heitz

14.2.2Bb) Laburpenak

Laburpen soilen eta antzekoen kasuan, jatorrizko lanaren edukia nabarmen aldatzen ez denean, aurreko araua, 14.2.2Ba) beteko da.

David Copperfield : (laburtuta) / Charles Dickens ; Jose Basterretxea'k («Oskollaso'k») [sic] inglesetik euskeratuta ; [marrazkilaria, Jesus Antonio Ruiz «Jesse»]

Sarrera nagusia Dickens eta bigarren sarrerak Basterretxea eta Ruiz

14.2.2Bc) Jatorrizko asmoaren arabera jarraitutako lanak

Liburuki bat baino gehiagoko lanetan, egileak osorik idatzi eta argitara eman ezin izan duelako, lana beste batek, jatorrizko asmoaren arabera, jarraitu duen kasuetan, sarrera nagusia lana hasi duenaren izenaren bidez egingo da. Bigarren sarrerak egingo dira jarraitzaileen izenen bidez, betiere gehienez bi badira. Nabaria bada lan-zatien egileen parte hartzea hasiera-hasieratik aurrez ikusita dagoela, 14.2.2Aa) eta 14.2.2Ab) arauetara jarraituko zaie, alegia, lankidetzan egindako lan arruntagoetarako ezarritako arauetara. Lanaren erantzule nagusia zein den zehazteko orduan, tipografiak edo bestelako ezaugarrien batek argitzen ez duen kasuetan, kontuan izango da zeinek idatzi duen besteek baino liburuki gehiago.

Summa artis : historia general del arte / José Pijoán
(*Lehenengo hamasei liburukiak Pijoánek idatzi zituen, gero hainbat egilek hartu dute parte*)
Sarrera nagusia Pijoán

Diccionario general vasco = Orotariko euskal hiztegia / Luis Michelena ;
[coordinador, Ibon Sarasola ; hitzaurrea, Luis Villasante]
Sarrera nagusia Michelena

14.2.2Bd) Lan egokituak, birmoldatuak, moldatuak eta abar

Lan birmoldatuetan, umeentzat egokitutako lanetan edota jatorrizko genero edo molde literariotik beste batera aldatutako lanetan, sarrera nagusia birmoldatzailearen, egokitzailearen edo dena delakoaren bidez egingo da. Zalantzarik izanez gero, jatorrizko lanaren egilea hartuko da. Bigarren sarrera egingo da sarrera nagusirako aukeratu ez den izenaren bidez; halakoetan, jatorrizko egilearen kasuan, beti egile-izenburuen sarrera egingo da (ikus 14.7).

Calixto y Melibea : tragicomedia en verso, en tres actos, basada en la clásica obra de Fernando de Rojas / Federico Romero
Sarrera nagusia Romero eta bigarren sarrera (egile-izenburuak) Rojas

Herensugea / gidoia Resurrección M^a Azkuek bildutako ipuinean oinarritua ; gidoiaren moldaketa, Enkarni Genua ; marrazkiak, Jesús Lucas
Sarrera nagusia Genua eta bigarren sarrerak (egile-izenburuak) Azkue eta Lucas

Umeen Biblia / Jakob Ecker ; [euskeratzailea] Kerexeta
Sarrera nagusia Ecker eta bigarren sarrerak Biblia, Kerexeta

Zazpi antxumeak / Xosé Ballesterosek egokitua W. eta J. Grimm anaien testuan oinarriturik ; Sofia F. Rodriguez eta Ana Miguezzen irudiak ; [itzultzailea, Koldo Izagirre]

Sarrera nagusia Ballesteros eta bigarren sarrerak (egile-izenburuak) Grimm anaiak. Bigarren sarrerak Rodriguez, Miguez eta Izagirre

Peter Pan / texto, Francisco Capdevila
Sarrera nagusia Capdevila eta bigarren sarrera (egile-izenburuak) J. M. Barbie, jatorrizko testuaren egilearena

14.2.2Be) Testu iruzkindunak

Egilea ez den beste batek idatzitako iruzkinekin argitaratutako testuen kasuan, informazio-iturri nagusiaren asmoa errespetatuko da. Informazio-iturri nagusian argitalpena testuaren edizio gisa aurkezten bada, sarrera nagusia testuaren egilea izango da; aitzitik iruzkin gisa aurkezten bada, iruzkingilearen izena izango da sarrera nagusi.

Legislación bancaria española / recopilada y comentada por Gonzalo Pérez de Armiñán

(Argitalpenean legeak eta lege-mailatik beheragoko xedapenak daude jasota)
Sarrera nagusia Espainia, ondoren izenburu hautatua jarrita (ikus 16.5.1) eta bigarren sarrera Pérez de Armiñán

Sacerdotes y religiosos según el Vaticano II : con referencias al motu proprio «Ecclesiae Sanctae» y a la encíclica «Sacerdotalis caelibatus» / por Miguel Nicolau, Paolo Dezza, Paolo Molinari

(Argitalpenean Kontzilioaren hiru dekreturen testuak daude jasota, latinez eta gaztelaniaz; baita horiei buruzko iruzkinak ere)

Sarrera nagusia Nicolau eta bigarren sarrerak Dezza, Molinari eta Kontzilioaren izenaren bidez

Existenzialismoa [sic] humanismo bat da / Jean Paul Sartre ; Juana Atxabal-ek euskaratu eta irazkindua [sic]

Sarrera nagusia Sartre eta bigarren sarrera Atxabal

Mitxelaren idazlan hautatuak / idazlanen aukera, oharrak, iruzkinak, Patxi Altunak eginak ; eraskina liburu honi Mitxelenak berak ezarria

Sarrera nagusia Mitxelena eta bigarren sarrera Altuna

Doctrina del estoico filósofo Epicteto, que se llama comúnmente Enchiridión / Francisco Sánchez de las Brozas ; edición de Luis Gómez Canseco

Sarrera nagusia Sánchez de las Brozas iruzkingilea eta bigarren sarrera (egile-izenburuak) Epicteto. Bigarren sarrera Gómez Canseco

Informazio-iturri nagusiaren asmoa nahiko argia ez bada, auzia ebazteko honako hau hartuko da kontuan, lehentasun-hurrenkera honetan: sarrerako testuak, testuan eta iruzkinean erabilitako tipografia eta, azkenik, bakoitzaren luzera. Hori guztia kontuan izanik ere zalantza izanez gero, testuaren egilea hautatuko da.

La epístola a los hebreos : texto y comentario / Herman Strathmann

(Ataria aztertutik sarrera nagusi gisa zer jarri behar den ebazterik ez dagoenez, testuaren antolamendua eta iruzkinaren luzera kontuan harturik iruzkingilea aukeratuko da)

Sarrera nagusia Strathmann eta bigarren sarrera epistolak liburu-sakratu gisa duen izenaren bidez (ikus I. eranskina)

14.2.2Bf) Material biografikoa edo kritikoa duten testuak

Egile jakin baten lanak beste pertsona batek idatzitako material biografikoa edo kritikoa duenean hasieran nahiz tartekatuta, sarrera nagusia pertsona horren izenaren bidez egingo da, baldin eta informazio-iturri nagusian argitalpena lan biografiko edo kritiko gisa azaltzen bada. Kritikaria

edo biografoa edizioaren apailatzaile, biltzaile edo antzeko gisa ageri bada, testuaren egilea hartuko da sarrera nagusirako. Bigarren sarrera egingo da sarrera nagusirako aukeratu ez den pertsonaren izenaren bidez.

Vicente Aleixandre : una aventura hacia el conocimiento / José Olivio Jiménez
(*Argitalpenean Alexaindren lanaren antologia dator jasota, aurretik haren bizitzari eta lanari buruzko azterketa mardula duela*)
Sarrera nagusia Jiménez eta bigarren sarrera Aleixandre

La zanja / Alfonso Grosso ; edición de José Antonio Fortes
(*Argitalpenaren hasieran egilearen bizitza eta lanari buruzko azterketa mardula dator*)
Sarrera nagusia Grosso eta bigarren sarrera Fortes

14.2.2Bg) Artelanen edo testua duten lanen kopiak

Argitalpenean artista baten lan guztien edo batzuen kopiak eta lan horiei buruzko azterketa edo iruzkina, beste pertsona batek egina, ageri direnean, sarrera nagusirako informazio-iturri nagusian egile gisa azaltzen denaren izena (idazlearena edo artistarena) hautatuko da. Bigarren sarrera egingo da sarrera nagusirako aukeratu ez denaren izenaren bidez, betiere, testuaren egilearen kasuan, soilik informazio-iturri nagusian azaltzen bada. Zalantzarik izanez gero, artelanen egilea izango da sarrera nagusi.

Álbum de dibujos / F. Gimeno ; ensayo pinacológico por Luis Monllaó, Jordi Gumí
Sarrera nagusia Gimeno eta bigarren sarrerak Monllaó eta Gumí

Ignacio Zuloaga : el pintor, el hombre / Jesus M^a de Arozamena
Sarrera nagusia Arozamena eta bigarren sarrera Zuloaga

14.2.2C Erlazionatutako lanak

Arau hau ezarriko zaie bereiz argitaratuta egonik ere beste lan batzuen edukiarekin zerikusia duten argitalpenei. Halakoak ditugu, besteak beste:

Jarraipenak
Gehigarriak
Aurkibideak

} erlazionatutako lanaren zati ez direnak (ikus 14.2.2Bc)

Komuntadurak

Gidoiak, argumentuak eta abar

Koreografiak

Libretoak, kanten testuak eta abar

Argitalpen seriatuen ale bereziak

Aldizkarietako artikuluen eta laburpenen bildumak

Irakasleen gidaliburuak, erantzunen gidaliburuak eta antzekoak

Arau hau ez da erabiliko gai berbera izateaz gain beste ezer komunik ez duten lanetarako.

Arestian adierazitako kasuetan, sarrera nagusia aukeratzeko orduan ez da erlazionatutako lana kontuan hartuko. Hortaz, sarrera nagusia lanaren egilearen izenaren edo izenburuaren bidez egingo da, kapitulu honetako arauai jarraiki dagokionaren arabera. Bigarren sarrera egingo da erlazionatutako lanaren egile-izenburuen bidez.

Botanika lexikoa Eibarren eta Toribio Etxebarriaren «Lexicon» lanari gehigarriak / Juan San Martin

Sarrera nagusia San Martin eta bigarren sarrera (egile-izenburuak) Etxebarria

Suplementos al Diccionario trilingüe del P. Larramendi, escritos en 1746 por el P. Fr. José de María Carmelita Descalzo / [Fidel Fita]

Sarrera nagusia José de María eta bigarren sarrera Fita. Bigarren sarrera (egile-izenburuak) Larramendi

Afrikako ahozko literatura, memoria kolektibotik kritika sozialera / Ana Urkiza
(*Egan aldizkariaren ale berezia*)

Sarrera nagusia Urkiza eta bigarren sarrera aldizkariaren izenaren bidez

Carmen / libreto con texto francés de Ludovic Halévy y Henri Meilhac, basado en la obra homónima de Prosper Merimee ; música de Georges Bizet

(*Libreto bat*)

Sarrera nagusia Halévy eta bigarren sarrera Meilhac. Bigarren sarrera (egile-izenburuak) Bizet

Concordancia de las obras y escritos del doctor de la Iglesia Católica San Juan de la Cruz / por Fr. Luis de San José

Sarrera nagusia Luis de San José eta bigarren sarrera Juan de la Cruz

Don Giovanni : libreto original en italiano / Lorenzo da Ponte ; música de Wolfgang A. Mozart

Sarrera nagusia Da Ponte eta bigarren sarrera (egile-izenburuak) Mozart

14.2.2D Bildumak

- 1) Egile bat baino gehiagoren lan independenteak edota lan horien laburpenak jasotzen dituzten argitalpenak.
- 2) Zenbait pertsona edo korporazioren ekarpenak biltzen dituzten lanak, beste pertsona baten zuzendaritzapean argitaratuak.
- 3) Aurreko bi mota horietako lanak biltzen dituzten argitalpenak.

14.2.2Da) Izenburu orokorra duten bildumak

Sarrera nagusia izenburu orokorraren bidez egingo da. Bigarren sarreretarako honako hauek hartuko dira:

- 1) Biltzaileak, zuzendariak eta abar, betiere, gehienez hiru badira eta material-moten deskribapenaren 1. eta 2. eremuetarako agindutako iturrietan haien izenak formalki azaltzen badira. Hiru

baino gehiago direnean, nagusitzat jotzen dena izango da bigarren sarrera; halakorik ez badago, lehenengo ageri dena hartuko da.

Euskara guztiok : (literatur euskalkietako irakurgai hautatuak) / [biltzailea] Josu Pikabea

Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrera Pikabea

Ingurugiro hiztegi entziklopedikoa / [egileak, Elhuyar Kultur Elkartea]

Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrera Elhuyar Kultur Elkartea

Estatutos de autonomía / [la compilación ha sido realizada por el Departamento de Programación Editorial del Boletín Oficial del Estado]

Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrera departamentuaren izenaren bidez

Kimika orokorra / editoreak, Francisco Basterretxea ... [et al.] ; idazkeraren orrazketa, Jazinto Iturbe

Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrerak Basterretxea eta Iturbe

Antología de la poesía española : lírica de tipo tradicional / [selección de] Dámaso Alonso y José Manuel Blecua

Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrerak Alonso eta Blecua

Diccionario de historia eclesiástica de España / dirigido por Quintín Aldea Vaquero, Tomás Marín Martínez, José Vives Gatell

Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrerak Aldea Vaquero, Marín Martínez eta Vives Gatell

2) Egileak, kasu hauetan:

Ekarpen edo lan independenteak bi edo hiru direnean, bigarren sarreretarako egile-izenburuak hartuko dira.

Neguko antzarrak / Koldo Jule Garai, Josu Lartategi, Juan Ramon Madariaga ; irudiak, Joseba Eskubi ; prologoa, Bernardo Atxaga

(Edukia: Elaien ausardia / Juanra Madariaga. Hegotopia / Josu Lartategi. Maelstrom / Koldo Jule Garai)

Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrerak (egile-izenburuak) Madariaga, Lartategi eta Garai. Bigarren sarrerak Eskubi eta Atxaga

Ekarpen edo lan independenteak hiru baino gehiago izanik, egileak hiru baino gehiago ez direnean, bigarren sarrerak egile-izenburuen bidez egingo dira, baldin eta egileetakoren batek ekarpen edo lan independente bakarra badu; aitzitik, lan bat baino gehiago badu, egileen bidez egingo da sarrera. Nolanahi ere, azken kasu horretan, zentro katalogatzaileak egile-izenburuen sarrera aukera dezake egoki baderitzo.

Teatro griego

(Edukia: Edipo Rey ; Antígona / Sófocles. Prometeo encadenado / Esquilo. Hipólito ; Las bacantes / Eurípides)

Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrera (egile-izenburuak) Eskilo; eta bigarren sarrerak (egile-izenburuak motakoak izan daitezke) Sofokles eta Eurípides

Ipuin ankerrak / Herodoto, Ovidio ; [itzulpena, Juan Mari Mendizabal]
(Edukia: Kandaules ; Kreso ; Ziro ; Kanbises / Herodoto. Filomela eta Prokne / Ovidio)
Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrerak (egile-izenburuak motakoak izan daitezke) Herodoto eta Ovidio. Bigarren sarrera Mendizabal

Ekarpen edo lan independenteak hiru baino gehiago izanik, egileak ere hiru baino gehiago direnean eta haien izenak informazio-iturri nagusian azaltzen direnean, bigarren sarrera egingo da lehenengo egilearen izenaren bidez. Nahi izanez gero, zentro katalogatzaileak egoki baderitzo, bigarren sarrerak egin daitezke beste edozein egileren izenaren edota egile-izenburuen bidez.

Lehen amodioa / itzulpena, Joseba Urteaga
(Edukia: «Extul-Txiki» bikaina / Dylan Thomas. Lehen amodioa / Cesare Pavese. Sylvie : Valois-eko oroitzapenak / Gérard de Nerval. Txango bat / Guy de Maupassant. Lehen amodioa / Samuel Beckett)
Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrerak Urteaga eta Thomas. Nahi izanez gero, egile-izenburuak motako bigarren sarrerak egin daitezke gainerako egileen izenen bidez

Teatro francés de vanguardia / selección de Arturo del Hoyo
(Atarian ondoko edukia agertzen da: Historia de vasco / Georges Schehade. Paolo Paoli / Arthur Adamov. Esperando a Godot / Samuel Beckett. Las sillas / Engène Ionesco)
Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrerak (egile-izenburuak motakoak izan daitezke) Schehade eta Hoyo. Nahi izanez gero, egile-izenburuak motako bigarren sarrerak egin daitezke gainerako egileen izenen bidez

14.2.2Db) Izenburu orokorrik gabeko bildumak

Izenburu orokorrik ez dagoenean, atari komunean edota, halakorik ez badago, lehenengo atarian lehendabizi ageri diren datuak zein lani dagozkion begiratuko da, sarrera nagusia lan horrexen bidez egingo baita. Gainerako lanei egile-izenburuen bigarren sarrerak egingo zaizkie, betiere, gehienez ere hiru badira. Halaber, bigarren sarrerak egingo zaizkie hautatzaileari, biltzaileari eta abarri, hala dagokionean.

El mito de la autoidentidad / Leszek Kolakowski. La unidad de la sociedad civil y la sociedad política / Stuart Hampshire
Sarrera nagusia Kolakowski eta bigarren sarrera (egile-izenburuak) Hampshire

14.2.2E Oroitzapenezko eta omenezko argitalpenak

Pertsona bat edo erakunde bat oroitzeko edo omentzeko hainbat egileren ekarpenak bilduta egindako argitalpenetan, sarrera nagusia izenburuaren bidez egingo da. Bigarren sarrerak egingo dira omendutako pertsonaren edo erakundearen, argitalpenaren zuzendariaren eta korporazio sustatzailearen edo antolatzailearen izenaren bidez, baldin eta halakorik badago eta informazio-iturri nagusian ageri badira.

Homenaje a D. Carmelo de Echegaray : (miscelánea de estudios referentes al País Vasco) / acordado por la Diputación de Guipúzcoa con la cooperación de las de Álava y Vizcaya y organizado por la Sociedad de Estudios Vascos
Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrerak Echegaray eta Eusko Ikaskuntza

Homenaje a Francisco de Abrisketa = Frantzisko Abrisketa-ri omenaldia / Roman Basurto Larrañaga (coordinador)
Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrerak Abrisketa eta Basurto

14.3 EGILEAREN BENETAKO IZENA AZALTZEN EZ DUTEN LANAK

14.3.1 OKERREKO EDO GEZURREZKO PERTSONA EDO KORPORAZIO BATI EGOTZITAKO LANAK

Lan baten erantzukizuna okerreko edo gezurrezko pertsona bati egotzi zaionean, sarrera nagusia benetako egilearen bidez egingo da edo, egilea ezezaguna denean, izenburuaren bidez. Bigarren sarrera egingo da okerreko egilearen izenaren bidez, betiere, pertsona hori benetakoa bada. Arau berari jarraituko zaio lana okerreko korporazio bati egotzi bazaio.

The autobiography of Alice B. Toklas
(Gertrude Stein berak idatzitako autobiografia, baina bere idazkari Alice B. Toklasek idatzi izan balu bezala)
Sarrera nagusia Stein eta bigarren sarrera Toklas

Rimas humanas y divinas del licenciado Tomé de Burguillos / no sacadas de biblioteca ninguna ... sino de papeles de amigos y borradores suyos por Lope Félix de Vega Carpio
(Benetako egilea Lope de Vega da. Lana egotzen zaion egilea ez da benetako pertsona)
Sarrera nagusia Vega Carpio

14.3.2 EGILEA HITZ EDO ESALDI BATEZ EDOTA BESTE LAN BATEN IZENBURUAREN BIDEZ AGERTARAZTEN DUTEN LANAK

Kasuren batean, oso gutxitan, lanaren erantzulea hitz edo esaldi lauso baten bidez deskribatuta edota lehenago argitaratutako lan baten bidez identifikatuta azaltzen da. Egilearen izena zein den ziur jakinez gero, huraxe izango da sarrera nagusi, eta erreferentzia egingo zaio deskribatzen duen hitz edo esaldiari. Egilearen izena zein den jakin ezean, egileari buruzko hitz edo esaldia erabiliko da sarrera nagusirako, horretarako, 15.1.2Bf) 2. arauari jarraituko zaio. Kasu batean nahiz bestean bigarren sarrera egingo da izenburuaren bidez.

Nire neskatilla / baso mutil bat
(Egilearen izena ezezaguna)
Sarrera nagusia egilea identifikatzen duen esaldi zehaztugabea eta bigarren sarrera izenburuaren bidez

¿Quién será Él? / por el autor de Ante el altar
(Egilearen izena Concepción Cabrera de Armida)
Sarrera nagusia Cabrera de Armida eta bigarren sarrera izenburuaren bidez.
Erreferentzia esalditik egilearen izenera

14.4 EGILE EZEZAGUNEN, ZALANTZAZKO EGILEEN EDOTA IZEN GENERIKOA DUTEN TALDEEN LANAK

Lanaren egilea ezezaguna denean —hau da, lana anonimoa bada—, edo zalantzazkoa denean —hau da, adierazitakoa benetan egilea ote den ziur jakin ezean—, edota erantzukizuna izen generikoa duen talde batena denean, sarrera nagusia izenburuaren bidez egingo da. Bigarren kasuan, zalantzazko egilea dokumentuan nabarmenduta ageri denean, bigarren sarrera egingo zaio.

Ama Birgiña Guadalupekoa'ren bederatzi-urrena ta kondaira

(Egile ezezaguna)

Sarrera nagusia izenburuaren bidez

Zeinu klinikoak / prestatzaile, Euskal-Herriko Medikuntza Fakultatearen
Donostiako Unitateko ikasle talde bat

Sarrera nagusia izenburuaren bidez

La vida de Lazarillo de Tormes y de sus fortunas y adversidades

(Lana hainbat egileri egotzia)

Sarrera nagusia izenburuaren bidez

Lan anonimo handien kasuan, hala nola, argitaletxearen bidez identifikatzen diren entziklopedia eta atlasen kasuan, bigarren mailako sarrera egingo da argitaletxearen bidez.

Enciclopedia universal ilustrada europeo-americana. — Madrid [etab.] : Espasa
Calpe

Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrera Espasa Calpe

Elhuyar hiztegia : euskara-gaztelania, castellano-vasco

Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrera Elhuyar Kultur Elkarte

14.5 KASU BEREZIAK

14.5.1 HAINBAT MOTATAKO ARGITALPEN JURIDIKOAK

14.5.1A Lege modernoak

14.5.1Aa) Legeak adiera hertsian

Lege-indarra duten dekretuak eta legeak arauok ezarri beharreko jurisdikzio-eremuaren leku-izenaren bidez jasoko dira, izenaren ondoren, beste lerro batean, 16.5.1 arauan ezarritakoaren arabera dagokion izenburu hautatua adierazita. Bigarren sarrerak egingo dira biltzailearen izenaren bidez, halakorik bada, eta erakunde argitaratzailearen izenaren bidez, egoki ikusten bada eta argitaratzailea legea eman duen organo legegilea bera ez bada.

Drogamenpekotasunen arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzko
legea : testu aldatua = Ley sobre prevención, asistencia e inserción en materia de
drogodependencias : texto modificado / Eusko Jaurlaritz = Gobierno Vasco

Sarrera nagusia Euskadi, ondoren legearen izenburu hautatua jarrita

Administrazioaren jardunbideari buruzko legea : (euskaraz eta gaztelaniaz). — Oñati : Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea = Instituto Vasco de Administración Pública, 1990

Sarrera nagusia Espainia, ondoren legearen izenburu hautatua jarrita, eta bigarren sarrera Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea

Código penal = Zigor kodea. — Bilbao : Universidad de Deusto = Bilbo : Deustuko Unibertsitatea ; [Oñati] : Instituto Vasco de Administración Pública = Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2004

Sarrera nagusia Espainia, ondoren kodearen izenburu hautatua jarrita

Ley Foral Reguladora del Gobierno y de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra

Sarrera nagusia Nafarroa, ondoren legearen izenburu hautatua jarrita

Llei 12 / 1982, de 14 de julio, d'administració institucional de la sanitat i de l'assistencia i els servei socials de Catalunya

Sarrera nagusia Katalunia, ondoren dagokion izenburu hautatua jarrita

Código de leyes administrativas / [recopilador y anotador] Eduardo García Enterría con la colaboración de José A. Escalante

Sarrera nagusia Espainia, ondoren dagokion izenburu hautatua jarrita, eta bigarren sarrerak García Enterría eta Escalante

Legea aldarrikatu duen jurisdikzioa lege hori ezarri beharreko jurisdikzioaz bestelakoa bada, bigarren sarrera egingo da jurisdikzio aldarrikatzailearen izenaren bidez, izenaren ondoren dagokion izenburu hautatua jarrita.

Ley orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, de estatuto de autonomía para el País Vasco : BOE núm. 306, de 22 de diciembre de 1979

Sarrera nagusia Euskadi, ondoren legearen izenburu hautatua jarrita, eta bigarren sarrera Espainia, ondoren legearen izenburu hautatua jarrita

Jurisdikzio bakarrean ezarri beharreko lege-bildumen kasuan, administrazio-xedapenekin batera argitaratuta egon ala ez, sarrera nagusia jurisdikzioaren bidez egingo da, haren ondoren dagokion izenburu hautatua jarrita (ikus 16.5.1).

Euskal lege-araubide politikoa / F. Javier Ezquiaga Ganuzasek eta Alejandro Saiz Arnaizek prestatutako argitarapena. — Oñati : Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea = Instituto Vasco de Administración Pública, 1991

Sarrera nagusia Euskadi, ondoren legearen izenburu hautatua jarrita, eta bigarren sarrerak Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea, Ezquiaga Ganuzas eta Saiz Arnaiz

Jurisdikzio batean baino gehiagotan ezarri beharreko lege-bildumen kasuan, egile bat baino gehiagoren lan-bildumetarako ezarritako araua erabiliko da (ikus 14.2.2D). Nolanahi ere, bigarren sarrera egingo da jurisdikzio bakoitzari dagokion idazpuruaren bidez, baldin eta bi edo hiru badira. Hiru baino gehiago direnean, informazio-iturri nagusian lehenengo ageri denari besterik ez zaio egingo bigarren sarrera. Lege guztiak jurisdikzio batean aldarrikatuta badaude baina jurisdikzio batean baino gehiagotan bete beharrekoak badira, bigarren sarrera egingo da jurisdikzio aldarrikatzailearen bidez. Kasu guztietan, jurisdikzioaren leku-izenaren ondoren, dagokion izenburu hautatua jarriko da.

Legislación de las comunidades autónomas / [recopilación] Gregorio Burgueño Álvarez

Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrera Burgueño Álvarez

Legislación sobre energía nuclear en los Estados Americanos / preparada por la División de Codificación e Integración Jurídica del Departamento de Asuntos Jurídicos, Organización de los Estados Americanos

Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrera erakundearen izenaren bidez, ondoren dibisioaren izena jarrita

14.5.1Ab) Lege-proiektuak eta lege-aurreproiektuak

Lege-proiektuen kasuan, sarrera nagusia dagokion organo legegilearen izenaren bidez egingo da, betiere organo horrek onartua bada.

Proyecto de ley y bases para la reforma de las de la administración local / presentado a las Cortes por D. Antonio Maura (mayo de 1903)

Sarrera nagusia Gorteak

Proyecto de ley de cooperativas : publicado en el Boletín Oficial de las Cortes Españolas, día 23 de enero de 1974

Sarrera nagusia Gorteak

Bestelako lege-proiektuak, aurreproiektuak, zirriborroak eta abar idazketaren erantzukizuna duen pertsonaren edo erakundearen izenaren bidez jasoko dira.

Anteproyecto de ley del medio-ambiente de Euskadi / Eusko Jaurlaritza, Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila = Gobierno Vasco, Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente

Sarrera nagusia Sailaren izenaren bidez

Anteproyecto de ley de pesca marítima / Ministerio de Marina, Subsecretaría de la Marina Civil

Sarrera nagusia Idazkariordeztaren izenaren bidez

Borrador de la ley de la escuela pública vasca / Dpto. de Educación, Universidades e Investigación = Euskal eskola publikoaren lege-zirriborroa / Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Sarrera nagusia Sailaren izenaren bidez

14.5.1Ac) Administrazio-xedapenak

Dekretuen, ministro-aginduen eta gainerako administrazio-xedapenak xedapenok eman eta onetsi dituen erakundearen titularraren izenaren bidez jasoko dira. Arau honen salbuespen dira 14.5.1D arauan adierazitakoak.

236/1992 dekretua, abuztuaren 11koa, Euskal Herriko Autonomi Elkarterako haur hezkuntzako curriculumaz ezartzen duena / Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila = Gobierno Vasco, Departamento de Educación, Universidades e Investigación

Sarrera nagusia Sailaren izenaren bidez

Orden del Ministerio de Hacienda de 17 de diciembre de 1966, por la que se reglamentan los beneficios tributarios en favor del patrimonio familiar mobiliario y agrícola
Sarrera nagusia Ministerioaren izenaren bidez

Lege bat eta lege hori garatzen duten administrazio-xedapenak batera argitaratzen direnean, izenburuan bietatik lehenengo ageri dena (legea edo administrazio-xedapena) izango da sarrera nagusi. Bigarren sarrera egingo da sarrera nagusian jaso ez denaren bidez. Izenburuan bietako bat besterik aipatzen ez bada, huraxe hartuko da sarrera nagusirako; aipatzen ez dena bigarren sarreran jasoko da. Izenburuan ageri den informazioa argia ez bada, legea hartuko da sarrera nagusirako.

Ley general de educación y financiamiento de la reforma educativa y disposiciones complementarias

Sarrera nagusia Espainia, ondoren dagokion izenburu hautatua jarrita, eta bigarren sarrera Ministerioaren izenaren bidez

Ley de medidas urgentes de reforma fiscal de 14-11-77 y disposiciones complementarias

Sarrera nagusia Espainia, ondoren dagokion izenburu hautatua jarrita, eta bigarren sarrera Ministerioaren izenaren bidez

Erakunde batek baino gehiagok emandako administrazio-xedapenen idazpurua aukeratzeko orduan, egile bat baino gehiagoren lanen bildumekin bezala jokatu da (ikus 14.2.2D).

14.5.1B Antzinako legeak

Aro Modernoaren aurreko legeek tradiziozko usadioan erabili ohi den izenburu hautatua izango dute sarrera nagusi. Izenburu generikoa duen zati edo atala denean, izenburu generikoa gehituko zaio izenburu orokorrari.

Corpus juris civilis. Codex

Lex romana visigothorum

Ley de las XII tablas / estudio preliminar, traducción y observaciones de César Rascón García y José María García González

Sarrera nagusia legearen izenburu hautatuaren bidez eta bigarren sarrerak Rascón García eta García González

Izenburu hautatua erabiltzerik ez dagoen kasuetan, sarrera nagusia argitalpenaren izenburuaren bidez egingo da (ikus 15.3.1A). Bigarren sarrerak egingo dira legea berretsi duen agintaritzaren eta biltzaileen bidez, baldin eta argitalpenean formalki aipatuta badaude.

Ordenamiento de prelados hecho en las Cortes de Burgos celebradas en la era 1353 (año 1315) por Alfonso XI, durante su menor edad

Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrera erregearen izenaren bidez

El ordenamiento de leyes, que D. Alfonso XI hizo en las Cortes de Alcalá de Henares el año de mil trescientos y quarenta y ocho / publicarlo con notas y un discurso sobre el estado y condición de los judíos en España los doctores Ignacio Jordán de Asso y del Río y Miguel de Manuel y Rodríguez

Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrerak Erregea, Jordán de Asso y del Río eta de Manuel y Rodríguez

14.5.1C Konstituzioak, oinarrizko legeak eta abar

Lurralde jakin bateko konstituzioek, oinarrizko legeek eta abarrek lurralde horren izena izango dute sarrera nagusi. Arau berari jarraituko zaio legeon zuzenketen kasuan ere. Oinarrizko legeok aldarrikatzen dituen dokumentua legea bada, dagokion izenburu hautatua gehituko da. Aldarrikatu duen jurisdikzioa araua ezarri beharreko jurisdikzioaz bestelakoa bada, bigarren sarrera egingo da haren izenaren bidez, izenaren ondoren izenburu hautatua jarrita.

Euskal Herriko Autonomia Estatutua = Estatuto de Autonomía del País Vasco
Sarrera nagusia Euskadi, ondoren estatutuaren izenburu hautatua jarrita

Erakunde baten eratze edo sorrera-agirien kasuan, jurisdikzio jakin bateko administrazio-erakunde edo legegintzako agintaritzak ofizialak berretsitakoa denean, arau hauetatik egoki dena erabili beharko da, alegia, legetarako ezarritako araua, 14.5.1Aa) edo administrazio-xedapenatarakoa, 14.5.1Ac).

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren legea = Ley del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas
Sarrera nagusia Euskadi, ondoren legearen izenburu hautatua jarrita

14.5.1D Erregelamenduak

Edozein mailatako administrazioetako edota administrazioen menpeko organismoen edo erakundearen erregelamenduek dagokion organismo edo erakundearen izena izango dute sarrera nagusi. Xedapenaren mailaren arabera, bigarren sarrera egingo da jurisdikzioaren izenaren bidez, izenaren ondoren izenburu hautatua jarrita, edota xedapena berretsi duen sailaren izenaren bidez.

Decreto orgánico y reglamento de la Biblioteca Nacional / Ministerio de Educación Nacional, Dirección General de Archivos y Bibliotecas
Sarrera nagusia Biblioteca Nacional eta bigarren sarrera Ministerioaren izenaren bidez

Argitalpenean jasotzen badira jurisdikzio bereko hainbat erakunderen erregelamenduak, jurisdikzio horretako administrazio-erakunde edo legegintzako agintaritzak onartuak, sarrera nagusia arauaren bidez egingo da. Bildutako erregelamenduak gehienez hiru erakunderenak badira, bigarren sarrerak egingo dira horietako bakoitzaren izenen bidez. Argitalpenean jasotako erregelamenduak hainbat jurisdikzioaren arau gisa edota hainbat erakunderen xedapen gisa aldarrikatuta daudenean, egile bat baino gehiagoren lanen bildumetarako ezarritako araua erabiliko da (ikus 14.2.2D).

14.5.2 NAZIOARTEKO TRATATUAK, HITZARMENAK ETA ABAR

14.5.2A Tratatuaren izenpetzaileak hiru baino gehiago ez badira, sarrera nagusia lehenengo ageritako estatutuaren izenaren bidez egingo da. Aitzitik, hiru estatu izenpetzaile diren kasuetan, biren izenak batera eta hirugarrena bereizi ageri badira, bereizi ageri den estatutuaren izena izango da sarrera nagusi, informazio-iturri nagusian lehenengo azaldu ez arren. Bigarren sarrerak egingo dira

gainerako estatuen izenen bidez. Kasu guztietan, herrialdearen izenari izenburu hautatua gehituko zaio (ikus 16.6).

Tratado de paz, unión y amistad y de alianza defensiva entre España, Francia e Inglaterra : concluido y firmado en Sevilla, el día 9 de noviembre de 1729

Sarrera nagusia Espainia, ondoren dagokion izenburu hautatua jarrita, eta bigarren sarrerak Frantzia eta Britainia Handia, ondoren izenburu hautatuak jarrita

Special economic assistance : agreement between the United States of America and Burma, effected by exchange of notes

Sarrera nagusia Ameriketako Estatu Batuak, ondoren tratatuaren izenburu hautatua jarrita, eta bigarren sarrera Burma, ondoren tratatuaren izenburu hautatua jarrita

Traité de paix entre le Japon et la Russie

Sarrera nagusia Japonia, ondoren tratatuaren izenburu hautatua jarrita, eta bigarren sarrera Errusia, ondoren tratatuaren izenburu hautatua jarrita

14.5.2B Hiru estatu baino gehiagoren arteko tratatuak

Tratatua izenpetu duten estatuak hiru baino gehiago badira, izenburu hautatua izango da sarrera nagusi, betiere tratatua adierazteko ohiko izenik bada. Ohiko izenik ez bada, izenburu nagusia izango da sarrera nagusi, horretarako ezarritako arauari jarraiki (ikus 15.3.1A). Bigarren sarrerak egingo zaizkie informazio-iturri nagusian lehenengo ageri den estatuari eta zentro katalogatzaileari dagokion estatuari, baldin eta izenpetzaileetako izanik lehenengo datorrena ez bada. Tratatua nazioarteko biltzar baten ondorioz izenpetu bada, bigarren sarrera egingo da biltzarraren izenaren bidez. Bigarren sarrera estatu baten izena denean, izenburu hautatua gehituko zaio (ikus 16.6).

Tratado definitivo de paz entre S. M. el Rey de España y de las Indias, la República Francesa y la República Bátava de una parte, y S. M. el Rey de la Gran Bretaña y de Irlanda de la otra, concluido en Amiens en 27 de marzo de 1802

Sarrera nagusia tratatuaren izenburu hautatuaren bidez (Amienseko Bakea) eta bigarren sarrera Espainia, ondoren dagokion izenburu hautatua jarrita

Pacto andino : desarrollo nacional e integración andina : Bolivia, Colombia, Ecuador, Perú, Venezuela / [compilado por] Ernesto Tironi

Sarrera nagusia izenburu hautatuaren bidez (Andeetako ituna) eta bigarren sarrera Bolivia, ondoren dagokion izenburu hautatua jarrita, eta Tironi

Convención interamericana sobre concesión de los derechos políticos a la mujer : suscrita en la novena Conferencia Internacional Americana, Bogotá, marzo 30-mayo 2, 1948

Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrera Konferentziaren izenaren bidez

14.5.2C Nazioarteko organizazioek izenpetutako akordioak

Akordioaren izenpetzaileak direnean, alde batetik, nazioarteko organizazio bat eta, bestetik, nazioarteko beste organizazio bat edo batzuk edota estatu bat edo batzuk, estatuen arteko akordioetarako ezarritako arauak erabiliko dira (ikus 14.5.2A eta 14.5.2B). Halaber, arau berari jarraituko zaio ituna nazioarteko organizazio baten eta estatu mailakoa ez den jurisdikzio bat edo batzuen artekoa bada, edota nazioarteko organizazio baten eta erakunde bat edo batzuen artekoa bada. Azken bi kasu horietan ez da izenburu hautaturik jarriko.

IAEA. Cooperation agreement with UNESCO

Sarrera nagusia IAEA, ondoren dagokion izenburu hautatua jarrita, eta bigarren sarrera Unesco, ondoren dagokion izenburu hautatua jarrita

Agreement between the United Kingdom of Great Britain and Northern Ireland, the European Atomic Energy Community and the International Atomic Energy Agency for the application of safeguards in the United Kingdom of Great Britain and Northern Ireland in connection with the Treaty on the Non-Proliferation of Nuclear Weapons (with Protocol) (Vienna, 6 September, 1976)

Sarrera nagusia Britainia Handia, ondoren dagokion izenburu hautatua jarrita, eta bigarren sarrerak bi erakundeen izenen bidez, ondoren izenburu hautatuak jarrita

Loan agreement (second development finance companies project) between International Bank for Reconstruction and Development and Banco de la República, dated May 29, 1968

(Banco de la República-ren egoitza Bogotan dago)

Sarrera nagusia International Bank eta bigarren sarrera Banco de la República

Memorandum of understanding between the European Atomic Community (Euratom), the Kingdom of Belgium, the Federal Republic of Germany, Ireland, the Italian Republic, the Grand Duchy of Luxembourg, the Kingdom of Netherlands and the United States of America in the field of nuclear science and technology information, Brussels, 19 September 1974

Sarrera nagusia izenburuaren bidez, eta bigarren sarrera Euratom, ondoren dagokion izenburu hautatua jarrita

Akordioaren alderdietako baten izenpetzaileak, nazioarteko organizazio baten kide izanik, organizazioaren izenean barik bere izenean diharduenean, 14.5.2A eta 14.5.2B arauetara jarraituko zaie.

14.5.2D Aulki Santuak izenpetutako konkordatuak eta abar

Aulki Santuak eta estatu zibil batek izenpetutako konkordatuak eta bestelako akordio formalek informazio-iturri nagusian lehenengo ageri den alderdiaren izena izango dute sarrera nagusi. Bigarren sarrera egingo da beste alderdiaren izenaren bidez. Kasu bietan izenburu hautatua gehituko da.

Concordato entre España y la Santa Sede (27 de agosto de 1953)

Sarrera nagusia Espainia, ondoren dagokion izenburu hautatua jarrita, eta bigarren sarrera Eliza Katolikoa, ondoren dagokion izenburu hautatua jarrita

Convenio entre la Santa Sede y el Estado español sobre la jurisdicción castrense y asistencia religiosa a las fuerzas armadas : Ciudad del Vaticano, 5 de agosto de 1950

Sarrera nagusia Eliza Katolikoa, ondoren dagokion izenburu hautatua jarrita, eta bigarren sarrera Espainia, ondoren dagokion izenburu hautatua jarrita

14.5.2E Estatuz beheragoko jurisdikzioek izenpetutako akordioak

14.5.2Ea) Tratatuak, hitzarmenak eta abar estatuz beheragoko jurisdikzioen artean eginak bada edota estatuz beheragoko jurisdikzio baten eta dagokion estatuaren artekoak bada, lankidetzan idatzitakoak izanik erantzukizun nagusia adierazita ez daukaten lanetarako ezarritako arauetara jarraituko zaie (ikus 14.2.2Ab).

Ekonomia-Ituna : eguneratuta dago horren testua 1997ko abuztuaren lauko datararte

(Euskadiko eta Espainiako gobernuek izenpetu zuten ituna)
Sarrera nagusia Euskadi eta bigarren sarrera Espainia

14.5.2Eb) Akordioa estatu jakin baten eta beste estatu bateko beheragoko mailako jurisdikzio baten edo gehiagoren artekoa bada, 14.5.2A eta 14.5.2B arauetara jarraituko zaie, eta ez da izenburu hautaturik jarriko.

Protocole d'entente entre le Gouvernement du Québec et le Gouvernement de la République française relatif à la protection sociale des étudiants et des participants à la coopération

Sarrera nagusia Quebec eta bigarren sarrera Frantzia

14.5.2F Protokoloak, zuzenketak eta abar

Bereiz argitaratutako protokolo, zuzenketa eta abarretan, osatzen duten akordioa hartuko da idazpururako, dagozkien izenburu hautatuak gehituta, hala dagokionean.

Protocolo adicional al acuerdo comercial de 1º de julio de 1948, entre España y Suecia

Akordioari dagozkion sarrera nagusia eta bigarren sarrera, ondoren bakoitzari dagokion izenburu hautatua jarrita

Protocol amending the Convention between the United Kingdom of Great Britain and the Grand Duchy of Luxembourg for the avoidance of double taxation and the prevention of fiscal evasion with respect to taxes on income and on capital, signed at London on 24 May 1967, London, 18 July 1978

Akordioari dagozkion sarrera nagusia eta bigarren sarrera, ondoren bakoitzari dagokion izenburu hautatua jarrita

14.5.2G Bildumak

Argitalpenean bi alderdiren artean, beti berberak, izenpetutako akordioak biltzen direnean, alderdi horien arteko akordio bakarra balitz bezala jokatu da (ikus 14.5.2A). Bigarren sarrera egingo da biltzailearen izenaren bidez, baldin eta halakorik badago eta argitalpenean nabarmenduta azaltzen bada.

Acuerdos y canjes de notas entre España y Francia

Sarrera nagusia Espainia, ondoren dagokion izenburu hautatua jarrita, eta bigarren sarrera Frantzia, ondoren dagokion izenburu hautatua jarrita

Die Verträge zwischen Russland und China 1689-1881 / herausgegeben und eingeleitet von Michael Weiers

Sarrera nagusia Errusia, ondoren dagokion izenburu hautatua jarrita, eta bigarren sarrera Txina, ondoren dagokion izenburu hautatua jarrita, eta Weiers

Argitalpenean estatu batek beste batzuekin izenpetutako akordioak biltzen direnean, lehenengoa hartuko da sarrera nagusirako. Bigarren sarrerak egingo dira beste estatuen izenen bidez, baldin

eta bi besterik ez badira. Halaber, bigarren sarrera egingo da biltzailearen izenaren bidez, betiere argitalpenean nabarmenduta azaltzen bada.

Acuerdos agrícolas bilaterales entre España y los países de la Asociación Europea de Libre Cambio

Sarrera nagusia Espainia, ondoren dagokion izenburu hautatua jarrita

Tratados internacionales de España / [director, Antonio Truyol y Serra]

Sarrera nagusia Espainia, ondoren dagokion izenburu hautatua jarrita, eta bigarren sarrera Truyol y Serra

Tratatu, hitzarmen eta abarren bestelako bildumen idazpurua aukeratzeko orduan, idazle bat baino gehiagoren lanen bildumetarako araei jarraituko zaie (ikus 14.2.2D eta 16.6.4).

Traités instituant les Communautés Européennes. Traités portant révision de ces traités. Documents annexes

Sarrera nagusia izenburuaren bidez

Co-operation agreements between the Nordic countries : a compilation of some of the basic co-operation agreements between Denmark, Finland, Iceland, Norway, and Sweden

Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrera Danimarka, ondoren dagokion izenburu hautatua jarrita

14.5.3 AUZITEGIEN EPAIAK, PROZESU JUDIZIALAK ETA ABAR

14.5.3A Jurisprudentzia-bildumak

Jurisprudentzia-bildumen kasuan, auzitegi bakarraren egintzak direnean, sarrera nagusia dagokion auzitegiaren izenaren bidez egingo da. Jurisprudentzia auzitegi bat baino gehiagorena denean, izenburua izango da sarrera nagusi eta bigarren sarrerak egingo dira auzitegien bidez, betiere hiru baino gehiago ez badira.

Repertorio de sentencias del Tribunal Central de Trabajo

Sarrera nagusia auzitegiaren izenaren bidez

Sentencias dictadas por el Tribunal Supremo en los recursos de casación y competencias en materia criminal ... y las sentencias autorizadas del Tribunal Supremo de Guerra y Marina

Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrerak bi auzitegien izenen bidez

Kontalari edo errelatorerik, argitalpenaren arduradunik edota biltzailerik badago, bigarren mailako sarrerak egingo zaizkie.

Jurisprudencia contencioso-administrativa del Tribunal Supremo y de las audiencias territoriales / [compilada por] Antonio Agúndez Fernández, Fernando Mateo Lage, Federico Carlos Sainz de Robles

Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrerak Agúndez Fernández, Mateo Lage eta Sainz de Robles

Administración local y Constitución : jurisprudencia del Tribunal Constitucional y del Tribunal Supremo / Mercedes de Lope Rebollo, Luis Sanz Fernández
Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrerak auzitegiaren izenaren bidez, Lope Rebollo eta Sanz Fernández

14.5.3B Erreferentziak, laburpenak eta abar

Jurisprudentzia-bildumen erreferentzia, laburpen edo aurkibideen kasuan, sarrera nagusia erreferentziaren edo dena delakoaren erantzukizuna duen pertsonaren izenaren bidez egingo da, baldin eta argitalpenean nabarmenduta azaltzen bada. Hala ez bada, izenburuaren bidez egingo da.

Derecho comunitario europeo : tratado CEE refundido, legislación y jurisprudencia comentada sobre libertades económicas y derechos fundamentales / Diego López Garrido, Ángel Javier Martínez Higuera, Isabel Hernández F. del Valle
Sarrera nagusia López Garrido eta bigarren sarrerak Martínez Higuera eta Hernández F. del Valle

158 sentencias del Tribunal Supremo / Juan Manuel Fanjul Sedeño
(Sententziei buruzko laburpena eta iruzkina da)
Sarrera nagusia Fanjul Sedeño eta bigarren sarrera auzitegiaren izenaren bidez

14.5.3C Banakoen auziak

14.5.3Ca) Lehen auzialdiko prozesu penalak

Prozesu baten autoak, gerra-kontseiluak eta abar jasotzen dituzten argitalpenetan, prozesatuaren izenaren bidez egingo da sarrera nagusia. Prozesatuak bat baino gehiago badira, 14.2.2Ab) arauari jarraituko zaio. Bigarren sarrera egingo da auzitegiaren izenaren bidez.

Proceso contra Pedro Corbacho, Francisco Corvacho, Juan Ruiz por asesinato de el Blanco de Benaocaz : sumario, juicio oral, sentencia
Sarrera nagusia Pedro Corbacho eta bigarren sarrerak Corvacho eta Ruiz

Juicio ordinario seguido ante los tribunales militares en la plaza de Barcelona contra Francisco Ferrer Guardia
Sarrera nagusia Ferrer Guardia

14.5.3Cb) Lehen auzialdiko bestelako prozesuak

Prozesu zibilen autoak edota penalak ez diren bestelako epaiketen autoak, hauteskunderen inpugnazioen kasuenak barne, jasotzen dituzten argitalpenen kasuan, sarrera nagusia auzia jarri duen pertsona edo erakundearen izenaren bidez egingo da. Auzi-jartzaileak bat baino gehiago direnean 14.2.2Ab) arauari jarraituko zaio. Bigarren sarrera egingo da alderdi demandatuaren izenaren bidez. Demandatuak hiru baino gehiago direnean, lehenengo ageri dena baino ez da jasoko bigarren serreran. Halaber, bigarren sarrera egingo da auzitegiaren izenaren edo prozeduraren ardura duen bestelako erakundearen izenaren bidez.

The case of William Brooks versus Ezekiel Byam and others, in equity, in the Circuit Court of the United States, for the First Circuit – District of Massachusetts
Sarrera nagusia Brooks demandatzailea denez gero, eta bigarren sarrerak Byam demandatua denez gero, eta auzitegiaren izenaren bidez

14.5.3Cc) Apelazioko errekursoak

Lehen auzialdiko prozesuetarako ezarritako arauei jarraituko zaie.

14.5.3Cd) Fiskalen akusazioak, demandak eta konklusioak

Lehen auzialdiko prozesuetarako ezarritako arauei jarraituko zaie.

14.5.3Ce) Epaimahaiantzako jarraibideak

Epaimahaiantzako jarraibideek auzitegiaren izena izango dute sarrera nagusi. Bigarren mailako sarrera egingo zaie jarraibideak eman dituen epaileari eta alderdi bakoitzetik lehenengo aipatzen den pertsonari, salbu eta estatuari, hark parte hartzen duen auzietan.

14.5.3Cf) Erabaki judizialak

Auzitegi baten epai eta bestelako erabakien kasuan, sarrera nagusia auzitegiaren izenaren bidez egingo da. Bigarren sarrerak egingo dira alderdi bakoitzetik lehenengo ageri den pertsona edo erakundearen izenaren bidez.

Sentencia dictada en 8 de junio de 1929 por la Sala Primera del Tribunal Supremo en los autos seguidos por D. Ricardo Vicent Miralles contra las compañías de seguros «Aurora», «La Urbana» y «La Unión y el Fénix Español»

Sarrera nagusia Auzitegi Gorena eta bigarren sarrerak Vicent Miralles eta Aurora

14.5.3Cg) Boto partikularrak

Argitalpenean epaile baten iritzi partikularra jasotzen denean, sarrera nagusia haren izenaren bidez egingo da. Bigarren sarrerak egingo dira alderdi bakoitzetik lehenengo ageri den pertsona edo erakundearen izenaren bidez.

14.5.3Ch) Alderdi bakarraren jarduerak

Argitalpenean alderdi bakar baten jardueraren inguruko dokumentuak besterik jasotzen ez direnean, sarrera nagusia alderdi horri dagokiona izango da. Sarrera hori ez badator bat epaiketaren autoen sarrera nagusiarekin, bigarren sarrera egingo zaio beste alderdiari. Halaber, bigarren sarrera egingo da argitalpeneko dokumentuak dagozkion alderdiaren abokatuaren izenaren bidez.

Demostración jurídica por D. Nicolas Próspero Manrique de Lara, marqués de Lara ... en el recurso de segunda suplicacion, que por muerte del marqués de Lara su padre n. 59 sigue en el Supremo Consejo de Castilla sobre la sucesion en propiedad ...

Sarrera nagusia Manrique de Lara

Jurídica demostración por Onofre Gloria ... en la causa que junto con el Sr. Fiscal en lo civil don Jacobo María Spinosa ... sigue contra el Dr. Juan Soler y Bernardo Euras ... como pretendidos albaceas y particulares executores del último testamento de Josef Gloria Picó ... el Dr. Francisco Pallás y Mora, en calidad de heredero de Antonio Gloria y Pallás ... y el prior y convento de Religiosos de la Merced de esta ciudad, en la Real Sala ... sobre sucesión a la herencia de dicho Josef Gloria
Sarrera nagusia Gloria (Onofre) eta bigarren sarrera Spinosa

14.5.3Ci) Bildumak

Auzi bat baino gehiagoren autoak jasotzen dituzten bildumen idazpurua aukeratzeko orduan, idazle bat baino gehiagoren lanen bildumetan bezala jokatu da (ikus 14.2.2D).

Procesos célebres : crónicas de los tribunales españoles
Sarrera nagusia izenburuaren bidez

14.5.4 LAN-HITZARMENAK

Enpresa baten eta enpresa horretako langileen ordezkariak izenpetutako hitzarmen kolektiboek enpresaren izena izango dute sarrera nagusi.

1989rako hitzarmen kolektiboa : Euskal Irrati Telebista H. E.
Sarrera nagusia Euskal Irrati Telebista

Convenio colectivo de Perfil en Frío, S. A., para sus factorías de la Felguera y Mieres, 1983
Sarrera nagusia Perfil en Frío

Lan-sektore jakin batean ezarri beharreko hitzarmen kolektiboetan, sarrera nagusia izenburuaren bidez egingo da. Bigarren sarrerak egingo dira alderdi bakoitzeko korporazio izenpetzaileen bidez, baldin eta alderdi bakoitzean hiru baino gehiago ez badira. Alderdietakoren batean hiru baino gehiago badira, lehenengo ageri denari bakarrik egingo zaio bigarren sarrera.

Convenio colectivo de trabajo para la construcción y obras públicas de la provincia de Oviedo / Unión General de Trabajadores, Confederación Asturiana de la Construcción, Asociación de Promotores Constructores de Gijón
Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrerak Unión General de Trabajadores, Confederación Asturiana de la Construcción eta Asociación de Promotores Constructores de Gijón

14.5.5 LIBURU SANTUAK

Bibliaren kasuan eta erlijio-talde jakinek idazki santutzat hartu ohi dituzten beste liburu batzuen kasuan, sarrera nagusia izenburuaren bidez egingo da. Bigarren sarrera egingo da lanarekin erlazioatutako edozein pertsonaren izenaren bidez. Liburu santuen izenburu hautatuen erabilerarako ikus 16.7 araua.

Itun Berria / J. L. Olariaga Frantzisko'k itzulia

Sarrera nagusia lanaren izenburu hautatuaren bidez eta bigarren sarrera Olariaga

El Korán : versión literal íntegra / traducción, prólogo y notas de Rafael Cansinos Assens

Sarrera nagusia lanaren izenburu hautatuaren bidez eta bigarren sarrera Cansinos Assens

Los Vedas / traducción, noticia preliminar y notas de Juan B. Bergua

Sarrera nagusia lanaren izenburu hautatuaren bidez eta bigarren sarrera Bergua

Misnah 'im perush / Rabbenu Mosheh ben Maimon ; maqor vetargum [meat] Yosef David Kapah

Sarrera nagusia lanaren izenburu hautatuaren bidez eta bigarren sarrerak Maimonides eta Kapah

Arau bera erabiliko da harmonia eta testu komunztatueterako.

Sinopsis concordada de los Cuatro Evangelios / por Juan Leal

Sarrera nagusia izenburu hautatuaren bidez eta bigarren sarrera Leal

14.5.6 LITURGIA-LIBURUAK

14.5.6A Elizen edo erlijio-sinesteen liturgia-liburuen kasuan, sarrera nagusia haien izenaren bidez egingo da, izenaren ondoren izenburu hautatua jarrita. Liburua talde bakar batek (elizbarrutia, monasterioa, erlijio-ordena, santutegia eta abar) erabiltzekoa bada, sarrera nagusia dagokion taldearen izenaren bidez egingo da, izenaren ondoren izenburu hautatua jarrita (ikus 16.8). Dago-kion elizari bigarren sarrera egingo zaio egile-izenburuak hartuta.

Jaunaren nekaldia : aste santurako lagungarri

(Eliza Katolikoaren lan liturgikoa)

Sarrera nagusia Eliza Katolikoa, ondoren lanaren izenburu hautatua jarrita

Illetak ospatzeko elizkizun-liburua : Vatikanoko II kontzilioaren erabakien arabera eraberritua Euskalerriko elizbarrutietako gotzaiek onartua eta Erromako liturji batzorde nagusiak egiztatua

Sarrera nagusia Eliza Katolikoa, ondoren lanaren izenburu hautatua jarrita

Urte guziko meza-bezperak

Sarrera nagusia Eliza Katolikoa, ondoren lanaren izenburu hautatua jarrita

Misal franciscano : suplemento al misal romano

Sarrera nagusia Frantziskotarrak eta bigarren sarrera (egile-izenburuak) Eliza Katolikoa

Book of common order of the Church of Scotland

Sarrera nagusia Church of Scotland, ondoren dagokion izenburu hautatua jarrita

14.5.6B Elizkizunetan irakurtzeko diren idazki santuetatik hartutako testuek liturgia-liburuen tratamendu bera izango dute.

Epístolas y evangelios. Desde el domingo I de Adviento hasta el domingo dentro de la octava de Navidad = Epistolak eta ebanjelioak. Abenduko lenengo igandetik eguberri ondoko iganderaño

Sarrera nagusia Eliza Katolikoa, ondoren lanaren izenburu hautatua jarrita

14.5.6C Kristauak ez diren erlijioen gurtza-liburuek dagokien izenburu hautatua izango dute sarrera nagusi.

The Haggadah of Passover

Sarrera nagusia izenburu hautatuaren bidez (Haggadah)

14.5.7 DOHATSU AITORTZEKO ETA KANONIZATZEKO PROZESUAK

Dohatsu aitortzeko edo kanonizatzeko prozesuen autoak jasotzen dituzten argitalpenetan, sarrera nagusia dagokion dohatsuaren edo santuaren izenaren bidez egingo da.

Proceso de beatificación y canonización de Sta. Teresa de Jesús

Sarrera nagusia Teresa Jesusena

14.5.8 KONTZILIOAK ETA SINODOAK

14.5.8A Eliza katolikoarenak

Kontzilio unibertsalen edo ekumenikoen agiri ofizialak jasotzen dituzten argitalpenetan, sarrera nagusia kontzilioaren izenaren bidez egingo da.

La libertad religiosa : declaración del Concilio Vaticano II : edición bilingüe latino-castellana

Sarrera nagusia kontzilioaren izenaren bidez

Kontzilioak edo sinodoak unibertsalak ez badira, dagokion jurisdikzioaren izenaren bidez egingo da sarrera nagusia, izenaren ondoren batzarraren izena jarrita.

Decretos y constituciones del Sínodo Diocesano celebrado en la SIC de Vitoria, por el Ilmo. Rvmo. Sr. Obispo de la misma Dr. D. Mariano Miguel Gómez : año 1885

Sarrera nagusia Gasteiz (Elizbarrutia), ondoren sinodoaren izena jarrita, eta bigarren sarrera gotzainaren izenaren bidez

14.5.8B Beste eliza edo erlijio-korporazio batzuenak

Kontzilioak eta abar beste eliza edo erlijio-korporazio batzuenak direnean, sarrera nagusia dagokion elizaren edo erlijio-taldearen izenaren bidez egingo da, izenaren ondoren batzarraren izena jarrita.

The records of the Synod of Lothiam and Tweeddale, 1589-1596, 1640-1649

Sarrera nagusia Church of Scotland, ondoren sinodoaren izena jarrita azpisarrera gisa

14.5.9 BILTZARRAK, BATZARRAK ETA ABAR

14.5.9A Biltzarren, batzarren eta abarren akta eta bestelako argitalpen ofizialek aldi bateko korporazio horien izen formalak izango dute sarrera nagusi, betiere, izen hori atarian, aurretikoetan edo azalean ageri bada. Argitalpenaren izenbururako biltzarren izen formalak hartu ez bada, bigarren mailako sarrera egingo zaio biltzarren izenari.

Sociología para una sociedad en marcha : actas del III. Congreso Vasco de Sociología : [Bilbao, 17-19 de noviembre de 1994] = Aurrera doan gizarterako soziologia : III. Euskal Soziologi Kongresuaren aktak : [Bilbao, 1994ko azaroak 17-19]
Sarrera nagusia biltzarren izenaren bidez eta bigarren sarrera izenburuaren bidez

14.5.9B Biltzarrak, batzarrak eta abarrek izen formalik ez badu edota atarian, aurretikoetan edo azalean ageri ez bada, sarrera nagusia izenburuaren bidez egingo da.

Famili zuzenbidea : [Familia Zuzenbideari buruzko Jardunaldiak, Gasteizen, 1995eko maiatzaren 25 eta 26an]
(Jardunaldien izena hitzaurrean agertzen da)
Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrera jardunaldien izenaren bidez

Baina ataritik, aurretikoetatik eta azaletik kanpo ageri bada biltzarren, batzarren edo dena delakoaren izen formalak, eta izen hori funtsean izenburuarekin eta, halakorik bada, informazio osagarriarekin bat badator, izen hori hartuko da sarrera nagusirako.

Nazioarteko Kongresua : gizonak giza antolamendu berriaren aurrean / egilea,
Emakunde, Emakumearen Euskal Erakundea
Sarrera nagusia jardunaldien izen formalaren bidez

Bibliotecas públicas : IV jornadas
(Argitalpenean hauxe agertzen da: IV Jornadas sobre Bibliotecas Públicas)
Sarrera nagusia jardunaldien izen formalaren bidez

14.5.9C Bereiz argitaratutako txosten eta abarren kasuan, bigarren sarrera egingo da biltzarren, batzarren eta abarren izenaren bidez, betiere, baldin eta biltzarren, batzarren edo dena delakoaren, edota horien korporazio babesleen argitalpen ofizialak badira, eta horien izena berariaz atarian, aurretikoetan edo azalean ageri bada.

Balore sozio-afektiboak (aurkezpeneko materiale batzuk) : hika tratamenduari buruzko ihardunaldiak / Xabier Alberdi Larizgoitia
Sarrera nagusia Alberdi Larizgoitia eta bigarren sarrera jardunaldien izenaren bidez

Necesidad de una lengua literaria y oficial y la unificación de la ortografía vasca : memoria presentada a la sección de lengua del congreso de Estudios Vascos de Oñate / [H. Gavel]
Sarrera nagusia Gavel eta bigarren sarrera jardunaldien izenaren bidez

14.5.9D Korporazio iraunkorren batek aldian-aldian edo bestela antolatutako biltzarren, batzarren eta abarren kasuan, bakoitzaren izen espezifikoaren bidez egingo da sarrera nagusia, baldin eta

izen hori atarian, aurretikoetan edo azalean ageri bada. Bigarren sarrera egingo da korporazioaren izenaren bidez.

Congreso Vasco de Sociología. Resúmenes / Asociación Vasca de Sociología =
Euskal Soziologia Kongresua. Laburpenak / Euskal Soziologia Elkartea
Sarrera nagusia jardunaldiaren izenaren bidez eta bigarren sarrera elkartearen izenaren bidez

14.5.10 ERAKUSKETAK, AZOKAK ETA ABAR

14.5.10A Erakusketa, azoka eta abarren katalogo eta argitalpen ofizialen kasuan, bakoitzaren izen formalak izango da sarrera nagusi, baldin eta izenok atarian, aurretikoetan edo azalean ageri badira.

Exposición Ibero-Americana : Sevilla, 1929-1930
Sarrera nagusia erakusketaren izenaren bidez

Buztingintza tradizionalaren erakusketa = Exposición de alfarería tradicional
Sarrera nagusia erakusketaren izenaren bidez

Exposición «La Mezquita de Córdoba, siglos VIII al XV»
Sarrera nagusia erakusketaren izenaren bidez

Javier Sauras / VI Exposición de Escultura Aragonesa del 10 de septiembre al 3 de octubre 1993, Sala Hermanos Bayeu
(Erakusketaren 17. edizioa Saurasen lanari buruzkoa da oso-osorik)
Sarrera nagusia erakusketaren izenaren bidez eta bigarren sarrera Sauras

14.5.10B Erakusketak, azokak edo dena delakoak izen formalik ez badu edota atarian, aurretikoetan edo azalean ageri ez bada, dokumentuaren informazio-iturri nagusian ageri den edukia eta datuen aurkezpena hartuko da kontuan kasuan kasu kapitulu honetako zein arau erabili behar den jakiteko.

Prospero Minghetti, 1786-1853 : nel laboratorio di un artista neoclassico : [mostra a cura del Musei civili di Reggio Emilia, 27 marzo-23 maggio 1993] / di Elisabetta Farioli

(14.2.Bg araua aplikatu daiteke)
Sarrera nagusia Farioli, testuaren egilea, eta bigarren sarrera Minghetti

Euskal margolariak aureski [sic] kutxen bildumetan : [erakusketa eta katalogoa / antolaketa, Bilbao Bizkaia Kutxa, Gipuzkoa Donostia Kutxa, Vital Kutxa]
Sarrera nagusia Bilbao Bizkaia Kutxa eta bigarren sarrerak Gipuzkoa Donostia Kutxa eta Vital Kutxa

La mujer en la alfarería española : sala de exposiciones del Colegio Oficial de Arquitectos, Alicante, 28 de septiembre al 12 de octubre de 1993 / Ilse Schütz, con aportaciones de Miguel Alba ... [et al.]

(14.2.2Bg araua aplikatu daiteke)
Sarrera nagusia Schütz testuaren erantzule nagusia baita

Javier Lapuente : pinturas
(Funtsean artistak erakusten dituen lanak erreproduzitzen dira, aurretik sinatutako testu laburra duela. 14.2.2Bg araua aplikatzen da)

Sarrera nagusia Lapuente, artistaren izena baita

Fondos catalanes en la Biblioteca Nacional : sala de exposiciones de la Biblioteca Nacional, Madrid, junio de 1983

(Erakutsitako funtsen katalogoa da. 14.1.2a araua aplikatzen da)

Sarrera nagusia bibliotekaren izenaren bidez

La colección Palacio : arte japonés en el Museo de Bellas Artes de Bilbao
 [erakusketa]

Sarrera nagusia museoaren izenaren bidez

Obras de François Morellet en la colección del Museo de Cholet = Cholet-ko Museoko bildunan [sic] François Morellet-en lanak

Sarrera nagusia Morellet eta bigarren sarrera museoaren izenaren bidez

HAINBAT DOKUMENTU-MOTATARAKO ARAU ESPEZIFIKOAK

14.6 Material-mota ezberdinak katalogatzean sarrerak aukeratzeko orduan, kapitulu honetan jandak adierazita dauden arauak erabiliko dira, non eta ondoren azaltzen diren arau bereziekin kontrastean ez duten. Arau hauetako batzuk aurreko arauetan jaso gabeko kasuei dagozkie, beste batzuk, ordea, aurreko zenbait arau hein batean aldatu egiten dituzte.

14.6.1 ESKUIZKRIBUAK

14.6.1A Bildumak

Eskuizkribu-bilduma pertsona, familia edo korporazio batek eratutakoa edota pertsona, familia edo korporazio jakin bati buruzkoa denean, pertsona, familia edo korporazio horren izena izango da sarrera nagusi.

[Adriano del Valleren posta-trukea eta paperak (gaztelania)]

Sarrera nagusia Valle

[Osuna Etxearen paperak (gaztelania)]

Sarrera nagusia Osunako dukeak

[Bartzelonako elizbarrutiaren inguruko agiriak (gaztelania)]

Sarrera nagusia Gotzaitegiaren izenaren bidez

14.6.1B Liturgia-testuak

Trentoko Kontzilioaren aurreko liturgia-testu kristauek dagokien izenburu hautatua izango dute sarrera nagusi (ikus 16.8.2).

14.6.1C Bigarren sarrerak

14.7 idatz-zatian adierazitakoaren arabera eskuizkribuak katalogatzean egin daitezkeen bigarren mailako sarrerez gain, honako bi arau hauetan azaltzen direnak ere egin daitezke:

14.6.1Ca) Antzinako, Erdi Aroko eta Errenazimentuko eskuizkribuen kasuan, bigarren sarrerak egingo dira kopiatzaileen, edertzapenen egileen eta irudigileen izenen bidez. Nahi izanez gero, geroagoko eskuizkribuetan ere egin *daitezke*.

14.6.1Cb) Aurreko arauaren kasu berean (antzinako, Erdi Aroko eta Errenazimentuko eskuizkribuak), bigarren sarrera egingo da «incipit»aren bidez, baldin eta deskribapen bibliografikoan jaso beharrekoa bada.

14.6.2 MATERIAL KARTOGRAFIKOA

14.6.2A Egile ezaguna dutenak

14.6.2B Material kartografikoa pertsona bakarrak edo pertsona batek baino gehiagok lankidetzan egindakoa denean, 14.2.1 eta 14.2.2 idatz-zatietan ezarritako arauak erabiliko dira.

Mapa geográfico del Reyno de Jaén, dividido en los partidos de Jaén, Baeza, Úbeda, Andújar, Martos y las poblaciones de Sierra Morena / por don Tomás López
Sarrera nagusia López

Carta esférica de las islas de Ibiza y Formentera ... / construida por el brigadier de la R1. Armada Vicente Tofiño de Sn. Miguel
Sarrera nagusia Tofiño de San Miguel

14.6.2C Material kartografikoaren egile-erantzukizuna korporazio batena denean, korporazioaren izena izango da sarrera nagusi. Bigarren mailako sarrerak egingo dira dokumentuaren eduki zientifiko eta artistikoaren erantzukizuna duten pertsonen izenen bidez.

Mapa geológico de España : Granada-Málaga ... / Instituto Geológico y Minero de España
Sarrera nagusia institutuaren izenaren bidez

Mapa de carreteras de España / cartografía, Rhea Consultores
Sarrera nagusia Rhea Consultores

La Europa del siglo XVII : la Guerra de los 30 años y la Paz de Westfalia / Instituto Cartográfico Latino sobre la cartografía ; diseño y parte literaria, J. Roig Obiol
Sarrera nagusia institutuaren izenaren bidez eta bigarren sarrera Roig

14.6.2D Hautazko araua

14.4 eta 14.6.2A arauetan azaldutakoaren orde, nahi izanez gero, dokumentuan azaltzen den toki geografikoaren izena har daiteke sarrera nagusirako.

Bigarren mailako sarrerak egingo dira dokumentuaren eduki zientifikoaren eta artistikoaren erantzukizuna duten pertsonen eta korporazioen izenen bidez.

Plano topográfico de la Villa y Corte de Madrid dibujado
y gravado por D. Ant. Espinosa de los Monteros
Sarrera nagusia Madril eta bigarren sarrera Espinosa de los Monteros

Mapa Telstar de Menorca : con índice toponímico y planos
de Maó y Ciutadella
Sarrera nagusia Menorca eta bigarren sarrera Telstar

14.6.3 MATERIAL GRAFIKOA

14.6.3A Arau orokorra

Sarrerak aukeratzeko orduan, edozein motatako material grafikoaren erantzuleari (grabatzailea, margolaria, marrazkilaria, argazkilaria eta abar) 14.2.1/14.2.2Ab) eta 14.2.2D idatz-zatietan norbanako egileentzat araututakoa ezarriko zaio.

Kontuan izan behar da hiru egile baino gehiagok parte hartu duten lanetan, lanek izenbururik ez duten kasuetan, izenburu izuna hartu behar dela sarrera nagusirako.

AEIOU / Fernando Bellver. «A» / Alfonso Fraile. Cinco
fragmentos / Carlos González. Bestiario / José Hernández.
Intervalo / Denis Long. Piloto de pruebas / Antonio Lorenzo. Hako / Mitsuo Muira.
Bolaka / Monir. Las partes del mundo / Andrés Nagel. Conejo Muleto / Julio Zachris
Sarrera nagusia Bellver eta egile-izenburuen bigarren sarrerak gainerako lanetarako

Escaparate de restaurant / Alfredo Alcaín
Sarrera nagusia Alcaín

Ex.mo Duci D. D. Bernardo de Gálvez, Occidentalis florite
debelatori : hanc ipsius veram efigiem amica grata
manus, que faciebat dicavit / Joachim Inza delin. ; E.I [sic]
S. Carmona et Simon Brieua sculp. Matriti 1781
Sarrera nagusia Salvador Carmona eta bigarren sarrerak Brieua eta Inza

MADRID : seis aguafuertes, seis bandos / [aguafuertes
de Manuel Alcorlo ... et al. ; prólogo y seis bandos de
Enrique Tierno Galván, alcalde presidente del Ayuntamiento de Madrid]
*Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrerak Alcorlo eta Madrileko
alkatearen izenaren bidez*

[6 margolariren karpeta] / Ana Comellar ... [et al.]
Sarrera nagusia izenburu izunaren bidez eta bigarren sarrera Comellar

14.6.3B Artelanen erreprodukzioak

Artelanen erreprodukzioen kasuan, sarrera nagusia erreproduzioaren egilearen izenaren bidez egingo da, baldin eta hark erabilitako euskarria jatorrizko lanean erabilitakoaz bestelakoa bada. Jatorrizko lanaren egile-izenburuen bigarren sarrera egingo da, baldin eta egilea ezaguna bada. Egilea zein den jakin ezean, bigarren sarrerarako, egile ezezagunen artelanetarako ezarritakoari jarraituko zaio (ikus 14.6.3F).

EL VINATERO : el cuadro original existe en el Real
Palacio de Madrid / pintado por Murillo ; grabado por
Juan Antº Salvador Carmona
Sarrera nagusia Carmona eta bigarren sarrera (egile-izenburuak) Murillo
In ictu oculi / Valdés Leal ; Enrique Godínez fotog.
Sarrera nagusia Godínez eta bigarren sarrera (egile-izenburuak) Valdés Leal

Kopia mekaniko modernoak (1901etik aurrerakoak) badira, sarrera nagusia jatorrizko lanaren egilearen izenaren bidez egingo da, baldin eta ezaguna bada; egilea zein den jakin ezean 14.6.3F arauari jarraituko zaio. Bigarren sarrera egingo da kopiaren erantzukizuna duen pertsonaren edo korporazioaren izenaren bidez.

Goya : libro de 24 postales. — Barcelona : Polígrafa, D.L. 1991
Sarrera nagusia Goya eta bigarren sarrera Polígrafa

14.6.3C Kopiak

Kopien kasuan, hau da, jatorrizko lanean erabilitako adierazpide bera erabiltzen den lanen kasuan, kopiaren egilearen izena izango da sarrera nagusi. Bigarren mailako sarrera egingo da jatorrizko lanaren egile-izenburuen bidez, baldin eta egilea ezaguna bada. Egilea zein den jakin ezean 14.6.3F arauan ezarritako sarrera erabiliko da.

[Ama Birjinaren ezkontza] / A. D. [monograma]
(Dureroren izen bereko lanaren kopia bat da, Marcantonio Raimondik egina)
Sarrera nagusia Raimondi eta bigarren sarrera (egile-izenburuak) Durerro
[Eulon aberatsa hil egin da eta deabruak haren altxorak hartzen ditu] / A. G.
[monograma] 1554
(Aldegrever-en monograma izenpetuta eta data jarrita dauka, baina kopia bat da, jatorrizkoarekin alderatuta ezberdintasunak baititu)
Sarrera nagusia alemaniar anonimoa eta abar, eta bigarren sarrera (egile-izenburuak)
Aldegrever

14.6.3D Lan berrizatuak

Jatorrizko egilea ez den beste batek berriztatutako lanetan, sarrera nagusia egilearen izena izango da eta bigarren mailako sarrera egingo da berritzailearen izenaren bidez.

14.6.3E Egilearen aipurik ez duten lanak

Lanean egilearen aipurik ageri ez denean baina baimendutako katalogoetan eta erreferentzia-iturrietan pertsona jakin bat jotzen denean egiletzat, haren izena izango da sarrera nagusi.

[Demonioa]

Oharrean

Carduchori egotzia honi jarraiki: Barcia, 28. zk., Pérez Sánchez, Alfonso E., «Gli spagnoli da El Greco a Goya», 1970, 81 or. Angulo & Pérez Sánchez, «A Corpus of Spanish drawings», II. libk., 151. zk.

Sarrera nagusia Carducho

Erreferentzia-iturrietan pertsona ezberdinak jotzen badira egiletzat, iturri fidagarrienak emandako izena hartuko da sarrera gisa, eta erreferentziak egingo zaizkie egiletzat jotzen diren gainerakoen izenei.

[San Antonioren miraria]

(Tormok eta Velascok Eugenio Caxési egozten diote; Perez Sanchezek ordea Vicente

Carduchori)

Sarrera nagusia Carducho eta erreferentzia egingo zaio Caxési

Lanari ez bazaio ustezko egilerik zehazten, egile ezezagunen lanetarako ezarritako arauak erabiliko dira (ikus 14.6.3F).

14.6.3F Egile ezezaguneko lanak

Lanaren egilearen izena ezagutzen ez bada eta baimendutako erreferentzia-iturrietan ustezko egilerik zehazten ez bada, «anonimoa» terminoa erabiliko da sarrera nagusi gisa, beste datu batzuekin osatuta, 15.4.3C arauan ezarritakoari jarraiki. Bigarren sarrera egingo zaio izenburuari.

Santa Casilda

Sarrera nagusia espainiar anonimoa eta abar, eta bigarren sarrera izenburuaren bidez

Egilearen izena ezezaguna izanik, lana eskola jakin batean kokatu badaiteke, eskola horren izena izango da sarrera nagusi (ikus 15.4.3Ba).

Egiletasuna talde jakin baten inguruan kokatzen bada, talde horren izenaren bidez egingo da sarrera nagusia (ikus 15.4.3Bb).

14.6.3G Bigarren sarrerak

14.6.3A eta 14.6.3F arauetan ezarritako bigarren sarrerez gain, ondoren adierazten diren bigarren sarrerak egingo dira honako kasu hauetan:

a) Egile-sarrerak:
 — Lan grafikoaren egile nagusi ez diren egileen kasuan.
 — Estantpatzailearenak eta argitaratzailearenak, pertsona baten izena dagokienean.
 — *Nahi izanez gero*, bigarren mailako sarrera bana egingo zaie hiru egile baino gehiagoren lanen egileetako bakoitzari.

b) Izenburu-sarrerak:
 — Lanen erantzukizuna eskola edo talde batena denean.
 — Okerrekoak izan litezkeen ustezko egileen kasuan.
 — *Nahi izanez gero*, bilduma bateko lanetako bakoitzari bigarren sarrera egin dakioke izenburu izunaren bidez. Halaber, izenburu hautatua jar daiteke dokumentuaren izenburua hura izendatzeko normalean erabili ohi dena ez bada. Horretarako 15.3.2 eta 16.1 arauak erabiliko dira.

14.6.4 PROIEKTATZEKO MATERIAL GRAFIKOA

Material-mota horren sarrerak aukeratzeko, material grafikoetarako 14.6.3 idatz-zatian ezarritakoari jarraituko zaio.

14.6.5 MUSIKA INPRIMATUA

14.6.5A Aurre-araua

Musika-lanen egileen kasuan, 14.2.1/14.2.2Ab), 14.2.2D eta 14.3/14.4 arauetan norbanako egileetarako ezarritakoari jarraituko zaio.

Tavira : zortzico para piano, nº 3, op. 8 / por B. de Ercilla

Sarrera nagusia Ercilla

Orkestrarako fantasia = Fantasía para orquesta / Gotzon Aulestia

Sarrera nagusia Aulestia

Gure kariloiko bi soinu : txistua eta organoa / Lorenzo Ondarra

Sarrera nagusia Ondarra

Oriamendiko soñuba = Marcha de Oriamendi / arreglo de J. A. Santesteban

Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrera Santesteban

Euskadiko ereserkia = Himno Nacional de Euskadi / armonizazioa eta instrumentazioa, Tomás Aragüés Bernad

Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrera Aragüés

Antología de cantos populares / Fermín Irigaray

Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrera Irigaray

Eguberri abestiak = Villancicos vascos = Chants de Noël basques = Basque christmas carols = Baskische weihnachtslieder / Oñatibia'tar Yon'ek aukeratu ta prestatutako[ak]

Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrera Oñatibia

Pudente : ópera vascongada en dos actos / letra de Serafín Baroja ; escenas puestas en música por J. A. Santesteban

Sarrera nagusia Santesteban eta bigarren sarrera Baroja

Libro-Homenaje en el I centenario del nacimiento de Joaquín Turina (1882-1949) / Ramón Barcé ... [et al.]

Sarrera nagusia izenburuaren bidez. Nahi izanez gero, egile-izenburuak motako bigarren sarrerak egin daitezke musikagileen izenen bidez

Euskal-festara : marcha vasca / Jose M^a Usandizaga. Errondariyak-dantzari : marcha vasca / B. de Gabiola

Sarrera nagusia Usandizaga eta bigarren sarrera (egile-izenburuak) Gabiola

Sonata para flauta y clarinete / Joaquín Homs

Sarrera nagusia Homs

Romance clásico español : arreglo sobre un romance anónimo del siglo XVIII / versión completa por F. Collado

Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrera Collado

Antología de vihuelistas españoles / Jorge Fresno

Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrera Fresno

Rosalía de Castro : seis cantigas para coro mixto / música de Carmelo Bernaola ... [et al.]

Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrera Bernaola. Nahi izanez gero, egile-izenburuak motako bigarren sarrerak egin daitezke gainerako musikagileen izenen bidez

14.6.5B Jatorrizko bertsoia aldatuta edo handituta daukaten konposizioak edo beste era batera erabilitakoak

14.6.5Ba) Musika-lanen moldaketa, transkripzio, bertso sinplifikatu eta abarretan, eta aldatutako, transkribatutako eta handitutako lanetan, sarrera nagusia jatorrizko musikagilearen izenaren bidez egingo da, salbu eta aldaketok handiak edo garrantzitsuak direlako konposizio berrizat har badaitezke. Bigarren sarrera egingo da moldatzailearen, transkribatzailearen edo dena delakoaren izenaren bidez.

Lau euskal abesti = Quatre chansons basques / Jesús Guridi ; transcription pour 3 guitares, Francis Goudard

Sarrera nagusia Guridi eta bigarren sarrera Goudard

Zortzicos / de Modesto Letemendia ; arreglados para piano por José M^a Echeverría

Sarrera nagusia Letemendia eta bigarren sarrera Echeverría

Antaño / Óscar Esplá ; versión para guitarra de José de Azpiazu

Sarrera nagusia Esplá eta bigarren sarrera Azpiazu

Minueto del quinteto en mi mayor, op. 13, n^o 5 : para flauta y guitarra / Luigi Boccherini ; transcripción de R. Sainz de la Maza

Sarrera nagusia Boccherini eta bigarren sarrera Sainz de la Maza

Jatorrizko musikagilea zein den jakin ezean, sarrera nagusia izenburuaren bidez egingo da, eta bigarren sarrera egingo da moldatzailearen izenaren bidez.

Por amar a una doncella / autor anónimo del S. XV ;
recopilada y arreglada por Miguel Ángel Sánchez García
Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrera Sánchez García

Tres morillas me enamoran / anónimo [siglo] XV ; realizado para canto y guitarra
por José de Azpiazu
Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrera Azpiazu

14.6.5Bb) Egokitzapenetan, bertasio libreetan edo moldaketetan, musika berria gehitzen denean, sarrera nagusia egokitzailaren, moldatzailearen edo dena delakoaren izenaren bidez egingo da, honako kasu hauetan:

- 1) Lana nabarmen aldatzen denean.
- 2) Beste musikagile baten estiloaren edo zenbait lanen parafrasiak direnean.
- 3) Beste lan batean edo batzuetan oinarritutako musika-lanak direnean, adibidez, bariazioak eta fantasiak.

Konposizio berriak oinarritzat hartu duen lanak izenburu espezifikoak duenean egile-izenburuen bigarren sarrera egingo da; moldaketa beste musikagile baten estiloan baino oinarritu ez bada, egilearen bigarren sarrera besterik ez da egingo.

Paráfrasis de la cantiga 10ª del Rey don Alfonso el Sabio / por el maestro Eslava
Sarrera nagusia Eslava eta bigarren sarrera (egile-izenburuak) Alfontso Jakituna

Ume eder bat : variaciones / I. Ansorena
Sarrera nagusia Ansorena eta bigarren sarrera (egile-izenburuak) Iparragirre, bere lanean oinarritua baita abestia

Bariazio itunak = Variaciones tristes : nafar doinu herrikoi baten gainean txistu talderako / Karlos Sánchez Ekiza
Sarrera nagusia Sánchez

Fantasia sobre motivos de la Favorita / por José Gainza
Sarrera nagusia Gainza eta bigarren sarrera (egile-izenburuak) Donizetti, la Favorita Donizettiren opera baita

Carmen : opéra-comique de Georges Bizet : fantaisie pour violon avec accompt. de piano, op. 25 / Pablo de Sarasate
Sarrera nagusia Sarasate eta bigarren sarrera (egile-izenburuak) Bizet

El caserío : fantasía de la comedia lírica del Mtro. Guridi / Mariano San Miguel
Sarrera nagusia San Miguel eta bigarren sarrera (egile-izenburuak) Guridi

Ave María : sobre el primer preludio de J. S. Bach / Ch. Gounod
Sarrera nagusia Gounod eta bigarren sarrera (egile-izenburuak) Bach

Variaciones para dos pianos sobre un tema de Beethoven / por Camille Saint-Saëns
Sarrera nagusia Saint-Saëns eta bigarren sarrera Beethoven

Seis variaciones sobre un tema de Milán : para guitarra / por Joaquín Nin-Culmell
Sarrera nagusia Nin-Culmell eta bigarren sarrera Milán

Pequeña fantasía fácil : sobre motivos de la ópera Roberto il diavolo, de G. Meyerbeer / compuesta para piano por J. Rogel
Sarrera nagusia Rogel eta bigarren sarrera (egile-izenburuak) Meyerbeer

14.6.5C Kadentziak

Kontzertuen kadentziak bereiz argitaratzen direnean, egilearen izenaren bidez egingo zaie sarrera nagusia, eta kontzertuaren egilearen izenaren bidez bigarren sarrera. Argitalpenean kontzertua eta kadentzia batera jasotzen direnean, alderantziz egingo da.

Cadencia para la sonata en sol menor de Locatelli / César Figuerido Guelbenzu
Sarrera nagusia Figuerido eta bigarren sarrera (egile-izenburuak) Locatelli

Cadencia para concierto en re mayor de G. Ph. Telemann / José María Sanmartín
Fernández de Pinedo
Sarrera nagusia Sanmartín eta bigarren sarrera (egile-izenburuak) Telemann

14.6.5D Nahas-mahasak, pot-pourriak eta antzeko konposizioak

Jatorri ezberdineko lanekin osatutako nahas-mahasetan, pot-pourrietan eta antzekoetan, sarrera nagusia multzo osoaren egilearen izenaren bidez egingo da.

Potpourris sobre motivos de óperas célebres : para piano / por H. Cramer
Sarrera nagusia Cramer

Los euscaros : tanda de rigodones sobre motivos de cantos populares del País Vasco
/ por el conde de Torre-Muzquiz
Edukia: Frascu-Chomin ; Dantzan dabill gure aguria ; Beracoechea ; Aita San
Antonio ; Nescazarren festa ; Artolac dauca ; Arrantzalia
Sarrera nagusia Torre-Muzquiz

14.6.5E Pasticcioa edo pastichea

Musika-lana hainbat egileren lanekin osatuta badago, sarrera nagusia izenburuaren bidez egingo da eta bigarren sarrerak egingo dira musikaren egokitzaileen eta moldatzaileen eta egile literarioen izenen bidez.

La villanella repita ou La villageoise enlevée : opéra bouffon en trois actes / musique
italienne de différents célèbres compositeurs ; paroles italiannes traduites en françaises
par M. D ...

Oharrean

Bianchi, Ferrari, Mozart, Paisiello, Guglielmi, Sarti eta Martiniren musika

14.6.5F Ahots-musika

Ahots-musikako konposizioen kasuan, sarrera nagusia egilearen izenaren bidez egingo da. Bigarren sarrera egingo da testu-egilearen izenaren bidez, baldin eta argitalpenean jasota badago (adibidez, partituran edo ahots-partituran). Testua lehenagoko testu batean oinarrituta badago, bigarren mailako sarrera egingo da jatorrizko lanaren egile-izenburuen bidez.

Libretoetarako, kanten hitzetarako eta abarretarako ikus 14.2.2C.

Erminia : scène lyrique-dramatique en un acte et deux tableaux, d'après un épisode du poème «La Jerusalem Délivrée» de Torquato Tasso, pour soprano, avec accompagnement d'orchestre / par J. C. de Arriaga

Sarrera nagusia Arriaga eta bigarren sarrera (egile-izenburuak) Tasso

Jimmy Potxolo : kantata / konposatzailea, Tomás Aragüés Bernad ; testu egilea, Bernardo Atxaga ; testu moldaketaren egilea, Joxemari Iturralde

Sarrera nagusia Aragüés eta bigarren sarrerak (egile-izenburuak) Atxaga eta Iturralde

Gauaren zergatiaren bila. Zai itxoiten / musika, Javier Busto ; hitzak, Edurne Martínez Juanaberria

Sarrera nagusia Busto eta bigarren sarrera Martínez Juanaberria

La navarraise : épisode lyrique en 2 actes / poème de Jules Claretie & Henri Cain ; musique de J. Massenet

Sarrera nagusia Massenet eta bigarren sarrerak Claretie eta Cain

Charmagarria = Charmante : air basque / poésie de Belzunce ; paroles françaises de Simon Arnaud ; accompt. de piano par Henri Reber ; musique de Garat

Sarrera nagusia Garat eta bigarren sarrera Belzunce

Canto a San Francisco de Asís : a coro y solo / José A. de Erauzquin ; letra eusk. del P. José M. de Azkue ; letra cast. del P. Pedro de Aranguren

Sarrera nagusia Erauzquin eta bigarren sarrerak Azkue eta Aranguren

Soiñua : homenaje a G. Verkos : para tenor y piano (sobre melodías propias del compositor) / Anton Larrauri ; textos de E. Erkiaga y J. Lasagabaster en euskera

Sarrera nagusia Larrauri eta bigarren sarrerak Erkiaga eta Lasagabaster

Los amantes : para barítono, coro mixto y orquesta, basado en «Veinte poemas de amor y una canción desesperada» de Pablo Neruda / música de Samuel Baber

Sarrera nagusia Baber eta bigarren sarrera (egile-izenburuak) Neruda

Don Lucas del Cigarral : zarzuela en tres actos y en verso : refundición de la comedia de D. Francisco de Rojas «Entre bobos anda el juego» / libro de Tomás Luceño y Carlos Fernández Shaw ; música del maestro Amadeo Vives

Sarrera nagusia Vives eta bigarren sarrerak Luceño eta Fernández Shaw. Bigarren sarrera (egile-izenburuak) Rojas

Los pescadores de perlas. Romanza de Nadir / poesía de Carré y Cormon ; música de Georges Bizet

Sarrera nagusia Bizet eta bigarren sarrerak Carré eta Cormon

Katiuska : opereta en dos actos / letra de González del Castillo y Manuel M. Alonso ; música del Mtro. Pablo Sorozábal

Sarrera nagusia Sorozábal eta bigarren sarrerak González del Castillo eta Alonso

Auras de Menorca : colección de lieder para voz y piano / textos en castellano y catalán de Andrés Casanova, José Tudurrí y Juan Timoner ; música de Lorenzo Galmes

Sarrera nagusia Galmes eta bigarren sarrerak Casanova, Tudurrí eta Timoner

Madrigal : a 4 voces blancas / letra de Jesús M^a de Arozamena ; música de J. Guridi
Sarrera nagusia Guridi eta bigarren sarrera Arozamena

Tres estrofas de amor : canción para soprano / música, Pablo Casals ; letra, Tomás Blanco

Sarrera nagusia Casals eta bigarren sarrera Blanco

14.6.5G Ballet-musika

Ballet, pantomima eta abarren musika-lanetan sarrera nagusia musikagilearen izenaren bidez egingo da. Bigarren sarrerak egingo dira informazio-iturri nagusian azaltzen diren koreografoen, argumentu-egileen eta abarren izenak hartuta.

Lau urtearok : dantzaldia = Las cuatro estaciones : ballet / de Manuel de la Sota ; música de José Franco

Sarrera nagusia Franco eta bigarren sarrera Manuel de la Sota

Daphnis et Chloé : ballet en 3 parties de Michel Fokine / musique de Maurice Ravel

Sarrera nagusia Ravel eta bigarren sarrera Fokine

Pavana real : ballet en tres jornadas inspirado en la vida y obra de Luis de Milán, vihuelista y gentilhomme ... / Victoria

Camhi ; música de Joaquín Rodrigo

Sarrera nagusia Rodrigo eta bigarren sarrera Camhi

Pierrot : ballet-pantomima / guión, coreografía y partitura de Alberto Prats Trián

Sarrera nagusia Prats

14.6.5H Ikuskizunetarako musika

Ikuskizunetarako musikaren kasuan, sarrera nagusia musikagilearen izenaren bidez egingo da eta egile-izenburuen bigarren sarrera egingo da musikari dagokion lanaren egile literarioaren izenaren bidez. Musika garrantzitsua ez den kasuetan, sarrera nagusirako egile literarioaren izena hartuko da eta bigarren mailako sarrerarako musikagilearena.

Le martyre de Saint Sébastien : mystère en cinq actes / de Gabriele D'Annunzio ; musique de Claude Debussy

Sarrera nagusia Debussy eta bigarren sarrera (egile-izenburuak) D'Annunzio

Tropa Chaplin = Chaplin tropela / autor, Joxan Goikoetxea

Hika Antzerki taldeak egindako antzezlanerako jatorrizko musika

Sarrera nagusia Goikoetxea eta bigarren sarrera Hika Antzerki Taldea

Ramuntcho : musique de scène pour le drame de Pierre Loti / Gabriel Pierné

Sarrera nagusia Pierné eta bigarren sarrera (egile-izenburuak) Loti

Two songs from doña Rosita : (1943) : for medium voice and piano / Irving Fine ; on texts by Federico García Lorca ; edited by Leo Smit

(Bostoneko doña Rosita produkzioarentzat konposatuta 1943. urtean)

Sarrera nagusia Fine eta bigarren sarrera (egile-izenburuak) Lorca

The tempest : op. 109 / Sibelius

Sarrera nagusia Sibelius eta bigarren sarrera (egile-izenburuak) Shakespeare

L'avare : suite symphonique constituant une musique de scène (avec ballet) pour la comédie de Molière / de Denis Joly

Sarrera nagusia Joly eta bigarren sarrera (egile-izenburuak) Molière

14.6.5I Musika liturgikoa

Liturgia-saioterako ofizialki agindutako musikan 14.5.6 idatz-zatian ezarritako arauci jarraituko zaie.

Informazio-iturri nagusian azaltzen den egilea pertsona bat denean, sarrera nagusia haren izenaren bidez egingo da.

Orduen liturgiako doiñuak : otoitzaren egunerokoa, salmoen saila lau astetan eratua, santuen betikoa, gorazarreak

Sarrera nagusia Eliza Katolikoa, ondoren dagokion izenburu hautatua jarrita

Meza abestiak : mezaren eguneroko doinuak, urteko liturgi aldiak, Andre Maria, santuak, jaunartzeko abestiak eta kantikak erantzun-salmoen errepikak

Sarrera nagusia Eliza Katolikoa

San Franziskoren irugarren ordenako funzioetan kantatzeko bost kanta klase : letra edo bersoak Lore sorta deritzaion liburuchotik artuak dira, ta bersoai ondorean jarraitzen dien lenengo lau kantaldien musika Tolosako Arsuaga anaiak ateratik Zarauzko irugarren ordenari eman diena da

Sarrera nagusia frantziskotarren ordenaren bidez eta bigarren sarrera Eliza Katolikoa

Deus tu convertens : ofertorio para el 2º domingo de adviento / Pedro Aranaz y Vides

Sarrera nagusia Aranaz

Officium defunctorum / Juan García de Salazar ; [trans., Manu Sagastume]

Sarrera nagusia Salazar

Misa de réquiem : breve : a tres voces y órgano / por Felipe Gorriti

Sarrera nagusia Gorriti

Kyriale seu ordinarium missae : juxta vaticanam editionem

Sarrera nagusia Eliza Katolikoa, ondoren dagokion izenburu hautatua jarrita

Exulta filia Sion : offertorium pastorale : op. 155 / Carl Czerny

Sarrera nagusia Czerny

Misa de réquiem : a cuatro voces y coro / compuesta en el género coral y antiguo «a capella» por Felipe Pedrell

Sarrera nagusia Pedrell

14.6.6 SOINU-GRABAZIOAK

14.6.6A Soinu-grabazioen kasuan, sarrera nagusia zein den alde batera utzita (ikus 14.2/14.5, 14.6.5), oro har, bigarren sarrerak egingo dira zentro katalogatzaileak garrantzitsutzat jotzen dituen interpretatzaileen izenak hartuta, baldin eta hiru baino gehiago ez badira. Hiru baino gehiago badira, lehenengo ageri denari egingo zaio bigarren sarrera eta, *nabi izanez gero*, zentro katalogatzaileak beharrezko ikusten dituenen.

Sinfonía en re mayor / J. C. de Arriaga

Oharrear

Int.: Bilbao Orkestra Sinfonikoa ; zuz. Juan José Mena

Sarrera nagusia Arriaga eta bigarren sarrerak Bilbao Orkestra Sinfonikoa eta Mena

Illeta / Francisco Escudero ; olerkia, Xabier Lizardi

Int.: bakarlari baritonoa, Santos Ariño ; Donostiako Orfeoia ; zuz., Antton

Ayestaran ; Euskadiko Orkestra Sinfonikoa ; zuz. Odon Alonso

Sarrera nagusia Escudero eta bigarren sarrerak Lizardi eta Ariño. Nahi izanez gero, bigarren sarrenak egin daitezke katalogazio zentroari egokiak iruditzen zaizkion izenen bidez

Contos de Castelao / nas voces de Santiago Prego, Avelino González e Cándido Pazó

Sarrera nagusia Castelao eta bigarren sarrenak Prego, González eta Pazó

Abestiak = Canciones / Tomás Garbizu

Int.: Javier de Solaun, tenorea ; Alejandro Zabala, pianoa

Sarrera nagusia Garbizu eta bigarren sarrerak Solaun eta Zabala

Arrosa lilia : canto popular vasco ; Kalez-kale : canto popular vasco / P. Sorozabal

Int.: Donostiako Orfeoia ; zuz. Esnaola ; irrintzilaria, E. Imaz

Sarrera nagusia Sorozabal eta bigarren sarrerak Donostiako Orfeoia, Esnaola eta Imaz

Sinfonía nº 7 / Anton Bruckner

Oharrear

Int.: Philharmonia Orkestra, zuzendaria, Otto Klemperer

Sarrera nagusia Bruckner eta bigarren sarrenak orkestraren izenaren bidez eta Klemperer

Canto a Sevilla / Joaquín Turina

Oharrear

Int.: sopranoa, Victoria de los Ángeles ; Londresko Orkestra Sinfonikoa ; zuzendaria, Anatole Fistoulari

Sarrera nagusia Turina eta bigarren sarrerak Victoria de los Ángeles, orkestraren izenaren bidez eta Fistoulari

Poems of Federico García Lorca

Oharrear

Jorge Juan Rodríguezek errezitatua

Sarrera nagusia García Lorca eta bigarren sarrera Rodríguez

Obras para piano / Teobaldo Power

Oharrear

Int.: pianoa, Guillermo González

Sarrera nagusia Power eta bigarren sarrera González

El santo de la Isidra ; La fiesta de San Antón / letra de

Carlos Arniches ; música de Tomás López Torregrosa

Oharrear

Int.: Toñy Rosado, Gerardo Monreal, Rafael Campo,

Carlos S. Luque, Gregorio Gil, Rafael Maldonado, Teresa

Berganza ; Coro Cantores de Madrid ; zuzendaria, José Perera ;

Orkestra Sinfonikoa ; zuzendaria, Ataúlfo Argenta

Sarrera nagusia López Torregrosa eta bigarren sarrerak Arniches eta Rosado. Nahi izanez gero, bigarren sarrerak egin daitezke zentro katalogatzaileari egoki iruditzen zaizkion interpretatzaileen izenen bidez

14.6.6B Egileen zeregina (musika, hitzak eta abar) argi azalduta ez badago eta egileak hiru baino gehiago ez badira, sarrera nagusia lehenengo ageri denaren izenaren bidez egingo da eta bigarren sarrerak egingo dira gainerakoen izenak hartuta. Hiru baino gehiago badira, sarrera nagusia izenburuaren bidez egingo da eta bigarren sarrera lehenengo ageri den egilearen izenaren bidez.

Lovy : el musical / letra y música, Oscar Gómez y José A. García Morato
Int.: Escolanía eta Grupo infantil de Teatro Samaniego (Gasteiz)
Sarrera nagusia Gómez eta bigarren sarrerak García Morato, Samaniego Haur Kantariak eta Samaniego Haurren Antzerki Taldea

Matador : the musical story of the life of El Cordobés /
music and lyrics by Mike Leander and Edward Seago
Oharrean
Int.: Tom Jones, Patrick Long, John Springate, Jodie Wilson,
John Barr, Richard Barnes, Mark Ryan
Sarrera nagusia Leander eta bigarren sarrera Seago; eta nahi izanez gero, bigarren sarrerak egin daitezke zentro katalogatzaileari egoki iruditzen zaizkion interpretatzaileen izenen bidez

14.6.6C Izenburu orokorra duten bildumak

Egile bat baino gehiagoren lanak jasotzen dituzten soinu-grabazioetan, sarrera nagusia izenburuaren bidez egingo da, baldin eta lan guztiak biltzen dituen izenburu orokorrik badute.

Gernika : Kontzertu Berezia
Int.: zuzendaria, Juanjo Ocon Arza ; abesbatzak, Etxarri-Aranatz, Samaniego, Xaramela (Baiona), Andra Mari eta Gaudeamus (Gernika), Eskola eta Gurutziaga (Donostia), Bilboko Koral Elkarte, Donostiako Orfeoia ; Euskal Herriko 140 txistulari, metalak eta danborrak
Edukia: Gernika / Pablo Sorozabal. Euskal musikaren gorespina / Herrikoa. Hirugarren kalez-kale / Pablo Sorozabal. Bigarren kalez-kale / Pablo Sorozabal. Maite / Pablo Sorozabal. Martxa heraldikoak / Miguel González Bastida. Gabiltzan kalez kale / Pablo Sorozabal. Baserritarra / Pablo Sorozabal. Amaieur / Joakin Iruretagoiena. Gernikako arbola / José M^a Iparragirre. Agur jaunak / Herrikoa
Sarrera nagusia izenburuaren bidez

Música de cámara de compositores vascos
Int.: Albert Nieto, pianoa ; Joan Enric Lluna, klarineta ; François Monciero, biolontxelo ; Víctor Parra, biolina
Edukia: Dípolo, para violoncelo y piano (1995) / Gabriel Erkoreka. El hilo del mediodía, para violín y piano (1998) / Zuriñe F. Guerenabarrena. Invenciones y final, para clarinete y piano (1990) / Antonio Lauzurika. Termes II, para clarinete y piano (1994) / Hilario Extremiana. Cuatro fragmentos de Kiu, para violín y piano (1984-86) / Luis de Pablo. Ofrenda, para violoncelo y piano (1998) / Carmelo A. Bernaola
Sarrera nagusia izenburuaren bidez

14.6.6D Izenburu orokorrik gabeko bildumak

Dokumentuan egile bat baino gehiagoren lanak biltzen badira baina izenburu orokorrik ez badu, sarrera nagusia lehenengo ageri den lanari dagokiona izango da, eta bigarren sarrerak egingo dira gainerako lanen egile-izenburuak hartuta.

Violin concerto nº 1 in D major, op. 6 / Paganini. Carmen Fantasy : op. 25 /
Sarasate

Oharrean

Int.: biolina, Itzhak Perlman; Royal Philharmonic Orchestra ; zuz., Lawrence Foster
Sarrera nagusia Paganini eta bigarren sarrera (egile-izenburuak) Sarasate. Bigarren sarrerak Foster, orkestraren izenaren bidez eta Perlman

Rapsodia portuguesa : piano y orquesta / E. Halffter. Rapsodia sinfónica : piano y orquesta / Turina. Goyescas : piano / Granados

Oharrean

Int.: Espainiako Orkestra Nazionalea ; bakarlaria, Gonzalo ; pianoa, Soriano ; zuzendaria, Odón Alonso

Sarrera nagusia Halffter eta bigarren sarrerak (egile-izenburuak) Turina eta Granados. Bigarren sarrerak orkestraren izenaren bidez, Soriano eta Alonso

14.6.6E Interpretatzailea sarrera nagusi

Argitalpenak zenbait musikagileren lanak jasotzen dituenean interpretatzailearen arabera bilduta (antologiak, errezitalak eta abar), argitalpenak izenburu orokorra izan ala ez, lehenengo interpretatzailea hartuko da sarrera nagusi gisa, baldin eta interpretatzaileak hiru baino gehiago ez badira, eta bigarren sarrerak egingo dira gainerako interpretatzaileak eta musikagileak hartuta, baldin eta hiru baino gehiago ez badira. Interpretatzaileak hiru baino gehiago direnean, egile bat baino gehiagoren lanen bildumetarako arauak erabiliko dira (ikus 14.6.6C eta 14.6.6D).

José Carreras canta zarzuela

Oharrean

Int.: English Chamber Orchestra ; Antoni Ros-Marbák zuzendua

(Argitalpenak hainbat zarzuelaren 10 parte ditu)

Sarrera nagusia Carreras eta bigarren sarrerak orkestraren eta zuzendariaren (Ros-Marbá) izenen bidez

Zarzuela / Ainhoa Arteta

Int.: sopranoa, Ainhoa Arteta ; Orquesta Sinfónica y Coro de RTVE ; zuz., Enrique García Asensio; abesbatzaren zuz., Alberto Blancafort

Edukia: Zarzuela desberdinen hamabost parte

Sarrera nagusia Arteta eta bigarren sarrera orkestraren izenaren bidez

Zigeunerweisen / Roland Daugareil, Catherine Cournot

Int.: Roland Daugareil, biolina ; Catherine Cournot, pianoa ; Simon Schembri, gitarra («Entr'acte» eta «Cantabile»rako)

Edukia: Saint-Saëns, Falla, Ravel, Ibert, Sarasate, Paganini, Debussy, Massenet eta Faure-ren lanak

Sarrera nagusia Daugareil eta bigarren sarrera Cournot

baina

Bello Puccini / Maite Itoiz
 Int.: sopranoa, Maite Itoiz ; «Compagnia d'Opera Italiana»ren orkestra ; zuz.
 Antonello Gotta ; Stefano Secco (tenorea 3. lanean) ; Jose Luis Sola (tenorea azken
 lanean)
 Edukia: Pucciniren zenbait operaren hamar parte
Sarrera nagusia Puccini eta bigarren sarrera Itoiz

14.6.7 MIKROFORMAK

Mikroformen erregistro bibliografikoen sarrerak aukeratzeko orduan, edukia kontuan hartuta (eskuizkribuak, monografia inprimatuak, argitalpen seriatuak, material kartografikoa, material grafikoa eta abar) dagozkien arauak erabiliko dira.

14.6.8 FILMAK ETA BIDEO-GRABAZIOAK

14.6.8A Oso ohikoak ez badira ere, film edo bideo-grabazio baten azken emaitzaren erantzukizun osoa pertsona edo korporazio batena edota maila bereko lankidetzan jardun duten bi edo hirurena denean, 14.2.1 eta 14.2.2 arauak ezarriko dira, baldin eta material-mota honetarako erabilgarriak badira.

14.6.8B Talde gisa jardun duten hainbat interpretatzailearen lanen kasuan, taldeak interpretazioaz gain beste erantzukizunik badu, sarrera nagusia taldearen izenaren bidez egingo da.

14.6.8C Lana zeregin ezberdinak bete dituzten pertsona edo korporazioen parte hartzearen emaitza denean, sarrera nagusia izenburuaren bidez egingo da. Bigarren sarrerak egingo dira zuzendariaren, ekoizlearen, gidoigileen edo ikuskizunen hari-ontzaileen eta bestelako egile literario edo artistikoen izenen bidez. Era berean, bigarren sarrerak egingo dira oharretan jasotako lankideak hartuta, zentro katalogatzaileak egoki baderitzo. Zeregin bera bete duten erantzuleen kasuan, hiru baino gehiago direnean, lehenengoari bakarrik egingo zaio bigarren sarrera.

Asturias : los primeros pobladores / producción, Fundación Pública de Cuevas y Yacimientos Prehistóricos del Principado de Asturias ; realización y dirección, Mario Menéndez, Fran Vaquero ; asesoría científica, Javier Fortea, Miguel de Blas y Alfredo Fernández

Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrerak Fundazioaren izenaren bidez, Menéndez, Vaquero, Fortea, Blas eta Fernández

El siglo de las luces / una película de Fernando Trueba ; guión, Rafael Azcona y F. Trueba ; producción, Cristina Huete ; fotografía, Juan Amorós

Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrerak Trueba, Azcona, Huete eta Amorós

Esperanza y gloria = Hope and glory / música de Peter Martín ; director de fotografía, Philippe Rousselot ; escrita, producida y dirigida por John Boorman

Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrerak Martín, Rousselot eta Boorman

Divinas palabras / director, José Luis García Sánchez ; guión, José Luis García Sánchez, Enrique Llovet y Abad de Santillán, de la pieza de Valle Inclán
Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrerak García Sánchez, Llovet eta (egile-izenburuak) Valle Inclán

Barcelona connection / guión de Andreu Martín ; producción por J. A. Pérez Giner ; dirigida por Miguel Iglesias Bonn ...

Oharrear aipatuak

Int.: Sergi Mateu, Marina Oroza, Alfred Lucchitti, eta abar ; argazkiak, Hans Bürmann eta Xavier Gil

Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrerak Martín, Pérez Giner, Iglesias Bonn, Mateu, Oroza, Lucchitti, Bürmann eta Gil

14.6.9 ORDENAGAILUKO FITXATEGIAK

Ordenagailuko fitxategien sarrerak aukeratzeko orduan, 14. kapituluan adierazitako arauetatik material-mota horri dagozkionak ezarriko dira.

14.6.10 ARGITALPEN SERIATUAK

14.6.10A Argitalpen seriatuen kasuan, 14. kapituluan adierazitako arauetatik material-mota horri dagozkionak erabiliko dira.

Argitalpenaren sarrera nagusia izenburua den kasuetan izenburua nabarmen aldatzen denean, sarrera berria egingo zaio izenburu berria hartuta.

Argitalpen seriatuaren sarrera nagusia pertsona edo korporazio baten izena den kasuetan, sarrera berria egingo da korporazio erantzulearen izena aldatzen denean edota pertsona edo korporazio horrek argitalpenaren erantzukizuna izateari uzten dionean.

Madrid filatélico : órgano de propaganda y difusión de la filatelia española
Sarrera nagusia izenburuaren bidez

El País : diario independiente de la mañana
Sarrera nagusia izenburuaren bidez

El Pensador / Joseph Clavijo y Faxardo
(Soilik lehen tomoa agertu zen José Álvarez y Valladares izenordearekin)
Sarrera nagusia Clavijo y Fajardo

Boletín de la Real Academia de la Historia
(Hainbat egileren ikerketak argitaratzen ditu)
Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrera akademiaren izenaren bidez

Boletín Oficial del Ministerio de Educación y Ciencia
(Xedapenak argitaratzen ditu, gehientsuenetan ministerioko ohiko jardunari eragiten ez diotenak)

Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrera ministerioaren izenaren bidez

Anuario de la Real Academia de Ciencias Exactas, Físicas y Naturales
(Soilik akademiaren antolakuntzari eta akademikoei buruzko datuak dakartza)
Sarrera nagusia akademiaren izenaren bidez

Library of Congress information bulletin
(Batez ere liburutegiaren jardunari buruzko informazioa dakar)
Sarrera nagusia Library of Congress

14.6.10B Argitalpen seriatuen gehigarri eta ale berezien kasuan, izenburu propiorik ez badute, dagokien argitalpenaren izenburuaren bidez egingo zaie sarrera, baina beste erregistro batean.

14.6.10C Argitalpen seriatu baten artikuluen antologiaren kasuan, egile bat baino gehiagoren lanak biltzen dituztelarik izenburu generikoa badute, sarrera nagusia argitalpenaren izenburuaren bidez egingo da. Antologiak izenburu espezifikoa badu, sarrera nagusia izenburu horren bidez egingo da eta bigarren sarrera egingo da argitalpen seriatuaren izenburuaren bidez.

Selección de artículos de la Monthly review
Sarrera nagusia Monthly review

Psicología fisiológica : selecciones de Scientific American
Sarrera nagusia izenburuaren bidez eta bigarren sarrera Scientific American

14.7 BIGARREN SARRERAK

Bigarren sarrerak egin daitezke pertsonen izenak, korporazioen izenak, egile-izenburuak, izenburuak eta serieak hartuta.

Egile-izenburuen bigarren mailako sarrera egiteko, pertsonaren edo korporazioaren izena jarriko da eta, ondoren, puntu batez bereizita, katalogatu beharreko argitalpenarekin erlazioatutako lanaren izenburua, alegia, erlazioatutako lanetan, bildumetan (ikus 14.2.2Bd eta 14.2.2D), eta 13.3 arauan jasotako erregistro analitikoetan erabiltzen dena.

Arau hauetan nahitaezkoztat ezartzen ez diren bigarren sarrerak aukerakoak dira.

Honako hauek dira egin daitezkeen bigarren sarrerak:

- a) Kapitulu honetan adierazitako kasu guztietan erregistro nagusian ageri diren lanen erantzuleenak, erantzukizuna lan osoarena edo zati batena izan. Multzo horretan sartzen dira, besteak beste, egilekideak, laguntzaileak, zuzendariak (argitalpen seriatuenak izan ezik), edizioaren apailetzaileak, egokitzaileak edo birmoldatzaileak (ikus 14.2.2Bd), biltzaileak, elkarriketatzaileak (ikus 14.2.2Ad), iruzkingileak (ikus 14.2.2Be), aldizkako argitalpenen zuzendariak eta abar.
- b) Itzultzaileenak, irudigileenak, hitzaurregileenak eta abarrenak, baldin eta betetzen duten zereginarengatik edota informazioa eskuratzeko garrantzitsuak direlako beharrezkoa ikusten bada.
- c) Ustezko egileenak eta deszifratu gabeko kriptonimoenak.

d) Korporazioenak, baldin eta beren izena atarian ageri bada eta argitaratzaile soil izateaz gain bestelako erantzukizunik badute. Nolanahi ere, beharrezkoa irudituz gero, jaso egin daitezke izenak atarian agertu ez arren ere.

e) Nazioarteko tratatuetan, idazpuru nagusian jarri ez diren herrialdeen izenenak, 14.5.2 arauari jarraiki.

f) Lehenengo erantzulearena, baldin eta hiru baino gehiago izanik sarrera nagusirako izenburua hartu bada.

g) Pertsona bat edo korporazio bat oroitzeko edo omentzeko argitaratutako lanetan, pertsona edo korporazio horren izenarena.

h) Izenburuarena, honako kasu hauetan²:

— Atarian ageri ez den egile baten izena hartu bada sarrera nagusirako.

— Gehiegi zehaztu gabe ageri den egile baten izena hartu bada sarrera nagusirako.

— Sarrera nagusirako hartu ez den izenburuarena, bai eta izenburu alternatiboa edo izenburu bat baino gehiago duten lan anonimoena ere.

— Lehenengo ageri ez diren lan anonimoen izenburuena, izenburu orokorrik gabeko bildumetan.

— Egile bakarrak idatzitako aldizkako argitalpenen izenburuarena.

— Biltzar, batzar eta abarren argitalpenen izenburu bereizgarrienak edota erakusketen katalogoen izenburuenak, sarrera nagusiaren sarrerarako beste zerbait hartu denean.

i) Seriearena, zentro katalogatzaileak egoki baderitzo.

² Izenburuen katalogoa egiteko arau honi jarraituko zaio:

— Bigarren mailako sarrera izenburuaren bidez egingo da sarrera nagusia pertsona baten edo korporazio baten izena, edota izenburu hautatua denean.

— Ez da bigarren mailako sarrerarik egingo honako kasu hauetan:

1. Izenburu nagusia sarrera nagusian edota hari dagokion erreferentzia batean ageri den izenburuaren oso antzekoa bada.

2. Izenburu nagusia katalogatzaileak berak eratu duenean.


3. Hiztegi-tankerako katalogo batean izenburu nagusia gai-sarrera baten edo haren erreferentzia baten berdina bada.

Arau berari jarraituko zaio azalean, orriburuan, bizkarrean edo abarretan ageri diren izenburu-aldaeren kasuan.

15.

kapitulua

Sarreraren forma



Aurreko kapituluan, deskribapen bibliografikoak izan behar dituen sarrerak zehaztu dira eta sarrera horietatik zeinek izan behar duen sarrera nagusi azaldu da.

Kapitulu honetan, sarrera nagusia pertsona-izena, korporazio-izena nahiz izenburua denean, sarrera horiek nola adierazi behar diren ezarriko da.

15.1 PERTSONA-SARRERAK

15.1.1 IZENA AUKERATZEA

15.1.1A Arau orokorra

Sarreraren oinarria izango da egileak bere hizkuntzan argitaratutako lanen arabera duen izenik ezagunena¹. Izen hori benetako izena, izenordea, noblezia-titulua, goitizena eta abar izan daiteke.

Ramon Saizarbitoria
 Arantxa Urretabizkaia
 Mariasun Landa
 Pio Baroja
 William Shakespeare
 Albert Dürer
 Aita Martin
 E. B.
 Alfontso X.a, Gaztelako Erregea
 Benedikto XIV.a, Aita Santua
 José María Aroca
eta ez
 J. M. A.

¹ Arau osagarri hau aplikatu daiteke euskal deituren grafiak pairatzen dituen arazo berezietan irtenbidea emateko. Euskal herritarren deituren grafia zehazteko Euskaltzaindiaren erabaki eta aholkuak hobetsiko dira. Ildo horretan ontzat emango dira erakunde horrek aholkatutako grafiak, euskararen normalizazio berantiarren ondorioz iturrietan oraingoz gutxitan edo oso gutxitan ikusten badira ere. Halaber, Euskadiko Liburutegia edo dagokion erakundea abian jartzen denean, erakunde horren irizpideak jarraituko dira. Adibidez:

Julio Urkixo
eta ez
 Julio Urquijo
 Jose Antonio Agirre
eta ez
 José Antonio Aguirre y Lecube
 Joanes Etxeberri
eta ez
 Joannes d'Etcheberri

Joseba Sarrionandia
eta ez
 Joseba Sarrionandia Uribeharrea
 Francisco Ayala
eta ez
 Francisco de Paula Ayala García-Duarte
 Luis Miguel Doyague
eta ez
 Luis Miguel Pérez González
 Pedro Axular
eta ez
 Pedro Agerre Azpilkueta
 Rubén Darío
eta ez
 Félix Rubén García Sarmiento
 Greco
eta ez
 Domenico Theotocopuli

15.1.1B Zenbait izenen artean edota izen beraren zenbait aldaeraren artean aukeratzea

15.1.1Ba) Zenbait izen

Izenik ezagunena zein den ezarri ezin denean, bat aukeratuko da honako lehentasun-hurrenkera honen arabera:

- egilearen jatorrizko testuetan gehien erabiltzen dena
- erreferentzia-lanetan gehien erabiltzen dena
- erabilitako azkena

15.1.1Bb) Izen-aldaerak

Pertsona batek izena aldatu badu, erabilitako azken izena edo izen-aldaera hartuko da, salbu eta pertsona horren lehenagoko beste izen bat ezagunagoa dela pentsatzeko arrazoirik bada.

Agatha Christie
eta ez
 Agatha Miller
 Agatha Mallowan
 Xabier Lizardi
eta ez
 Jose Maria Agirre
 Muhammad Ali
eta ez
 Cassius Clay
 (*Muhammad Ali izena jarri baino lehen zeukana*)

15.1.1Bc) Lan guztietan izenordea ageri bada edota egilea nahiz erantzukizuna duen pertsona informazio-iturrietan izenorde batez identifikatuta azaldu ohi bada, izenordea hartuko da.

Bernardo Atxaga
eta ez
Joseba Irazu Garmendia
Txirrita
eta ez
Joxe Manuel Lujanbio Retegi
Pablo Neruda
eta ez
Neftalí Ricardo Reyes Basoalto
Woody Allen
eta ez
Allen Stewart Konigsberg

Egileak bere lanetan izenorde bat baino gehiago edota benetako izena eta izenorde bat edo gehiago erabiltzen badu, haren lanen azken edizioetan, kritika-lanetan edo erreferentzia-iturrietan, hurrenez hurren, gehien erabili den izena hartuko da. Erreferentziak egingo zaizkie erabilitako gainerako izenei.

Azorín
eta ez
José Martínez Ruiz
Cándido
(José Martínez Ruiz eta Cándido sarreretatik erreferentziak egingo dira Azorín sarrerara)
Txillardegi
eta ez
José Luis Álvarez Enparantza
Larresoro
(José Luis Álvarez Enparantza eta Larresoro sarreretatik erreferentziak egingo dira Txillardegi sarrerara)

Gaur egungo egileei gagozkielarik, egile batek izenorde bat baino gehiago edota benetako izena eta izenorde bat edo gehiago erabiltzen duenean, horietako zein den nagusi jakiterik ez badago, lan bakoitzerako, lanean bertan ageri den izena hartuko da. Erreferentziak egingo dira izen bakoitzetik gainerakoetara bidaltzeko.

Eleanor Burford Hibbert
Ondoko izenordeak ere erabili ditu:
Eleanor Burford
Elbor Ford
Victoria Holt
Katleen Kellow
Jean Plaidy
Ellalice Tate
Philippa Carr

Izenak edizio ezberdinetan aldatu egiten direnean, lanaren edizio guztien artean gehien erabiltzen dena hartuko da. Halakorik egin ezin badaiteke, eskura dagoen azken edizioan ageri den izena hartuko da. Egile-izenburuen erreferentziak egingo dira onartu gabeko izenetatik onartura bidaltzeko.

Pertsona baten lanetan, lan-moten edo funtzioen arabera izen bat baino gehiago ageri bada (izenorde bat baino gehiago edota benetako izena eta izenorde bat edo gehiago), kasuan kasu egileak lan-mota edo funtzio horretarako erabiltzen duena hartuko da. Erreferentziak egingo dira izen bakoitzetik gainerakoetara bidaltzeko. Zalantzarik izanez gero, aurreko arauari jarraituko zaio.

Charles L. Dogson
(Benetako izena, logika eta matematikako lanetan erabiltzen duena)

Lewis Carroll
(Lan literarioetan erabiltzen duen izenordea)

Edorta Jimenez
(Benetako izena, eleberrietan erabiltzen duena)

Omar Nabarro
(Poesia-lanetan erabiltzen duen izenordea)

J. I. M. Stewart
(Benetako izena, eleberri «serio» eta lan kritikoetan erabiltzen duena)

Michael Innes
(Detektibe-eleberrietan erabiltzen duen izenordea)

C. Day-Lewis
(Benetako izena, poesian eta lan kritikoetan erabiltzen duena)

Nicholas Blake
(Detektibe-eleberrietan erabiltzen duen izenordea)

15.1.1Bd) Izen osoa eta osatu gabea

Izen baten aldaerak daudenean, hau da, izen beraren forma osatuak eta osatu gabeak ageri direnean, gehien erabili ohi dena hartuko da. Erreferentziak egingo zaizkie gainerako formei, beharrezkoa dela irudituz gero.

Claudio Sánchez Albornoz
eta ez
Claudio Sánchez Albornoz y Mendiúña

Juan Luis Landa
eta ez
J. L. Landa

Aldaera guztien artean nagusitzat har daitekeenik ez badago, erabilitako azkena hartuko da. Azkena zein den jakin ezean, erabilitakoen artean osatuena hartuko da.

15.1.1Be) Grafia-aldaerak

Egilearen izena beti grafia berean ageri bada, grafia hori errespetatuko da. Grafia bat baino gehiago izanik, horien artean gaur egungoa ageri bada, horixe hartuko da². Gainerako kasuetan, gehien erabiltzen dena hartuko da.

Esteban Garibai Zamalloa
eta ez
Esteuan de Garibây y Çamalloa
Eusebio Maria Azkue
eta ez
Eusebio Maria Azcue-koa
Friedrich Hölderlin
eta ez
Friedrich Hoelderlin

15.1.1Bf) Hizkuntza-aldaerak

1) Egilearen izena hizkuntza batean baino gehiagotan ageri bada, hizkuntza batean baino gehiagotan idatzi duelako, haren lan gehienetan erabilitako aldaera hartuko da. Zalantzarik izanez gero, egilea bizi izan zen edo idatzi zuen herrialdeko kontsulta-iturrietara jotzea komeni da³. Horrela ere argitu ezin bada, lanean bertan ageri den aldaera hartuko da.

Gotzon Garate
eta ez
Ángel Gárate
Campión, Arturo
eta ez
Kanpion, Arturo
Josep Pla
eta ez
José Pla

² Arau osagarri hau aplikatu daiteke. Gaur egungo euskal grafia zein den erabakitzeke Euskaltzaindiaren aholku eta erabakiak segituko dira. Halaber, Euskadiko Liburutegia edo dagokion erakundea abian jartzen denean, erakunde horren irizpideak jarraituko dira.

³ Arau osagarri hau aplikatu daiteke euskal deituren grafia pairatzen dituen arazo bereziei irtenbidea emateko. Euskaraz idatzi duten egileen kasuan, Euskaltzaindiaren irizpideei jarraiki, deituraren euskal grafia hobetsiko da, lan gehienak erdaraz burutu baditu ere. Halaber, Euskadiko Liburutegia edo dagokion erakundea abian jartzen denean, erakunde horren irizpideak jarraituko dira. Adibidez:

Koldo Mitxelena
eta ez
Luis Michelena
Anton Abadia
eta ez
Antoine d'Abbadie

Anjel Lertxundi
eta ez
 Angel Lerchundi
 George Mikes
eta ez
 György Mikes
 Patri Urkizu
eta ez
 Patricio Urquizu

2) Latinez idatzi zuten egileen kasuan, haien izenak erreferentzia-lanetan edota lanetan bertan batzuetan latinez eta beste batzuetan beren herri-hizkuntzan ageri direnean, erreferentzia-iturrietan gehien erabiltzen dena hartuko da.

Bernart Etxepare
eta ez
 Bernardum Dechepare
 Juan Luis Vives
eta ez
 Johannes Ludovicus Vives
 Nicolaus Copernicus
eta ez
 Nikolaj Kopernik
 Hugo Grotius
eta ez
 Huig de Groot

3) Bizantziar egileen kasuan, izenaren latinezko aldaera hartuko da.

Alexander Gramaticus
 Johannes Cremonensis

4) Santuen, dohatsuen, aita santuen, enperadore-enperatrizen, errege-erreginen eta agintedun printze eta printzesen kasuan, bai eta greziar eta erromatar klasikoen kasuan⁴ ere, euskarazkoa hartuko da.

Leon X.a, Aita Santua
eta ez
 Leone X.a, Aita Santua
 Karlos V.a
eta ez
 Carlos V.a
 Karl V.a
 Charles V.a

⁴ Greziako eta Erromako egile klasikoen izenik ohikoenetarako, ikus III. eta IV. eranskinak.

Luis XIII.a
eta ez
 Louise XIII.a
 Teresa Jesusena, Santua
eta ez
 Santa Teresa Jesusena
 Marko Tulio Zizeron
eta ez
 Marcus Tullius Cicero
 Platon
eta ez
 Plato

15.1.1Bg) Aldaera alfabetikoak

Latin idazkeraz bestelako izenen kasuan, jatorrizko formak erabiliko dira, latin idazkerara ekarrita⁵.

‘Abd-al Rahman ‘Amar
 Hayyin Nahman Bialik
 Ioulies Iatride
 Dmitrii Konstantinovich Tsarik
 Fiodor Ivanovich Tiutchev
 Petûr Ignatov

Alabaina, erreferentzia-iturrietan ezarrita dauden formak erabiliko dira, nahiz eta transliterazio hutsarekin bat etorri ez.

Avizena
eta ez
 Abû Ali Ibn Sina
 Konfuzio
eta ez
 K’ong-Fu-tseu
 Maimonides, Moises
eta ez
 Mōšeh ben Maimōn
 Aristoteles
eta ez
 Aristotele

⁵ Latinarenaz bestelako idazkerako izenak transliteratzeko, ikus VII. eranskina.

15.1.2 HASIERAKO ELEMENTUA**15.1.2A Arau orokorra**

Izena elementu batek baino gehiagok osatuta dagoenean, hasierako elementurako hartuko da egilearen hizkuntzan edota haren bizilekua edo lanlekua kokatutako herrialdean onetsitako zerrenda alfabetiko batean egile horren izena ordenatzeko erabili den izen-zatia.

15.1.2B Hasierako elementua zehaztea**15.1.2Ba) Abizena hasierako elementu**

1) Izenak abizena badu, horixe izango da hasierako elementu, eta, ondoren, koma batez bereizita, izenaren gainerako zatiak jarriko dira. Kontuan eduki behar da egile anglosaxoi, flandestar eta eskandinaviarren kasuan, abizena izenaren azken zatia izaten dela, salbu eta abizena konposatua denean, halakoetan zati horrek hitz bat baino gehiago izaten baitu.

Lariz, Xabier

Zubeldia, Koldo

Euba, Jon Mikel

Mao, Zedong

Molnár, Ferec

Milton, John

2) Abizen bat baino gehiago duten egileen kasuan, lehenengo abizena izango da hasierako elementu, salbu eta egile portugez eta brasildarren kasuan, halakoetan bigarren abizena izango baita hasierako elementu; betiere lehenengo abizena ezagunagoa ez bada.

Caro Baroja, Julio

Gaztelu-Iturri, Ricardo

García Lorca, Federico

García-Valdecasas y Santa María, Francisco

Torruella i Casañas, Joan

Rodrigues, Acácio Agostinho Gonçalves

Vasconcellos, Jorge Ferreira de

baina

Queiroz, Eça de

Guerra Junqueiro, Abilio Manuel

Izen portugezetan ahaidetasuna adierazten duten hitzak («filho», «junior», «neto», «sobrinho») abizenaren ondoren utziko dira.

Castro Sobrinho, Antonio Ribeiro de

Marques Junior, Henrique

3) Jakinez gero pertsona batek lehentasuna ematen diola aurreko arauen arabera hasierako elementurako hartuko ez genukeen izen-zatiari, haren gogoia errespetatuko da. Berdin jokatuko da kontsulta-iturri gehienek izen jakin batzuetarako aurreko arauen arabera dagokien ordenaz bestelakoa ezarrita dutenean.

Fénelon, François de Salignac de La Mothe-

Lloyd George, David

(Aitareen abizena *George da*)

Machado de Assis, Joaquim Maria

(Aitareen abizena *Assis da*)

4) Emakume ezkonduen abizenak

Senarraren abizena besterik erabiltzen ez dutenean, huraxe hartuko da. Abizen ezberdinak erabili badituzte lanak argitaratutako daten arabera, formarik modernoena hartuko da; betiere baldin eta lehenagokoren bat ezagunagoa ez bada.

Curie, Marie

Christie, Agatha

eta ez

Mallowan, Agatha

Emakume ezkonduen izenean ezkondu aurreko abizena eta, ondoren, senarraren abizena biltzen direnean, senarraren abizena izango da hasierako elementu, salbu eta gaztelania, italiara, frantsesa, txekiera eta hungariera erabiltzen duten emakumeen izenen kasuan, halakoetan lehenengo ageri den abizena izango baita hasierako elementu.

Molina y Vedia de Bastianini, Delfina

(Egilearen hizkuntza: *gaztelania*)

Semetkayné Schwanda, Magda

(Egilearen hizkuntza: *hungariera*)

Bonacci Brunamonti, Alinda

(Egilearen hizkuntza: *italiera*)

baina

Figueiredo, Adelpha Silva Rodrigues de

(Egilearen hizkuntza: *portugesesa*)

Stowe, Harriet Beecher

(Egilearen hizkuntza: *ingelesea*)

Wang Ma, Hsi-ch'un

(Egilearen hizkuntza: *txinera*)

Emakumeak senarraren izen osoa erabiltzen duen kasu bakanetan, senarraren abizena izango da hasiera.

Feuillet, Octave, *Mme.*

5) Abizenek aurrean partikulak daramatzatenean, egile modernoetan

Artikuluak, preposizioak edo bietarik ageri diren kasuetarako ez dago arau bateraturik. Kasu bakoitzean egileak erabili ohi duen hizkuntzarako indarrean den arauari jarraituko zaio, betiere aurreko arauan (ikus 15.1.2A) ezarritakoarekin kontraesanean ez badago.

Honako hauek dira hizkuntzaz hizkuntzako arauak:

Alemana

Partikulen ondorengo izen-zatia izango da hasiera, baldin eta partikula preposizioa bada edota preposizioa eta artikulua izanik bereiz ageri badira. Preposizioak eta artikulua kontrakzioa erazten badute, horiek hartuko dira hasierako elementu gisa, eta erreferentziak egingo zaizkie abizen soilei.

Goethe, Johann Wolfgang von
Mühlh, Peter von der
Urff, Georg Ludwig von und zu
Am Thym, August
Erreferentzia
Thym, August am
Vom Ende, Bettina
Erreferentzia
 Ende, Bettina vom

Errumaniera

Partikula izango da hasierako elementu, salbu eta partikula «de» denean.

A Mariel, Vasile
Puscariu, Emil de

Eskandinaviako hizkuntzak

Daniera, norvegiera eta suedierazko izenetan, partikularen jatorria eskandinaviarra edo germaniarra denean, partikularen ondoren datorren izen-zatia izango da hasiera. Nederlanderazko edo flandesperazko «de» partikula eta bestelako jatorria duten partikulak aurrean jarriko dira.

Hallström, Gunnar Johannes af
Linné, Carl von
De Geer, Gerard
De la Gardie, Magnus Gabriel
La Cour, Jens Lassen

Espainiako hizkuntzak

Abizenen aurreko preposizioak izenaren ondoren jarriko dira, kontuan hartu gabe bakarrik edo artikuluekin batera ageri diren, edota preposizioaren eta artikulua kontrakzioak diren.

Figueroa, Francisco de
Casas, Bartolomé de las
Río, Ángel del
Cervantes Saavedra, Miguel de
Ors, Eugenio d'

Abizenaren aurreko artikulua preposiziorik gabe doanean, idazpuruaren hasiera izango da, kontuan izan gabe artikulua abizenari lotuta, bereiz nahiz marratxo batez elkartuta dagoen.

Las Heras, Manuel Antonio
Lafuente, Modesto
La-Gasca, Fausto

Era berean, artikulua izango da idazpuruaren hasiera, aurretik preposizioa duenean ere, baldin eta artikulua izenari loturik edo elkarturik badago, edota abizena artikulua duen leku-izen batez osatuta badago.

Laiglesia, Álvaro de
La-Rosa Toro, Agustín de

Erreferentziak egingo zaizkie abizen soilei.

Iglesia, Álvaro de la
 Ik. **Laiglesia**, Álvaro de
 Rosa Toro, Agustín de la
 Ik. **La-Rosa Toro**, Agustín de

Frantsesa

Artikulua edota preposizioaren eta artikulua kontrakzioa izango dira hasierako elementu. Erreferentziak egingo zaizkie ondoren dituzten abizenei.

L'Espinoy, Philippe de
La Bruyère, Jean de
Du Hamel, Jean Baptiste
Erreferentziak egingo zaizkie
Espinoy, Philippe de l'
Bruyère, Jean de la
Hamel, Jean Baptiste du

Preposizioa besterik ez dagoen kasuetan, preposizioaren ondoren doan abizena izango da hasierako elementu.

Anglemont, Édouard d'

Lonlay, Eugène de

Gaulle, Charles de

Ingelesa

Preposizioa edo artikulua hartuko dira hasierako elementurako eta erreferentziak egingo zaizkie horien ondoren doazen izenei.

A'Beckett, Gilbert Abbott

Erreferentzia

Beckett, Gilbert Abbott A'

D'Anvers, Knightley

Erreferentzia

Anvers, Knightley D'

De Morgan, Augustus

Erreferentzia

Morgan, Augustus de

De la Mare, Walter

Erreferentzia

Mare, Walter de la

Van Buren, Martin

Erreferentzia

Buren, Martin van

Von Braun, Wernher

Erreferentzia

Braun, Wernher von

Dos Passos, John

Erreferentzia

Passos, John dos

Italiera

Partikula hartuko da hasierako elementurako eta erreferentzia egingo zaio horren ondoren doan izen-zatiari. Arau honen salbuespen dira XIX. mendea baino lehenagoko egileen abizenen aurrean ageri diren «de», «d'», «dei», «degli» eta «de li» partikulak, baldin eta, ohi denez, jatorria edo noblezia adierazten badute.

A Prato, Giovanni

D'Arienzo, Nicola

Da Ponte, Lorenzo

De Amicis, Pietro Maria

Del Lungo, Isidoro
Della Volpaia, Eufrosino
Di Constanzo, Angelo
Li Greci, Gioacchino
Lo Savio, Niccolo
Alberti, Antonio degli
Anghiera, Pietro Martire d'
Medici, Lorenzo de

Nederlandera eta flandesera

Partikularen ondorengo izen-zatia izango da hasiera, salbu eta partikula «ver» den kasuetan.

Aa, Pieter van der
Beeck, Leo op de
Braak, Menno ter
Brink, Jan ten
Driessche, Albert van
Hertog, Ary den
Wijngaert, Frank van den
Winter, Karel de
Ver Boven, Daisy

Egileak nederlandarrak izanik beste hizkuntza bateko abizenak dituztenean ere, partikularen ondorengo izen-zatia izango da hasiera. Baina egileak belgikarrak direnean abizenaren hizkuntzari dagozkion arauei jarraituko zaie.

Faille, Jacob Baart de la
(Egile nederlandarra)
Du Jardin, Thomas
(Egile belgikarra, izen frantsesa)

Portugesa

Partikularen ondoren doan izen-zatia jarriko da hasieran.

Fonseca, Martinho Augusto da
Santos, João Adolpho dos
Almeida, Julio Lopes de

Txekiera eta esloveniera

Abizenaren osaera denean genitibo kasuan doan leku-izena aurretik «z» duela, partikula horren ondoren datorren izen-zatia izango da hasierako elementu.

Žerotína, Karel z

Bestelako partikulak

Preposizioak, artikulak edo horien kontrakzioak ez diren partikulak, ahaidetasuna adierazten ohi dutenak («Mac», «Mc», «O», «Fitz», «Ker», «A'», «Ap», «Abu», «Ihn», «Bar», «Ben» eta abar), abizenaren aurretik jarriko dira beti, jatorrizkoaren forma ortografiko berean.

Mac Pherson, James

MacCarthy, Sir Desmond

McDonald, William

Mac Muireadach, Niall Mór

O'Connor, Laurence

Fitz Gerald, August Otway

A'Beckett

Ap Rhys Price, Henry Edward

'Abd al-Hamīd, Ahmad

Abū Zahrah, Muhammad

Bar-Hillel, Yehošua

Ben Gurion, David

15.1.2Bb) Noblezia-titulua hasierako elementu

Izenean noblezia-titulua ageri denean, tituluaren determinatzailea izango da hasierako elementu. Ondoren, koma batez berezita, izena jarriko da, hurrenkera zuzenean, eta, ondoren, noblezia-maila adierazten duen hitza, jatorrizko hizkuntzan. Erreferentzia egingo zaio izenari.

Byron, George Gordon Byron, Baron

Montesquieu, Charles de Secondat, Baron de

Condorcet, Jean Antoine Nicolas de Caritat, Marquis de

Santillana, Íñigo López de Mendoza, Marqués de

Noblezia-titulua hasierako elementu gisa jartzen ez denean, ez da izenaren ondoren jasoko, salbu eta egileak erabiltzeko ohitura badu edota kontsulta-lanetan hala ageri bada, eta erreferentzia egingo zaio.

Vargas-Zúñiga y Montero Espinosa, Antonio, Marqués de Siete Iglesias

Primo de Rivera, José Antonio

eta ez

Primo de Rivera, Jose Antonio, Lizarrako Markesa

Primo de Rivera, José Antonio, Marqués de Estella

15.1.2Bc) Ponte-izena edo goitizena hasierako elementu

Egilearen izena abizenik gabe eta noblezia-titulurik gabe ageri denean, ponte-izena izango da hasierako elementu. Ondoren, goitizenak jarriko dira, halakorik badago eta, betiere, goitizenak erreferentzia-iturrietan hasierako elementu ez badira.

Johannes Canonicus

Johannes Cremonensis

Gonzalo de Berceo

Luis de Granada

Pío María de Mondreganes

Leonardo da Vinci

baina

Nebrija, Antonio de

Leku-izenen adierazleei erreferentziak egingo zaizkie, hala dagokionean.

Vinci, Leonardo da

Ik. **Leonardo da Vinci**

Mondreganes, Pío María de

Ik. **Pío María de Mondreganes**

Cremonensis, Johannes

Ik. **Johannes Cremonensis**

Berceo, Gonzalo de

Ik. **Gonzalo de Berceo**

Granada, Luis de

Ik. **Luis de Granada**

Alabaina, erromatar egile klasikoen kasuan, izen-zati ezagunena hartuko da hasierako elementu gisa.

Zizeron, Marko Tulio

Zesar, Julio

15.1.2Bd) Eranskinak dituzten izenen idazpuruak

1) Subiranoak

Enperadore-enperatrizek, errege-erreginek eta agintedun printze eta printzesek tronua eskuratu baino lehen nahiz ondoren idatzitako lanen kasuan, hasierako elementua subirano gisa erabilitako izena edo izenak izango dira. Ondoren, dagokion ordinala jarriko da zenbaki erromatarretan eta, ondoren, estatuaren izena eta titulua (ikus 14.2.1B eta 15.2.2Da, euren aginpideen betekizunean jarduten dutenerako).

Alfontso XI.a, Gaztelako Erregea

Luis XVI.a, Frantziako Erregea

Rikardo II.a, Ingalaterrako Erregea

Gilen I.a, Alemaniako Enperadorea

Faisal II.a, Irakeko Erregea

Alexandro III.a, Mazedoniako Erregea

Viktor Manuel II.a, Italiako Erregea

Egile horiek, gainera, santuak ere badira, adierazi egingo da.

Fernando III.a, Gaztelako Erregea, Santua

Luis IX.a, Frantziako Erregea, Santua

Subiranoa izenari gehitutako goitizen batez ezaguna denean, erreferentzia egingo zaio goitzen horri.

Federiko Handia

Ik. **Federiko II.a**, Prusiako Erregea

Alfontso X.a, Jakituna

Alfontso Jakituna

Ik. **Alfontso X.a**, Gaztelako Erregea

Subirano ezkontideen kasuan, hasierako elementua ponte-izena izango da eta, ondoren, titulua, dagokion subiranoaren izena eta «ren ezkontidea» jarriko da.

Filipe, Joana II.a Nafarroako Erreginaren Errege ezkontidea

Berengela, Rikardo I.a Ingalaterrako Erregearen Erregina ezkontidea

Aginterik gabeko printze-printzesen, infanteen eta errege-familiatako gainerako kideen kasuan, arau orokorrari jarraituko zaio, horri titulua gehituta, jatorrizko hizkuntzan, eta, beharrezkoa dela irudituz gero, atarian azaltzen diren aldaerei erreferentziak eginez.

Borbón y Grecia, Felipe de, Príncipe de Asturias

Bonaparte, Louis Lucien, Prince

Borbón, Eulalia de, Infanta de España

2) Santuak eta dohatsuak

Santu eta dohatsuen izenetan, izendatzeko erabili ohi den ponte-izena izango da hasierako elementua eta, ondoren, «santua» edo «dohatsua» hitzak jarriko dira. Arau berari jarraituko zaio abizena ere ezaguna denean edota izenari jaiolekua edo erlijio-izena eranstean zaionean. Halakoak ponte-izenaren ondoren jasoko dira.

Orentzio, Santua
Jeronimo, Santua
Joan Gurutzekoa, Santua
Tomas Akinokoa, Santua
Ignazio Loiolakoa, Santua
Klara Asiskoa, Santua
Teresa Jesusena, Santua

Pertsona-izenaren alderantzizko formari erreferentzia egingo zaio, horrela ere ezagunak badira.

Lopez Loiolakoa, Iñigo
Ik. **Ignazio Loiolakoa**, Santua

3) Aita santuak

Hasierako elementua aita santutzarako hartutako izena izango da. Jarraian, dagokion ordinala jarriko da zenbaki erromatarretan eta, ondoren, koma batez bereizita, «aita santua» hitza. Aita santua izateaz gain, santua edo dohatsua ere bada, arau hau aurrekoarekin osatuko da.

Sixto IV.a, Aita Santua
Pio X.a, Aita Santua, Santua

4) Elizako tituluak

Elizako karguren bat duten pertsonen idazpuruan ponte-izena besterik jasotzen ez denean, haren ondoren tituluaren izena jarriko da.

Agustin, Santua, Hiponako Apezpikua
Bessarion, Kardinala
Dositheos, Jerusalemgo Patriarka
Joannes, Ephesuseko Apezpikua
Arnaldus, Bnonnevaleko Abadea
Ruricius I.a, Limogeseko Apezpikua
Maximos V.a, Konstantinoplako Patriarka ekumenikoa

5) Erlijio-izenak

Hasierako elementua izena izango da eta, ondoren, goitizenak eta ordenaren siglak jarriko dira, baldin eta izenari lotuta ageri ohi badira. Izena ponte-izenak eta erlijio-izenak (ama, anaia, ahizpa, frai...) soilik osatzen badute, erlijio-izen hori ponte-izenaren ondoren eta, halakorik badago, dagozkion siglen ondoren jarriko da jatorrizko hizkuntzan.

Onaindia, Aita

Damaso Intzakoa (O.F.M. Cap.)

Anselm, Brother (F.S.C.)

Anselm, Brother (O.F.M. Cap.)

Heliodoro del Niño Jesús (O.C.D.)

6) Datak gehitzea

Nahi izanez gero, pertsona-izenen ondoren jaiotza-data eta heriotza-data gehi daitezke.

Mirande, Jon (1925-1972)

Beethoven, Ludwig van (1770-1827)

7) Homonimoak

Homonimoen kasuan, ahal dela, ez nahasteko beharrezko diren zehaztasunak gehituko zaizkio izenari. Zehaztasun horiek izan daitezke lanbideen izenak, tituluak, erlijio-ordena edo -kongregazioa, «aita», «semea», «jr.», «senior» eta abar. Zein diren jakinez gero, nahikoa da jaiotza-data edota, hala badagokio, jaiotza-data eta heriotza-data jartzea.

Etxeberria, Joseba (matematikaria)

Etxeberria, Joseba

Dumas, Alexandre (1802-1870)

Dumas, Alexandre (1824-1895)

González Fernández, Francisco (medikua)

González Fernández, Francisco (abokatua)

Cándido, José Martínez Ruizen izenordea

Cándido, Carlos Luis Álvarez izenordea

Argitalpen guztietan edo gehienetan izenen zati bat nahiz osoa inzialen bidez emanda ageri direlako bi izen itxuraz homonimoak diren kasuetan, ondoren, parentesi artean, osorik idatziko da alderantziz jarritako zatia edo izena.

Ruiz Fernández, J. L.

Idatziko da

Ruiz Fernández, J. L. (José Luis)

Ruiz Fernández, J. L.
Idatziko da
Ruiz Fernández, J. L. (Juan Luis)

15.1.2Be) Hizkuntza batzuetako izenatarako arau bereziak

1) Arabiar idazkerako izenak

Jatorriz arabiar idazkeran idatzitako izenen kasuan, izenon osaera izen-abizenen baliokide ez denean, arabiar izenen hurrenez hurreneko osagai diren honako elementu hauek hartuko dira kontuan. Elementu horietatik, egilea identifikatzeko elementu ezagunena edo ezagunenak jarriko dira hasieran.

«Khitāb» (ohorezko izena da eta berorren azken zatia «al-Dīn» da)

Rāšid-al-Dīn Tābid

«Kunyab» («Abū» hitza izaten du aurrean)

Abū-l-Hakān

Abū-Huraʿra

«Ism» (ponte-izena da)

Mālik ibn Ānās

Nādira Jātūm

«Patronimikoa» («Ibn» hitza izaten du aurrean)

Ibn al-Muqaffa, ‘Abd-Allāh

Ibn Hazm, ‘Ali ibn Ahmād

Horien ondoren, honako hauek ager daitezke: epiteto deskribatzailea («laqab»), jatorria adierazten duen i-z amaitutako adjektiboa («nisbah»), eta, batzuetan, izen literarioa deiturikoa, izenordearen antzekoa («takhallus»).

Abū-Samān, ‘Abd-al-Rahmān ibn Isma‘īl

Mazandarān ī, ‘Abd-Allāh ibn Muhammad

Ibrat, Zafar Haan

2) Hebrear idazkerako izenak

XVIII. mendea baino lehenagoko hebrear egileen kasuan —ez baitzioten Europako erabilerrari jarraitzen—, hasierako elementua ponte-izena izango da eta, ondoren, aitaren izena edota identifikatzeko erabili ohi den zehazgarria jarriko da, hala nola, jaioterriaren izena, bizilekuarena,

lanbidearena, karguarena eta abar. XVIII. mendeaz geroztiko egileetan arau orokorrari jarraituko zaio.

Hasierako elementuen aurrean «ben», «abi», «ab», «bar», «mar» edota «ha» artikulua (batzuetan «he») doanean, marratxo batez lotuta idatziko dira.

Yehuda Ha-Levi

Abi-Saab, Georges

Bar-Zohar, Michel

Beb-Amos, Dan

Ben-Yehuda, Eliezer

Ben-Gurion, David

Dayan, Mose

3) Txinerazko izenak

Idazle txinatarrek, oro har, abizena aurretik jarrita idazten dute bere izena.

Chiang, Kai-schek

Mao, Zedong

4) Birmanierazko, indonesierazko eta thailandierazko izenak eta Indiakoak

Birmanierazko izenak

Bereizi egin behar dira tratamendua («U», «Saw», «Daw», «Naw», «Maung» eta abar), izenari lotutako zenbait bereizgarri eta izena bera, izena izango baita beti hasierako elementu.

Mya Sein, Daw

Chit Maung, Saw

Thant, U

Izen bereziak aurretik mendebaldeko izen bat duenean, izen hori izen bereziaren ondoren jarriko da.

Hla Gyam, James

Indiako izenak

Antzinako egileen kasuan, hasierako elementua izenaren lehen hitza izango da.

Amara Simha

Sankara Acharya

XIX. mendearen erdialdeaz geroztik, abizenak edo halakotzat hartzen diren hitzak erabiltzen hasi ziren; halakoetan, abizena da hasierako elementu.

Gupta, Ram Das

Nehru, Jawarhar Lal

Abizenen jatorria familia-izenak, talde-izenak, lanbide-tituluak, erlijio-tituluak, leinu-izenak eta leku-izenak izan daitezke, eta familia berean abizen ezberdinak egotea gerta daiteke. Batzuetan, tituluak izen berezien aurrean doazenean, izenen osagai izaten dira eta kontuan hartu behar dira.

Snastri, Lal Bahadur

Krishna Menon, V. K.

Das Gupta, Hemendra Nath

Indonesierazko izenak

Oro har, izenaren azken zatia erabiliko da hasierako elementu gisa. Zati hori bakuna nahiz anizkuna izan daiteke.

Amran, Ali

Notofipuro, Hardjito

Nasution, Amir Taat

Suwondo-Surasmo, Nan

Siwabessy-Putiray, Reni

Ohorezko tituluak eta hitzak izenaren ondoren jarriko dira, arau orokorrari jarraiki.

Purbatjaraka, Raden mas Ngabei

Zenbaitetan, pertsona batzuek ohorezko adierazle horiek euren izenekin bat egiten dituzte.

Rusli, Marah

Sani, Sitti Nursini

Izenaren ondoren, inizialez emandako beste izen batzuk doazenean, hurrenkera zuzenari eutsiko zaio.

Nungtijk, A. R.

Mahmud Nahiry, H. M.

Halaber, «di», «nam» eta antzeko hitzak dituzten izenetan ere hurrenkera zuzenari eutsiko zaio.

Surja di Radja

Usman el Muhammady

Arabiar edo txinatar jatorrizko izenei dagokienez, hizkuntza horiei dagozkien arauak jarraituko zaie.

Thailandierazko izenak

Hasierako elementua izenaren lehen zatia izango da eta forma osoa erabiliko da.

Maria Laosunthara

Dhanit Yupho

Chan Prabhavivadhana

Nobleziako tituluak hasierako elementu izango dira eta, ondoren, parentesi artean, egilearen izena jarriko da.

Yomarat, Chaophaya (Pun Sukun)

Somsak, Thao (Monrachawong Pui Malukul)

5) Turkierazko izenak

1935. urtea baino lehen idatzi zuten egileen kasuan, arabierazko izenatarako ezarritako arauak jarraituko zaie.

Namuk Kemal

Ahmed Rasin

Urte horren ondorengoetarako, abizena erabiliko da lehenengo elementu gisa.

Demiray, Kemal

Güntekin, Reşal Nuri

Adivar, Abdullah Adnan

15.1.2Bf) Izen-kasu bereziak

1) Inizialak, letra solteak eta zenbakiak

Pertsona bat edo korporazio bat identifikatzeko inizialak, letra solteak edo zenbakiak erabiltzen direnean, hurrenkera zuzenari eta jatorrizkoaren puntuazioari eutsiko zaio.

F. D.

(In: Métodos de trampeo. Al servicio del anillamiento de aves / por F. D.)

J. I. U.

eta ez

I. U., J.

U. J. I.

(In: Leku zarra / J. I. U.)

2) Esaldiak

Izenaren balioak den esaldi bat ageri denean deitura gisa:

— Esaldian pertsona-izenik ez badago, hurrenkera zuzenari eutsiko zaio. Nahi izanez gero, hasierako artikulua, halakorik badago, atzeratu egingo da⁶.

Abade euskaldun bat

Informazio-iturri nagusian: Abade euskaldun batek eusquerara bihurtua

Donostiar bat**L'Avet'eko Irakasle Taldea****Caballero Audaz, El****Religioso que se halló presente, Un****Lieutenant X**

— Esaldian pertsona-izenik edota pertsona-izenaren itxura duen osagairik bada, aurretik erlazioa, maila, titulua edo lanbidea adierazten duen termino bat duela, izen hori izango da hasierako elementu. Bestelakoetan, hurrenkera zuzenari eutsiko zaio.

Thebussem, Doctor

Erreferentzia

Doctor Thebussem

Madge, Señorita

Erreferentzia

Señorita Madge

Araña, Capitán

Erreferentzia

Capitán Araña

Juan de las Indias, Preste

Erreferentzia

Preste Juan de las Indias

baina

Poor Richard

Erreferentzia

Richard, Poor

— Esaldian lanaren egiletzat oker jotako pertsona-izen bat dagoenean, hurrenkera zuzenari eutsiko zaio eta erreferentzia egingo zaio alderantzizko hurrenkeran.

Pseudo Dionisio

Erreferentzia

Dionisio, Pseudo

⁶ Artikulua hasieran jartzen den kasuetan, ez da kontuan hartuko hurrenkera alfabetikorako.

— Pertsona bat beste lan baten egile gisa identifikatzen denean eta sarrera nagusirako hori adierazten duen esaldia hartzen denean, egilearen benetako izena ezagutzen ez delako, esaldi hori hurrenkera zuzenean jarriko da eta erreferentzia egingo zaio esaldiaren alderantzizko hurrenkerako formari.

Author of The cloud of unknowing

A study of wisdom : three tracts / by the author of The cloud of unknowing

Erreferentzia

The cloud of unknowing, Author of

Sarrera nagusian egilearen benetako izena jaso bada, erreferentzia egingo zaio esaldiaren hurrenkera zuzeneko formari eta, beharrezko dela irudituz gero, alderantzizko hurrenkerakoari.

Cabrera de Armida, Concepción

¿Quién será él? / por el autor de Ante el altar

Erreferentziak

Autor de Ante el altar

Ante el altar, Autor de

15.2 KORPORAZIO-SARRERAK

15.2.1 ARAU OROKORRAK

15.2.1A Izenaren forma

Sarrera korporazio baten izenaren bidez egin behar denean, korporazio hori identifikatzeko erabili ohi den izena erabiliko da. Nahi izanez gero, hasierako artikulua, halakorik badago, atzeratu egingo da⁷. Nolanahi ere, administrazio, legegintza eta abarretako erakundeen kasuan, bai eta menpeko edo erlazionatutako erakundeen kasuan ere, horietarako ezarritako arau bereziak hartuko dira kontuan.

Bera Bera Rugby Taldea

Algortako Bertsolari Eskola

Euskal Irrati Telebista

Elgoibarko Euskara Mintegia

Fundación Banco Bilbao Vizcaya

A. Pont i Cia

Deustuko Unibertsitatea

Euskaltzaindia

⁷ Artikulua hasieran jartzen den kasuetan, ez da kontuan hartuko hurrenkera alfabetikorako.

Library Association*eta ez*

The Library Association

Argitalpenean, korporazioaren izena modu batean baino gehiagotan azaltzen bada, korporazioaren argitalpenen informazio-iturri nagusian gehien ageri dena hartuko da. Informazio-iturri nagusian ere modu batean baino gehiagotan ageri bada, nabarmenen azaltzen dena hartuko da eta, halakorik ez badago, laburrena.

Eusko Ikaskuntza*eta ez*

E. I.

AEK*eta ez*

Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea

RENFE*eta ez*

Red Nacional de los Ferrocarriles Españoles

Erreferentziak egingo zaizkie idazpururako hartu ez diren formei.

Korporazioa ohiko izen batez ezaguna bada, izen hori hartuko da, eta ez izen ofiziala.

Lincoln Cathedral*eta ez*

Cathedral Church of the Blessed Virgin Mary (Lincoln)

Bakeaz*eta ez*

Bakeari Buruzko Dokumentazio eta Ikerkuntzarako Zentroa

Elkarri*eta ez*

Elkarrizketa eta akordioaren aldeko gizarte mugimendua

15.2.1B Leku-izenak gehitzea

Korporazioa identifikatzeko beharrezkoa dela irudituz gero, komeni den leku-izena gehituko zaio korporazioari, dela herriaren izena, dela probintziarena edo estatuarena.

Elizbarrutiko Karitas (Bilbo)**Elizbarrutiko Karitas** (Donostia)**Lan Harremanen Kontseilua** (Euskadi)**Europako Ikaskuntza Zentrua** (Donostia)**Rekalde Erakustaretoa** (Bilbo)**Academia Caballero** (Madril)

Identifikatzeko nahikoa ez bada, leku-izenaren orde, argi identifikatzen duen esaldi bat, data bat edo erlazioatutako korporazio baten izena jarriko da.

Marcial Pons (Enpresa-izena)

Jorge Kreisler (Galeria)

Biblia (Enpresa-izena)

Quién es Quién en España (Enpresa-izena)

Instituto de Espiritualidad (Agustindar Errekoletok)

Leku-izena korporazioaren izenaren zati denean, izenean ageri bezala jasoko da.

Bilbao Bizkaia Kutxa

Gasteiz Irratia

Arabako Abokatuen Elkarte Ohoretsua

Nolanahi ere, ez nahasteko beharrezkoa bada, leku-izen zehatzak gehi daitezke parentesi artean.

Biblioteca Pública Municipal (Figueras, Asturias)

Biblioteca Pública Municipal (Figueras, Girona)

Leku-izenetan euskarazko forma erabiliko da, baldin eta halakorik badago eta ohikoa bada.

Frantzia	Britainia Handia
Alemania	Korsika
Suitza	Errumania
Madril	Txekia
Irak	Galizia
Mexiko	Uruguai

Gainerako kasuetan jatorrizko hizkuntzako forma erabiliko da.

Newcastle	Cali
Manchester	Maracaibo
Phoenix	Porto Alegre
Quebec	Washington

Euskarazkoa ez den forma bat baino gehiago badago, erabiliena eta ezagunena aukeratuko da.

Ypres
eta ez
Ieper
ezta
Yeper

Leku-izenak aurrean artikulua daramanean, artikulua ez da izenetik bereiziko.

Las Vegas
Las Palmas
El Escorial
Los Angeles
La Roda
Le Havre
Le Mans

15.2.1C Jurisdikzio-eremuen izenen forma

Jurisdikzio-eremuen izenen kasuan (ikus 15.2.2A), formarik ezagunena aukeratuko da, nahiz eta izen ofizialarekin bat etorri ez.

Aljeria	<i>eta ez</i>	Aljeriako Herri Errepublika Demokratikoa
Britainia Handia	<i>eta ez</i>	Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batua
Txile	<i>eta ez</i>	Txileko Errepublika
Mexiko	<i>eta ez</i>	Mexikoko Estatu Batuak
Euskadi	<i>eta ez</i>	Euskal Autonomia Erkidegoa
Nafarroa	<i>eta ez</i>	Nafarroako Foru Erkidegoa

Maila ezberdineko zenbait jurisdikzio-eremuk leku-izen bera dutelako, jurisdikzio horiek identifikatzeko leku-izena jartzea nahikoa ez denean, beharrezkoak diren zehaztasunak gehituko zaizkie parentesi artean.

Valentzia
(Izenak udalerrira adierazten du)

Valentzia (Probintzia)

Valentzia (Elizbarrutia)

15.2.1D Hizkuntza

Korporazioaren izena hizkuntza batean baino gehiagotan emana badago, korporazioari dagokion hizkuntza ofizialekoa aukeratuko da.

Hizkuntza ofizial bat baino gehiago izanik hizkuntzetako bat euskara denean, horixe aukeratu da. Forma ofiziala zein den jakin ezean, lehentasun-hurrenkera honen arabera hautatuko da: gaztelania, frantsesa, ingelesa, italiara, portugesa eta alemana.

Euskal Herriko Unibertsitatea
Guggenheim Bilbao Museoa
Société de l'histoire de l'art français
Univerzita Karlova

Nazioarteko organismoen kasuan, euskarazko izena jarriko da, baldin eta halakorik ezarrita badago.

Nazio Batuen Erakundea
Europar Batasuna
Nazioarteko Justizia Auzitegia
Nazioarteko Olinpiar Batzordea
Osasunerako Mundu Erakundea

Korporazioaren izen ofiziala euskal eremuan oso ezaguna ez den hizkuntza batean ageri denean, argitalpenean edo erreferentzia-iturrietan azaldutako beste hizkuntza bateko izena erabil *daiteke*.

National Museum of Modern Art (Tokio)
honen ordez
 Kokuritsu Kindai Bijutsukan (Tokio)
Bibliothèque Nationale (Tunisia)
honen ordez
 Dar-al-Kutub Al-Qawiyah (Tunisia)
Korean Publishers Association (Seul)
honen ordez
 Taehan Ch'ulp'an Munhwa Hyophoe (Seul)

15.2.1E Idazkera

Korporazioak izen bakarra erabiltzen badu eta izen hori latin idazkeran ez badago, latin idazkerara ekarriko da.

15.2.1F Izen-aldaerak

Korporazioak denboran zehar izena aldatu badu, katalogatu beharreko argitalpenean ageri dena hautatuko da eta beharrezkotzat jotzen diren izenei «ikus gainera» erreferentziak egingo zaizkie.

Gipuzkoa Donostia Kutxa
 Ik. g.: **Donostiako Aurrezki Kutxa Probintziala**

15.2.2 ADMINISTRAZIOKO, LEGEGINTZAKO ETA ABARRETAKO ERAKUNDE OFIZIALAK

Katalogatzerakoan, erakunde ofizialtzat hartuko dira botere legegile eta judizialaren organo guztiak, administrazio zentralaren organoak —ordezkaritzak barne— eta autonomia erkidegoetako administrazioen, probintzietako administrazioen eta toki-administrazioen organoak, bai eta administrazio militarren organoak eta haren menpeko goi-unitateak ere.

Talde honetatik kanpo utziko dira batez ere helburu zientifikoak, kulturalak, finantzetakoak, sozialak eta abar dituzten erakunde ofizialak (unibertsitateak, museoak, bibliotekak, institutuak, ospitaleak, bankuak eta abar).

15.2.2A Administrazio publikoko erakundeak

15.2.2Aa) Administrazio publikoko erakundeen kasuan, erakundearen izena erabiliko da, dago-kion jurisdikzio-eremuaren leku-izena aurretik jarrita.

Espainia. Ministerio de Cultura

Frantzia. Direction générale du tourisme

Euskadi. Herrizaingo Saila

Euskadi. Arartekoa

Bizkaia. Foru Aldundia

Gipuzkoa. Foru Aldundia

Kanada. Royal Commission on Banking and Finance

Nafarroa. Azterlan Ekonomiko-Finantzarioen Bulegoa

Nafarroa. Nafarroako Administrazio Auzitegia

baina

Energiaren Euskal Erakundea

Consejo Superior de Investigaciones Científicas

Vital Kutxa

Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Instituto Nacional de Estadística (Espainia)

Euskal-Estatistika Erakundea

15.2.2Ab) Antzinako administrazio judizialaren eta administrazio militarren jurisdikzio-barruti zabalen kasuan, lehendabizi, herrialdearen izena jarriko da eta, ondoren, barrutiaren izen osoa.

Espainia. Región Militar, IV

Espainia. Región Aérea del Estrecho

Espainia. Audiencia Territorial de Albacete

15.2.2Ac) Nazioarteko organismo batean herrialde baten ordezkari gisa diharduten ordezkari-tza, batzorde eta abarren idazpuruan, lehendabizi, ordezkari-tza duen herrialdearen izena jarriko da eta, ondoren, ordezkari-tzaren izena, dagokion hizkuntzan.

Ameriketako Estatu Batuak. Mission to the Unesco

Espainia. Embajada en la Unesco

15.2.2Ad) Enbaxaden, kontsulatuaren eta abarren izenen kasuan, lehendabizi herrialdearen izena jarriko da; ondoren, erakundearen izena, dagokion herrialdearen hizkuntzan eta, azkenik, ordezkari-tza kokatutako herrialdearen edo hiriaren izena.

Espainia. Embajada (Britainia Handia)

Espainia. Consulado (Berlin)

Frantzia. Ambassade (Espainia)

Alemania. Botschaft (Espainia)

15.2.2B Organo legegileak

15.2.2Ba) Ganbera bat baino gehiago edota menpeko batzordeak nahiz bestelako erakundeak dituzten organo legegileen kasuan, menpeko erakundeak azpisarrera gisa jasoko dira.

Euskadi. Legebiltzarra. Bateriaezintasunaren Batzordea

Euskadi. Legebiltzarra. Hezkuntza eta Kultura Batzordea

Nafarroa (Erresuma). Gorteak (1818. Iruñea)

Espainia. Cortes Generales. Senado

Espainia. Cortes Generales. Congreso

Espainia. Cortes Generales. Congreso. Comisión de Presupuestos

15.2.2Bb) Legegintzaldiak zenbakituta daudenean, legegintzaldiaren zenbaki ordinala eta dagokion urtea edo urteak adieraziko dira.

Ameriketako Estatu Batuak. Congress (93. 1973-1974)

15.2.2C Batzar konstituziogileak

Batzar konstituziogileen kasuan, lehendabizi herrialdearen izena jarriko da, ondoren, batzarra-
ren izena eta, azkenik, batzarra izan zen urtea edo urteak.

Portugal. Assembléia Nacional Constituinte (1911)

Espainia. Cortes Constituyentes (1931)

15.2.2D Karguen izenen sarrerak

15.2.2Da) Estatuburuak

Beren aginpideen betekizunean diharduten estatuburuen karguen idazpuruetan (ikus 14.2.1B), honako hau jasoko da:

- dagokion jurisdikzio-eremuaren leku-izena
- karguaren izena euskaraz
- parentesi artean, karguan betetako urteak eta, ondoren, bi puntuz berezita, izenaren formarik laburrena

Nafarroa. Erregea (1237-1270: Tibalt II.a)

Spainia. Erregea (1975- : Joan Karlos I.a)

Ameriketako Estatu Batuak. Presidentea (1953-1961: Eisenhower)

Argitalpenean, estatuburu baten baino gehiagoren idazkiak jasotzen direnean, ez da ez datarik ez izenik jarriko.

15.2.2Db) Gobernuburuak eta bestelako agintariak

Edozein jurisdikzioaren eremuan beren aginpideen betekizunean diharduten goreneko agintarien idazpuruetan, lehendabizi haien agindupeko eremuaren leku-izena jarriko da eta, ondoren, karguaren izen ofiziala dagokion hizkuntzan.

Euskadi. Lehendakaria

Bilbo. Alkatea

Araba. Diputatu nagusia

Italia. Presidente del Consiglio dei ministri

Britainia Handia. Prime Minister

15.2.3 MENPEKO KORPORAZIOAK ETA ERLAZIONATUTAKOAK

15.2.3A Menpeko korporazioak

15.2.3Aa) Arau orokorra

Menpeko korporazioen izenen idazpuruan ez da jasoko beren gaineko korporazioaren edo korporazioen izena, salbu eta menpekoa identifikatzeko beharrezkoa bada.

Instituto Jerónimo Zurita*eta ez*

Consejo Superior de Investigaciones Científicas (Espainia). Instituto Jerónimo Zurita

Menpeko korporazioen izenean gaineko korporazioaren izena ageri bada laburtuta, jaso egingo da.

IFLA Universal Bibliographic Control and International MARC Programme**15.2.3Ab) Salbuespenak**

1) Administrazio, legegintza eta abarretako menpeko erakunde ofizialen kasuan (ikus 15.2.2), menpeko erakundearen izena jurisdikzio-eremuaren izenaren azpisarrera gisa jasoko da zuzenean.

Euskadi. Gizarte Arazoetarako Sailburuordetza**Ameriketako Estatu Batuak.** Bureau of Educational and Cultural Affairs**Espainia.** Plan Nacional de Higiene y Seguridad del Trabajo**Espainia.** Dirección General del Libro y Bibliotecas**Nafarroa.** Osasun Arloko Informazio eta Epidemiologiako Bulegoa

2) Menpeko korporazioaren izena kasu hauetan bakarrik izango da korporazio nagusiaren azpisarrera:

— Menpeko korporazioaren izenean beste korporazio baten menpekoa edo atala dela adierazten duen terminoren bat ageri bada eta menpekoa identifikatzeko korporazio nagusiaren izena adieraztea beharrezkoa bada.

Koldo Mitxelena Kulturunea (Donostia). Liburutegia**Gasteiz.** Udala. Hezkuntza Saila**Bizkaia.** Foru Aldundia. Foru Planaren Atala

— Menpeko korporazioaren izena arrunta denean eta, hortaz, korporazio batek baino gehiagok erabil dezaketenez, haiek identifikatzeko nahikoa ez denean.

Araba. Foru Aldundia. Argitalpen Zerbitzua**Espainia.** Ministerio de Cultura. Dirección General de Servicios**Instituto Nacional de la Salud** (Espainia). Dirección Provincial (Kantabria)**Euskadi.** Legebiltzarra. Lurralde Antolamendu, Garraio eta Ingurugiro Batzordea**Euskal Herriko Unibertsitatea.** Ikasleen Errektoreordetza**Deustuko Unibertsitatea.** Zuzenbide Fakultatea

— Menpeko korporazioaren izenean korporazio nagusiaren izen osoa ageri denean.

Bizkaiko Foru Artxiboa. Erakustaretoa

eta ez

Bizkaiko Foru Artxiboko Erakustaretoa

15.2.3Ac) Azpisarreretan korporazio nagusia aukeratzea

Menpeko korporazioa azpisarrera den kasuetan, hierarkia-mailaketa adierazita dagoenean, menpeko korporazioa identifikatzeko beharrezkoak diren hierarkia-elementuak baino ez dira hartuko. Administrazio, legegintzako eta abarretako korporazio ofizialen kasuan beti jarriko da jurisdikzio-eremuaren izena.

Euskadi. Liburu eta Liburutegi Zerbitzua

eta ez

Euskadi. Kultura Saila. Liburu eta Liburutegi Zerbitzua

15.2.3B Erlazionatutako korporazioak

Korporazio bat beste baten menpekoa izan ez arren, harekin nola edo hala erlazionatuta dagoelako bere izenean beste korporazio horren izena hartzen duenean, erlazionatutako korporazioaren izena izango da idazpuru.

Loiolako Inazio Ikastetxea. Ikasleen Guraso Elkarte

Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala. Hirigintza-Arkitektuen Elkarte

15.2.3C Batzorde mistoak, komisio mistoak, batzar mistoak eta abar

Batzorde, komisio, batzar edo dena delakoaren izenaren bidez egingo da sarrera eta erreferentzia egingo zaie ordezkaturako korporazioei. Izena luzeegia denean, laburtu egin daiteke, identifikatzeko beharrezkoa ez den zatia kenduta.

Canadian Committee on MARC

Erreferentziak

Association pour l'avancement des sciences et des techniques de la documentation. Canadian Committee on MARC

Canadian Library Association. Canadian Committee on MARC

Kanadako Liburutegien Elkarte. Canadian Committee on MARC

15.2.4 ARAU BEREZIAK

15.2.4A Nazioarteko organismoak

Nazioarteko organismoen izenatarako arau orokorrari jarraituko zaio (ikus 15.2.1).

Nazioarteko organismoen gorenko karguen izenen idazpurua eratzeko, lehendabizi organismoaren izena jarriko da eta ondoren karguaren izen ofiziala, dagokion hizkuntzan (ikus 15.2.1D).

Nazio Batuak. Idazkari nagusia

15.2.4B Biltzarrak, konferentziak, batzarrak eta abar

15.2.4Ba) Biltzarren, konferentzien, batzarren eta abarren izenak idazpuru direnean (ikus 14.5.9), izen ofiziala erabiliko da, eta izenaren ondoren honako hau jarriko da:

- zenbaki ordinala arabiar zenbakitan, euskarazko forma erabiliz
- urtea
- lekua edo lekuak

Biltzarraren hurrenkera-zenbakia idazpuruan jaso egingo da, baldin eta zenbatgarrena den jakiterik badago, nahiz eta argitalpenean adierazita egon ez.

Leku bi badaude, biak jarriko dira. Bi baino gehiago badaude, lehenengoa jarriko da eta ondoren «etab.» idatziko da. Lekua izenean azaltzen bada ez da bi aldiz jasoko.

Identifikatzeko beharrezko dela irudituz gero, biltzarraren urteari data osoa gehituko zaio.

Euskararen Normalizazioari buruzko Udal Jardunaldiak (1991. Gasteiz)

Euskadiko Antzerki Topaketak (13. 1995. Azpeitia)

Osasun Jardunaldiak (8. 1998. Bilbo)

Tokiko Historiako Ihardunaldiak (4. 1995. Gasteiz)

Colloque de Cluny (2. 1971)

Conference on Cotton Insects Research and Control (13. Memphis, Tennessee)

Euskadiko Kooperatiba Ihardunaldiak (7. 1986. Donostia etab.)

Izen bi berdinak direlako bereiztu beharra badago, biltzarraren, batzarraren edo dena delakoaren izenaren ondoren, parentesi artean, identifikatzeko datu zehazgarri bat gehituko da (erlazionatu-tako korporazioaren izena, lekuaren izena edo hasierako eta amaierako datak, hala badagokio).

Jornadas Educativas (Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala (Espainia). Centro Asociado de Asturias) (1. 1992. Gijon)

Simposio Científico-Técnico (EXPOLIVA) (1991. Jaen)

Semana de Estudios Medievales (Errioxa) (2. 1991. Najera)

Congreso Nacional de Arqueología (Uruguai) (2. 1973. Fray Bentos)

Biltzarretan, batzarretan eta abarretan bereiz egindako saioak, bai eta biltzar bateko sinposioak, mahai-inguruak eta abar ere, argi identifikatzen dituzten izenik ez dutenean, azpisarrera gisa jarriko dira, dagokien biltzar, batzar edo dena delakoaren izenaren ondoren.

Congreso Universitario Internacional (25. 1992). Fase Regional de Castilla y León

Congreso de Investigación sobre el Cáncer (4. 1991. Granada). Simposio Satélite «Inmunomodulación»

Arau berari jarraituko zaio erakusketa, azoka eta abarretan ere (ikus 14.5.10A).

Euskal Liburu eta Disko Azoka (24. 1989. Durango)

Donostiako Nazioarteko Zinemaldia (47. 1999)

Gasteizko Jazzaldia (17. 1993)

Ausstellung von Aquarellen und Zeichnungen neuerer Meister (1965. Zurich)

15.2.4Bb) Biltzarraren, batzarraren edo dena delakoaren izenean korporazio antolatzailearen izena azaltzen denean, korporazioaren izena izango da idazpuruaren hasierako elementu eta, ondoren, termino orokorra jarriko da.

Euskaltzaindia. Biltzarra (8. 1978. Bergara)

(Iturrian: Euskaltzaindiaren VIII. Biltzarra)

Medikuntza Historiaren Euskal Elkarte. Biltzarra (1. 1985. Bilbo)

(Iturrian: Actas del primer Congreso de la Sociedad Vasca de Historia de la Medicina = Medikuntza Historiaren Euskal Elkarte)

Arau berari jarraituko zaio biltzarra, batzarra edo dena delakoa korporazioaren estatutuen xedapenetan ezarrita dagoen guztietan, nahiz eta bien artean lotura gramatikalik izan ez.

Sociedad Española de Bioquímica. Congreso Nacional (14. 1987. Malaga)

(Iturrian: Sociedad Española de Bioquímica, XIV Congreso Nacional)

Biltzarren, batzarren eta abarren izenetan korporazio antolatzaileen izena azaltzen denean laburtuta eta lotura gramatikalik gabe, biltzarraren, batzarraren edo dena delakoaren izena hurrenkera zuzenean jasoko da.

Congreso CERET (1997. Araba)

IASTED International Conference (4. 1989. Valentzia)

IAS Regional Meeting (7. 1986. Krakovia)

15.2.4C Erlijio-korporazioak

15.2.4Ca) Erlijio-korporazioen kasuan honako hau erabiliko da:

— Dagokien eliza edo erlijio-sinestearen izena eta, ondoren, euren izena. Eliza Katolikoaren kasuan, korporazioaren aginpideak Elizaren kide guztiak hartzen dituenean soilik erabiliko da arau hau.

Eliza Katolikoa. Congregatio pro Doctrina Fidei

Eliza Katolikoa. Rota Romana

Church of England. Diocese of Winchester

— Eliza Katolikoaren korporazioen kasuan, horien jurisdikzio eremuak artzapez-barrutia edo elizbarrutia hartzen duenean, lehendabizi jurisdikzioaren leku-izena jarriko da eta, ondoren, korporazioaren izendapen ofiziala.

Donostia (Elizbarrutia). Haur idazkaritza

Bilbo (Elizbarrutia). Apezpiku-barrutia

— Gainerako kasuetan korporazioaren izen berezia erabiliko da.

Basílica de la Santa Cruz del Valle de los Caídos

Parroquia del Divino Pastor (Madril)

Conferencia Episcopal Española

Oficina de Información de la Iglesia (Madril)

Catedral de Burgos. Cabildo

Artzai Onaren Katedrala (Donostia)

15.2.4Cb) Kontzilioak, batzarrak eta abar

Kontzilio ekumenikoen kasuan, lehendabizi izen ofiziala jarriko da, euskaraz, eta, ondoren, parentesi artean, hurrenkera-zenbakia eta data, zein diren jakinez gero.

Vatikanoko Kontzilioa (2. 1962-1965)

Trentoko Kontzilioa (1545-1563)

Gainerako kontzilio, sinodo eta batzarren kasuan, lehendabizi korporazio antolatzailea jarriko da eta, ondoren, batzarren izen ofiziala, identifikatzeko beharrezko diren zehaztasunak adierazita.

Baiona (Elizbarrutia). Sinodoa (1829)

Society of Friends. Philadelphia Yearly Meeting (1839)

15.2.4Cc) Erlijioako ordenak eta kongregazioak

Erljioko ordenen, kongregazioen eta elkarteen kasuan, izenik ezagunena hartuko da, euskarazkoa, ahal dela, eta izen ofizialei erreferentziak egingo zaizkie baldin eta aukeratutakoarekin bat ez badatoz.

Frantziskotarrak*Erreferentziak*

Ordo Fratrum Minorum

Minorites

Jesuitak*Erreferentziak*

Jesusen Konpainia

Jesusen Lagundia

Jesulagunak

Josulagunak

Societas Iesu

Karmeldar Oinutsak*Erreferentziak*

Carmelitani Scalzi

Carmelo Teresiano

Ordo Fratrum Discalceatorum Beatae Mariae Virginis de Monte Carmelo

Erdi Aroko ordena militarren kasuan euskarazko izena hartuko da eta erreferentziak egingo zaizkie atzerriko hizkuntzetako izendapenei, hala dagokionean.

Santiagoko Zaldun Ordena**Montesako Zaldun Ordena****15.2.4Cd) Elizako karguak**

Elizako karguen izenen idazpururako honako hau erabiliko da (ikus 14.2.1B):

— ordezkatzeko duen korporazioaren izena

— karguaren izena, euskaraz, ahal dela

— karguan betetako urteak, ahal bada, eta, ondoren, bi puntuz bereizita, izena, modurik laburrenean, dena parentesi artean

Eliza Katolikoa. Aita Santua (1963-1978: Pablo VI.a)

Bilbo (Elizbarrutia). Apezpikua (1950-1956: Casimiro Morcillo)

Argitalpenean kargu bereko zenbait pertsonaren argitalpenak bilduta badaude, ez da ez datarik ez izenik jarriko.

15.3 IZENBURUA SARRERA DENEAN

15.3.1 IZENBURU NAGUSIA

15.3.1A Arau orokorra

Sarrera nagusia izenburua denean, ez da idazpururik erabiliko, salbu eta izenburu hautatua erabiltzea nahitaezkoa bada. Hala ere, katalogoa hurrenkera alfabetikoan antolatzea errazteko, izenburuaren lehen hitza, artikulua kenduta⁸, nabarmenduko da formaren edo neurriaren bitartez. Hitz hori laburdura bat, sigla edo sigla-multzo bat edota zenbaki bat izan daiteke eta behar bezala nabarmenduta jarriko da beti.

Privilegiorum et gratiarum S. J. compendium

El **llibre** fantàstic per divertir-se els caps de setmana

SOS : guía práctica de las reparaciones

Jan-edanaren bertsoak

Teresa de Jesús and her world

La **educación** visual y plástica hoy

A **directory** of Delaware libraries

The **great** mortalities

Les **filles** de Mardochée : histoire familiale d'une émancipation

Giovanni Papini : l'uomo impossibile

URSS : instruction publique : les principes fondamentaux

15.3.1B Izenburua pertsona baten edo korporazio baten izenen laburduraz edo siglaz hasten denean, beharrezko diren erreferentziak egingo zaizkio siglak edo laburdurak osatuz eratutako izenburuari.

P Picasso

Erreferentzia

Pablo Picasso (*izenburua*)

J. P. Ulibarriri omenaldia Okendon

Erreferentzia

Jose Paulo Ulibarriri omenaldia Okendon

AEK hormirudiak

Erreferentzia

Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea hormirudiak

Izenburu hautaturik erabiltzen ez denetan, lehen hitza indarrean diren arau ortografikoen arabera idatzita ez badago, idazkera zuzeneko izenburuan erreferentzia egingo zaio argitalpenean ageri den formari.

⁸ Artikulua deklinatu giten den hizkuntzetan, arau honek nominatiborako besterik ez du balio.

Executoria en favor de todos los caballeros y demás individuos de la Religión de Sn. Juan

Honen erreferentzia

Ejecutoria en favor de todos los caballeros y demás individuos de la Religión de Sn. Juan

Chronica del muy esclarecido príncipe y rey don Alonso

Honen erreferentzia

Crónica del muy esclarecido príncipe y rey don Alonso

15.3.2 IZENBURU HAUTATUAREN SARRERA

Sarrera nagusia izenburua izanik, lanaren edizioetan izenburua aldatu egiten bada, idazpuru bera erabiliko da edizio guztien erregistroetarako. Izenburua ageri den forma guztien artean aukeratzeko, 16.1 arauan ezarritakoari jarraituko zaio.

15.4 MATERIAL JAKIN BATZUEN SARREREN FORMARI BURUZKO ARAU BEREZIAK

15.4.1 ESKUIZKRIBUAK

Sarrera nagusia izenburua denean, izenburu hautatua erabiliko da, baldin eta izenburu nagusia dokumentutik bertatik hartu ez bada edota, izenburu izuna izanik, idazkiaren forma adierazten duen hitz batez hasten bada (ikus 16.4).

15.4.2 MATERIAL KARTOGRAFIKOA

15.4.2A Leku-izenak

Dokumentu kartografikoak katalogatzerakoan, sarrera nagusia aukeratzeko leku-izen bat erabiltzea baimentzen duen hautazko araua erabili bada, idazpuruak honako datu hauek jasoko ditu:

— dokumentuaren edukia albait zehatzen adierazten edo deskribatzen duen leku-izena, parentesi artean dagokion probintzia edo uhartera adierazita

— gaia edo mapa-mota adierazten duen terminoa

— dokumentuaren data

Aguilas (Murztzia). Hiriko planoak. 1991

Mahon (Menorca). Hiriko planoak. 1992

Beharrezkoa denean, leku-izenari termino geografiko edo administratibo zehatzagoa gehituko zaio parentesi artean.

- Mediterraneo**a (Itsasoa)
- Sevilla** (Probintzia)
- Balearrak** (Uhartek)
- Toledo** (Artzapez-barrutia)
- Murtzia** (Autonomia Erkidegoa)

Halaber, eremu geografikoaren banaketa edo zatiketa ere zehaztu daiteke dagokion terminoa ondoren erantsita, puntu batez bereizita.

- Gasteiz**. Zaramaga auzoa
- Asia**. H. E.

Bigarren datua adierazterakoan era askotako terminoak erabil daitezke, katalogatu beharreko dokumentuaren gaiaren edota dagokion mapa-motaren arabera.

- Lleida**. Guduak
- Aljer**. Setioak
- Madril**. Hiriko planoak
- Frantzia**. Errepideak

Hirugarren datua dokumentuaren eduki zientifikoari dagokion data izango da, ondoren, parentesi artean, argitalpen-data jarrita.

Faksimileen kasuan, eduki zientifikoari dagokion dataren ondoren, parentesi artean, faksimilearen argitalpen-data jarriko da. Data hori zein den jakin ezean, gutxi gorabeherako data jarriko da.

- Luarca** (Asturias). Mapa geologikoak. 1972 (1986)
- Espainia**. Mapa orokorrak. 1618 (1983)
- Zaragoza**. Hiriko planoak. 1979
- Honduras**. Itsas mapak. 17- -
- Bartzelona**. Mapa turistikoak. 195-

15.4.3 MATERIAL GRAFIKOA

15.4.3A Pertsona-izenak

Material grafikoa katalogatzerakoan, idazpurua pertsona-izena den guztietan, izen horri, dagokion pertsonaren jaiotzaren eta heriotzaren urteak gehituko zaizkio parentesi artean. Dataren bat

zalantzakoa bada, galdera-ikurra jarriko zaio eta, ezezaguna bada, dagokion tartea zuri utziko da. Jaiotza-data eta heriotza-data, biak, ezezagunak direnean, pertsona horrek ekinik handiena izan zuen mendea adieraziko da.

Selma, Fernando (1752-1810)

Santiago, José (XIX. m.)

Brambila, Fernando (-1842)

Boix, Esteban (1774-)

15.4.3B **Artisten eskolak, zirkuluak edo lantegiak**

15.4.3Ba) Zirkuluak edo lantegiak

Lan baten egilea zein den jakiterik ez dagoelako, idazpururako talde baten izena hartu denean, hasierako elementua talde horretako egilerik ezagunenaren izena izango da; horretarako, pertsona-izenetarako 15. kapituluko arauak ezarritakoari jarraituko zaio. Izenaren ondoren, dagokion terminoa jarriko da (zirkulua edo lantegia).

Velázquez, Diego (1599-1660), Zirkulua

15.4.3C «Anonimoa» terminoa sarrera gisa

«Anonimoa» terminoa sarrera gisa aginduta dagoenean, termino hori lanaren eremu geografiko edota kulturala albait zehatzen adierazten duten hitzekin osatuko da. Azkenik, parentesi artean, zehaztasun kronologikoak jarriko dira.

Anonimoa

Anonimoa (XVIII. m.)


Espainiar anonimoa (XVIII. m.)

Espainiar anonimoa. Madril (XVIII. m.)

16.

kapitulua

Izenburu hautatua



16.1 IZENBURU HAUTATU NAGUSIA

Izenburu hautatuaren bidez hainbat izenbururekin edota hainbat hizkuntzatan argitaratutako lanen edizio guztien aipamen bibliografikoak bil daitezke katalogoan. Izenburu hautatuaren erabilerak katalogoaren ezaugarrien arabera izango da, alegia, katalogoaren edukiaren eta erabiltzaileen arabera. Bestalde, izenburu hautatuaren bidez izenburu bera duten lanak bereiz daitezke.

16.1.1 BANAKAKO LANAK

Oro har, izenburu hautatua eratzeko, lanaren izenbururik ezagunena hartuko da. Izenburuen artean nabarmentzen denik ez badago, jatorrizko edizioarena hartuko da. Izenburu hori latin idazkeran ez badago transliterazioa egingo da; bestalde, lana identifikatzeko beharrezkoak ez diren hitzak kenduko zaizkio. Izenburu hautatua zuzeneko sarrera ez bada, izenburu nagusitik berezita jasoko da aparteko lerro batean eta taket artean. Izenburu hautatua eta izenburu nagusia berdinak direnean, ez da izenburu hautaturik erabiliko¹.

Axular, Pedro

[Gero]

Guero guero : edo arimaren eguitecoen guero utzteac cenbat calte eta çorigaitz dakharquen: gogomenac, escritura saindutic, eličaco dotorretaric eta çuhurren libruetaric

Rojas, Fernando de

[La Celestina]

Tragicomedia de Calixto y Melibea

Cervantes Saavedra, Miguel de

[Don Quijote de la Mancha]

Vida y hechos del ingenioso hidalgo don Quijote de la Mancha

Cervantes Saavedra, Miguel de

Don Quijote de la Mancha

Dickens, Charles

[Martin Chuzzlewit]

The life and adventures of Martin Chuzzlewit

Dickens, Charles

Martin Chuzzlewit

Dickens, Charles

[Martin Chuzzlewit]

Martin Chuzzlewit's life and adventures

¹ Ikus II. eranskinean Espainiako klasiko anonimoen zerrenda. Ikus halaber, IFLAren honako argitalpen hau: «Anonymous classics...». London, IFLA International Office for the UBC, 1978.

16.1.2 ERREFERENTZIAK

16.1.2A Lan anonimoen kasuan, erreferentziak egingo dira onartu gabeko formatatik izenburu hautatu gisa aukeratutako formara bidaltzeko.

Lazarillo de Tormes

La vida de Lazarillo y de sus fortunas y desventuras

Erreferentzia

La vida de Lazarillo y de sus fortunas y desventuras

Ik. **Lazarillo de Tormes**

16.1.2B Lanaren sarrera nagusia egilea eta izenburu hautatua direnean, erreferentziak egingo dira onartu gabeko egile-izenburuetatik egile eta izenburu hautatura bidaltzeko.

Vega, Lope de

[La dama boba]

La boba discreta

Erreferentzia

Vega, Lope de. La boba discreta

Ik. **Vega, Lope de. La dama boba**

16.1.2C Erreferentziak egingo dira izenburu hautatuaren hizkuntzan ez dauden izenburuetatik edota egile-izenburuetatik, kasuan kasu dagokionaren arabera, izenburu hautatura edota egile eta izenburu hautatura bidaltzeko. Izenburu hautatuaren edo egile eta izenburu hautatuaren ondoren, dagokien hizkuntza adieraziko da (ikus 16.1.6).

Alonso, Jon

[Idiaren eraman handia. Gaztelania]

Paciencia de buey

Erreferentzia

Alonso, Jon. Paciencia de buey

Ik. **Alonso, Jon. Idiaren eraman handia. Gaztelania**

Saizarbitoria, Ramon

[100 metro. Gaztelania]

Cien metros

Erreferentzia

Saizarbitoria, Ramon. Cien metros

Ik. **Saizarbitoria, Ramon. 100 metro. Gaztelania**

Sarrionandia, Joseba

[Narrazioak. Katalana]

Narracions

Erreferentzia

Sarrionandia, Joseba. Narracions

Ik. **Sarrionandia, Joseba. Narrazioak. Katalana**

16.1.3 LATINAREN AZ BESTELAKO ALFABETOAN IDATZITAKO LAN ANONIMOAK

Latinaren az bestelako idazkeran idatzitako lan anonimoetarako, euskarazko izenburua erabiliko da, halakorik badago. Gainerako kasuetan, erreferentzia-iturrietan erabilitako formarik ezagunena hartuko da.

Ali Baba eta berrogei lapurrak

Aladin

Mila gau eta bat gehiago

16.1.4 XVI. MENDEA BAINO LEHENAGOKO GREKOZKO LANAK

XVI. mendea baino lehen grekoz idatzitako lanetan, euskarazko forma hartuko da, hala ezagun direnean. Euskarazko formarik ez bada edota oso ezaguna ez bada, latinezko ohiko forma erabiliko da. Besterik izan ezean, grekozko forma erabiliko da, transliterazioa eginda.

Aristoteles

[Metafisika]

Homero

[Odisea]

Plutarko

[Moralia]

16.1.5 ALDI BEREAN HIZKUNTZA BATEAN BAINO GEHIAGOTAN ARGITARATUTAKO LANAK

Lana aldi berean hizkuntza batean baino gehiagotan argitaratuta badago, izenburua ere hizkuntza batean baino gehiagotan duelarik, jatorrizko bertsioa zein den antzeman ezin denean, honako hiru kasu hauek hartuko dira kontuan:

a) Lanaren sarrera nagusia korporazio baten izena bada, korporazioaren izenaren hizkuntza berean dagoen izenburua hartuko da, baldin eta halakorik badago.

b) Egile elebidunen lanen kasuan, egilearen izenak hizkuntza-aldaerak dituztenean, egile horren lanen idazpururako aukeratutako izen-aldaerarekin bat datorren hizkuntzako izenburu hautatua erabiliko da. Izenburuak hainbat hizkuntzatan egonik, egilearen izena beti modu berean ageri bada, zentro katalogatzaileak bere hizkuntzan dagoen izenburua har dezake, baldin eta lanaren izenburuen artean halakorik badago.

c) Lanaren bertsio eta izenburuetako bat ere ez datorrenean bat idazpuruaren hizkuntzarekin, edota sarrera nagusia izenburua denean, izenburu hautatuaren hizkuntza aukeratzeko honako lehentasun-hurrenkera honi jarraituko zaio: euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa, italiara, portugesa eta alemana. Adierazitako ezin hizkuntzatan ere ez badago izenbururik, jasotako lehen bertsioarena hartuko da.

16.1.6 HIZKUNTZA ADIERAZTEA

16.1.6A Katalogatu beharreko lana ageri den hizkuntza lanaren jatorrizkoa ez denean, izenburuari hizkuntzaren izena gehituko zaio puntu batez bereizita.

Goethe, Johann Wolfgang von
[Faust. Euskara]

Descartes, René
[Discours de la méthode. Euskara]

Balzac, Honoré de
[Le Père Goriot. Euskara]

Atxaga, Bernardo
[Gizona bere bakardadean. Ingelesa]

Biblia. I. B. Euskara

16.1.6B Testuaren hizkuntza hizkuntza moderno baten antzinako aldaera denean, horri buruzko azalpena gehituko zaio parentesi artean.

Isidoro Sibiliakoa, Santua
[Etymologiae. Gaztelania (Erdi Aroko gaztelania)]

16.1.6C Edizio elebidunen kasuan, bi hizkuntzak adieraziko dira. Hizkuntzetako bat jatorrizkoa denean, bigarren jarriko da. Hiru hizkuntza edo gehiagoko edizioetan, «eleaniztuna» terminoa erabiliko da.

Aresti, Gabriel
[Harri eta herri. Gaztelania-Euskara]

Oihenart, Arnauld
[Atsotitzak eta neurtitzak. Frantsesa-Euskara]

Etxepare, Bernart
[Linguae vasconum primitiae. Eleaniztuna]

Biblia. Eleaniztuna

16.1.6D Lan baten jatorrizko edizioa eleaniztuna izanik jatorrizko hizkuntza zein den azaltzen ez denean, izenburu hautatuari ez zaio hizkuntzari buruzko adierazpenik gehituko.

Euskadi
[Euskal eskola publikoaren legea, 1993]
Euskal eskola publikoari buruzko legea = Ley de la escuela pública vasca
(*Testua euskaraz eta gaztelaniaz*)

Lista mundial de revistas especializadas en ciencias sociales

World list of social science periodicals = Liste mondiale des périodiques spécialisés dans les sciences sociales = Lista mundial de revistas especializadas en ciencias sociales

16.1.6E Lan hori, geroago, jatorrizko hizkuntzetako batean nahiz batean baino gehiagotan, baina ez guztietan, argitaratzen bada, dagokion hizkuntzaren izena gehituko zaio, testua eta izenburu hautatua hizkuntza berean egonda ere. Testuaren hizkuntzak jatorrizko edizioaren hizkuntzaz bestelakoak badira 16.1.6A / 16.1.6C arauetara jarraituko zaie.

Euskadi

[Euskararen erabilpena araukatzeko oinarrizko legea, 1982. Gaztelania]
Ley de normalización del uso del euskera

Euskadi

[Euskararen erabilpena araukatzeko oinarrizko legea, 1982. Euskara]
Euskeraren erabilpena araukatzeko legea

Euskadi

[Euskararen erabilpena araukatzeko oinarrizko legea, 1982. Ingelesa]
Basic law of the standardization of the use of basque

Euskadi

[Euskararen erabilpena araukatzeko oinarrizko legea, 1982. Frantsesa]
Loi de normalisation de l'usage de l'euskara

Euskadi

[Euskararen erabilpena araukatzeko oinarrizko legea, 1982. Alemana]
Normalisierungsgesetz zum Gebrauch des Baskischen

16.1.6F Lan bat lehenengo aldiz argitaratzen bada hainbat hizkuntzatan eta edizio ezberdinetan, eta hizkuntza horietako bat ere ez bada jatorrizkotzat jotzen, jatorrizkotzat hartu beharreko bertsioa aukeratzeko 16.1.5 arauan ezarritakoari jarraituko zaio. Halakoetan, gainerako bertsioak katalogatzerakoan, izenburu hautatuaren ondoren, hizkuntza adieraziko da.

Martín, Andreu

El nen que era molt home / Andreu Martín
(*Katalanezko bertsioa*)

Martín, Andreu

[El nen que era molt home. Gaztelania]
El niño que era muy hombre / Andreu Martín
(*Gaztelaniazko bertsioa eta katalanezkoa aldi berean argitaratuta, ezin da jakin jatorrizkoa zein den*)

Salestarrak. Inspección Nuestra Señora de la Merced
Proyecto educativo-pastoral inspectorial

Salestarrak. Inspección Nuestra Señora de la Merced
[Proyecto educativo-pastoral inspectorial. Katalana]
Projecte educatiu-pastoral inspectorial

16.1.7 LAN-ZATIAK

Lan nagusi baten zati den lan batek bere izenburua duenean eta bereiz katalogatzen denean, zatia-
ren izenburua hartuko da izenburu hautatu gisa. Lan osorako erabilitako idazpuruaren erreferen-

tzia egingo da, izenburu orokorraren ondoren jarrita zatiaren izenburua eta zati horren zenbakia, baldin eta halakorik badu.

Simbad itsasgizona. Euskara

Sinbad

Erreferentzia

Mila gau eta bat gehiago. Simbad itsasgizona

Ik. Simbad itsasgizona

Cervantes Saavedra, Miguel de

[La Gitanilla]

Honen erreferentzia

Cervantes Saavedra, Miguel de

Novelas ejemplares. La Gitanilla

Ik. **Cervantes Saavedra,** Miguel de

La Gitanilla

16.1.8 BATERA ARGITARATUTAKO BI LAN

Egile-idazpuru edo korporazio-idazpuru bera duten bi lan, izenburu orokorrik izan ala ez, batera argitaratu diren kasuetan, lehenengoaren izenburua hartuko da izenburu hautatu gisa eta egile-izenburuen bigarren mailako sarrera egingo zaio bigarrenari.

Shakespeare, William

[The merchant of Venice. Gaztelania]

El mercader de Venecia ; y la tragedia de Macbeth

Bigarren sarrera

Shakespeare, William. Macbeth. Gaztelania

Sofokles

[Edipo Errege. Gaztelania]

Tragedias

Edukia: Edipo Rey ; Edipo en Colona

Bigarren sarrera

Sofokles. Edipo Kolonan. Gaztelania

16.2 IZENBURU HAUTATU OROKOR IZUNAK

16.2.1 IDAZLAN GUZTIAK

Argitalpenak egile baten idazlan guztiak biltzen dituztenean edota hala aurkezten dituztenean, «idazlanak» izenburu hautatu orokorra erabiliko da.

Mitxelena, Salvatore

[Idazlanak]

Idazlan guztiak

Campión, Arturo
[Idazlanak]
Obras completas

16.2.2 IDAZLAN HAUTATUAK

Egile baten hiru lan edo gehiagoko bildumetarako, «idazlan hautatuak» izenburu hautatua erabiliko da.

Altzaga, Toribio
[Idazlan hautatuak]
Jostirudiak

Seneka, Luzio Aneo
[Idazlan hautatuak. Euskara-Latina]
Bizitzaren laburtasunaz ; Bizitza zoriontsuaz ; Astiaz

16.2.3 LITERATURA-GENEROA

Genero bat baino gehiago landu duten egileen genero bereko lan-bildumetan, generoaren izena izango da izenburu hautatua.

Lizardi, Xabier
[Poesia]
Olerkiak

Lizardi, Xabier
[Antzerkia]
Xabier Lizardi : Jose Maria Agirre Egaña (1896-1933) antzerkiak

16.2.4 ITZULPENAK

Egilearen jatorrizko hizkuntzan ez dauden lanen bildumen kasuan, izenburu hautatuari hizkuntzaren izena gehituko zaio.

Baroja, Pio
[Ipuinak. Euskara. Hautaketa]
Lur ilunak

Bukowski, Charles
[Poesia. Euskara. Hautaketa]
Poema antologia

16.2.5 ANTOLOGIAK

Egile baten literatura-lan baten edo gehiagoren zatiekin osatutako bildumen kasuan, dagokion izenburu hautatuari eta hizkuntzaren adierazpenari «antologia» hitza gehituko zaie.

Orixe

[Euskaldunak. Gaztelania-Euskara. Antologia]

Borda, Itxaro

[Poesia. Antologia]

Itxaro Borda

Cervantes Saavedra, Miguel de

[Don Quijote de la Mancha. Antologia]

16.3 IZENBURU HAUTATU BAT BAINO GEHIAGO

Lanak jatorrizko bertasio bat baino gehiago duelako izenburu hautatua hizkuntza batean baino gehiagotan eman daitekeenean, izenburuak lotzeko «ikus gainera» erabiliko da.

Roman de Renart

Ik. g.

Raevebogen**Reinaert****Reineke Fuchs****Reynard the Fox****Azeri axiantea****Flores y Blancaflor**

Ik. g.

Floire et Blancheflor**Flore und Blancheflur****Flores and Blancheflour****Flores och Blanzeflor****Flores og Blanseflor****Flóres saga og Blankiflúr****LAN-MOTA JAKIN BATZUETARAKO ARAU BEREZIAK****16.4 ESKUIZKRIBUAK****16.4.1 IZENBURU HAUTATUA AUKERATZEA**

Eskuz idatzitako lanak katalogatzerakoan, sarrera nagusi gisa izenburu hautatua erabili beharra dagoenean, izenburu hautatu hori honako hurrenkera honen arabera hautatuko da:

a) Jatorrizko izenburua edo, halakorik hartu ezin balitz, denboran nahiz espazioan jatorrizko izenburutik hurbilen dagoena.

b) Izenburu nagusia, baldin eta beste eskuizkribu batetik edo lan beraren beste edizio batetik hartua bada.

- c) Lanak usadio zientifikoan ezarrita duen izenburua.

Annales Prumienses

- d) Eskuizkribuak hartu ohi duen izenburu ezagunena (eskuizkribuaren kopiei ere horixe ezar dakieke).

Codex Tro-Cortesianus

- e) Eskuizkribu orotarikoen kasuan, biltzaileak jarritako izenburua edo, halakorik ez bada, hartu ohi duen izenburu ezagunena.

Flores de varia poesia

- f) Eskuizkribuaren izendapen topografikoa, hau da, gordailuaren izena, «eskuizkribua» hitza eta gordailu horretan dagokion kokapen-kodea jarrita.

Biblioteca Nacional (Espainia). Eskuizkribua 4944

- a), b), c), d) eta e) aukeretakoren bat erabiltzen denean, eskuizkribua izendapen topografikoaren bidez ere identifikatu badaiteke, erreferentzia egingo zaio izendapen topografikoari.

Halaber, izendapen topografikoa gehituko zaie liburu santuen eta liturgia-testuen izenburu hautatuei, baldin eta eskuizkribuok izendapen horren bidez identifikatzen badira.

Biblia. Latina. Monasterio de El Escorial. Eskuizkribua a.I.5

16.5 LEGEAK

16.5.1 LEGE MODERNOAK

Lege-xedapenen bildumen izenburu hautatua «legeak etab.» izango da.

Euskadi

[Legeak etab.]

Espainia

[Legeak etab.]

Nafarroa (Foru Erkidegoa)

[Legeak etab.]

Frantzia

[Legeak etab.]

Lege-bilduma monografikoen kasuan, izenburu hautatuak beroien edukia adieraziko du, salbu eta legeok aipatzeko jadanik izenburua ezarrita badago.

Euskadi

[Legeak etab., nahitaezko soldadutzari buruz]

Euskadi

[Legeak etab., hezkuntzari buruz]

Euskadi

[Legeak etab., transferentziaz]

Nafarroa

[Foru-Zuzenbide Zibilar buruzko legea]

Espainia

[Código alimentario]

Banakako legeen kasuan, izenburu hautatu gisa honako hauek erabil daitezke: xedapenaren izen ofiziala, laburtuta, hala dagokionean; hartu ohi duen izenik ezagunena; zenbakia edota aldarrikapen-data.

Euskadi

[Autonomia Estatutua, 1936]

Euskadi

[Autonomia Estatutua, 1979]

Nafarroa (Foru Erkidegoa)

[Foru Hobekuntza, 1982]

Euskadi

[Ekonomia Ituna, 1981]

Euskadi

[Ekonomia Ituna, 1997]

Nafarroa (Foru Erkidegoa)

[Euskarari buruzko foru legea, 1986]

Katalunia

[Estatut d'autonomia, 1979]

Frantzia

[Code du travail, 1973]

Argentina

[Ley n. 17.253]

Britainia Handia

[Education Act, 1944]

16.5.2 ANTZINAKO LEGEAK

Antzinako eta Erdi Aroko legeen sarrera legeon usadiozko izenaren bidez egingo da, izen hori osorik hartuta eta jatorrizko hizkuntzan, salbu eta erreferentzia-iturrietan beste hizkuntza batean aipatu ohi bada. Izen generikoa duten zatien, atalen edo laburpenen sarrera bildumaren izenaren

bidez egingo da, ondoren, bakoitzaren izena jarrita beste letrakera batean. Izen generikorik ez dutenen kasuan, zatiaren edo atalaren izena izango da idazpuru².

Lex Romana visigothorum
Fuero Juzgo
Corpus juris civiles
Corpus juris civilis. Codex
Digesta
Donostiako Hiri Gutuna (1180)
Gasteizko Hiri Gutuna (1181)
Fuero de Cuenca
Fuero de Miranda de Ebro (1099)
Nafarroako Foru Nagusia
Arabako Legeen Liburua
Durangoko Merindadeko Foru Zaharra
Aiara Herriko Forua (1373)
Enkarterriko Foru Zaharra (ca. 1394-1411)
Bizkaiko Foru Zaharra (1452)
Enkarterriko Foru Berritua (1503)
Lapurdikoa Kostumak (1514)
- EKOIZLE (Filmak).— Lan zinematografiko bat finantzatzearen eta merkaturatzearen erantzukizuna duen pertsona edo korporazioa, lana egiteko beharrezkoa den antolamenduaz arduratzen dena eta dirua jartzen duena.
- ELEMENTU.— Dokumentu bati buruzko datu homogeneousak deskribatzen dituzten hitzak, esaldiak edo karaktere-multzoak, deskribapen bibliografikoaren eremuak osatzen dituztenak.
- EMANALDI.— Zatika argitaratzen diren lanen ataletako bakoitza.
- ENKARTE.— Ik. Tarteko.
- EPIGRAFE.— Oro har lanen kapituluaren edo atalen hasieran jartzen den izenburua edo laburpena.
- EPILOGO.— Lan baten azken zatia, lanean zehar adierazitakoa laburbiltzen duena.
- EPITOME.— Ik. Laburpen.
- ERAKUNDE.— Ik. Korporazio.
- ERAKUNDE-EGILE.— Ik. Korporazio.
- ERANSKIN.— Gaiari edo argitaldariari dagokionez beste baten menpekoa den argitalpena.
- ERANTZUKIZUNAREN AIPU.— Dokumentu baten eduki intelektual edo artistikoarekin zerkusua duen egile korporatibo edo norbanakoari buruzko informazioa.
- EREMU.— Deskribapen bibliografikoaren ataletako bakoitza, elementu bakarraz nahiz elkarren artean erlacionatutako hainbat elementuz osatutakoa.
- ERLAITZ.— Liburu baten orri-ertzen inguruan gailentzen den taparen zatia.

ERLIEBE-MAPA.— Hiru dimentsioko mapa, erliebea planimetriaz bestelako eskalan ageri duena.

ERLIEBEZKO GRABATU.— Grabatu-prozedura. Inprimatzeko, matrizeak zizelkatu egiten dira erliebezko irudia egiteko eta ondoren tintatzatu.

ERREALIZADORE (Filmak).— Film-zuzendariren mota bat, gidoi bat eszenaratzeko erantzukizuna duena. Zuzendariren sinonimotzat hartzen da baina ez da egokia.

ERREFERENTZIA.— Ik. Erreferentzia-erregistro.

ERREFERENTZIA-ERREGISTRO.— Onartuak ez diren hainbat formatatik sarrera nagusi izateko aukeratutako formara bidaltzen duen erregistroa.

ERREGISTRO.— Liburuki baten azkenean jartzen zen oharra, apeuak edo signaturak beren hurrenkeran jasotzen zituena; azken horiei dagokienez, koadernoak folio bikoak, hirukoak, lauakoak etab. zirela adierazten zelarik.

ERREGISTRO ANALITIKO.— Argitalpen baten zati bat deskribatzen duen erregistroa, dagoeneko erregistroa egina duten bildumen edota argitalpen seriatuen zatiena batik bat.

ERREGISTRO BIBLIOGRAFIKO.— Bibliografia- edo dokumentu-unitate baten erregistro edo deskribapena, arau jakin batzuen arabera egina.

ERREGISTRO LOGIKO.— Ordenagailuko fitxategi baten informazio-unitate osoetako bakoitza. Oro har, datu-bilketarako aukeratu den formatuaren formulario osoaren edukia izaten da.

ERREGISTRO NAGUSI.— Lan bat identifikatzeko beharrezko diren datu guztiak, sarrera nagusiaren azpian, jasota dituen erregistroa, bigarren mailako erregistroak idazteko orduan oinarritzat hartzen dena.

ERREGISTRO OSATUGABE.— Argitaratzen ari den lan baten erregistro bibliografikoa jasotzen duena. Atal berriak argitaratu ahala horien datuak gehitzen zaizkio.

ERROILU.— Ik. Biribilki.

ERTZ.— Eskuz idatzitako nahiz inprimatutako orrialdeen lau aldeetan zuri gertatzen den tartea.

ERTZ-APAINGARRI.— Testu baten edo grabatu baten inguruan jartzen den apaindura.

ERTZ BABESGARRI.— Liburuen tapen erpin libreetan liburua babesteko nahiz apaintzeko jarritako pieza.

ERTZEKO APAINGARRI.— Ik. Ertz-apaingarri.

ERTZEKO OHAR.— Testua interpretatzen edo argitzen laguntzeko nahiz osagarri gisa, liburuen edo idazkien ertzetan jartzen diren glosak, abisuak edo gehigarriak.

ESKAINITZA.— Inprimatutako lan bat eskaini zaion pertsonari zuzendutako idazki edo oharra.

- ESKALA.— Dokumentu kartografikoan ageri den distantziaren eta irudikatutako benetako neurriaren arteko erlazioa.
- ESKOLA.— Garai bateko, eskualde bateko eta abarreko lanen bereizgarri diren ezaugarrien multzoa.
- ESKUBIDE-ORRIALDE.— Atariaren ifrentzua, besteak beste lanaren eskubideak, argitaraldi-kopurua, inprimategi-zigilua, baimenak etab. ageri dituelarik.
- ESKUIZKRIBU.— 1. Eskuz idatzita dagoen paper nahiz liburua. 2. Inprimatzekoa den testu baten jatorrizkoa nahiz kopia, eskuz idatzita egon zein ez.
- ESKUIZKRIBU OROTARIKO.— Batasun fisikoa ageri duen arren, lan, tratatu edo pieza bereiziz osatuta dagoena, atalok edukiaren aldetik batasunik izan zein ez.
- ESLEIPEN.— Dokumentua identifikatzen duen ezaugarriren batean oinarrituta, haren egiletasuna pertsona edo korporazio bati egoztea. Material grafikoan, adibidez, teknika, garaia, estiloa etab. hartzen dira kontuan.
- ESTANPA.— Grabatutako matrize bat estanpatuz lortutako irudia. Grabatu ere esaten zaio.
- ESTANPAZIO.— Grabatutako matrize baten bidez irudi bat paperera edo beste material batera aldatzea.
- ESTEREOFONIA.— Erregistratutako soinuak igortzeko, hartzeko edo erreproduzitzeko teknika, bi seinale-kanal independente eta bi bozgorailuren bidez entzuleari perspektiba akustikoaren sentipena eragiten diona.
- EUSKARRI.— Lan bat egiteko erabiltzen den gainazalaren gaia edo materia (pergaminoa, papera, zinta etab.).
- EUSKARRI FISIKO (Hardware).— Datuak prozesatzeko makinak edota makina horien osagai mekanikoak, magnetikoak nahiz elektronikoak. Makina horiek erabiltzeko programek eta bestelako bitarteko abstraktuek osatzen duten multzoari kontrajartzen zaio.
- EUSKARRI FISIKO OSAGARRI.— Datuak, soinuak, irudiak etab. bildu ditzakeen bitarteko fisikoa. Material-mota batzuk gordetzeko euskarri fisikoa (adibidez, zinta, filma etab.) plastikozko, metalezko edo bestelako bilgarri baten barruan egoten da. Halakoak izaten dira, esaterako, kaseteak edo kartutxoak, argitalpen informatikoaren osagai baitira.
- EUSKARRI LOGIKO.— Ik. Programa.
- EUSKARRI MALGUKO NEGATIBO.— Emultsio fotografikoa material malguetan ezarrita dutenak. Material horien garapena gorabeheratsua izan da denboran zehar. Lehendabizi, 1889an nitratozko euskarria merkaturatu zen baina oso sukoia zenez, azetatozko euskarriak ordezkatu zuen; azkenik poliesterezkoak atera ziren.

- EX LIBRIS.— Liburu baten jabetza adierazten duen etiketa inprimatua; gehienetan azalaren barrualdean itsatsita egoten da.
- EXPLICIT.— Latinezko hitza da; «amaitzen da» esan nahi du eta berorren bidez antzinako eskuizkribu edo inprimakien testuaren azken hitzak adierazten dira.
- EZKUTUKO EDIZIO.— Inprentaren eta edizioaren arloan legediak ezarritakoa kontuan izan gabe egindako edizioa.
- FAKSIMILE.— Ik. Edizio faksimile.
- FANTASIA.— XIX. eta XX. mende hasierako musikan oso ohikoa zen parafrasi-mota, oro har antzerkiko eta herriko musika-konposizioak hartu eta nahierara lantzean datzana.
- FASZIKULU.— Zatika argitaratutako lanen atal zenbakidunetako bakoitza edota argitalpen seriatuen atal zenbakidunetako bakoitza.
- FERROTIPO.— Metalezko xafla ilunduaren gaineko kolodioi-negatiboa, islatuta ikusiz gero irudi positiboa ageri duena.
- FILIGRANA.— Papera fabrikatzean egindako marka gardena.
- FILM.— Irudi fotografikoen serie jarraituak dituzten zeluloide-zintak, pantaila batean edo beste gainazal egoki batean proiektatzen direnean mugimendu-irudipena sortzen dutenak.
- FILM AMAIGABE.— Atzera eman beharrik gabe, etengabe proiektatu daitezkeen filma.
- FILM FINKO.— Ik. Filmina.
- FILM ZINEMATOGRAFIKO.— Ik. Film.
- FILMINA.— Banan-banan proiektatzeko diren irudi-multzoa duen film-zatia, soinuduna nahiz soinurik gabea.
- FINGERPRINT.— Ik. Identitate tipografiko.
- FITXA.— Ik. Fitxa bibliografiko.
- FITXA BIBLIOGRAFIKO.— Paper edo kartoi mehe zatia, angeluzuzena, datu bibliografikoak jasota dituen. Fitxa-mota normalizatua, nazioarteko neurrikoa deiturikoa, 7,5 x 12,5 cm-koa da.
- FITXA GIDARI.— Goialdeko ertzean irtengune bat duen fitxa, katalogoaren kontsulta errazteko fitxak multzokatzen dituen.
- FITXATEGIAREN IZEN.— Alfazenbakizko karaktere multzo oro har finkoez eratutako izena, ordenagailuko programa nahiz datuak identifikatzeko erabiltzen dena. «Datu-multzoaren izena» ere esaten zaio.

- FITXEN ERREGISTRO.— Erregistro bibliografiko baten amaierako zerrenda, bigarren mailako sarrerak jasotzen dituena.
- FOLIO.— 1. Ik. Orri. 2. (Neurria) Inprimakien neurria, pleguak erditik tolestuta daudenean hartzen dutena. 3. Orrialdeen goialdeko epigrafea.
- FORMATU.— Liburuen neurria, plegu bakoitzeko dituen orrien kopuruaren arabera zehaztutakoa (folioa, laurdena, zortzirena...).
- FOTOGRAFIA.— 1. Ik. Argazkilaritza. 2. Ik. Argazki.
- FOTOGRAMA.— Film zinematografiko batean ageri diren irudietako bakoitza.
- FOTOKOPIA.— Prozedura fotografikoen bidez egindako erreproduktzioa. Zuzeneko ukipenez nahiz euskarri opaku baten gainean proiektatuz egin daiteke, energia-erradiazio baten eraginpean jarrita.
- FOTOLITOGRAFIA.— Inprimatze litografikoan aplikatutako fotografia. Negatibo fotografiko bat gelatina bikromoztatu fotosentikorrez erantsitako harri litografiko batera aldatzen delarik, gogortu egiten da jasotzen duen argi-kantitatearen arabera. Tintatzatzeko orduan, tinta gehiago edo gutxiago hartuko dute gogortasun horren arabera. Fotolitografiaren printzipioa fotomekanikaren abiaburua da. Alphonse Poitevin-ek abiatu zuen 1854an.
- FOTOTIPIA.— Erreproduktzio fotomekanikoko prozesu planigrafikoa, 1868-70 urteen inguruan sortua hasierako fotolitografiaren printzipioak erabilita. Beira gaineko gelatina bikromoztatuen propietate eta ezaugarriak baliatuz, kalitate handiko eta ekoizpen-kostu txikiko kopia fotografikoak lortzen dituen estanzazio-xaflak sortzen dira.
- FOTOTIPOGRAFIA.— Erreproduktzio fotomekanikoko prozedura, prozedura fotografikoak erabiliz erliebezko estanzaziorako inprimatze-xaflak egitean oinarritutakoa. Tonuerdiko irudiak erreproduzitzeko, xafla bilbatuak egiten dira, prozesu konplexu baten bidez xaflaren eta erreproduzitu beharreko irudiaren artean bilbeak jarririk. Tonuerdiko irudiak erreproduzitzeko sistema horren erabilera 1881etik aurrera da ezaguna, eta testua eta irudi fotografikoa aldi berean inprimatzeko aukera ematen duen lehena da.
- FRONTISPIZIO.— Atariaren aurreko orria edo orrialdea, baldin eta grabatutako apaingarririk badu. Atari grabatuari ere frontispizio esaten zaio.
- GAIEN KATALOGO ALFABETIKO.— Gai-sarrera osatzen duten letren multzoa oinarri hartuta ordenatutako katalogoa.
- GAIKAKO KATALOGO (Musika).— Konpositore baten lanen zerrenda, ordena kronologiko edo sistematiko baten arabera antolatua eta konposizio bakoitzaren izena edo, konposizioak luzeak baldin badira, atalaren izena adierazita.
- GAINAZAL.— Liburua babesteko, hari itsatsi gabe jartzen den paperezko edo zernahi materiallezko estalkia.

- GAKO-IZENBURU.— Argitalpen seriatu bati dagokion ISSNaren zentroak emandako izenburu bakarra.
- GARDENKI.— Irudiak dituen material gardenezko orria, erretroproiektore baten bidez ikustekoa.
- GARDENKI GAINJARRI.— Irudi bat duen lamina gardena, beste lamina baten gainean jarriz gero, bigarren horretan jasotako irudia aldatzen duena.
- GEHIGARRI.— 1. Lan baten zatia, oro har bereiz argitaratutakoa eta lana eguneratzeko argitaratzen dena. 2. Egunkari edo aldizkari batek argitaratutako inprimakia, dagokion aleko testuarekiko independentea dena. 3. Jatorrizko testua osatzen duen lan-zatia.
- GELATINA BROMURO.— Beira-xafla gaineko negatibo fotografikoa. Batik bat 1880-1920 urteen inguruan erabili zen. Emultsio sentikorra gelatina-geruza mehe batean ezarrita dago. Ordura arteko material fotografikoak baino sentikorragoa zenez, baliabide industrialak erabiliz fabrikatu zitekeenez eta sentikortutakoan bere gaitasun fotografikoak galdu gabe bildu zitekeenez, nabarmen ahalbidetu zuen sistema fotografikoaren eraginkortasuna eta eramangarritasuna.
- GELATINA-PAPER.— 1885. urtearen inguruan ezarri ziren hainbat motatako argazki-paperak izendatzeko izen orokorra. Paperaren gaina zilar-gatz fotosentikorrek ezarri zaizkion gelatina geruza mehe batez estalia dago. Errebelatu zuzenekoak (solarizazioa) edo errebelatu kimikokoak izan daitezke.
- GIDADUN PARTE.— Interprete bati dagokion parte, partituran taldeko gainerako instrumentu edo ahotsak jasotzen direlarik. Teklatu-instrumentua duen ganbera-musikaren kasuan, partitura deitzen zaio.
- GIDOI (Musika).— Ik. Partitura trinkotu.
- GLOBO (Material kartografikoa).— Lurra, zeruko espazioa edota zeruko edozein gorputz irudikatzen duen mapa, gainazal esferiko batean egina.
- GLOSA.— Testu bateko lerroen artean edo ertzetan, testua azaltzeko edo interpretatzeko gehitzen den hitza edo esaldia. Ik. g. Ertzeko ohar.
- GOFRATU.— Liburuen azalaren gainean lehorrean eginiko estanzazioa.
- GOIALDE.— Liburuen edo orrialdeen goiko alde.
- GOIBURU.— Ik. Orriburu.
- GOIKO LOKARRI.— Liburuen goialdekoa josteko haria.
- GOITIK HARTUTAKO BISTA (Material kartografikoa).— Paisaiaren perspektibazko irudikapena, lurzoru gaineko goialde batetik egina.

- GRABATU.— 1. Grabatutako matrize bat tintaz busti eta paperean edo beste euskarri baten gainean estanpatuz irudiak lortzeko prozedura. Hedaduraz, grabatzea esaten zaio edozein matrize-mota erabiliz inprimatzeari. 2. Grabatutako xafla edo matrizea estanpatuz lortutako irudia. «Proba» eta «estampa» ere esaten zaio. Ik. g. Estampa eta Proba.
- GRABATU LAU.— Grabatu-prozedura, matrize laua, hau da, erliebe eta sakongunerik gabea, baliatzen duena.
- GRABATZAILE.— Matrizeetan irudiak egiteko eginkizuna duen pertsona. Grabatzaileen izena honako termino hauekin batera ager daiteke: «sculpsit» («sculp» etab.), «fecit» («f»), «grabatu zuen», etab.
- GUBIL.— Zizel txikia. Hedaduraz, metalezko xafla batean gubila erabiliz ildoak egitean datzan sakoneko grabatuko teknika.
- H. C. (Hors commerce).— Frantseseko esaera da eta «saltzeko ez den liburua» esan nahi du. «H. C.» laburtzapena estanparen zenbakia ageri behar lukeen tokian ageri denean ale hori artistarentzako proba bat dela adierazten dute, alegia, artistak laguntzaileei, lagunei eta abarrei opari egiteko alea.
- HARI MAGNETIKO.— Soinua grabatu eta erreproduzitzeko euskarria, V. Poulsen daniarrak 1900ean asmatutakoa. Altzairu herdoilgaitzeko haria erabiltzen du, 4 hazbete-milareneko diametrokoa, buru batetik igaroz magnetizatzen dena. 1935ean magnetofono-zinta merkaturatu zenean zaharkituta geratu zen.
- HARIALDERAKO XILOGRAFIA.— Zurezko matrizeak, hari aldera ebakiak eta xixelez, hortzez eta gubiaz zizelkatuak, erabiliz egindako xilografia.
- HARIKONTRARAKO XILOGRAFIA.— Zur gogorrez (gehienetan ezpelez) egindako matrizeak, hari kontrara ebakiak eta gubiez zizelkatuak, erabiliz egindako xilografia.
- HARIL.— Material malguko zerrenda bat (xafla, zinta, papera, pelikula etab.) biribilkatzeko pieza zilindrikoa, ardatz batez lotutako bi diskoz osatutakoa.
- HARMONIZAZIO.— Melodia jakin bati dimentsio harmonikoa emateko, akonpainamendu gisa erabil daitezkeen akordeak egitea.
- HEGAL.— Azalak edo gainazalak albo batean duen luzakina, barrurantz tolestean dena.
- HITZAURRE.— Lan baten aurretiko oharra, irakurleari zuzendutakoa, lanaren inguruko azalpenak edo jakin beharrekoak ematen dituena.
- HOMONIMO.— Izen bera duten bi pertsona edo gehiago.
- HORMA-IRUDI.— Horman zintzilik jartzeko irudia.

HORMAKO MAPA.— Mapa oro har formatu handikoa, goitik behera eta urruti samarretik irakurtzekoa.

HOTS-BANDA.— Ik. Soinu-banda.

HUTS.— Ik. Akats.

HUTS-ZERRENDA.— Liburu batean atzemandako akatsen multzoa. Liburuaren azkenean jartzen da, egin beharreko zuzenketa adierazita.

IDAZPURU.— Ik. Sarrera.

IDENTITATE TIPOGRAFIKO.— Antzinako argitalpenen edizio bereko ale guztiak identifikatzeko ezaugarria, lau orri jakinetako azken bi lerroetatik hartutako bi karaktere-pareko lau multzoz osatutakoa.

IFRENTZU.— Liburu, liburuxka edo koaderno batean, zabalik dagoela irakurlearen ezker aldean geratzen den orria. Orrialdeak zenbakituta daudenean, orrialde bikoitiak.

IKASTEKO PARTITURA.— Ikasteko, baina ez interpretatzeko, prestatutako partitura. Izen bera erabiltzen da sakelako partiturak eta miniaturak izendatzeko ere.

IKATZ-MARRAZKI.— Ikatzezko ziri bat erabiliz egiten den marrazki-teknika.

IKATZ-PAPER.— Ikatz-fotografia honako prozesu honetan oinarritzen da: pigmentuak sartzen dira gelatina bikromoztatuko geruza batean; geruza hori kamerako argiaren eraginpean jarririk, jasotako argi-kantitatearen arabera gogortuz joango da; gelatina garbitutakoan, duen gogortasunaren arabera desegingo da eta, ondorioz, gelatinak eta pigmentuek eratutako irudia sortuko da. Ikatz-papera irudi fotografikoak edozein gainazaletan transferentziaz ezartzeko erabili zen. 1864. urtean patentatu zen eta funtsezkoa izan zen sistema fotomekaniko garrantzitsuenak garatzeko orduan.

IKUSKIZUNETARAKO MUSIKA.— Antzezlan batean interpretatzeko den musika; gehienetan orkestrarako musika izaten da.

ILDO (Soinu-grabazioak).— Disko fonografikoetan soinua erregistratuta dagoen ildaska. Ildo meheko edo mikroildoko diskoetan zentimetroko ildo-kopurua 60tik 80ra bitartekoa izaten da.

ILUSTRAZIO.— Lan baten osagai den edozein grabatu (2. adieran).

ILUSTRAZIO (Eskuizkribuak).— Testu batean, hura azaltzeko nahiz osatzeko ageri den irudi grafiko nahiz figuratiboa.

INBENTARIO.— Hurrenkera topografikoaren arabera antolatutako dokumentu-aurkibidea.

INCIPIT.— Latinezko hitza, «hasten da» esan nahi du eta berorren bidez antzinako inprimaki baten edo eskuizkribu baten testuaren, zentzu hertsian hartuta, hasierako hitzak adierazten dira.

- INKUNABLE.— Inprimategien hasierako garaietan erabiltzen ziren karaktere mugigarriez inprimatutako lana. Oro har, XV. mendean inprimatutakoei bakarrik ematen zaie izen hori.
- INPRIMAKI.— Prozesu mekanikoen bidez egindako liburua, liburuxka edo orri soltea.
- INPRIMALEKU.— Liburua inprimatu den herria.
- INPRIMATEGI.— Inprimatzen diharduen pertsona fisiko nahiz juridikoa. Inprimatzailearen izena inprimatzen dituen lanetan azaldu ohi da.
- INPRIMATEGI-ZIGILU.— Inprimalekuaren, argitaldariaren, inprimategiaren eta argitalpen-dataren berri ematen duen aipamena adierazteko erabili ohi den izendapena.
- INPRIMATURIKO MUSIKAREN FORMATU.— Ik. Musika inprimatuaren formatu.
- INPRIMATZAILE.— Ik. Inprimategi.
- INPRIMATZE.— Edizio batean konposizio edo matrize berberaz aldi berean egindako ale guztiak.
- INTERPRETATZEKO MODU (Musika).— Musika-lan bat zein instrumentu edo ahotsentzat sortua den adierazten du.
- IRARKOLA-IKUR.— Inprimategiaren edo argitaldariaren marka bereizgarria, gehienetan atarian ageri dena.
- IRARLAN.— Ik. Grabatu.
- IRUDIZKO IZENPE.— Ik. Irudizko sinadura.
- IRUDIZKO SINADURA (Material grafikoa).— Dokumentuan egilea identifikatzeko ageri den edozein elementu figuratibo.
- ISBN (International Standard Book Number = Liburuen Nazioarteko Zenbaki Normalizatua).— Liburuak identifikatzeko nazioartean erabiltzen den zenbakia, ISBNaren arauari jarraiki eratutakoa.
- ISSN (International Standard Serial Number = Argitalpen Seriatuen Nazioarteko Zenbaki Normalizatua).— Argitalpen seriatuak identifikatzeko nazioartean erabiltzen den zenbakia, ISSNaren zentroak esleitutakoa.
- ITSAS MAPA.— Itsasketan erabiltzen den mapa, itsaso-eremu jakin bat eta inguruko itsasertza irudikatzen duena.
- IZEN.— Besterengandik bereizteko, pertsona fisiko edo juridiko bat izendatzerakoan erabiltzen den hitza edo hitz-multzoa.

IZENBURU.— Liburu bat, aldizkako argitalpen bat edo horien zatiak izendatzeko hitza edo hitzak, oro har edukiari erreferentzia egiten diotenak.

IZENBURU ALTERNATIBO.— Lan baten bigarren izenburua, lehenengoari juntagailu hautakari baten bidez lotua.

IZENBURU HAUTATU.— Lan bat izendatzeko izenburu bat baino gehiago erabiltzen denean, lan hori katalogatzeko aukeratzen den izenburua.

IZENBURU IZUN.— Izenbururik ez duen argitalpen bati edukia kontuan hartuta ematen zaion izenburua.

IZENBURU KOMUN.— Menpeko izenburua duen izenburu nagusi baten zatia.

IZENBURU NAGUSI.— Argitalpen baten izenburu oinarrizkoa, hau da, atarian edota ataria ordeztzen duen zatian ageri dena. Izenburu nagusiaren barruan sartzen da edozein izenburu alternatibo; aitzitik, ez dira kontuan hartzen pareko izenburuak, ezta izenburuari buruzko zeinahi informazio osagarri ere. Lan bereziak dituzten argitalpenetan, izenburu orokorra hartzen da izenburu nagusitzat; izenburu orokorrik ez badute, izenburu nagusirik ez dutela jotzen da.

IZENBURU OROKOR.— Hainbat lan bereiziz osatutako argitalpen baten izenburu nagusia.

IZENBURUAREN MENPEKO ZATI.— Ik. Menpeko izenburu.

IZENBURUARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRI.— Dokumentuaren izenburu nagusiarekin loturik edota haren menpe ageri den hitz, esaldi edo karaktere-multzoa. Informazio osagarria beste hauekin lotuta edota hauen menpe ere egon daiteke: pareko izenburuekin, izenburu nagusiaren aldaketekin, zatien izenburuekin eta dokumentuan bildutako lan banakakoen izenburuekin. Beste informazio osagarri batzuk ere ager daitezke dagokien izenburua kalifikatzeko edo osatzeko, dokumentuaren edota dokumentuan bildutako lanen ezaugarriak, edukia etab. azaltzeko, edo dokumentua argitaratzeko arrazoiaren edo zergatien berri emateko. Termino horrek azpiizenburuak eta izenburuaurreak barne hartzen ditu, baina ez ditu hartzen argitalpenean ageri diren izenburu-aldaerak (adibidez, bizkarrean ageri den izenburua), non eta atarian edo atariaren ordezkotan azaltzen ez diren.

IZENBURUAURRE.— Bigarren mailako izenburua, izenburu nagusiaren aurretik ageri dena.

IZENBURUEN KATALOGO ALFABETIKO.— Izenburua osatzen duten letren multzoa oinarri hartuta ordenatutako katalogoa.

IZENORDE.— Egile batek benetako izenaren ordeztze, izenpetzeko erabiltzen duen izena.

JARRAIPEN.— Lehenago argitaratutako lan baten osagarri gisa argitaratutako lana.

JATORRIZKO.— Erreproduzitzeko erabili den testua.

JATORRIZKO LAN GRAFIKO.— Lanaren prozesu osoan zuzenean parte hartu duen egilearen material grafikoa.

JUNTURA-ZERRENDIA.— Lamina edo orri solteetan, azaleztatzerakoan narriatu ez daitezten, jartzen den paperezko edo oihalezko zerrenda.

KADENTZIA.— Harmonia tradizionalan dituen beste esanahi batzuek gain, termino honek adierazten du kontzertu, sonata edo antzekoetan bakarlari batek interpretatzen duen musika-pasarte birtuoso eta bat-batekoa. Sarritan, jatorrizko lan baten estiloari eta gaiei jarraiki beste egile batek idatzitako konposizioa izaten zen. Zenbaitetan, jatorrizko musikagileak berak idazten zituen kadentziak, lanaren osagai gisa.

KAIER.— Ik. Koaderno.

KALKOGRAFIA.— 1. Kobrezko edo, hedaduraz, edozein metalezko matrizeak erabiliz egindako grabatua. 2. Matrize horiek egiteko edota biltzeko lekua.

KALOTIPO.— Positiboa-negatiboa konbinazioan oinarritutako lehenengo prozesu fotografikoa. Talbot-ek patentatu zuen 1840an. Zilar-gatzez sentikortutako paper-orri bat jartzen zen kameran; argiaren eraginpean jarri ondoren, azido galiko eta zilar-nitratozko soluzio bat erabiliz errebelatzen zen eta, ondoren, finkatu egiten zen. Prozesu horren emaitza paperezko negatibo bat zen.

KARPETA.— Erabili paper solteak, material argigarria etab. duten bildumetarako. Karpetek, normalean, bi azal izaten dituzte, atzetik elkartuta eta aurrean, goian edota azpian lotuta.

KARTEL.— Iragarki, propaganda edo abisu moduan, erraz ikusteko lekuetan jartzen den paperezko edo bestelako materialezko pieza, irudi eta inskripzioak dituena.

KARTELA.— Mapen, marrazkien, estanpen eta antzekoen inskripzioa inguratzen duen ertz-apaingarria, medailoia, laukia etab.

KARTUTXO.— Plastikozko kutxa itxia, etengabe garatzen den, hau da, atzera bildu beharrik ez duen film- edo zinta-biribilki bat duena. Zinta karga-txirrika batetik garatze-txirrika batera mugitzen da, txirrikak plano horizontal ezberdinean kokatuta daudelarik.

KASETE.— Film-zinta bat nahiz bideo edo audioko zinta magnetiko bat biltzen duen plastikozko kutxa itxia. Zinta txirrika eramaile batetik txirrika hartzaile batera mugitzen da eta amaitzen denean gelditu egiten da; txirrikak plano horizontal berean kokatuta daude.

KASETE (DAT) (Digital Audio Tape).— Grabaziorako eta erreprodukzio digitalerako kasetea, buru birakari helikoidaldua. Ohiko sistemarekin bateraezina da. VHS bideokaseteen emultsio bera erabiltzen du. Sonyk merkaturatu zuen 1986an.

KASETE (DCC) (Digital Compact Cassette).— 8 pistako audio-kasetea da, ohiko kaseteen neurri berekoa, eta magnetofono-zinten aldakortasuna (grabatu, ezabatu eta berriz grabatu daiteke) eta grabazio digitalaren kalitate gorena biltzen ditu. Philipsek merkaturatua da.

- KATALOGAZIO BIBLIOGRAFIKO EDO DOKUMENTAL.— Erregistro bibliografikoaren idazketa, arau jakin batzuen arabera egina.
- KATALOGO.— Bilduma bateko argitalpenen edota dokumentuen erregistro bibliografikoen multzoa, arau jakin batzuen arabera antolatutakoa.
- KATALOGO HIZTEGI.— Egileen, gaien eta izenburuen katalogo alfabetikoak denak batera alfabetikoki ordenatuta biltzen dituen katalogoa.
- KATALOGO KOLEKTIBO.— Liburutegi bateko baino gehiagoko erregistro bibliografikoak batera biltzen dituen katalogoa.
- KATALOGO SISTEMATIKO.— Sailkapen-kode baten arabera hierarkikoki ordenatutako katalogoa.
- KATALOGO TOPOGRAFIKO.— Kokapen-kodearen arabera ordenatutako katalogoa.
- KATALOGO-ZENBAKI.— Ik. Argitalpen-zenbaki.
- KAZETA.— 1. Ik. Argitalpen seriatu. 2. Ik. Egunkari.
- KEDAR-GRABATU (Material grafikoa).— Sakoneko grabatuko teknika, zeinetan kobrezko lamina baten gaina kardamaren bitartez berdintsu lazten delarik, hura leunduz lortzen baita irudia.
- KEDARREZKO GRABATU.— Ik. Kedar-grabatu.
- KOADERNO.— Plegu-erdi multzoa, bata bestearen barruan sartuta eta josita.
- KOKAPEN-KODE.— Ik. Signatura topografiko.
- KOLAZIO.— Ik. Deskribapen fisiko.
- KOLODIOI-NEGATIBO.— Beira-xafla gaineko negatibo fotografikoa, zeinetan irudia kolodioi sentikortuzko emultsio batean eratzen den. Prozedura hori 1851tik ezagutzen da eta negatibo fotografiko nagusia izan zen urte horretatik hasi eta XIX. mendeko laurogeiko hamarkadara arte.
- KOLOFOI.— Liburuen azkenean ageri den oharpena, inprimategia, inprimalekua eta inprimatze-data, edota horietako daturen bat azaltzen duena.
- KOMUNZTADURA.— Argitalpen bateko hitz guztien aurkibide alfabetikoa, argitalpenean ageri diren tokien erreferentzia adierazia duena.
- KONTRAPROBA.— Inprimatu berria den proba bat inprimatuz lortutako beste proba bat, irudia matrizean ageri den bezala erreproduzitzen duena.
- KOORDENATUAK.— Toki baten longitude eta latitude astronomiko edo geodesikoak.

KOPIA.— 1. Jatorrizkoa zehatz-mehatz erreproduzitu nahian egiten den lana. 2. Idazle edo artista jakin batzuen estiloa edo lanak imitatuz egindako lan hala-moduzkoa.

KOPIA FOTOMEKANIKO.— Jatorrizko irudi baten erreproduzio tintazkoa, prozedura fotografikoak erabiliz prestatutako eta egindako inprimatze-xafla baten bidez egindakoa.

KOPIATZAILE.— Eskuizkribu baten idazketa- edo transkripzio-lana egin duen pertsona.

KORONDELAK.— Hari-paperezko folioen marra garden eta bertikalak. Korondelen artean puntzioien artean baino tarte handiagoa izaten da.

KORPORAZIO.— Lan baten idazketaren edo argitalpenaren erantzukizuna duen pertsona juridikoa.

KORU-LIBURU.— Koru-liburua zabalik dela, ahotsen atal ezberdinak zein bere aldetik ondoz ondoko bi orrialdetan jarriak daude.

KORU-PARTITURA.— Ahots eta instrumentuetarako lanetan, koruko ahotsei, instrumentu-akonpainamendurik gabe, dagokiena jasotzen duen notazio musikala.

KRIPTONIMO.— Egile baten izenaren hasierako letrekin osatutako izena.

KROMOLITOGRAFIA.— Hainbat harri litografiko erabiliz koloretako grabatuak egiteko teknika.

KUADRAFONIA.— Soinuak grabatzeko, igortzeko eta hartzeko teknika, lau kanal eta bozgorailu leku ezberdinetan jarririk, soinu-espazioaren sentipena eragiten duena.

KUATERNO.— Folioko lau pleguk bata bestearen barruan sartuta eratzen duten multzoa.

KUTXA.— Erabili material lotuak edo lotu gabeak dituzten kutxetarako edo faszikuluen ontzietarako.

LABURPEN.— Lan luzeago baten testuaren azalpen laburtua.

LAGUNTZAILE.— 1. Egilekide. 2. Lan baten eduki intelektual edo artistikoaren erantzukizuna beste egile batekin edo batzuekin batera duen pertsona, beti ere, erantzule nagusia ez dena, baldin eta halakorik bada. 3. Argitaldarien erantzukizuna duten argitalpenetako lan baten edo batzuen egile izan den pertsona.

LAMINA (Material grafikoa).— 1. Lan grafiko baten kopia, prozedura mekanikoen bidez egina. 2. Estampa baten metalezko matrizea.

LAN ANONIMO.— Egile ezezaguna duena.

LAN OSATUGABE.— Osorik argitaratu ez den lana.

LAN-TALDE.— Artista baten laguntzaileen taldea.

LANKIDE.— Ik. Egilekide eta Laguntzaile.

LARRUZKO AZAL.— Larruz azaleztatua.

LARRUZKO AZAL ESPAINIAR.— Larru leundua eta jaspeztatua duena. Jaspeztatua kolore bikoia denean, pasta valentziarra esaten zaio.

LEGE-GORDAILU.— 1. Herrialde batzuetan dagoen betebeharra, ale-kopuru jakin bat estatuari ematekoa. 2. Argitalpenean azaltzen den zeinua, eskakizun hori bete dela adierazten duena.

LEGEZKO GORDAILU.— Ik. Lege-gordailu.

LEHORREKO ESTANPAZIO.— Ik. Gofratu.

LEIHO-FITXA.— Nazioarteko neurriko fitxa, gehienetan, 89 × 100 mm-koa, lehen begiratu batean irakurtzeko moduko testuaz eta goi-ezkerreko ertzean kokatutako filmina batez osatutakoa.

LEIHO-TXARTEL.— Ik. Leiho-fitxa.

LETRA NAGUSI.— Kapituluaren hasieran edota argitalpenen atal garrantzitsuen hasieran azaltzen den letra larria.

LIBRETO.— Antzerki-lan musikalen atal literarioa.

LIBURU.— Gauzakiari dagokionez, liburuak dira eskuz idatzitako edo inprimatutako orri-multzoa, edozein gairi buruzkoa eta alde batetik josia. Berrogeita hamar orrialde baino gutxiago badu liburuxka esaten zaio.

LIBURU BAKAR.— Liburu inprimatu baten ediziotik gorde den ale bakarra.

LIBURU BEREZI.— Botaldi murrizta izan duelako, zaharra delako edota beste edozein gorabeherarengatik liburu inprimatu baten ediziotik gorde diren ale bakanetakoa.

LIBURU BITXI.— Edukiarekin edo antzinasunarekin zerikusirik ez duen ezaugarri batengatik balio berezia duen liburua.

LIBURU EBAKIGABE.— Moztu gabe dagoen liburua.

LIBURU XILOGRAFIKO.— Zurezko xafla grabatuak erabiliz inprimatutakoa.

LIBURU-ERTZ.— Liburuen tapak moztuta dauden aldea, bizkarra alde batera utzita.

LIBURUKI.— Azal bakarrean bildutako lana, lan zatia edo lan-multzoa.

LIBURUXKA.— Orrialde gutxiko inprimakia, betiere argitalpen seriatua ez dena. Oro har liburuxkatzat jotzen da honako hauek batera betetzen dituenak: argitalpen bateratua izatea, liburu baten zati ez izatea, eta lau orrialde baino gehiago eta berrogeita hamar baino gutxiago izatea (743/1996 Dekretua, 3. artikulua).

- LINOGRABATU.— Erliebezko grabatuko teknika, matrizeetarako linoliozko xaflak erabiltzen dituena.
- LITOGRAFIA.— Grabatu lauzko teknika, koipearen eta uraren arteko aldarapenean oinarritutakoa. Kareharrizko matrizeak erabiltzen dira, matrizeotan arkatx koipetsuz (arkatzezko litografia) edo tinta koipetsuz bustitako lumaz nahiz pintzelez (lumazko edo pintzelezko litografia) marrazkiak eginez.
- LITOGRAFO.— 1. Harri edo zink gainean litografiak marrazten dituen artista. 2. Teknika litografikoa erabiliz inprimatzen duen pertsona.
- MAGNETOFONO-ZINTA.— Gai magnetiko batez, gehienetan burdin-oxidoz, estalitako zinta, soinua bulkada elektrikoaren bidez grabatzen eta erreproduzitzen duena. Zinta irekia ere esaten zaio.
- MAPA.— Lurrazalaren edo zeruko zeinahi gorputz osoen edo zati batzuen irudikapen laua, sinplifikatua eta konbentzionala, eskala deituriko proportziozko antzekotasun-erlazio baten arabera egina.
- MARKA (Material grafikoa).— Estampa baten egileak izenpe gisa erabiltzen duen zeinu bereizgarria. Ik. g. Irudizko sinadura.
- MARKA TIPOGRAFIKO.— Ik. Irarkola-ikur.
- MARRA.— Apaingarri gisa edo testua eta oharrak bereizteko edota beste zernahitarako erabiltzen den zerrenda mehea.
- MARRAZKI.— Adierazpen grafikoa; artistak gainazal baten gainean, oro har paperean, eta batik bat arkatzez edo lumaz egindako marren bidez moldatutako irudia.
- MARRAZKI TEKNIKO.— Ingeniariek eta arkitektoek egiten duten marrazki-mota, informazio espezifikoa bat modu grafikoan adierazten duena.
- MATRIZE.— Geroago erreproduzitu den irudia moldatzeko euskarria.
- MENPEKO IZENBURU.— Gehigarri baten edo atal baten izenburu nagusiaren zatia, gehigarriari edo atalari berariaz dagokiona eta identifikatzeko izenburu komunaren beharra duena.
- MENU.— Ordenagailuko fitxategi batean dauden aukera erabilgarri guztien zerrenda.
- MEZZOTINTA.— Ik. Kedar-grabatu.
- MIKROFILM.— Film-zerrenda, oro har testu inprimatu nahiz eskuz idatzitako baten mikroirudiak dituen sekuentzia linealean antolatuta.
- MIKROFITXA.— Film-xafla laua, testu inprimatu nahiz eskuz idatzitako batetik hartutako mikroirudiak dituen. Irudiok neurri berekoak dira eta horizontalean eta bertikalean jarrita egoten

- dira. Goiburuan, lehen begiratu batean irakurtzeko moduan, kopiatutako testua identifikatzeko beharrezko diren datuak inprimatuta izaten ditu batzuetan.
- MIKROFORMA.— Mikroirudiak dituen edozein euskarri garden nahiz opaku adierazteko termino orokorra.
- MIKROFORMATU.— Ik. Mikroforma.
- MIKROILDO.— Ik. Ildo.
- MIKROKODE.— Ordenagailuko txip batean modu iraunkorrean biltegitutako programa.
- MIKROOPAKU.— Paperezko, kartoi mehezko edo gardena ez den zeinahi material, testu inprimatu nahiz eskuz idatzitako baten mikroirudiak dituena. Irudiok neurri berekoak dira eta horizontalean eta bertikalean jarrita egoten dira. Goiburuan, lehen begiratu batean irakurtzeko moduan, kopiatutako testua identifikatzeko beharrezko diren datuak inprimatuta izaten ditu batzuetan.
- MINIATURA.— 1. Neurri txikiko pintura. 2. Kolorezko apaingarriak edo ilustrazioak, batik bat eskuizkribuetakoak.
- MOKOR (Material grafikoa).— Zurezko matrizeei eman ohi zaien izena.
- MONOFONIA.— Soinuak grabatzeko, erreproduzitzeko, hartzeko eta igortzeko sistema kanal bakarrekoa.
- MONOGRAFIA.— 1. Zientzia-atal edo gai jakin baten inguruko azterlan berezia. 2. Seriatua ez den argitalpena, alegia, liburuki bakarrean edota liburuki-kopuru mugatu batean testu oso bat edota ilustrazioak dituena.
- MONOGRAMA.— Artistak bere lanak izenpetzeko erabiltzen duen letra-konbinazioa, oro har, izenaren inizialekin osatutakoa.
- MONOTIPO.— Tintaz egindako irudia duen gainazal batean paper bat zanpatuz lortzen den erreproduktzio bakarra.
- MUSIKA-EGOKITZAPEN.— Jatorrizko musika-lan bat aldatzen duen lana (adibidez, transkripzio libre bat), edo egile baten zenbait lanen zatiak nahiz estilo orokorra parafraseatzen duena, edota, besterik gabe, beste musika-lan batean oinarritzen dena. Ik. g. Musika-moldaketa.
- MUSIKA INPRIMATUAREN FORMATU.— Katalogatu beharreko dokumentuaren moldea (partitura, zatiak etab.).
- MUSIKA-MOLDAKETA.— 1. Musika-lan osoa nahiz zatia, jatorrizkoarena ez bezalako interpretatzeko modurako egina. 2. Musika-lan baten bertsio sinplifikatua, jatorrizkoaren interpretatzeko modurako egina. Ik. g. Musika-egokitzapen.
- MUSIKA-TRANSKRIPZIO.— Ik. Musika-egokitzapen eta Musika-moldaketa.

- NOTAZIO.— Lan bati sistema baten barruan dagokion sailkapena adierazten duen zeinua.
- OFFSET.— Litografiak arrabolezko errotatibaren bidez erreproduzitzeko sistema.
- OHAR.— Testutik kanpo, oinean, ertzean edo amaieran jartzen den abisua, azalpena, iruzkina edo informazioa, testuan dagokion tokian bidaltze-marka duela.
- OIHALEZKO AZAL.— Azalak oihalezko estalkia du.
- OPUS (Musika).— Musika-lana, -pieza edo -konposizioa. Musikagileak edo argitaratzaileak opusei zenbakiak jartzen dizkiete konposizioa identifikatzeko eta musikagilearen bilakaera artistikoan duen tokia adierazteko.
- ORDENAGAILUKO DISKO OPTIKO.— Malgua ez den diskoa, eramangarria eta teknologia laserraren bidezko datuen biltegitarte optikoa (ez magnetikoa) duena.
- ORDENAGAILUKO FITXATEGI.— Ordenagailu baten bidez kodetutako informazio-multzoa.
- ORKESTRAZIO.— Eremu klasikoan, jatorriz instrumentu bakarrerako edota talde txiki baterako idatzita dagoen lan bat orkestrarako egokitzea.
- ORRI.— Plegua eratzeko papera tolestu ondoren ateratzen diren zati berdinetako bakoitza, zenbakidunak nahiz zenbakirik gabeak.
- ORRI SOLTE.— Bost orri baino gutxiago duen edozein inprimaki.
- ORRI-BARREN.— Orrialde baten beheko aldea.
- ORRI-ERLAITZ.— Liburu baten edukiaren atalak aurkitzeko, orrien ertzetan jartzen diren markagailu finkoak.
- ORRI-ERTZ.— Liburu bat azaleztatzeko, orriak moztu ondoren, orrion muturrek eratzen duten azalera.
- ORRIALDE.— Orri baten alderdietako bakoitza, baldin eta biak zenbakidunak badira edota, zenbakirik ez dutelarik, bi aldeetatik inprimatuta badaude.
- ORRIALDEKATZE.— 1. Liburuaren orriei zenbakiak jartzea. 2. Liburuaren orri zenbakidunen seriea.
- ORRIBURU.— 1. Orrialdeen goialdeko apaingarria. 2. Dokumentuen lehenengo testu-orrialdearen goiko aldea, izenburua azaltzen den tokia. Batik bat egunkarietan eta azalik edo ataririk ez daukaten argitalpen seriatuetan egoten da. Halakoetan, izenburuaren ondoren beste datu batzuk ageri dira, hala nola, zenbakia, salneurria, aldizkakotasuna eta argitalpenaren erantzukizuna duen korporazioaren izena. 3. (Musika inprimatua) Lehenengo orrialdearen goiko aldea; bertan ageri ohi dira izenburua, musikagilearen izena, egile literarioarena etab.
- ORRIRUDI.— Ik. Lamina.

ORTOFOTOGRAFIA.— Gainazal topografiko baten aireko argazkia, perspektiba fotografikoari dagozkion deformazioak zuzenduta dituen eta kartografia arrunta ordezkatzeko erabiltzen dena.

ORTOFOTOMAPA.— Ortofotografiak batuz eratutako fotomapa.

OSAGABE.— Lana osatzen duten liburukietakoren bat falta duelako osatugabe dagoen alea.

PALINPESTO.— Pergaminozko eskuizkribu zaharra, testua ezabatzeko eta berriro bertan idazteko karraskatu egin delarik, lehenbiziko testuaren arrastoak dituen.

PAPER GAZITU.— Hasierako argazki-papera. Paper-mota honetan gai fotosentikorrek ez dira, geroagoko argazki-paperetan bezala, paper gainean emultsionatzen, baizik eta paper-zuntzetan zuzenean sartzen. 1840 eta 1860 urteen bitartean egon zen indarrean.

PAPER-SORTA.— Gai baten inguruko paper-multzoa, batuta eta gehienetan lotuta gordetzen direnak.

PARAFRASI.— Aurretik eginda dagoen musika-lan baten apaindura edo garapena, eskema finkorik gabe egindakoa. Fantasiaren antzekoa da.

PAREKO IZENBURU.— Beste hizkuntza edota idazkera baten emandako izenburua, izenburu nagusiaren berdintzat edo baliokidetzat emandakoa.

PARTE (Musika).— Talde batentzako musika-lan batean ahots bati edo instrumentu bati dagozkion orri solteetako bakoitza.

PARTICELLA.— Ahotsen eta baxu jarraituaren partitura, gainerako instrumentuak ageri ez direlarik.

PARTITURA.— Musika-lan bateko ahotsei eta/edo instrumentuei dagozkien parte guztiak orrialde berean, bata bestearen gainean jasota dituen alea.

PARTITURA LABURTU.— Pentagrama gutxi batzuetara murriztuta dagoen partitura.

PARTITURA TRINKOTU (Musika).— Orkestretarako, bandetarako eta abarretarako musika-lanen notazioa, musika-parte nagusia ematen duena pentagrama gutxi batzuetan (bitik laura bitartean) eta instrumentu sailka banatuta.

PASTA.— Ik. Larruzko azal.

PASTA-AZAL.— Ik. Larruzko azal.

PASTA-AZAL ESPAINIAR.— Ik. Larruzko azal espainiar.

PASTA ESPAINIAR.— Ik. Larruzko azal espainiar.

PASTEL.— Pigmentuz eta gomaz egindako arkatx bigun bat erabiltzen duen pintura-teknika. Iru-dia euskarrian ondo itsats dadin finkatzaile bat erabili beharra du.

PASTICCIO.— Ik. Pastiche.

PASTICHE.— Konpositore bakarraren nahiz gehiagoren zenbait lanen zatiekin eraturako musika-lana. XVIII. mendean termino honen bidez izendatzen ziren jatorri ezberdinetakoak eta oso ezagunak ziren ariak, letra aldatuta, biltzen zituzten operak.

PERGAMINO.— 1. Aharien edota beste animalia batzuen larrua, gainean idazteko prestatutakoa. 2. Pergaminoz egindako liburu-azala.

PIANOLAKO BIRIBILKI.— Paper zerrenda zulatua, egurrezko zilindro baten inguruan biribilkatua, piano automatikoei egokiturik musika-lanak erreproduzitzen dituena.

PIANORAKO MURRIZKETA.— Hainbat instrumentutarako eginiko lan liriko eta abarren pianorako transkripzioa.

PIANORAKO, BIOLINERAKO... PARTE ZUZENDARIA.— Taldeentzako lanetan, instrumentu bati dagokion parte, hain zuzen ere, instrumentu hori jotzen duenari, gainerako instrumentuetarako sarrerak eta oharrak adierazita dituenek, talde osoa zuzentzeko balio diona.

PINTURA.— 1. Zernahi irudi margotuta duen taula, papera, mihisea etab. 2. Margotutako lana bera.

PISTA.— Soinua erregistratzeko erabiltzen den zinta magnetikoaren zabaleraren zatia edo zatiak.

PLAKA.— Metalezko xafla.

PLAKA AUTOKROMO.— Koloretako argazkiak egiteko lehendabiziko prozesu eraginkorra, Lumière anaiek 1907an asmatu eta patentatutakoa. Beira-xafla horiek koloretako irudi positibo gardena sortzen dute. Koloretako diapositiben benetako aurrekaria dira.

PLANO (Material kartografikoa).— Lur-eremu mugatu baten irudikapen grafikoa. Eremuak mugatua izan behar du Lurraren kurbadura saihestu eta eskala uniforme izan dadin.

PLEGU.— Liburu bat osatzen duten koaderno inprimatuetako bakoitza.

PLEGU-ERDI.— Pergamino edo paperezko plegua, erditik tolestua egonik bi orri eratzen dituen.

PLEGU-HAMABIREN.— Inprimaki bat hamabirena dela esaten da haren neurria hari-paperezko plegu baten hamabirena denean.

PLEGU-HAMASEIREN.— Inprimaki bat hamaseirena dela esaten da haren neurria hari-paperezko plegu baten hamaseirena denean.

PLEGU-HOGEITA HAMABIREN.— Inprimaki bat hogeita hamabirena dela esaten da haren neurria hari-paperezko plegu baten hogeita hamabirena denean.

- PLEGU-HOGEITA LAUREN.— Inprimaki bat hogeita laurena dela esaten da haren neurria hari-paperezko plegu baten hogeita laurena denean.
- PLEGU-LAURDEN.— Inprimaki bat laurdena dela esaten da haren neurria hari-paperezko plegu baten laurdena denean.
- PLEGU-ZORTZIREN.— Inprimaki bat zortzirena dela esaten da haren neurria hari-paperezko plegu baten zortzirena denean.
- PONTE-IZEN.— Abizenaz bestelako pertsona-izena.
- POSTA-TXARTEL.— Kartoi mehea, angeluzuzena, alderdi batean irudia (estampa, argazkia, lamina...) eta beste aldean helbidea edo testua idazteko erabiltzen dena.
- POSTAL.— Ik. Posta-txartel.
- POT-POURRI.— Zenbait musika-lanen zatiak kateatuz eratutako konposizioa.
- PROBA.— Inprimagailuz egindako saiakuntzako alea. Hedaduraz, jatorrizko lan grafiko baten alea.
- PROBA UKITU (Material grafikoa).— Matrizea estanpatzeko orduan artistak zuzenean landutako proba.
- PROFIL (Material kartografikoa).— Goitik beherako plano batek gorputz bat ebakitzean itxurazten den irudia. Ik. g. Sekzio.
- PROGRAMA (Software).— Sistema informatiko batek funtziona dezan eta bere eginkizunak bete ditzan behar diren programa eta errutinen multzoa. Hitz honek sistema eragilea edo oinarritzko softwarea eta helburu jakin bat betetzeko sortutako aplikazio-programak hartzen ditu barne (hardware kontzeptuari kontrajartzen zaio).
- PROGRAMA-FITXATEGI.— Datu-fitxategia, ordenagailuaren eragiketak burutu daitezten beharrezko diren aginduak biltzen dituen.
- PROGRAMAZIO-LENGOAIA.— Programatzaileek ordenagailu-programak idazteko erabiltzen duten lengoaia. Batzuetan, ordenagailuak programa egikaritu ahal izateko bateratu edo bildu, interpretatu edo itzuli egin behar izaten da.
- PROIEKZIO (Material kartografikoa).— Meridiano eta paraleloen edozein antolamendu sistematikoa, esfera edo esferoide baten gainazal kurbatua plano baten gainean irudikatzen duena.
- PUNTA LEHOR.— Altzairuzko orratz batez (punta lehorra) xafla metaliko batean ildoak egitean datzan sakongrabatu-teknika; ildoen bi aldeetan tintari barruan eusten dioten gailur txikiak erazten dira.

PUNTIZOI.— Hari-paperezko folioen marra garden eta horizontalak. Puntizioen artean korondelen artean baino tarte txikiagoa izaten da.

REPROGRAFIA.— Irudiak kontserbatzeko eta erreproduzitzeko teknika guztiak izendatzeko erabiltzen den termino orokorra.

SAIAKUNTZAK (Material grafikoa).— Behin betiko botaldiko irudi berbera izanik, bestelako kolorea, tinta edo papera duen estampa.

SAIL.— Ik. Bilduma.

SAILKAPEN.— 1. Multzo baten hierarkia logiko baten printzipioaren arabeko antolamendua. Liburuak direnean sailkapen bibliografikoa esaten zaio eta dokumentuak direnean sailkapen dokumentala. 2. Sailkatzeko balio duten kodeak. 3. Multzo bateko elementuei kode jakin bateko ikurra jartzea.

SAKELAKO LIBURU.— Neurri txikiko liburua (oro har zortzirena), azal arruntekoa, ohi baino botaldi handiagoetan eta prezio merkeagoan argitaratutakoa.

SAKELAKO PARTITURA.— Ik. Ikasteko partitura.

SAKONEKO GRABATU.— Grabatu-prozedura; irudiak inprimatzeko, matrizeari sakonguneak edo ildoak egitean datzana. Matrizea tintaztatu ondoren gainazal batean zanpatuz lortzen da irudia.

SAKONGRABATU.— Urtintaren antzeko sakoneko prozesu fotomekanikoa. Honetan, prozesu fotografiko baten bidez erretxina-hautsez estalitako kobrezko xafla batera aldatzen da argazki-negatiboa. 1865-70 urteen inguruan asmatu zen eta printzipio horretan oinarritutako prozesu berezi asko egon ziren. Xaflari azidoaren eraso selektiboa eragindakoa, kalitate handiko irudiak sortzen dituen xafla lortzen da. [Sakongrabatu termino orokorra eman izan zaio irudi fotografikoak erreproduzitzeko erabilitako edozein prozesu fotomekanikori, sakoneko erreprodukzio-sistemak izan zein ez. XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran, errotograbatuaren sistema hedatu zenean, termino nahasi hori erreprodukzio fotomekanikoaren baliokide bihurtu zen, izan ere, «sakoneko» sistema funtsezkoa zen prentsa grafikoan irudiak erreproduzitzeko prozesuan].

SALTZEKO EZ DEN LIBURU.— Ik. H. C. (Hors commerce).

SANGINA.— Burdin oxidoz egindako arkatz gorri iluna erabiltzen duen marrazki-teknika.

SARRERA.— 1. Erregistro bibliografikoen goiburuan jasotako hitza edo hitzak; idazpuru direnez, erregistro multzo bat alfabetikoki ordenatzeko erabiltzen dira. 2. Lan baten gaiaren inguruko saiakera edo azterketa orokorra. Testuaren aurrean azaltzen da eta egilea ez den batek idatzita egon daiteke.

SARRERA NAGUSI.— Erregistro bibliografiko baterako aukeratutako lehen idazpuru, erregistro bibliografiko hori erregistro nagusi bihurtzen duena.

SARRERAKO ERREGISTRO.— 1. Zentro bateko dokumentu guztiak segida baten arabera erlacionatuta jasotzen dituen liburuan dokumentu bat erregistratzeko orduan ezartzen zaion zenbakia. 2. Hedaduraz, erregistratzeko erabiltzen den liburua bera.

SASIPARTITURA.— Ahotsak goitik behera parez pare jasotzen ez dituen partitura.

SEKZIO (Material kartografikoa).— Lurralde-eremu baten soslai-irudia edota eremu hori plano batez ebakiz gero sortuko litzakeen irudia, haren barruko egitura edo antolamendua ezagutzera emateko egindakoa.

SEPARATA.— Aldizkari baten artikulua bereiz inprimatutakoa edota lan baten zati bereiz inprimatutakoa, lan nagusiaren moldeak erabiliz egindakoa.

SERIE.— 1. Lan bereizien multzoa, zenbakidunak nahiz zenbakirik gabeak, bakoitzaren izenburuaz gain guztientzat komuna den eta denetan agertzen den izenburu orokorra dutenak. 2. Argitalpen-bilduma baten barruko azpiatala. 3. Ik. Argitalpen seriatu.

SERIEAREN AIPU.—Serie bat eta azpiserie bat edo gehiago identifikatzeko oinarritzko datuak, bai eta seriearen edota azpiseriearen barruan dokumentuak duen hurrenkera adierazten duen zenbakia edo letra ere.

SERIGRAFIA (Material grafikoa).— Grabatzeko teknika, gune batzuk estalita dituen zetazko edo metalezko oihal-pantaila batetik tinta pasaraziz egiten dena.

SEUDONIMO.— Ik. Izenorde.

SIGLA.— Hitz baten hasierako letra, laburtzapen gisa erabiltzen dena. Gaur egunean, hala esaten zaie korporazioen izeneko hitzen hasierako letren multzoari.

SIGNATURA TIPOGRAFIKO.— Letraz, zenbakiz edota bietakoez eratutako zeinua. Lehen, koadernoan lehen erdialdeko orrien aurkian barrenean jartzen zen eta gaur egunean lehenengo orrialdean baino ez. Azaleztatzailearen antolamendurako erabiltzen da. Batzuetan —batez ere aurretikoetan— euli-zangoak, izartxoak eta antzeko zeinuak erabiltzen dira.

SIGNATURA TOPOGRAFIKO.— Letraz, zenbakiz edota bietakoez eratutako zeinua, liburu edo dokumentu batean, bai eta horien erregistro bibliografikoetan ere, jartzen dena, liburutegiko edo artxiboko zein tokitan dagoen adierazteko.

SINOPSI.— Gai baten inguruko azalpen orokorra, alderdi funtsezkoak adierazita egiten dena.

SISTEMA ERAGILE.— Makinaren oinarritzko atazak eta eragiketak kudeatzen dituen programa; besteak beste honako hauek bideratzen dituena: programen sekuentzia, sarrera-irteeren kontrola, erroren kontrola, kontabilitatea, memoria-esleipena eta datu-kudeaketa.

SOINU-BANDA.— Ikusizko dokumentu batekin lotuta dagoelarik dokumentu bereizia eratzen duen soinua. Filmen nazioarteko soinu-bandetan, zaratak, musika, giroko soinua etab. jasota

egoten dira, baina elkarrizketak eta iruzkinak ez dira jasotzen beste hizkuntza batzuetara bikoiztu ahal izateko.

SORTA.— Ik. Bilduma.

SORTZAILE (Material grafikoa).— Grabatu batean kopiatutako jatorrizko lanaren egilea. Lanaren egilearen izenarekin batera honako hitz hauek azaldu ohi dira: «invenit» (inv.), «pinxit» (pinx.), «figuravit» eta abar.

SPARTITINO.— Instrumentu-talde homogeenak bakarrik biltzen dituen partitura.

SUMARIO.— 1. Lan batzuen hasieran lanaren edukia laburbilduta azaltzeko jartzen den paragrafoa. 2. Aldizkako argitalpenen faszikulu bakoitzaren aurkibidea. 3. Ik. Aurkibide orokor.

TABLATURA.— Musika-notazio bat, hitzak, zenbakiak edo sinbolo grafikoa erabiltzen dituen atzamarrak instrumentuan non kokatu behar diren azaltzeko edota noten izenak adierazteko.

TAILU (Material grafikoa).— Metalezko, zurezko edo harrizko xafla bat, tinta jasotzeko edota, aitzitik, tintaztatu gabeko guneak sortzeko ebakidurak eginda dituen. Grabatu baten tailuen multzoari ere tailu esaten zaio.

TAILU LEUN (Material grafikoa).— XVII. mendetik XIX.era bitartean grabatu kalkografikoaren sinonimoa zen. Geroztik, gubilezko grabatua izendatzeko erabili da.

TAKO.— Ik. Mokor.

TAPA.— Liburuaren azala osatzen duten bi gainazal lau etako bakoitza.

TARTEKO.— Inprimaki baten barruan tartekatzen diren orri solteak, iragarkiak izan ohi dira.

TEKNIKA MISTO (Material grafikoa).— Grabatu-teknika bat baino gehiago erabiltzen duen prozedura.

TERNO.— Folioko hiru plegu inprimatutako bata bestearen barruan sartuta eratzen duten multzoa.

TESTU.— Argitalpenen edukia da, ataria, aurretikoak, aurkibidea eta gehigarriak kenduta.

TESTUGUNE.— Orrialde bete batean testuak hartzen duen eremua.

TINA-PAPER.— Moldea erabiliz, pleguz plegu egindako harizko papera.

TITULUAK (Filmak).— Film baten hasierako fotogramak, filma identifikatzeko datuak azaltzen dituztenak.

TOMO.— Lan baten zati garrantzitsua, bere ataria duena eta eskuarki orrialdekatze independentea duena.

TONALITATE (Musika).— Musika-konposizio baten oinarri den soinu-sistema.

TRAILER.— Ik. Aurrerakin.

